E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la lengua Vasca
Travaux et actes de l'Academie de la Langue Basque

Zuzendaritzaren buru: Fr. Luis Villasante

Euskera XXIX (2. aldia)
(1984,1)
29
BILBO

EUSKALTZAINDIA

Arbieto, 3 - 48008 Bilbo

Maketazio eta orrazketak: R. B.
Fotokonposaketa: Rali

Elkar, E. Koop. grafikagintza
Autonomía, 71 - 48012 Bilbo

©Euskaltzaindia
Ribera, 6 - 48005 Bilbo

ISSN. **Euskera** 0210-1564

ISBN. 85479

Dep. Leg.: BI 365-84

EUSKAL LORA JOKOEN LEHEN MENDEURRENA (1883-1983)

Markina, 1983-IX-25

PEDRO JUAN CRUZ DE RENTERIAREN "CRISTINAUAC BIARRECO DABEN DOCTRINEA"Z

Markina, 1983-IX-25

Xabier Altzibar

Juan Cruz de Renteria ez da idazle ezaguna gure artean, oso zaharra ez hogeita hamar den arren. Orain 30 bat urte, Ruiz de Larrinagak, Aita J. A. Uriartek Luis Luciano Bonaparte printzeari idatzitako eskutitzak argitara eman zituenean izan genuen, beharbada, gure idazleaz lehenengo aipamena. Ordurako Bizkaiko Diputazioko Bonaparteren bilduman zegokeen, baina Ruiz de Larrinaga berak ere ez zuen ezagutu ahal izan.

C. González Echegaray jaunak, Bizkaiko Diputazioko eskuizkribuen katalogoan, eta orain 10 bat urte egin zuen Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioetako liburutegietan gordetzen diren Bonaparte bildumako eskuizkribuen katalogoan hauxe dio:

> 297. JUAN CRUZ DE RENTERIA: Cristiñauac biarreco daben doctriñea, berac egunero eguin biar dituen lanac... Catecismo en dialecto vizcaino, subdialecto de Plencia. Al final hay una nota que dice: Con sumisión a la Censura Ecca, es propiedad de Juan Cruz de Rentería.
> 50 fol, 22 cm.
> Rust.
> Proc.: BDV m/s Bv-40.

Eta beheraxeago:

> Existe una aparente contradicción entre los caracteres externos de este manuscrito (letra, papel y tinta parecen de fines del S. XVIII como indica en su catálogo J. Bilbao) y por otro lado la alusión arriba transcrita del P. Uriarte en 1867. La explicación puede ser que el D. Juan Cruz de Rentería fuese ya muy anciano en 1867 y el manuscrito lo hubiera escrito en su juventud, por lo que presenta caracteres caligráficos propios del siglo anterior.

Nolanahi ere, Renteriak bere dotrina XVIII. mendeko azken hondarretan edo XIX.eko hasieran idatzi zuelako ustea okerra da, eta ikusi besterik ez dago jaiotze agiria: J. A. Moguel hil zen urte berean, 1804an, jaio zen gure idazlea, eta ene ustez mende erdia iragana zela idatzi zuen.

M-B. Alzolak (BRSBAP 1973) gure idazleak bere obra nola partitu eta berezi zuen azaltzen digu orrialdez orrialde.

Eusko Ikaskuntzaren azken Kongresuan A. Lino Akesolo eta J. M. Etxebarria ere egile honen Sermoe ezezagunez aritu zitzaizkigun.

Eskuizkribua

Nahiko ondo kontserbatzen da, baina zenbait orrialde irakurtzea neketsua da, eta hitz eta letra batzu asmatzea (a/e, b/v, etab.) ez oso erraza eta zalantzazkoa behin baino gehiagotan.

Plentziako Udala argitaratzekotan dabilen liburuan agertuko dira besteak beste, Renteriaren lanak.

Nik, dena dela, makinaz pasatua dut, textoa dagoen dagoenean utziz, eta zalantzazko kasuetan ohartxo batzu orrialdearen pean ezarriz. Eta hor du Euskaltzaindiak Renteriaren obra, Azkue bibliotekan, nahi lukeenak irakur nahiz aztertzeko.

Egilea

Egileaz zer edo zer jakiteko bada aukerarik, eliz artxiboetan behintzat. Maiz agertzen da Gorlizko Ama Sortzez Garbia deitzen den parrokiako paperetan, sarritan haren eskuz idatziak direnak.

Gure idazlea, Plentzia eta inguruetako historiaren lekuko da 40 urtez. Orain nongoa genuen azalduko dugu, hau da, nongo euskara ikasi zuen haur zelarik, noiz jaioa dugun, noiz hila eta non bizia azken 40 urtez.

Ikus dezagun jaiotze agiria. Honela dio:

"Pedro Juan Cruz de Renteria.

En quince de septiembre y año de mil ochocientos y quatro yo In. Vicente Maria de Ybarra Presbitero Beneficiado de estas unidas Yglesias matrices de Santa Maria y San Pedro de Munguia y sus filiales de Larrauri y Meñaca con permiso del cura Parroco de estas dhas Yglesias matrices Bauptice a un niño a quien puse por nombres Pedro Juan Cruz, que segun la jurada declaracion nacio a las siete y media de la noche antecedentes; es hijo lexitimo de Manuel de Renteria, natural de Plencia y Maria Josefa de Landesa natural y vecinos de esta: sus abuelos Paternos Jose de Renteria ya difunto natural de Baquio; y Josefa de Ormaza natural de dha de Plencia, y vecinos que fueron de ella; Maternos José de Landesa y Maria Antonia de Goyri naturales vecinos y feligreses de esta de Munguia; Padrinos Pedro Antonio de Bolibar y Vicenta Ysidora de Bolibar residentes en esta a quienes adverti el Parentesco espiritual y demas obligaciones que contrageron en cuia fe firmé. D. Vicente de Ybarra. Greg.º Manl. de Vergara."

Eta hona hemen heriotze agiria, Gorlizko eliz liburu batetik jasoa:

"Dia treinta y uno de Mayo de mil ocho cientos se[ten]ta y cuatro, se enterró en esta parroquia el Cadaver de D. Juan Cruz Renteria Cura y Beneficiado de ella de edad de setenta años de una muerte repentina por la cual no recibió los Santos Sacramentos y que conste firmé = Dionisio de Undabarrena."

1932.ean azaltzen da Gorlizen Abade eta Benefiziado gisa, eta ordutik aurrera etengabe agertzen zaigu urterik urte Gorlizko eliz liburuetan.

Plentziako *villa* eta Gorlizko elizatearen artean izan zen bai errieta eta istilurik iragan mendeetan. Plentzia itsasora emana zen, arrantzu, gazigitza, merkatalgo (balearen koipe etab.) eta untzigintzara. Baina Konbentzioko gerratean eta batez ere Inglaterrarekin izandakoetan, alde batetik Espainiako Itsas Armadak Plentziako untziak eta untzi gizonak beretako har eta bestetik ingelesek hainbat preso egin zituzten. XIX. mendean Bilboko merkatalgoak ito zuen Plentziako portu txikia.

Gorliz, Renteriaren garaian, batez ere baserri ekonomiatik hornitzen zen, baina ukan zuen aintzineko denboretan, Plentziaren loratzearen ondorioz, untzi eta itsas gizonik (*).

J. C. de Renteriak asko idatzi zuen, bai euskaraz (Dotrina, sermoeak), bai gazteleraz. Garai hartako Gorlizko eliz paper aunitz berak izkiribatuak ditugu. Badu diru kontuen liburuxka bat eskuz idatzia, eta zenbait expediente, auzi paper, informe etab. Horietarik ez gutxi Andra Mari Agirreko ermitaren jabegoa dela ta.

1832.urtean, Gorlizko elizan agertu bezain laster, bere eta bere apaizkideen egoera ekonomikoaz jabetu nahi du. Horretarako, lehenik, J. Olagibelen etxean zeuden elizako liburuak bildu eta inbentario bat egiten du (**).

1833.ean *Real Nobeno* delakoa ez pagatzea eskatzen dute eta erdiesten.

1842.ean Gorlizko abadeek kexatzen dira, kongrua 12.700 errealetara jasoaz, Diputazioaren baiespenaz. Eliztarrek diote baserri emaitzak 1833.etik beheratuz joan zirela eta kopuru hori 77 kontribuzio-emailerentzat gehiegitxo zela. Bestalde *Plan Beneficial* deitzen zeneko dirua ere Udalak soberaxkotzat jotzen du. Abadeok 2.200 erreal eskatzen Elizaren Fabrikarako, eta 1852.etik aurrerantzerako 2.000 jaristen. Eliz Kabildua, ordea, kexu.

Eliztarrek, mende erditsuan, 10-12 bat anega gari eta 24 bat anega arto pagatzen zioten, txakolinaz aparte, hiru apaizek osatzen zuten kabilduari. Gorlizko Udalak, 1854-59 bitartean behintzat, 3.500 errealna pagatzen zien.

(*) Ikus datuak. *Estudios Socio-Económicos Comarcales. Plencia-Munguía.* Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Bilbao.

(**) *Inventario de escrituras de censos, libros parroquiales y de algunos otros papeles que por sus números se notan.*

Bestalde, Renteria Kabilduko diru biltzaile izan zitzaigun 1845-50 bitartean bederen.

Renteriak bere eskuz idatzitako 1857. eta 1863.eko informeek datu garrantzitsu mordo bat ematen digute. 1857. ekotik aldatuta hona hemen:

"Contestación del Cavildo Ecco. de Gorliz al interrogatorio de la Ilma. Diputación o Comisión del arreglo parroquial de Vizcaya.

1. Gorliz: Concepcion (parrokiaren izena), novecientas (jendetza).

2. Dispersa en todo.

3. Tiene quatro varriadas dispersas; la primera llamada elexalde en el centro de la parroquia con trescientas almas de radio de media hora; segunda llamada Uresaranza al norte de la parroquia, y distinta (sic) de esta unos veinte minutos, con siete caserios distantes entre sí, y del centro de esta varriada media hora, con dos cientas cinquenta almas; tercera Sarachaga al Sur de la parroquia y distante de esta media hora con caserios dispersos entre sí, y tres cientas almas; quarta llamada Gandias al mediodia de la parroquia, y distante de esta tres quartos de hora con caserios entre si dispersos, con ciento cinquenta almas.

4. Tiene quincé casas llamadas Axeo, Arteagana bieja y nueba, Barriaguena, Beuzu, Sarachaga arriba, y baja, Yturriaga, Chacharro; Landaida nueba y bieja, Chapela, bustinza goyco y becoa, y Matiartu, de Jurisdiccion temporal de Plencia, y espiritual de Gorliz.

6. Unica Hermita N. S. de Aguirre á donde el Pueblo acostumbra ir en procesiones, la que haviendo sido demolida en la ultima guerra, fue erigida de los cimientos por esta Feligresia, y subscriciones voluntarias.

7. La Supra dicha ermita es libre de patronato, la parroquia es de patronato Real, que antes pertenecia al Marques de Camarena, solo con Jus presentandi, pues su Yglesia fue edificada por el pueblo y feligresia.

8. Tres Titulos: con tres mil quinientos rr^{s} de dotacion, presentaba el citado Marques. Se hallaban dos Servidos por propietarios y uno con Servidor provisto el año quarenta y seis.

9. Dos Capellanias colativas fundadas por d^{n} Juan Baup^{ta} de Arteaga, y por d^{n} Jacinto de Artaza de patronatos particulares... Etab.

Gorliz Mayo 20 de 1857.

Los curas beneficiados = Renteria = Sarachaga".

1850. urte inguruan Gorlizko Kabilduak auzitara jo zuen Gandias auzo ondoan dagoen Andra Mari ermitaren jabego osoa nahi bait zuen. Zein zen funtsezko interesa? Gandias eta Saratxagako baserritarrei zerga bereziak eta elizatik aparteko hamarrenak, eliz zerbitzuen ordain (mezak, hiletak), Gorlizko apaizek berentzat bakarrik nahi zituztela, Plentziakoekin partekatu gabe.

Aipatu argudioak: ermitako liburuak Gorlizko elizan zeudela, Apezpikuaren bisitak, eta ermitaren berreraikuntzan (karlisten gerrateetan puntu estrategikoa) Plentziarren parterik hartze eza. Dena dela istilu hauek aspalditik zetozen 1769.ean auzi bat ukan zuten, non Plentziako Kabilduak irabazi bait zuen. Baina Saratxaga eta Renteriak ez zioten epaiari amore ematen eta gainera 1850.ean ermitako atean dekreto bat ezarri zuten Plentziako apaizei ermitako sarrera debekatuz. 1851.eko epaiak Plentziako Eliz Kabilduari eskubidea berronartzen dio Sakramentu eta mezak emateko eta gorpuak lurperatzeko Andra Marin.

Errekurtsoak direla bide, auziak luze doaz eta laugarren aldiz ematen da epaia, berriz ere Gorlizkoen kontra. Zenon Diez probisoreak gure idazleari idazten dizkion eskutitzek aditzen ematen dutenez, hau artega, arminduta, garraztuta eta abokatu eta probisoreaganako konfiantza funts gabekoaz ageri zaigu. Auzilariok, ordea, gastuen kontu zehatza puntualki bidaltzeaz aski zuten. Baina apaizak ere bekatutik ez aske eta gureak honako hau idazten dio Cenon Dies-i, 1852.eko Ekainaren 20an, Gorliztik:

"Se quisiera poner algun influxo para el tiempo del fallo, asi como el Cavildo contrario lo ha puesto..."

1853.ean Renteria eta Saratxaga alde batetik, eta Plentziako Kabilduko Gabriel Jacinto de Cucullu eta Juan Fernando Ageo bestetik, akordio haueta-ra iristen dira:

1. Plentziako Kabilduak bere funtzioak bete ditzake ordura arte bezala.

2. Kanpotikako eliztarrekin Gorlizek izango du soilik eskubide.

3. Plentziako Kabilduak meza diakonatu bakoitzeko 2 erreal eta gorpu bat sartuko zen bakoitzean 4 erreal ordaindu beharko zituen. Bestalde, administrazio osoa Gorlizko Kabilduak zuzenduko zuen.

1851.ean Renteriak elizako meza perpetual eta urtemugakoen murrizketa eskatzen du. Karlista gerrate denborako zenbait elizkizun ordaindu gabe zeudela ta. Epaia: mezakoa 8 erreal kobra zezatela.

Baina apaiz *ekonomilari* honek bere zerbitzuak ere eskaini zizkien Gorlizko nekazariei, eta euskaraz. Eta honengatik, bera eta batez ere haren obra gero eta hobeto ezagutu ahala, aspaldiko auzilaria bera ezarriko dute auzitan euskal historigile eta filologoek.

Eskuizkribuaren edukina

Cristiñauac biarreco daben doctriñea, berac egunero eguin biar dituen lanac, eta beste asuntu eder eta gaurco egunean eusqueldun artean biarrecoac, iminten dire Sey Tratadu edo Satiten.

(1.orr) *Lelengo partea Credoa, Fedeco articulu, Aytagure, Avemari Salve, Jaungoicoaren amar mandamentu, Ni pecatari, eta Neure Jesucristo Jaune imico dire asteteac diñoan moduen.*

(26.orr) *Bigarren partea, ceiñetan iminten diran maravillosa dirian eguiec.*

(30.orr) *irugarren partea, ceiñetan eracusten dan guisonan vioceco Sentimentuec eguie Jaquiteco deuquen egarrie, eta eguie bacarric aurquitu divinidadesco Fedeagas, Cein den biarrecoa guisona Zalvetaco, humanidadeco Fedea guisona munduen viciteco biarrecoa dan legues.*

(37.orr) *Laugarren partea, ceiñetan eracusten dan guisonan espirituec necesidades villetuten daben erlegiño eguiascoa, Jaungoicoa ganic etorricoa dala.*

(43.orr) *Bost garren partea, Ceiñetan iminten dirian pasiño baco errazoyac ondo pensau biar dituen eguiec.*

(47.orr) *Seigarren partea, Ceiñetan eracusten dan es Siñistute, edo incredulidadean etorpide, eta errazoi baguea.*

PLENTZIAKO EUSKARA

A. Uriarteren gutun bilduma zinez interesgarrian Plentziako euskararen berri ematen da. Pasarte horiek kopiatuko ditugu:

- 185. 1866-6-23. Bermeotik: "He puesto también la doctrina en bascuence literario de Marquina, y me ocupo en el de Arrigorriaga; para el de Plencia tendré que pasar a esta villa".

- 188. 1866-8-31. Bermeotik: "Luego enviaré los 3 Catecismos: el literario de Marq., el de Plencia y el de Arrigorriaga. El distinguir al de Plencia del de Arratia me va costando mucho. Supongo que los de Arrigorriaga y Plencia se escribirán con la ortografía usual y no con la vulgar".

- 189. 1866-11-15. Bermeotik. Uriartek, bere dotrinaz dihardu, zeren eta berak ere dotrina bat idatzi bait zuen Plentziako euskaran.

  "No tenian eufonias, pero tienen la e despues de la i, y también de la u. A pesar de eso, hacen más uso de la a que en Arratia, por tener Plencia bastante cerca a Bermeo, y ser bastante buenos hablistas. En Plencia se va perdiendo mucho el vascuence, pues la juventud, casi toda, habla el castellano".

- 190. 1866-12-22. Bermeotik: "yo he querido dar lugar y colocar en la cartilla-Catecismo de Plencia los términos particulares de alli, como Equidan por Yatan, Eiden por Eustan, Due por Dogu y algunos

otros; pero no me han venido en la traducción. Plencia ha mudado mucho su bascuence: se ha aumentado mucho su comercio con el país bascongado y aún fuera; andan a menudo por fuera desde jóvenes y así hacen mezclas del bascuence; hace rato que casi la totalidad del pueblo habla castellano y muchísimos ni entienden el bascuence. A pesar de esto, la gente de bastante edad conserva y habla el bascuence y con las locuciones de que hace mención el Padre Zabala; por cuyo motivo S. A. puede hacer en el Catecismo de Plencia todas cuantas enmiendas y variaciones guste.

Yo tengo un manuscrito, que tiene 50 hojas y que contiene el Catecismo, modo decir misa, Viacrucis, rosario y otras cosas en bascuence de Plencia. Es de D. Juan Cruz de Renteria, Cura de Gorliz que dista un carto de hora de Plencia, único escritor de aquella comarca. Si Vd. quiere le enviaré. En Plencia se predica en bascuence de Marquina por Astarloa, o el P. Fr. Bartolomé; todos los curas son forasteros". Hala ere, geroago ikusiko dugunez, Renteriak ez du eredu horretan idazten ez peredikatzen.

— 191. 1867-1-5. Bermeotik: "He recibido su grata... fecha 26 del mes próximo pasado, en vista de cuyo contenido adjunto remito a S. A. el Catecismo y demás de D. Juan Cruz de Renteria, Cura de Gorliz... cuyo bascuence es identico al de Plencia.

D. Juan Cruz trató de imprimir su Doctrina hace unos 5 años; al P. Estarta y a mi nos comisionaron para examinarlo y no lo aprobamos por el mal bascuence..."

Uriartek, azken aurreko gutunean aipatu duena gogoratuz, ekidan/eiden Plentzialdeko formez Juan Mateo Zabalaren *El Verbo Regular Bascongado del Dialecto Vizcaino* liburuak (56.orr) hauxe dakar Plentziako euskarari buruz:

"En Plencia, Guecho y pueblos comarcanos usan como de artículos regulares y ordinarios para el pretérito remoto de indicativo de leguian, cenguian, nenguian, etc. (de la columna n.º 14 que son los regulares del pretér. imperfecto de subjuntivo) ciñendo el uso del evan, cenduan, nevan o nendun de la 2.ª a la formación del pretérito imperfecto. El mismo uso del leguian, nenguian... hacen en Llodio, Orozco, Barambio... aunque sin excluir el evan, nevan... y podemos decir que en todo Vizcaya se practica poco o mucho esto mismo. He aquí la clase de conjugación que usó Mr. Lizarraga en su traducción del Nuevo Testamento, de la que han hecho misterio el P. Larramendi, prólo. al Dicc. pg. XXXIV y Mr. Lecluse, Man. 3 y 10.

Azkueren eskuz idatzitako nota eta zirriborro batzuetan *(Azkue Biblioteka)* agertzen denez, Barrikako Gregoria Libaronari esaldi hau jaso zion: 'Baki, jauna, Uk (urliak?) zer esa eguidan. Sabe Vd. qué me dijo'.

Honakorik, dena dela, ez da agertzen Renteriaren obra honetan. Baina bai *equion,* bi aldiz: "Cer jaso equio Jesuceri" "Cer jason equion".

Azkuek, Juan Agirre, Maruriko abadeari aditz forma hauek jaso zizkion: ni yoan nekion, nekizun, nekizuen, nekien; ekiden, ekien-ekiñen, ekion, ekigun, ekizun, ekizuen, ekien.

Eta obj. pluralekoak: ekidezan, ekiozan, ekiguzan..., eta hau gehitzen du: "Pero se dicen más etorri d̄akun, d̄akozan, etc."

Beste batetan, bizkaieraren batasunaz ari delarik, hau diosku: "Conservaré las flexiones moribundas il ekion, por d̄akon, ekigun por d̄akun, ekiozan por d̄akozan". Eta hau ere: "*ondatu ekioezan* por *yakezan*" (erabili behar litzatekeela, alegia). 1.º porque aun se usa hacia Barrika, Bakio, Maruri; 2.º por evitar anfibología.... "Ondatu yakezan ondasun guztiak" puede significar todos los bienes que se les han hundido o todos los bienes que se les hundieron."

Morfologian, 647. orrialdean:

3. "Ya antes se dijo que en el Occidente de Vizcaya se oyen estas flexiones remotas sin deformación producida por elemento familiar, y hay autores que nos las presentan así. Micoleta dice *bior ekidan* se me tornó y el mismo Añibarro trae una flexión casi intacta: Jesukristo biztu ezkero *agertuekiela* (por ekioela), que Jesucristo... se les apareció. En Bakio oi la frase *kanpoan il ekiozanak* los que se le murieron fuera."

4. Todas las flexiones de objeto de tercera, bien miradas, son de subjuntivo. Para ser de indicativo les falta la z inicial de *zan.* Me suenan (no sé si por haberlas tal vez oído de mi madre) *il zekion* se le murió, *etorri zekigun* se nos vino.

   "En las mismas localidades en que todavía están en uso, se valen del núcleo de subjuntivo transitivo *gi* en vez del indicat. *u.* En lugar de ekarri genduan 'lo trajimos' dicen ahi *ekarri gengie* (sin la e final por lo menos en Barrika). Los viejos autores labortanos se valen asimismo del núcleo de subjuntivo —za— y los bizkainos, de su correspondiente —gi— en flexiones de indicativo remoto, no en el próximo".

Baina eta Plentzia edo Gorlizko hizkera hilik ez ote da? Dirudienez itsas nabigazio luzeak, herritik kanpo bizitzeak, alegia, galdu zuen aspalditxo Plentzialdeko euskara.

Iñaki Gaminde eta hortik ibili garenok badakigu ondotxo zein zaila den lekuko fidagarri bat aurkitzea. Hor bizi diren euskaldun apurrak inguruetako herrietatik etorriak dituzue.

GRAFIAK ETA FONETIKA

Hemen eta hurrengo puntuetan Renteriaren Dotrina aztertu arren batez ere, Uriarterenarekin ere konparatuko dugu: *Catecismo Bascongado. Dialecto de Vizcaya. Variedad de Plencia*

1. Bokale geminaturik edo bikoitzik ez da agertzen (Camparic –21.orr–, zarra). Uriarte: inoiz bai: *miiñagaz* (24. orr.).

2. Hitz bukaerako eta hitz bitarteko bokalen elkarketa edo eufoniak edo armonizazio bokalikoa, honela gertatzen da:

   a) hitz bukaeran:

      – e + art. a: -ea, -e, -ia. Ex *semea, deunguec, Ceuria.*

      – o + a: -oa, -o. Ex. *misteriosoac, juicio* (el juicio).

      – i + a: -ia, -ie, -i. Ex. *irudie, hosti* consagradue.

      – u + a: -ue, -u. Ex. *galdue, articulue, governu* (el gobierno).

   b) hitz barruan:

      -ea- -ia- Ex. *biarreco*

      -ai- -ei- Ex. *ucein*

   Gaur egun, Uribeko Kostaldean, bokalen elkarketa honetan, lehenak irauten du, luzatuz apur bat, azentuatuz singularrean. Pluralean azentua lekuz aldatzen da. Ex. etzé, étzek.

   Renteriak bukaerak nahiko ondo gordetzen ditu, baina argi ikusten da ordurako hasia zela laburdura.

3. Aurreko bokalea i/u bada, hurrengoa isten da ia sistematikoki: Ex. *guresoac, ycerra.*

   Plentzia aldeko erregela hau ia beti betetzen da eta Renteria eta Uriarterengan ere bai, baina eliz hitzetan:

   Renteriak: *Jaunaganic, cristiñauac, obligauric, Aita gurea, igaroten, gurasoac.*

   Uriartek: *Yauneganic, cristiñauec, obliguеduric, aite gurea, igueroten, guresoac.*

   Hala ere, inoiz Renteriak *lauguerren,* Uriartek *laugarren.*

   Aditz formetan, Rent. logikoki: *deu, deuquen, irecasteco, cein de.*

   Ur.: *dau, gure dau, iracasteco, cein da, amatea.*

   Beraz, Renteria hizkerari fidelago zaio aditz formetan.

4. s/z: teorian bereizten ditu s/z eta ts/tz digramak, baina praktikan ez, hau da, ez daki noiz jarri behar diren bat eta bestea askotan. s/z, ts/tz grafiez idazten diren soinuak, nahiz eta Renteriaren garaian Bizkaian ia erabat galdurik egon, dirudienez Markinaldean ezik, idazle landuek bereizi egiten zituzten (XVII-XVIII.eko durangarrek, Olaetxea, Cardaveraz Markinarrek (salbu Fr. Pedro Astarloa), Añibarro, Zabala, Uriarte... baina ez landugabeek (Iturriaga Ugaokoa Ulibarri eta gure Renteria, kasurako).

   Renteriak s-ren ordez z, c, darabil maiz *(ezan, zartu, dacuz, auci)* eta, alderantziz, z-ren ordez s: *guisona, icenagas, gustis, vistu.* Azken hau normalagoa da, jakina.

   Bestalde, modu sinplez jokatzen du: s eta z bai frikariak bai afrikatuak notatzeko erabiltzen ditu.

   Uriartek, berriz, s/z idazkeran ondo bereizten ditu eta afrikatuak ere bai, ts/tz idatziz.

5. Txitxekariak: [ʃ] edo [š] idazteko zein letra erabiltzen du?

   X *(ellexea, gox, villox)* gehienbat

   S *(cuisidu, murmusiegas, guesoac, nos)*
   Uriarte *(elesseac, maessu, maissu gueissoac, noss)* eta inoiz s *(billosac)*
   Hau da, Uriartek, Cardaveraz eta Mogelek bezala, bikoiztu egiten du s.

   z, c *(amodio icetue, auce, ucela, icil, goz, maezu).* De la Cuadra dugu txetxekari hau idazteko z eta c erabiltzen dituen bakarra (iz, ic). Kasu honetan ere txistukarien arteko bereizketa eza eta liburu argitaratuetako grafien ezezagupena bat datoz.

   i-k diptongoaren bigarren elementua osatzen duenean [*ai, ei, oi*], palataldu egiten du ondoko kontsonantea: *ellexa, gox, cuisiduten.* Honetan, erregulartasun handia dago.

6. [X-] [j-]

   a) izenetan: jaun, Jangoicoa, beti J- j-, baina Plentzian *Iauna, Iangoiko* (?), *Jesus, Jerusalen, judeguec, jaube, jayegunetan, jocoac, jagolea, janarizat, jatecoa, -coagaiti.*

   b) aditzetan: *jayo, -queria; jarri, -ric; jan, jate, -agaiti; jo, jote; -teagaiti, jozaituen; jaso; josi; jarraitu; jausi.*

   Beraz, nagusiki j- baina zalantzatxoak ere badaude:

   jagotea (4aldiz) ≠ *yagoten* (1 aldiz); *jaguiten* (2 aldiz) ≠ *yaguiten.*

   c) Laguntzaileetan (dj-): *jatas, jacan, jaquen*

d) Sintetik.: *joasan* (iban)

Uriartek, berriz, /y/: *yaune, yaquin, yaquintsua, yaubeari, yai...* Añibarrori jarraiki eta Plentzialdeko hizkeratik hurrago.

7. Oso jenerala da V *(vacarric...)*

Badaude zalantzak b/v artean *(zavaldu/zabaldu).*

8. Y grekoa oso arrunta da, bai bokal artean *(baya, coroya),* bai hitz hasieran ere, konts. aurrean *(yl)* nahiz diptongo bat dagoenean: *bay, onay.*

9. rr- epentesi gabe, hitz hasieran: *rrevelauco, rrecivietaco;* n-ren ondoren: *onrrau, deshonrraraco;* R-: *Redemptorea.*

10. h-: *hostien, hortuen.*

11. Dipt. + n + vok: ñ: *baño, oyñec, ceyñec* (ia beti).
i + n + vok: ñ gehienbat: *Cristiñau, siñistu, iños,* gaur ere esaten den modura. Baina, joera hau nagusi izan arren, zalantzak ere badaude: *examiñeu/examineu; virgiñeac/virgina.* Eta inoiz, bustidura gabekoa nagusi gertatzen da: *jaquinic, anchineco,* etab.... Uriarte: -iño.

i + ll + vok.: ll: *yllec, ylluna, ibilli, mille.* i + l (hitz bukaeran): l nagusi. Ikusten denez, Renteriak bere herri hizkeran bezala, palatalizatu egiten du. Uriartek ere bai. Baina bizkaierazko textuetan, ai, ei, oi, ui + n, l kasuan ezik, despalataltzeko joera dago.

12. Renteriak maiz ez ditu aditz nagusi eta laguntzailea bereizten: *eranzutendu.* Eta *ez* agertzen den esaldietan ere ez du bereizten partikula hori aditzetik: estaquianari. Uriarte: ez daquienari. Bizkaierazko testuetan idazle landuek, aditz nagusia eta laguntzailea lehenik, ez eta aditza geroxeago, bereizten ikasiz joan dira. Segur asko, J. A. Mogelen *Confesino ona* eta Fr. Bartolomeren Icasiquizunac moduko liburu argitaratuen eragina kontutan hartzekoa da. Uriarte, jakina, ortografia landuaren baranoan mugitzen da. Renteria ez.

13. Azentu batzu: *edó, vatá, beticó* (36.orr), *atenciñó, irécastéco* (43.orr). Uriartek ez du azenturik ezarten.

Oro har, ortografian koherentzia eta erregulartasun handia dutela esango nuke, bai batak eta bai besteak.

MORFOLOGIA

1. Izenaren morfologia

genit sing.: -en (pecatu *mortalen* beyan, esaten *dagoanen* ondoti...). Ez dira bereizten sing./plur. Hala erabili zuten Cardaverazek (bere teoria-

ren aurka), Olaetxea, Fr. Pedro Astarloa... Uriartek -en darabil beti.
-an (*crucean* ganian)
-aren (*jaubiaren*)

erlatiboa: -ric (*aspiric* urten, *vecoquiric* vulerrera, *oyric* jagui, *cruceric* ereciric, *aric* etorricoda). Uriartek ere bai. Zaharragoen artean: Cardaveraz (-ti ere bai), Olaetxea, Añibarro (*Lora Sorta, Escu-Liburua* 1802), Fr. Pedro Astarloa...

-ti (*echeti* urten, ecer *ecetati*...). Hola erabiltzen da gaur egun ere. Renteriak-tic erabiltzeko joera nabaria du. Uriartek -tic/-ric.

datiboa: -ay (onay) -ai erabiltzen dute Añibarro (*Escu-Librua* 1802, 1821), Fr. Bart. (*Icasiguizunac*), Fr. Pedro Astarloa...
-ey (deunguey) -ei: J. J. Mogel (*Baserr. Echeco Escol.*).

destinat. sing: -anzaco/pl. -ensat (*davenensat*)

instrumentala eta soziatiboa, nahasirik batzutan (cer icengo da nigues, amodioagas visturic...) nahiz eta inoiz zuzen ematen duen ere (ones campoan, ones campoti...). Kasu bi hauek maiz aski nahasten dituzte idazle zaharrek: Cardav., Olaetxea, J. A. Mogel, J. J. Mogel, Uriartek ere.

Renteria zabartxoa ere bada inoiz (gaztelaniaz idazten duenean den legez) ex: *espirituscoa dire, yño quendu ecin leiquezune*, etab.

2. **Aditzaren morfologia**

(Eskuizkribuan agertzen diren zenbait aditz forma eta hitz gaur egunean ere erabiltzen dira. Kontsulta batzu egina naiz eskuizkribuan agertzen diren aditz formez eta hitzez. Lekuko kontsultatuak, honako hauek izan ditut: Mari Sistiaga, Isuskizakoa; J. M. Garaizar eta Bernardin Larrazabal, azken biak Sopela eta Mungian jaioak, Gorlizen bizi direnak.)

A) *Aditz laguntzailea*

NOR: *den/dañac* (el que es); *dire, dirian, garenian* (Uriarte: *dire, direala, gareanean), cen/zala, zan* (Uriartek ere: *zan) ,es , cinian, cirian, dille; leitiquiana; ceitean* (yl ceitean, podia haber m.)/zatequian (eldu zatequian). Hola esaten omen da baita Mungia eta Laukizen ere. Ex: eldu zatiken al ixen baban; *gaitean, deitean* (Uriarte: *gaitezan, dedin*), *bedi, esgeites, leiquian/lei* (Uriarte: *leitequeana*).

NOR-NORI: *jatas, jacan, equion* (lehen aztertua); *zaquidez, leiquion.*

NOR-NORK: *deu, dogucen*; (hark) *deben*, (hark) *ditu/baditus, dituen*; (haiek) *ditues, balitus* (Uriarte: *deuen, davenean/dabenac, dituzanac/dituzenac, dituez*).

(Plentz. dosus/dittusu, Mungian ere).
(hark) *deuen; cenduen,* (hark) *evela/eban*; (haiek) *even/eben.* (hark eta haiek) *cituen.* Uriarte: (hark) *cituzala, cituzen;* (haiek) *cituezan.*
neude (Azk. *Morfol. ...yo neude:* Bakio, Barrika, Begoñan entzuten omen zen). *Zaitu, zaitut, gaituelako; cenduen;* al *neuquesan* (eguin al neuquesan), *neuquian* (nic enzun biar neuquian), *deuquian, euquian* (ecin bada ichi euquian, irecasi ecin euquiana). Gaur egun: ezi euken, ezi neuken.

badei (aurquitu badei ventaja andiaco tratue; ceiñec aurquitu badei): ikus Micol. (euria badagi bere...); *leique* (esan leique) *leiquiana* (ecin leiquiana), *leiquecian* (esan ecin leiquecian loza bagaqueriec), *leye* (Uriartek: *leguie)* (euqui leye), *lei* (emon lei, se puede dar). Hemen, lei, leye iragankor nahiz iragangaitz izan ditezke, eta gaur ere bai.

gaicen (gaur ere hola). *Naguizu. Daguiden/daguidan.* (Uriartek ia beti —gui—: *gaguizen...*

NOR-NORI-NORK: *deust.* Gaur ere Sop., Laukiz... eta obj. sing. eta plur. *Deuscu, deucesu, deucegu, deucen, deucela, deuces, deuzo.* (Uriartek: *deutsezu, deutsanac/deutsenac, deutselaco...* Gaur: dotze, dotzo, dotzut, dostezu... ex: aurek in dotze erregalo (hari), aurek in dotze eureri erregalo batzuk. *Deucet, eucen, eucela, beeucen, eucesan, deuzut, deuzudes/dozut* (2 aldiz), *deustezulako, ceusten, ceunzian* (Gaur, Laukiz inguruan ceuntzean). *Euzun, leiquezune* (yño quendu ecin leiquezune). *eguidezu, eguidezus, daigule, deigucela* (hiru pertsonatako aditz forma zaharren antzera), *eguiguzu, eguizus.*

B) Aditz trinkoa

egon: *vago/bago, gagozanoc, legoque.*
egoki: *dagoquio, dagoquioe, zagoquios, dagoco, jagocan.* (Gaur, galduric). Uriarte: *dagocala, yagoquee.*
esan: *diño,* etab...
etor: *datorquiosan/jatorzu.* (Gaur, biak: datortzu/iatortzu). Uriarte: *yatortzu.*
euki: *deuco, esteuco, deuquiala, esteuquienac, leuquia* (noc leuquia, ¡quién tuviera!). Uriarte: *dauco, dauquenac, dauqueenac.*
erautsi *direuque/dirauque, direuquen, direuco/dirauco.*
irautsi?: (-qu-darabil. Letraz nahastu ote da?)
iraun: *direuen, direu.*
euci: *euci* (e. nire arimea).
erdu: *erdu, erdue.*
ikus: *dacus/dacuz, dacuses.*
jarraiki: *darraiquio.*

eroan: *zaroasan.*
erichi: *derichoen.*
irudi: *dirudi.*
joan: *zoazanian.*

C) *Forma ez pertsonalak*

Infinit./partiz: jaso/jason, adierazon, votarazon; pensa, acorua, condena, solta, paga, manca... kostaldean legez.

Gerundioa: -iten: *emoiten, iceiteco/izaitea.* Bizkai mendebaldekoa. Uriartek ere: emoiten, urteiten.

-ean: *galcean* (alperric galcean deu demporea) (Gaur biak: galtzen/galtzean). Bizk. erdialdekoa. Ez du erabiltzen Uriartek.

-tuten, -tuteco, tutea: *adituten* emon...

-etan, -etea, -etaco: perseguietan, gocetaco, consoletea.

Azken biak oso zabalak Bizkaian. Azkena ageri da nagusi Uriartegan.

Partiz + -(r)ic, -(r)ico (egundo ez -ta): *zarturic, jaquinic, eguiñico, esaneco, nastaurico.* Inoiz partiz. + co: *ostuco.*

Ondorio gisa, aditz formei dagokienez, forma zahar batzu darabiltza (equion, euquian, ceitean, zatequian, badei...) eta aldaki anitz.

LEXIKOA

Renteria, bai literaturan eta bai jendearen ahotan erabiltzen diren hitzez baliatzen da:

Hitzen forma bokal ugari agertzen da: *ucein, gaugueco, ezcomacora, oreinche, viortu, egustena...*

Renteriak ahurkaz dakarzkigu erdal hitzak: *Casa bat* (Noeren kutxa) *Causea dela medio, usoe errazoian, vullea, varullue.*

Baina, hitz landuak idazten ere badaki: *gogortade, eguitade, eguiquerac, vazandu, modu berian, izaitea* —el ser— *gizonezco vazarra* (la humanidad).

-bide atzizkia maite du: ezaupidea, *ireupidea, lucepide, etorpide, iquesvide.*

Hona hemen gehienbat Bizkai mendebaldeko diren hitz batzu: guinerraba, mamurtu, vetatu, ariche ("arichen erramatati dandillesque").

Beraz, denetarik da hemen. Azkuek ez dakarren hitzen bat edo beste ere: ur *tastal* bat, *galcice, zerzelletasun* (zerzelada, honen kidekoa, egun ez da

ia idazten zoritxarrez). Uriarteri dagokionez, elizakoak izanik, ez da erdaratiko hitzak erabiltzeko beldur (inoiz Renteria bera gerta daiteke garbizaleago: Ur. *obra misericordiezcoac.* Rent: *misericordiesco eguiquera*). Ex. *preguntea, errespuestea, Abrahanen senoa, usu errazoezco, motibo, cleitue, colaciñotzat, alcantzau lujuriaren contra castidadea, ira* edo aserre charraren *contra paciencie, guleriaren contra tenplantzea, Embidiaren contra Caridadea.*

Renteria eta Uriarte, biak Plentzia aldeko herri hizkeraz idazten saiatu arren —eta ez bata ez bestea ez ziren hangoak—, hala ere tradizio idatziaren eragina nabaria da biengan Uriarteren kasuan, aditz formetan, Renteriarenean, arlo guztietan.

RENTERIA ETA URIARTE

Renteriaz mintzatzean, Uriarte agertzen da halabeharrez. Txanponaren beste aldea. Uriartek kondenatzen du eta agian salbatzen Renteria, aldi berean.

Baina, Uriarterengatik izan ez balitz, edo Bonapartegatik, hark honi bidali baitzion, beharbada Renteriaren idazlana ez zitzaigukeen helduko.

Renteria ez zen irten bere txokotik. Gorlizko eliztarren euskara ezagutzeaz aski zuen bere eliz zereginetarako. Baina Uriartek ez. Hau, Euskal Herri zabaleko gizona genuen. Misioak ematen han -hor-hemen ibilia, Bonaparte printzeak ere bere lanetarako nora nahi joan arazi zuen. Arrigorriagakoa jaiotzez, Markinan egon zen exklaustrazio denboran, luzaro eta 1839-45 inguruan J. J. Mogelekin batera agertzen da apaiz lanetan.

Geroztik ere, gehien bat Markinan bizi izan zen.

Uriartek ondo ezagutzen zituen gure klasikoen lanak. Eta, jakina denez, Biblia osoa itzuli zuen gipuzkerara, L. L. Bonapartek agindurik. Printzeak Biblia bi euskalki literario nagusietara bakarrik itzul zedin agindu zuen. Uriartek Beterriko euskara literarioa hautatu zuen, hots, Lardizabalek landua. Hau du Uriartek eredu aditz laguntzailean, eta hitz batzutan (lapurteraz ere erabiltzen direnetan), eta Agirre Asteasuko hitz multzo handienean.

Bizkaierazko klasikoak ere (markinarrak, Añibarro, Zabala) ezagun zituen. Idazle landuek liburuetan ikasten dute idazten, hain zuzen ere. Eta honegatik (ortografia barru) gaitzesten zuen, ene ustez, Uriartek Renteria.

Hala ere badirudi bai bataren bai bestearen kasuan, Bizkaiko pulpituetatik zabaldu zen markinar idazleen (Fr. Bartol., Fr. Pedro Astarloa) eredua, areago, eliz-liburuetako euskara landua ez zela garai hartan non nahi eta bera bakarrik dotrina eta sermoetan beste gabe haintzakotzat hartzen. Renteriak baztertu egiten du, nahiz eta ez guztiz. Uriartek, dialektalismoaren eraginez, bizkaiera modu bat baino gehiago irakatsi (*Cartas*, BRSVAP 1957, 1958) eta

landuko du, azpieuskalkiak eta tokian tokiko hizkerak ikasi eta idatzizko mailara jasoko ditu. Nola nahi ere tradizio idatziaren aztarnak Renteria bezalako idazle aski landugabe eta zabartxoengan ere soma daiteke.

Bibliografia

J. C. DE RENTERIA: *Cristiñauac biarreco daben doctriñea...* Bibl. Dip. Vizc. Bv-40.

J. A. URIARTE: *Catecismo Bascongado. Dialecto de Vizcaya. Variedad de Plencia.* BVD. m/s Bv-37.

G. GONZÁLEZ ECHEGARAY: *Catálogo de manuscritos de la Sección Vascongada.* Diput. de Vizc.

-- : *Catálogo de los manuscritos lingüísticos de la Colección Bonaparte que se conservan en las Bibliotecas de Bilbao, Pamplona y San Sebastián.* Madrid, 1979.

ARCHIVO HISTÓRICO ECLESIÁTICO DE VIZCAYA: *Parroquia Purísima Concepción de Gorliz.* Derio.

-- : *Memorial de la Comisión de los feligreses de Sta. M.ª de Górliz sobre contribuciones al culto y clero. Años de 1842-44. (Inventario de materias...* 181.orr., 2.zenb.)

-- : *Expediente incoado por el Cabildo Ecles. de Górliz sobre el pago de las atenciones del culto. Años 1853-1861. (Inventario* 182.orr., 5.zen.)

J. M. ZAVALA: *El Verbo Regular Vascongado del Dialecto Vizcaíno.* Ignacio Ramón Baroja. 1848.

R. M. AZKUE: *Morfología Vasca.*

R. M. AZKUE: Eskuizkr. AZKUE biblioteka.

M-B. ALZOLA: *Renteria-tar Joan Gurutze, bere eskuskribuaren aurkibidea.* BRSVAP. 1973.

Estudios Socio-Económicos Comarca Plencia-Munguía: Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Bilbao.

CATALOGO

de los manuscritos reunidos por el
PRINCIPE LUIS-LUCIANO BONAPARTE
que se hallan en el País Vasco, con un

INDICE

de nombres de personas, lugares, lenguas y dialectos, y un

CATALOGO

de publicaciones hechas por el mismo de algunos de los manuscritos, o referentes a ellos, que se hallan en las principales Bibliotecas del País Vasco

por
D. CARLOS GONZALEZ ECHEGARAY

Markina, 25-IX-1983

INDICE

PROLOGO. Por *José Antonio Arana Martija* 29

I. MANUSCRITOS VASCOS 49

1. Dialectos comparados 51
2. Alto navarro 57
3. Alto navarro meridional 57
4. Alto navarro septentrional 61
5. Bajo navarro oriental 65
6. Bajo navarro occidental 70
7. Guipuzcoano 74
8. Guipuzcoano meridional 83
9. Guipuzcoano de Navarra 86
10. Guipuzcoano septentrional 86
11. Labortano 87
12. Suletino 93
13. Vizcaino 97
14. Vizcaino oriental 102
15. Vizcaino de Guipúzcoa 103
16. Vizcaino occidental 104
17. Dialectos sin identificar 106
18. Varia 109

II. MANUSCRITOS NO VASCOS 115

1. Lenguas célticas 117
2. Francés 119
3. Franco-Provenzal 122
4. Provenzal 123
5. Italiano 124
6. Reto-Románico 133

7. Lenguas ibéricas 134
8. Inglés 135
9. Holandés 139
10. Islandés 139
11. Alemán 139
12. Lenguas Uralo-Altaicas 140
13. Albanés 144
14. Lenguas y dialectos diversos comparados 144

III. ADDENDA A LOS MANUSCRITOS VASCOS 147

APENDICE I.–INDICE DE NOMBRES Y PERSONAS, LUGARES, LENGUAS Y DIALECTOS 149

APENDICE II.–LIBROS E IMPRESOS CORRESPONDIENTES A LOS MANUSCRITOS O REFERENTES A ELLOS 169

SIGLAS UTILIZADAS

ADN:	Archivo de la Diputación de Navarra.
AZB:	Azkue Biblioteka, de Euskaltzaindia.
BDG:	Biblioteca de la Diputación de Guipúzcoa.
BDV:	Biblioteca de la Diputación de Vizcaya.
BGN:	Biblioteca General de Navarra.
BIAEV:	Boletin Instituto Americano de Estudios Vascos.
BJU:	Biblioteca "Julio de Urquijo" de la Diputación de Guipúzcoa.
BRSVAP:	Boletin de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del Pais.
BSB:	Biblioteca de la Sociedad Bilbaina.
EE:	Revista "Euskal Erria".
EGIP:	Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Editorial Auñamendi, San Sebastián.
FLV:	Revista "Fontes Linguae Vasconum".
MBB:	Musée Basque de Bayona.
RIEV:	Revista Internacional de Estudios Vascos.
RLPHC:	Revue de Linguistique et Philologie comparée.

PROLOGO

Mi audacia al prologar este importante Catálogo, parte de un primer atrevimiento poco corriente en esta clase de trabajos liminares, pues fui yo quien solicitó del autor, don Carlos González Echegaray, el "favor" de cederme la responsabilidad de estas primeras palabras introductorias. Cosa inaudita, seguramente, pero que queda aquí confesada. La generosidad del amigo, ampliamente demostrada en ocasiones anteriores en que me ha prestado valiosas ayudas en el campo bibliográfico, me hizo salvar con dignidad —creo yo— el atrevimiento de la desusada petición. Pero queda sin justificar ante los lectores —o mejor investigadores— la audacia de colocarme a las puertas de este Catálogo para decir lo que su autor podría haber dicho mejor. La única razón aquí aducible, aparte de la ilusión personal en hacerlo, es la de haber colaborado, en cierta medida, en completar el minucioso trabajo del señor González Echegaray desde mi posición en Azkue Biblioteka de la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia, que da a la luz este Catálogo, aportando sus fondos manuscritos y publicaciones bonapartianas y dando las referencias de los fondos existentes en las Bibliotecas de las Diputaciones de Guipúzcoa y Navarra y en la Biblioteca de la Sociedad Bilbaina. Bien poca cosa, es cierto, pero suficiente a juicio del autor para cederme este lugar de privilegio. Fue él quien me encomendó la presentación pública del Catálogo en Markina, en ocasión del Centenario de las Fiestas Euskaras el 25 de Septiembre de 1983, ahora hace un año, al cierre de las Jornadas de Dialectología organizadas por Euskaltzaindia, en acto celebrado en la Casa Consistorial de esta villa vizcaína, cuyo dialecto fue elegido por el Príncipe Bonaparte como el más representativo de Vizcaya, además de haber sido esta villa el centro de los trabajos de uno de los colaboradores destacados en las traducciones bíblicas e informaciones gramaticales, el franciscano José Antonio de Uriarte. Una inoportuna intervención quirúrgica, felizmente superada, impidió al señor González Echegaray presentar su trabajo en aquella ocasión y fui yo el encargado de hacerlo en su nombre y a instancia suya. Ahora me he atribuido yo mismo el hacerlo, ya en letra impresa.

Un prólogo suele exponer generalmente la personalidad del autor y el contenido, siempre laudable según la circunstancia, de su obra concreta o de

su producción total. No es éste el caso en que me hallo pues el proyecto liminar en que me he comprometido es más amplio. Un Catálogo tiene, por supuesto, un autor del que hay que hablar; pero al ser una colección de otros muchos trabajos, puede ampliarse el comentario a muchos más autores. Tampoco es éste el caso que me compete, pues la referencia concreta a los cientos de autores recogidos en el Catálogo y relacionados en un Indice al final del mismo, da materia para uno o más libros. Pero sí creo que es ineludible en este preliminar hablar, siquiera brevemente, de quien formó la colección de manuscritos que el señor González Echegaray ha catalogado: el Príncipe Luis-Luciano Bonaparte. Y, cómo no, de las vicisitudes de la colección, formada fundamentalmente en Londres, de su recuperación para nuestro patrimonio nacional, y del proceso de su inventario, clasificación y definitiva catalogación.

Una advertencia previa es aconsejable para ver en su conjunto la obra que, por primera vez, publica en sus páginas la revista **Euskera** de Euskaltzaindia y como separata la Caja de Ahorros Vizcaína dentro de su *Colección Bibliográfica*. Los comúnmente llamados manuscritos de Bonaparte son en realidad manuscritos suyos y de otros muchos colaboradores, más o menos importantes, que a instancia de aquel o "motu propio" le enviaron traducciones al euskara y a otros idiomas y dialectos, notas gramaticales, léxicos, poesías etc. Fue el Príncipe quien los coleccionó y las tres Diputaciones vascas de Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya las que los compraron en 1904. Durante la segunda mitad del siglo XIX fue formando Bonaparte su biblioteca y archivo de manuscritos que en 1885 pensaba ceder al British Museum con gran disgusto para sus colaboradores vascos [1]. En los primeros años de este siglo, su viuda decidió vender todos los fondos: en 1901 su rica biblioteca fue a parar a los Estados Unidos y en 1904 su archivo de manuscritos vino a parar al País Vasco. Todos estos manuscritos son los que aquí se catalogan en dos secciones diferentes: I. Manuscritos vascos, y II. Manuscritos no vascos. El catalogador ha añadido dos secciones de interés contenidas en dos Apéndices: I. Indice de personas, dialectos y referencias a lugares; y II. Publicaciones de libros e impresos referentes a los manuscritos vascos que se pueden consultar en las bibliotecas del País Vasco.

Creo ya llegado el momento de presentar al catalogador que, aunque suficientemente conocido en el mundo de la bibliografía, merece ser destacado al comienzo de esta obra. Conocí a don Carlos González Echegaray hace ya veinticinco años cuando siendo él bibliotecario de la Facultad de Ciencias Económicas de Bilbao (1959-1965) recibió para la Biblioteca mi primer trabajo de largo aliento: *Crisis y resurgimiento agrícola en el siglo XVIII* (inédito). Después, además de muchas coincidencias profesionales, nos une un empeño común: el de dar algún día a la imprenta, si hay mecenas que lo patrocine, las obras completas de don Carmelo de Echegaray y Corta, azpei-

[1] Carta del Capitán Duvoisin a d'Abbadie de 14.9.1885 (RIEV, 1931, p. 331).

tiano de nacimiento y guerniqués de vida, profesión y muerte. Nuestra coincidencia en este empeño es clara, por mi parte; y por la del señor González Echegaray bastará con decir que es pariente del Cronista por doble vínculo: hijo de don Joaquín González Domenech y de doña Carmen Echegaray Abascal, es sobrino de la hermana de ésta, doña Consuelo, casada con don Carmelo el 18 de noviembre de 1897. Pero el apellido del autor de este Catálogo revela además su ascendencia vasca por ser su madre hija de don Evilasio Echegaray primo carnal de don Carmelo y, por tanto, de ascendencia guipuzcoana. La familia González Echegaray tiene pues razones fundadas para heredar la afición bibliográfica e investigadora y todos los hermanos descollarán en estos menesteres: Carlos, Rafael, María Carmen y Joaquín son autores de numerosas y valiosas publicaciones.

Carlos nació en Santander el 9 de marzo de 1921. Se doctoró en Filosofía y Letras en la Universidad de Madrid y pasó a formar parte del Cuerpo de Archiveros, Bibliotecarios y Arqueólogos desempeñando su profesión como Director del Centro Coordinador de Bibliotecas de Cádiz (1954-1956) de donde pasó a Bilbao como Director del Archivo Histórico de Protocolos de Vizcaya (1956-1959) y seguidamente como Bibliotecario de la Facultad de Ciencias Económicas. En 1965 se hace cargo del Archivo y Biblioteca de la Diputación de Vizcaya y cargos anejos, así como de la Biblioteca de la Escuela de Ingenieros Industriales de Bilbao. En 1979 es nombrado Subdirector General de Bibliotecas, en Madrid, y en 1981 Director de la Hemeroteca Nacional, cargo que desempeña en la actualidad.

Su estancia en Guinea por los años cincuenta le permitió poner en práctica sus conocimientos lingüísticos publicando en 1960 la *Morfología y Sintaxis de la Lengua Bujeba*. Más tarde, en contacto ya con la cultura vasca, recensionará un trabajo de Karmele Rotaetxe: *Sur un point de morphologie nominale du basque* (1971) [2]. Otros trabajos propios, prólogos a diversas obras y recensiones van completando su bibliografía. Pero lo que aquí interesa destacar es su labor de catalogador que se inicia en 1959 con la publicación de la *Colección de documentos inéditos de la Guerra de la Independencia existentes en el Archivo de la Excma. Diputación de Vizcaya,* obra que permite a Fausto Arocena asegurar que el autor "ha asumido con garbo la difícil sucesión de don Dario de Areitio" [3]. El tema será de nuevo tocado por González Echegaray en 1981, ya desde su atalaya madrileña, cuando publica un catálogo de *Periódicos y revistas de la Guerra de la Independencia y reinado de Fernando VII en la Hemeroteca Nacional* [4]. Entretanto, su aproximación física y espiritual a los fondos bibliográficos vascos le hace publicar un catálogo de *Libros vascos notables existentes en la Biblioteca Provincial*

[2] Estudios Vizcaínos, Bilbao, enero-junio 1972, n.º 5, pp. 240-241.

[3] BRSVAP, 1959, Cuaderno 2.º, pp. 220-221.

[4] Madrid, Instituto Bibliográfico Hispánico, Publicaciones de la Hemeroteca Nacional, n.º 19, 146 pp. de 27,5 x 18,5 cms.

(de Vizcaya) [5], un *Catálogo de la Exposición del Bicentenario de la Sociedad de Amigos del País celebrada en la Biblioteca de la Diputación de Vizcaya* [6] y el curioso estudio sobre *La Biblioteca de un comerciante bilbaíno del siglo XVIII (Agustín de Ascueta)* [7].

Pero aproximándonos más al tema que nos interesa diré que, siguiendo los pasos de su tio don Carmelo de Echegaray, primer inventariador de los fondos manuscritos de Bonaparte (1905), don Carlos González Echegaray publicó en 1962, en la revista **Euskera** de Euskaltzaindia, el *Catálogo de la colección del Príncipe Luis Luciano Bonaparte que se guarda en la Biblioteca de la Diputación de Vizcaya* [8] y más tarde, abundando en el mismo tema, el trabajo *Manuscritos lingüísticos de la colección Bonaparte en la Biblioteca de la Diputación de Vizcaya* [9]. Pero su labor de catalogación trasciende de los fondos más próximos que están bajo su custodia en Bilbao y llega a la catalogación de los demás manuscritos bonapartianos en poder de las otras dos Diputaciones de Guipúzcoa y Navarra, publicando en 1979 un completo *Catálogo de los manuscritos lingüísticos de la colección Bonaparte que se conservan en las Bibliotecas de Bilbao, Pamplona y San Sebastián* [10], resumen documentado de los anteriores trabajos sobre el tema y paso definitivo hacia este catálogo que ahora se publica.

* * *

A la entrada del siglo XIX fue Carlos Guillermo Barón de Humboldt (1767-1835) quien empezó a inquietar el mundo lingüístico hacia el estudio del vascuence. Coincidió con la época de Juan Antonio Moguel (1745-1804) y Pedro Pablo Astarloa (1752-1806), informadores del filólogo prusiano. Medio siglo más tarde se repetirá el mismo fenómeno científico de investigación y colaboración. "Dos personajes, que no eran precisamente vascos, se distinguieron en esta época por su amor al euskara y por su decidido empeño en impulsar a los vascos a cultivarla. El uno fue Antoine d'Abbadie (1810-1897), irlandés, si bien su padre era suletino... El otro nombre es el del egregio Príncipe Luis Luciano Bonaparte" [11]. Ambos colaboraron entre sí, si bien el primero dirigió sus esfuerzos y dinero a fomentar la cultura popular por medio de las Fiestas Euskaras o Concursos, el primero de los cuales organizó en Urruña (Laburdi) en 1853 y el segundo, igualmente, aplicó todo su saber y dinero al estudio del idioma, siendo el primero que organizó científicamente los estudios de la dialectología vasca. Ambos consiguieron para finales de

[5] Revista Vizcaya, 1963, n.º 21, 3 pp.
[6] BRSVAP, 1965, Cuaderno 1.º, pp. 73-87.
[7] Homenaje a Federico Navarro, Madrid, 1973, pp. 169-181.
[8] Euskera, 1962, pp. 219-258.
[9] Studia Hispanica in honorem R(afael) Lapesa, Tomo III, Madrid, Editorial Gredos, 1975, pp. 255-265.
[10] Madrid, Instituto Bibliográfico Hispánico, 134 pp. de 25 x 17 cm. Edición limitada de 50 ejemplares.
[11] Luis Villasante: Historia de la Literatura Vasca. Bilbao, Editorial Sendo, 1.ª edición, p. 171.

Se hicieron 250 ejemplares, uno de ellos en gran papel. Hay un ejemplar en la BDV (sign. VF-6) otro en BSB (1018) y otro en AZB, (BA-14).

23. BIBLIA, N. T.

Jesucristoren Evangelio Sandua Juanec dacarren guisara D. Joaquin Lizarragac euscaran itzulia... ta Luis Luciano Bonaparte Principeac arguitara emana. Londresen. /Strangeways & Walden/. 1868. 2 h. + 90 p. 29 cm.

Hay dos ejemplares en AZB, (BA-30) otro en la BJU (sign. 3221) y otro en la BDV (sign. VF-1127).

24. BIBLIA, N. T.

Duvoisin-Haristoy. "Ebanjelio Saindua eskuaraz".
Paben, Vignancour, 1898, 591 pp. 16 × 10,5 cm.

Hay un ejemplar un AZB.

25. BIBLIA, N. T.

Jesu Cristoren Evanjelioa Juanen Araura.
Hay 2 ediciones: Londres, 1883, s.i.; 1884, Triritarian Bible Society. 93 p.

Hay un ejemplar en la BDV (sign. V-1-1.15) y otro en AZB. La traducción de este Evangelio es de F. Brunet.

26. BIBLIA, N. T.

El Evangelio según San Mateo, traducido al vascuence, dialecto vizcaino, por el P. Fr. José Antonio de Uriarte, para el príncipe Luis-Luciano Bonaparte. Londres. /W. H. Billing./. 1857. 153 p. + 1 h. - 22 cm.

De esta edición sólo se tiraron 12 ejemplares de los cuales 10 eran numerados y dedicados y los otros dos sin numerar, uno de ellos en gran papel. Hay un ejemplar en la BDV (sign. VF-3625) y es el ejemplar numerado 4.

27. BIBLIA, N. T.

L'Apocalypse de l'Apôtre Saint Jean, traduite en basque souletin, par l'Abbé Inchauspe. Pour le Prince Louis Lucien Bonaparte.
Londres. [Billing]. 1858. 134 p. 14 cm.

De esta obra se tiraron 50 ejemplares. Hay uno en AZB, (BA-7) y otro en la BDV (sign. VF-1361).

28. BIBLIA, N. T.

El Apocalipsis del Apóstol San Juan, traducido al vascuence, dialecto vizcaino por el P. Fr. José Antonio de Uriarte, para el Príncipe Luis-Luciano Bonaparte.
Londres. /W. H. Billing/. 1857. 1 h. + 134 p. + 1 h. 11,5 cm.

Hay un ejemplar en AZB, (BA-4) y otro en la BDV (sign. VF-1-1-35).

29. BIBLIA, N. T.

El Apocalipsis del apóstol S. Juan, traducido al vascuence, dialecto guipuzcoano, por el P. Fr. José Antonio de Uriarte, para el príncipe Luis-Luciano Bonaparte.
Londres. (E. Billing) 1858. 132 p. 14,5 cm.

Hay un ejemplar en la AZB (BA-6) otro en BSB (1041) y otro en la BDV (sign. VF-1360). Existe otra edición del año anterior (1857) de la que hay ejemplares, uno en la BDV (sign. V-1-1-35). Los demás datos de esta edición coinciden con los de la de 1858, salvo en que la otra tiene 134 páginas.

30. BIBLIA, N. T.

Parábola del sembrador traducida a los ocho dialectos del vascuence y a cuatro de sus subdialectos.
Londres. (impensis L. L. Bonaparte) /J. Strangeways/. 1878. 14 p. 17 cm.

Se hicieron de este impreso 250 ejemplares. Hay uno en AZB, (BA-51) otro en BSB (1035) y otro en la BDV (sign. VF- 92).

Esta publicación la hizo el Principe Bonaparte en enero de 1878 y al mes siguiente la reprodujo José Manterola en su *Cancionero Vasco*, Primera Serie, Tomo IV, incluyéndola entre otras Poesias Alegóricas y añadiendo la traducción al castellano. Este tomo lo dedicó Manterola "A S. A. el Príncipe Luis Luciano de Bonaparte". En la BJU (sign. 2831) hay una reproducción exacta de la edición que hizo Manterola, 16 p. 19 cm.

31. BIBLIA, N. T.

Parábola de Seminatore, ex Evangelio Matthaei, in LXXII Europeae linguas ac dialectos versa et romanis characteribus expressa. L. L. Bonaparte.
Londini. W. H. Billing. 1857. [sin paginación]. 21 cm.

Hay un ejemplar en la BDV (sign. VF-3687) y otro en AZB, (BA-2); este último fue el que usó personalmente el principe Bonaparte en su biblioteca.

32. BIBLIA, N. T.

Parábola de Seminatore ex evangelio Matthaei, in LXXII europaeas linguas ac dialectos versa, et romanis characteribus expressa.
Londini. [s. i.] 185 p. + 77 h. sueltas.

Hay un ejemplar en la BDV (sign. F-3687).

33. BIBLIA, N. T.

Prodomus Evangelii Matthaei octupli, seu oratio dominica, hispanice, gallice et omnibus Vasconicae Linguae dialectis reddita nec non orthographiae in Evangelio adhibitae accommodata.
Londini, 1857, 2 n. 29 cm.

Hay un ejemplar en BSB (1036).

34. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Carta lingüística del Príncipe L. L. Bonaparte. Publicada en el n.º 116 (tomo XI) de la revista vascongada "EUSKAL-ERRIA"... 30 de setiembre de 1883. San Sebastián, Hijos de Ignacio Ramón Baroja, 1883. 7 p., 23 cm.

Hay un ejemplar en la BDV (sign. VF-929), otro en BSB (1115) y otros dos en AZB (BA-64).

35. BONAPARTE, Louis-Lucien

Carte des sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division en dialectes, sous-dialectes et varietés par le prince Louis-Lucien Bonaparte.

Drawn, engraved and printed at Standford's Geographical establishment, Londres, 1863. Un mapa de 99 x 119 cms.

Según Vinson fue publicado en 1869. Hay un ejemplar de este mapa en AZB, BA-40.

36. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Carte des sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa división en dialectes, sous-dialectes et varietés par le prince Louis-Lucien Bonaparte.
Drawn, engraved and printed at Standford's Geographical establishment, Londres, 1863. Un mapa de 101 x 121 cms.

Según Vinson fue publicado en 1860. Hay un ejemplar de este mapa en AZB (BA-41).

37. BONAPARTE, Louis-Lucien.

The days of the week in all the European languages. Prepared by H. I. H. Prince.
London. [s. i.]. 1880. 2 h.-21 cm.

Separata de la obra de W. M. Jones "A table of days, or the testimony of languages to the identity of the sabbath". Hay un ejemplar de este impreso en la BDV (sign. F-1100).

38. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Etudes sur les trois dialectes basques des vallées d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal, tel qu'ils sont parlés a Aribe, à Jaurrieta et à Vidangoz. Par le prince... Londres. [John Strageways]. 1872. 24 p. 32,5 cm.

Se imprimieron 250 ej. uno en gran papel. Existe uno en la BDV (sign: VF-1173) otro en BSB (1117) y otro en la BJU (sign.ª 3217).

39. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Ethymologie du nom de Bayonne, etc.
/s.l./ /s. i./ /s. a/. 1 h.-25 cm.

Hay un ejemplar en la BDV (sign. VF-1.100) otro en la BJU (sign.º 2818) otro en BSB (1120) y otro en AZB, (BA-44).

40. BONAPARTE, Lois-Lucien.

Etymologie des noms de Baïgorry et de Bayonne. [London, le 8 Juin 1875]. [Londres/- /s. i./ .— /1875]. 1 h.—22 cm.

Hay un ejemplar de este impreso en AZB (BA-42), otro en BSB (1118) y otro en la BJU (sign.ª 2830).

41. BONAPARTE, Louis Lucien.

Etymologie du nom de Baigorry. [London le 8 juin 1875].
/Londres/ /s. i./ /1875/ 1 h., 22,5 cm.

Hay un ejemplar en la BDV (sign. VF-1100), otro en BSB (1119), otro en la BJU (sign.º 2829) y otro en AZB (BA-43).

42. BONAPARTE, Louis-Lucien.

[Extrait du Verbe Basque en tableaux accompagné de notes grammaticales...]
Tableau montrant la conjugaison complète du verbe guipuzcoan dans ses tem-

pes simples, les variantes et les traitements familiers exceptés.
/s. l/ /s. i/ /s. a./ 1 h. 31,5 cm.

Hay dos ejemplares en la BDV (signs. VF-1223 y VF-1759) y otros dos en AZB (BA-35 y 36).

43. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Formulaire de prône en langue basque, conservé naguère dans l'église d'Arbonne: reedité sans aucun changement et suivi de quelques observations linguistiques sur les sous-dialectes bas-navarrais et navarro-souletins... par le Prince... Deuxième impression.
Londres /s. i/, 1866. 2 h. + 34 p. 17,5 cm.

Hay un ejemplar en AZB (BA-24) otro en BSB (1121) y otro en la BDV (sign. VF-121). Contiene una segunda reimpresión de las "Pregariac" de Joannes d'Olce.

44. BONAPARTE, Louis Lucien.

Italian and Uralic possessive suffixes compared. By H. I. H. Prince L. L. Bonaparte.
Philological Society. London. 1884-1885. 7 p. + 2 cuadros 22 cm.

Hay un ejemplar en AZB (BA-68).

45. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Langue Basque et Langues Finnoises. Par le Prince...
Londres. /Strangeways & Walden/ 1862. 46 p. + 4 cuadros 29 cm.

Hay un ejemplar en la BDV (sign. VF-1112) otro en BSB (1124) otros en la BJU (sign. 3222) y otros dos en AZB (BA-15).

46. BONAPARTE, Louis-Lucien.

A list of the langages and dialects belonging to the Basque, Uralic and Aryan families of Europe, in which one or more entire books of the Bible have been literally translated and printed. [Londini, 30 July, 1881].
[Londres s. i, 1881]. 4 p. 22 cm.

Hay un ejemplar en la BDV (signª VF-1100-d) otro en BSB (1125) otro en la BJU (signª 2823) y otro en AZB (BA-61).

47. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Lord Macclesfield 's basques m/ss. Oxford, October 27, 1884.
Oxford [s. i] 1884. 1 h., 29 cm.

Es una separata de "The Academy", Nov. 8 de 1884. Hay un ejemplar de ella en la BDV (sign. VF-1100) otro en BSB (1126) y otro en AZB (BA-66).

48. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Note supplémentaire sur le "que" béarnais. /London, le 2 janvier, 1879/.
Londres, /s. i./ 1879. 3 p. 21 cm.

Hay un ejemplar en la BDV (sign. VF-1100) otro en BSB (1127) otro en la BJU (signª 2824) y otro en AZB (BA-53).

49. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Note sur certaines remarques de M. A. Luchaire.
[Londres le 21 Juin 1877]. 7 p. 22 cm.

Hay un ejemplar en la BDV (signª VF-1.100) otro en BSB (1128) otro en la BJU (signª 2813) y otro en AZB (BA-50).

50. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Notes sur les pretendus genitifs et datifs pluriels de la langue basque. [6 Avril, 1866].
Londres, [s. i.] [1866]. 1 h., 21,5 cm.

Hay un ejemplar en la BDV (signª VF-1100-h) otro en BSB (1129) otro en la BJU (signª 2822) y otro en AZB (BA-25). La Revue de Linguistique (Tomo II-3.º) reeditó este trabajo. Paris, Imprenta Maisonneuve, 1868, 3 p., 22,6 cms.

51. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Nouvelles observations sur les dialectes de la Corse ou réplique a la réponse du D. A. Mattei...
Londres. /s. i/ 1877. 15 p. 4.º.

Hay un ejemplar en AZB (BA-49) y otro en la BJU (signª 5219).

52. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Nouvelles remarques sur quelques assertions de M. J. Vinson concernant la langue basque. [Londres, 12, Décembre 1884].
[Londres] [s. i.] [1884]. 5 p. 22,5 cm.

Hay un ejemplar en la BDV (sign. F-1.100), otro en BSB (1130), otro en la BJU (signª 2813) y otro en AZB (BA-67).

53. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Nueva carta lingüistica del principe L. L. Bonaparte, publicada en el n.º 123 (tomo IX) de la revista bascongada EUSKAL-ERRIA correspondiente al dia 10 de diciembre de 1883.
San Sebastián, Hijos de Ignacio Ramón Baroja, 1883. 7p., 23 cm.

Hay un ejemplar en la BDV (sign. VF-1694) y otro en la BJU (signª 2813).

54. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Observaciones sobre el vascuence de Navarra. Por el Principe L. L. Bonaparte. Pamplona. 1881-1882, 4 tom. en 1 vol. 4.º

Son separatas de la Revista EUSKARA, correspondientes a febrero, marzo y junio de 1881 y abril de 1882. Ejemplares existentes en AZB (BA-57, 58, 59, 60, 62). En la BJU (signª 4169) están los números 34, 35, 38 y 46.

55. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Observations sur le Basque de Fontarabie, d'Irun, etc. Par le Prince...
Paris. Ernest Leroux, ed. 1877. 47 p. 22,5 cm.

Hay un ejemplar en la BDV (sign. VF-1672), otro en BSB (1131), otro en AZB (BA-46) y un tercero en la Biblioteca General de Navarra.

56. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Observations sur le formulaire de prône... dans l'église d'Arbonne par le prince.. /1.º Avril 1867/
/Bayonne, imp. Veuve Lamaignère/1867. 7 p. 17,5 cm.

Hay un ejemplar en AZB (BA-26) otro en BSB (1132) otro en la BJU (signª 2833) y otro en la BDV (sign. 1100).

57. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Initial mutations in the living Celtic, Basque, Sardinian, and italian dialects. By H. I. H. Prince... Philological Society.
London. Trübner & C.° 1882. 48 p. 22 cm.

Hay un ejemplar en la BDV (sign. F-1663) y otro en la BJU (signª 4170).

58. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Phrases grammaticales, montrant les principaux caractères distintifs des trois dialectes.
Sin indicación de editor, lugar ni fecha. 8 pp. 32,5.

Se refiere a los dialectos de Aezcoa, Salazar y Roncal. Hay un ejemplar de este impreso en AZB (BA-39).

59. BONAPARTE, Louis-Lucien.

The simple tenses in Modern Basque and Old Basque. By H. I. H. Prince... Philological Society.
London, Trübner & Co., 1884. 12 p. 3 h. 22,5 cm.

Hay un ejemplar de este folleto en la BDV (sign. VF-1670).

60. BONAPARTE, Louis Lucien.

Remarques sur certaines assertions de M. J. Vinson concernant la langue basque... /par Louis-Lucien Bonaparte/. Londres, le 28 Octobre 1884.
Londres, /s. i./, 1884. 4 p. 22 cm.

Hay un ejemplar en AZB (BA-65) otro en BSB (1135) otro en la BJU (signª 2821) y otro en la BDV (sign. VF-1100).

61. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Remarques sur certaines notes, certaines observations et certaines corrections, dont M. J. Vinson a accompagné l'essai sur la Langue basque par F. Ribáry (Paris, 1877, Franck.), par le prince Louis-Lucien Bonaparte. (Extrait des "Actes de la Société Philologique". Tome VII, No. 2, Paris, 1877).
Londres [John Strangeways]. 1877, 65 p., 22,5 cm.

Hay un ejemplar en la BDV (sign. VF-843) otro en BSB (1136) otro en la BJU (signª 3304) y otro en AZB (BA-48).

62. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Remarques sur les dialectes de la Corse, et sur l'origine basque de plusieurs noms locaux de cette île, ou observations sur l'article linguistique qui a paru dans le deuxieme numero des "Annales de la Corse" publié par M. le D. A. Mattei. Par le prince...
Londres, /John Strangeways/, 1877. 11 p. 22 cm.

Separata del número 4 de los "Annales de la Corse", Paris, 1877. Hay un ejemplar de este impreso en AZB (BA-47) y otro en la BJU (signª 4171).

63. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Remarques sur plusieurs assertions de M. Abel Hovelacque concernant la langue basque...
Londres, John Strangeways [s. a.]. 23 p., 21 cm.

Extrait de la REVUE DE PHILOLOGIE ET D'ETHNOGRAPHIE. Paris, 1876. Hay un ejemplar en la BDV (sign. VF-745) otro en BSB (1137) otro en la BJU (signª 4172) y otro en AZB (BA-45).

64. BONAPARTE, Louis Lucien.

"Roncesvalles" and "Juniper", in Basque, Latin, and Neo-Latin. /London, 19 March, 1880/
Londres, /s. i./, 1880. 4 p. 21 cm.

Hay un ejemplar de este impreso en la BDV (sign. VF-1100) otro en BSB (1138) otro en la BJU (signª 2826) y otro en AZB (BA-56).

65. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Roncesvalles and "Juniper" in Basque, Latin and Neo-Latin and the successors of latin "J". [London, 3 July, 1882].
Londres [s. i.] 1882. 4 p., 22 cm.

Hay un ejemplar de este impreso en la BDV (sign. VF-1100) y otro en BSB (1139) otro en AZB (BA-63).

66. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Specimen Lexici comparativi omnium linguarum europaearum, opera et studio Ludovici Luciani Bonaparte.
Florentiae. [s. i.] 1847. 1 h. + 56 p. 31 cm.

De esta obra hay un ejemplar en la BDV (sign. F-758) y otro en AZB (BA-1).

67. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Sur le caractere pronominal du monosyllabe béarnais "que". /London, le 3 avril 1878/
Londres, /s. i./, 1878. 4 p. 21 cm.

Hay un ejemplar en AZB (BA-52) otro en BSB (1140) otro en la BJU (signª 2816) y otro en la BDV (sign. VF-1100).

68. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Sur les mots basques "ill, illargi, illum" etc. [Londres, le 12 Juin, 1879].
[Londres/ /s. i]. 1879. 2 p., 22 cm.

Hay un ejemplar de este impreso en la BDV (sign. VF-1100), otro en BSB (1141), otro en la BJU (signª 2819) y otro en AZB (BA-55).

69. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Tableau montrant les temps simples du verbe basque, voix transitive et intransitive, dans les dialectes.
(Sin indicación de editor, lugar ni fecha). Una hoja doble, 28,5 cm.

Hay un ejemplar de este impreso en AZB (BA-37).

70. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Tableau montrant les temps composés de la langue basque, voix transitive et intransitive, dans les dialectes.
(Sin indicación de editor, lugar ni fecha). Una hoja cuadruple, 28,5 cm.

Hay un ejemplar de este impreso en AZB (BA-38).

71. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Troisieme note sur le "que" pronominal propre au bearnais, et sur la probabilité de son origine basque. /London, le 24 janvier 1879/
Londres, /s. i./, 1879. 3 p., 22,5 cm.

Hay un ejemplar en AZB (BA-54) otro en BSB (1143) otro en la BJU (sign[a] 2825) y otro en la BDV (sign. VF-1100).

72. BONAPARTE, Louis-Lucien.

Le verbe basque en tableaux accompagné de notes grammaticales, selon les huit dialects de l'euskara: le guipuscoan, le biscaïen, le haut-navarrais septentrional, le haut-navarrais méridional, le labourdin, le bas-navarrais occidental, le bas-navarrais oriental et le souletin; avec les differences de leurs sous-dialectes... pendant les anneés 1856, 1857, 1866, 1867, 1869. Par le Prince Louis-Lucien Bonaparte.
Londres [Strangeways & Walden]. 1869. XLIV, 160 p. 15 cuadros. 31,5 cm. Hol.

Se hicieron de esta obra 250 ejemplares, uno de ellos en gran papel. Hay un ejemplar en la BDV (sign. VF-1108) otro en BSB (1144) otro en la BJU (sign. 3394) y otro en AZB, (BA-36).

73. CATALOGUE des ouvrages de linguistique européenne édités par le prince Louis Lucien Bonaparte.
[London. George Barclay] 1858. IV + 31 p., 16.°

Hay un ejemplar en AZB, (BA-11) y otro en la BJU (sign. 3583).

74. CATALOGUE. Deuxième catalogue des ouvrages destinés a faciliter l'étude comparative des langues européennes, edités par le Prince Louis-Lucien Bonaparte.
Londres [Strangeways & Walden] 1862. X + 100 p., 16.°.

Hay un ejemplar en AZB, (BA-21) y otro en MBB.

75. COLLINS, Victor.

A Catalogue of all the publications (So far as they can be traded) of the late Prince Louis-Lucien Bonaparte Compiled by C. Lépice.
Paris 1902. X p. + 1 h. + 224 p. 12 cm.

Existe un ejemplar en la Biblioteca de la Diputación de Vizcaya y otro en la Biblioteca General de Navarra.

76. ELLIS, Alexander J.

Prince Louis Lucien Bonaparte's Lists of vowels and consonants, and identifications of European vowels with examples.
[s. l.] [s. i.] [s. a.].

Reprinted from Alexander J. Ellis's "Early English Pronunctiation", p. 1294-1357. 4.º.

Hay un ejemplar en AZB, BA-69.

77. INCHAUSPE, Abbé.

Le verbe Basque par l'abbe Inchauspe Ouvrage publié par le Prince Louis-Lucien Bonaparte...
Paris. Benjamin Duprat. Bayonne. Veuve Lamaignère, née Teulières, 1858. XII + 511 p., 27,5 cm.

De este libro hay un ejemplar en AZB, (BA-5) y otro en la BDV (signª V-1-6-55).

78. ITURRIAGA, A. P.

Dialogues basques: guipuscoans, biscaïens, labourdins, souletins; par Don A. P. Iturriaga, le P. J. A. de Uriarte, M. le cap. Duvoisin, M. l'abbé Inchauspe. Accompagnés de deux traductions, espagnole et francaise.
Londres. /W. H. Billing/ 1857. 121 p. + 1 h.

De esta edición se hicieron 251 ejemplares, uno de ellos en papel especial. Existe un ejemplar en la BDV (signª V-1-1-37) otro en la BJU (sign. 4449) y otro en AZB, BA-3.

79. JONES, W. M.

A table of days, or the testimony of languages to the identity of the Sabbath. I. The days of the week in Asiatic an d African languages. Prepared by... II. The days of the week in all the european languages. Prepared by H.I. H. Prince Louis Lucien Bonaparte. Table III. Prepared (except n.º 1) by the late Rev. W. H. Black F. S. A.
London.—Penny & Hull. 1880.—2 h., 56 cm.

Hay un ejemplar en la BDV (sign. VF-1.100) y otro en BSB (1142).

80. LIZARRAGA, Joaquín.

Jesus Copla guisa batzuc molde gutitacoac, celebratus Jesus jaunaren amoreac ta favoreac. Don Joaquin Lizarraga componduac, ta Luis Luciano Bonaparte Principeac argitara emanac.
Londresen /Strangeways & Walden/ 1868. 2 h. 121 h. (729 coplas). 14,5 cm.

De este libro se hicieron 250 ejemplares. De ellos hay uno en la BDV (sign. V-3-1-20), otro en BSB (1123), otro en AZB, (BA-28) y un tercero en la BGN.

81. OLCE, Joannes d'.

Pregarioac Bayonaco Diocesacotz ordenatuac eta imprimarariac. Reedité par le Prince Bonaparte.
Bayonne, Veuve Lamaignère. 1866. 3 h., 26 pp. 178 11 cm.

Hay un ejemplar en la Biblioteca General de Navarra.

82. SALABERRY D'IBARROLLE, A.

Vocabulaire de mots basques bas-navarrais, traduits en langue française.
Bayonne: Veuve Lamaignère, 1856, XVIII-252 pp. 17 cm.
Hay un ejemplar en AZB, procedente de la Biblioteca de Norbert Tauer.

83. SAMPER, Pedro José.

Curiosidades euskaras. Carta escrita en el sub-dialecto salacenco al Príncipe Luis Luciano Bonaparte por D... Abad de Jaurrieta, acompañada de notas gramaticales redactadas por aquel ilustre bascófilo (Publ. en el n.º 65 de la Revista EUSKARA).
[s. l.] imp. de Joaquín Lorda [s. a.]. 1 h., 47 cm.

Hay un ejemplar en la BDV (signª VF-1.100).

MARKINA, BIZKAIERA LITERARIOAREN SEHASKEA

Markina, 1983-IX-25

Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua

- Markina-Xemeingo Alkate jaun Lauren Aretxabaleta,
- Jose M.ª Makua, Bizkaiko Diputadu nagusia,
- Jose M.ª Velez de Mendizabal, Kontseilari ordea,
- Patxi Zubikarai, Bizkaiko Kultur arduraduna,
- Urkixo-tar Inazio jauna,
- Euskaltzaindiko jaunak.

Jaun Andreak:

Euskerearen landan bere-biziko garrantzia dabeela euskalkiak edo euskal dialektoak, ez da ez dakienik. Euskaltzaindiak berak batzorde bat dauka Euskalkiena deritxona. Ahozko euskerea, hau da, herriak berba egitean darabilena, ez da toki danetan bardina, euskalki edo dialektotan banandua dago, eta batetik bestera bere bai, dialektoaren barruan. Bonaparte Printzipeak azterketa luze eta sakonen ostean erabagi eban euskeran 8 euskalki edo dialekto dagozala. Azkuek, geroago, esango dau 8 barik, 7 direala. Beste batzuen eretxiz larregi dira zortzi edo zazpi, eta gitxitu gura dabe kopuru hau; beste batzuek, ostera, handitu egiten dabe euskalkien kontua.

Eretxietan bat ez etorte honek beronek adierazoten dau honeek ez direala Matematika hutsak, euskalkien arteko mugeak ez dagozala beti garbi; nun hasten dan bat eta non bestea ez dala beti jakiten erraz. Baina euskerearen barruan desbardintasun ezagunak eta txito handiak dagozala, hori bai, danok autortuten dabe. Eta ahozko euskalkien artean dabala bat guztiz berezia, batzuk bizkaierea eta beste batzuk sartaldeko euskalkia deituten dabeena, hori bere bai.

Baina ez da nire asmoa ahozko euskalkietaz hitz egitea, euskalki edo dialekto literarioetaz baino, eta konkretuki bizkaiera literarioaz. Zeri deritxo euskalki literarioa? Idatzizko zereginetarako erabili izan dan edo erabilten dan euskera modu jakin bati.

Euskalki literarioen behar izana nondik heldu dan bistan dago. Esan dogun legez, ahozko euskalkien barruan desbardintasunak egon ohi dira tokitik tokira. Idazteko erabili behar dan berbeteak, barriz, bat eta bardina izatea eskatuten dau, eta orduan idatzizko zereginetarako euskera mueta batu bat

edo bardin bihurturiko bat atonduten da, eta liburuetan, hitzaldietan etab. berau erabilten da.

Dialekto literario honeik gehienetan zelan sortuten direan, gauza jakina da. Tradizino literarioa euki daroe oinarritzat, hau da, idazleak bata besteaen ostean belaunez-belaun bardin idatziz egiten dabeen tradizinoa. Idazleak idatzizko beharretarako eratu eta eregi dabeen euskalki muetea, hori da, bada, euskalki literarioa. Euskalki literarioak ez ditu, bada, aintzat artuten ahozko euskalkiaren barruan bizirik dagozan desbardintasun guztiak. Nahiko baleu bere, ezingo leuke, eta kaltegarri izango litzake, ganera.

Idazleak, tradizinoari sorrerea edo hasierea emon eutsoenak, toki jakin bateko aho euskerea hartuten eben oinarri (batzutan nasaiago, beste batzutan estuago), eta halan, euskalki literarioan toki haretako aho euskerearen markea da ezagun.

Bizkaiera literarioa Markina uriko aho berbeteari loturik dagoela begien bistan dago eta gure literatur kondairatik garbi egiaztuten da hori. Ahoz erabilten dan bizkaiereak desbardintasun eta alde handiak ditu tokitik tokira, baina bizkaiera literarioak ez ditu desbardintasun horreik aintzakotzat hartuten. Markina uriko berbeta moduan errime eta sendo oinarriturik dago bizkaiera literarioa. Egia da gero, denborearen egitez eta Markinatik urrun bizi zirean idazleen eraginez, batzutan uri honetako euskerearen ezaugarri batzuk galdu dituela, baina halan da guzti bere, sorlekuari leial iraun izan dau. Gertaera edo jazoera honeik ez dira hain zaharrak: XVIII. hondarreko eta XIX. gizaldikoak dira.

* * *

Nun daben bere iturria, sorrerea edo abiapuntua bizkaiera literarioaren tradizinoak ez da dudarik: Juan Antonio Mogelengan (1745-1804). Bera ez zan markinarra, Eibarren jaioa baino. Gure kide Juan San Martinek haren bataio agiria idoro eban eta gaur hortaz ez dago zalantza izpirik. Baina bere bizitzako zatirik gehiena Mogelek hemen emon eban, bertako arimazain edo erretore izanik, eta bertako jendeaz bat eginik.

Atzerritarra zan jatorriz, abizena edo deiturea bere ez dau euskalduna, Aragoi aldekoa baino, bere ikasketak Euskal Herritik urrun egin zituen, Calatayud-ko Jesuiten Kolejioan. Baina bere eginbidea zintzo beteko baeban, euskerea menderatu behar ebala aurki konturatu zan, eta hartara jarri eta euskaltzaletu zan.

Jaungoikozale gartsua, herriari Jaungoikoaren hitza irakasteaz arduratu zan. Laster prestatu eban liburu bat gai honetaz eta euskeraz. Baina zer euskera mueta erabili eban bere lehenengo liburu honetan? Liburuak ez dira egiten leku bateko jendearentzat bakarrik. Liburuak zabalkundea nahi eta behar dau. Horregaitik bere dudeak izan zituan gure Mogelek, eta ez da harritzekoa. Bere lehenengo liburu handia *Confesio ta Comunioco Sacramentuen*

gañean Eracasteac ez dago bizkaieraz, erdi aldeko euskera zabal baten baino, hau da, gipuzkera zabal baten. Liburua argitaratuteko, barriz, oztopoak izan zituen Estaduaren aldetik, baina Mogelek gora jo eban. Erregeren Ministro bilbotar bat zan, Mariano Luis de Urquijo, eta honen bidez trabea erditik kendu eban.

Urten eban liburuak, baina orduan Bizkaiko abade jaunak hasi jakozan erostaka eta aieneka, Bizkaiko berbetea itzi eta Probintziakoa hartu ebalako. Kritikeak hain gogorrak izan zirean, ze liburuska bat atara behar izan eban Mogelek bere burua zurituteko: *Nomenclatura de las voces guipuzcoanas, sus correspondientes vizcaínas y castellanas, para que se puedan entender ambos dialectos.* Bertan dinosku zelako kontrea iruntsi behar izan eban. Dino ganera euskalki bi honein arteko desbardintasunak ez direala hainbesterainokoak, eta berak arrazoin guztiz sendoak atara daikezala bere jokabidearen zuzena erakusteko, etab.

Ze arrazointzuk direan honeik ez deusku esaten liburuska honetan, baina erraz uler daiteke: liburuaren zabalkundea. Gero *Confesino Ona* liburua bizkaieraz atara eban, eta hemen zeharka legez emoten deusku arrazoin hori: dino ba ze lehenengo bere liburuaren mila ale zabaldu direla Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan zehar. Izango ete eban horrelako zabalkunderik bizkaieraz idatzi baleu? Dana dala, badirudi bere herritarren kritikeak imurtxi egin eutsoela, apur bat behinik behin, eta handik aurrera bizkaierea landutera jarriko da. Hor dogu bere obrarik ezagunena, *Peru Abarka,* bera hil eta ia 80 urte geroago agertu zana. Baina beti egon zan beste euskalki eta euskera muetei edegia.

Frantziako Iraultza handiko garaian Mogelek bere etxean hartuten zituen handik ihesi etozan apaiz eta beste. Halan Iparraldeko euskaldunak ezagutuko erea euki eban. Baten-batek erakutsiko eutsan Lavieuxville-ren *Catichima,* Baionako eliz-barrutian erabilten zana. Haren poza! Kristinau Ikasbidea euskaldun bihotzetan landatutea izan zan Mogelen ardurarik handiena, eta Lapurdiko Ikasbide hau ezagutu ebanean, izugarri gustatu jakon. Maitemindu zan beragaz eta bizkaierara itzuli eban, nahiz eta ez hitzez-hitz, gauza batzuk aldatuz eta egokituz baino. Eta hitzaurrean esaten dau Ikasbide hau gipuzkerara bere itzultzeko asmoa dabela. Tamalez, bizkaierazko itzulpen hori ez zan argitaratu. Arantzazun dago ale bat eta Derion beste bat (biak eskuz idatzirik, jakina). Badogu asmoa Euskaltzaindiko "Lekukoak" sailean bi-biak atarateko: Lavieuxville lapurtarra eta Lavieuxville-Mogel bizkaitarra.

Mogelek lan eskergea egin behar izan eban. Bidea urratuten ebilen. Horregaitik antz emoten jako batzutan zabuka edo zalantzan dabilela. Ez eban bere aurretik aitzindaririk edo gidaririk. Lavieuxvilleren Katiximak hizkera bat guztiz normalizatua eta trebatua erakusten deuskun bitartean, bizkaierazko itzulpenean agertuten dana apur bat esperimentuzkoa dala dirudi, asmaketan eta haztamuka bezela dabilela, eta beharko ibili, tresnea egin barik baegoan.

Izan eban Mogelek adiskide handi bat, bere kidekoa, eta bere kezken partaide zana: Aita Añibarro frantziskotarra, Arratiko semea, Zarauzko komentuko mixiolarietakoa. Hau bere bidea urratuten ibili zan bizkaierearen arloan.

Peru Abarkan euskereari buruz berbetan agiri direan fraidea eta abadea (Fr. Pedro de Urlija y Don Juan de Zandija) duda barik gure adiskide biok dira (Fr. Pedro Antonio de Añibarro eta Don Juan Antonio Moguel). Bien artean eregi eben bizkaiera literarioa, baina beti eta gauza danetan ez zirean eretxi batekoak. Añibarrok ez eban ikusten bizkaiera idatzian zergaitik sartu behar zirean Markinako euskerearen lokalismo batzuk. Esate baterako, hitza, berez, "mendi" baldin bada, eta artikulua "a", idatz daigun "mendia" eta ez "mendija"; hitza "bete" baldin bada, eta artikulua "a", jar beite "betea", eta ez "betia". "F" letrea euskeratik kendu behar zala zinoan Mogelek. Horretan bere Añibarro ez dago konforme bere lagunagaz. Autortuten dau Markina aldean ezintasun bat dagoela letra hau ebagiteko, baina ez Bizkaiko eskualderik gehienetan, eta Añibarrok ondo ekizan gauza honeik, ze misinoak emoten ibilten zen herriz-herri.

Hasieratik bertatik bizkaiera literarioaren eskola bi ikusten ditugu, bada: Mogelena, Markinari lotua, eta Añibarrorena, apur bat zabalagoa eta lokalismoetarik askatuagoa.

Halan bere, eta lehenengo abiadan, Markinakoak hartuko dau indarra. Eta horren arrazoina hau da: bizkaierazko lehenengo idazleak, gehienak behinik behin, zelan edo halan, Markinari lotuak egon zireala. Ez dago izenak gogoratu besterik: Juan Antonio Mogel, eta gero Juan Jose Mogel, bestearen lobea. Fr. Bartolomé de Santa Teresa, fraide karmeldarra, Markina-Etxebarriko semea; Pedro Astarloa, frantziskotarra, apologistearen anaia: hau jaiotzaz ez zan markinarra, baina berak autortuten dau hemen Markinan igaro ebala haurtzaroa eta horregaitik hemengoa dabela bere euskerea. Jose Antonio Uriarte frantzizkotarra, Bonaparte Printzipearen lankidea. Hau ere markinarra ez izan arren, hemen bizi izan zan exklaustrazinoko garaian.

Idazle mordoska honek emon deutsa abiadea eta egiturea bizkaiera literarioari, eta egitura honetan Markinako euskerearen markea argi eta garbi agiri da. Gero Sabino Aranak bere *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino* liburuan sarrera handia emongo deutse idazkeran Markinako euskerearen berezitasunei.

Ezin hasi gaitekez hemen geroagoko eboluzinoa arakatuten. Etorriko dira —zelan ez?—, Markinagaz zer-ikusi handirik ez dabeen idazleak, eta horreek gehiago joko dabe Añibarroren bidetik. Hau zehatz egiaztuteko Txomin Agirre, Etxeita, Azkue, Otxolua, Kirikiño, Ibargutxi, Zarate eta beste batzuen jokabideak aztertu beharko lirake, baina ez dogu astirik. Dana dala, gauza bat esan geinke, huts egiteko beldur handirik bage: bizkaiera literarioak leialtasun handia gorde deutsola bere sorlekuari: Markinari.

Batzuek ez dabe ikusi edo autortu gura idazteko erabilten dan hizkerea ez dala morroi huts-soila, esan gura dot, berba egitean erabilten dogunaren morroi, gauza danetan behintzat; baina hori halan da. Gauza bat da berba egitea eta beste bat idaztea. Eta, besteak beste, hauxe da horren arrazoina: udatzizko hizkereak beti bat eta bardina izatea eskatuten dau; hitz egiten dana, barriz, mila aldaeratan banandua egoten da. Orduan idazleari mila aukera aurkeztuten jakoz, eta horietarik bat hautatu behar izaten dau. Baina zein hautatu? Hor izaten dira istiluak. Bidea urratuten ebilenak neke handiko zamea hartu behar izan eban euren-gain. Mogeli ezin uka daitekio meritu hau.

* * *

Euskal literaturea apur bat agurtu dabenak badaki euskerearen barruan lau euskalki literario dagozala. Ahozko euskalkiak gehiago dira, baina idazleen arduraz eta langintzaz idazteko atondu edo eregi direanak, lau; hau da: lapurtarra eta zuberoarra Ipar aldean, eta gipuzkerea eta bizkaierea Hegoaldean. Gogora daigun Kanpionek bere Gramatika famatuari haonan eritxola: *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua éuskara.* Beraz, lau idazmolde edo literatur tradizino euskerearen barruan.

Euskaldunok, guztiok alkar jota bere, urri gara, gitxi, esan nahi dot. Euskerea, hizkuntza bat izanik eta lau idazmoldetan banandua egonik, hortik eskasidade, moztasun eta laburtasun batzuk sortuten jakozala liburuen zabalkunderako, irakaskuntzarako, administrazinorako eta alkarrekiko hartuemonetarako, ezin uka.

Eskasidade horreik goitu gurarik sortu da gure egunotan abiadea euskera modu bat, Euskalerri guztirako balioko leukeena eregiteko: euskera bat euskaldun guztiona izango dana eta zeregin batzuetarako behinik behin, aukerakoa izango litzakeena.

Asmo hau nahikoa zaharra eta aspaldikoa da, baina aurreragoko testigantzak alde batera itzirik, Eleizalde bergararra izan zan arazoa mahai ganean ipini ebana Oñatin, Eusko Ikaskuntzako Batzarrean 1918. urtean. Handik berehala Euskaltzaindia sortu zan eta beronen Arautegi edo Estatutoetan eginkizun hau egotzi jakon berari, hots, guztion euskera hori eregiteko ardurea har eiala. Eta gauza ezaguna da lehenengo Euskaltzainburuak, hau da, Azkuek, zelako ahalegina ipini eban guztion euskera hau osotuten, bai teorian eta bai praktikan bere. Eta bardin Sebero Altube eta Olabide euskaltzainak bere. Eta aitatu ditudan laurok —Eleizalde, Azkue, Altube, Olabide— bizkaitarrak dira euskalkiz.

Behin baino gehiagotan esan dot bizkaitarrak izan direala guztion euskera baten behar izan hori gehienik sentidu dabeenak eta asmo horren alde gehien agertu direanak. Dinodanaren testigutzat, oraintsu aitatu ditudanez ganera, beste izen honeik atara daikeguz: Garitaonaindia, Andima, Zaitegi, Aresti, Berriatua. Mogelen kasua gorago ikusi dogu. Txomin Agirrek bere,

Kresala bizkaieraz idatzi eban, baina *Garoa* gipuzkeraz. Euskal idazle bizkaitarrak, bere euskalkia apur bat Euskal Herriko bazterrean dagoelako eta Bilboko uriburua euskaldun ez dalako, nunbait, beti sentidu dau tresna zabalago baten behar izan hori.

Dana dala, euskereak tresna bat edukitzea, hizkera standard bat, Euskal Herri guztirako balioko dabena, mesede baino ez da.

Baina horrek esan nahi ete dau lehengo euskalki literarioak galerazo edo baztertu behar direala? Ez, inondik bere. Euskaltzaindiaren jarrerea honetan garbi dago. Berak euskera batua bultzatu gura dau. Badaki, ganera, neurri handi baten, horretarako sortua izan zala, baina euskalki literarioak bere hor dagoz eta idazmueta batzuetarako euskera batua baino egokiagoak dira. Beraz, batak ez dau bestea kentzen.

Euskaltzaindiak nahi dau, bada, bizkaierea gorde daitean eta landu daitean. Orain, zer moduzko bizkaierea? Edozein? Ez. Batzutan bizkaierearen aitzakiaz edozer gauza saldu ohi da (1). Bizkaiera literarioak badau egitura bat, eta tradizino bat: tradizino horri leial dagoena, hori da bizkaiera jatorra. Euskaltzaindiak ez dau nahi euskaldunon artean horma eta hesiak direan baino handiagoak egiten ibiltea eta euskerea gero eta gehiago zatikatutea. Badaki eta, hortik ez datorrela gauza onik.

Eta hizkuntza guztirako ortografia bat erabagi daben ezkero, Euskaltzaindiak gura dau bizkaieraz idaztean bere hori gorde daiteala. Baldintza batzuk gorderik, Euskaltzaindiak begi onez ikusten dau bizkaierea landutea, eta baita irakaskuntzan irakastea bere. Gauza honetaz Bergarako Biltzarraren ostean Euskaltzaindiak agiri bat atara eban: "Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak" **Euskera** (1979), 101; eta apur bat geroago beste bat: "Euskara batua eta euskalkiak irakaskuntzan" **Euskera** (1979), 697. Lehenengo Agiri horretan baldintza bi gorde beharrekoak aitatuten dira euskalkien landutea onerako eta ez kalterako, gerta daitean: Ortografia orokorrari eta hizkuntzearen azpiegitureari jaramon egitea.

Batzuek Euskaltzaindia gogor hartu daroe euskera batuaren alde dagoelako, eta beste batzuk, barriz, euskalkien alde dagoelako. Baina Euskaltzaindiak uste dau bai bata eta bai bestea bere egin behar dabela.

Laster izango dira urte bi Agiri bat zabaldu zala. Bertan esaten zan Bizkaian euskerea galduz doiala, eta horren erruak euskera batuari egozten jakozan. Jaungoikoaren amoriarren, ez gaitezan ibil aker baltz baten bila, erru guztiak hari egozteko! Jokabide horregaz ez dogu besterik egingo geure buruak itsu bihurtu baino. Euskereak aje asko eta larriak ditu, bai Bizkaian eta bai beste eskualdeetan bere, eta nahikoa lan izango dogu bizirik ataraten.

(1) Bueno, esan behar da euskera batuaz bere gauza bera jazoten dala. Euskaltzaindiak —bistan da— ezin dau onartu euskera batuaren izenean esaten edo idazten dan guztia.

Nik ez dot uste aje guzti honeintzat "panazea" bat bakarra dagoenik: ez euskalkia eta ez euskera batua bera bere. Mueta askotako eta alde askotako erremedio eta sendagaiak beharko dira. Eta lehenengo eta behin, euskalduna bera zinez, eta ez itxuraz bakarrik, dendatutea.

Baina euskalkiaren barruan kiribildurik egotea, oraintxe litzakigu inoizko kalteginena. Lehenago gizona bere zuloan sarturik bizi zan, gaur ez, alkarrekiko hartu-emonak gero eta handiagoak dira. Nik ez neuke nahi neure herritarrak trena gal dagien. Bizkaitar handi hareik —Mogel, Azkue, Txomin Agirre eta bestek— agertu eben zabaltasunari eta edegitasunari eutsi deiogun. Beraz, bizkaiereari "bai", eta euskera batuari bere "bai", esan deiogun.

Amaituteko, berba bat Euskaltzaindiak hemen Markinan egun honeitan egin daben lanari buruz. Askotan entzun eta irakurri izan dogu Euskaltzaindiak herriko euskereari eta euskalkiei ez deutsela jaramonik egiten. Baina Euskaltzaindiak badau batzorde bat Euskalkiena deritxona. Eta, hain zuzen, batzorde hau batu da hemen egun honeitan. Zetarako? Herri euskerearen bilketak zelan egin arakatuteko. Bilketak egin nahi ditugu Euskal Herri guztian barna Euskerearen Atlasa osotuteko asmoz. Obra handia izango da, urte askotako lana. Baina honelako obra bat ezin eroan leike aurrera plan zehatz bat egin bage, antolaketa bat bage, eta hori egitera batu da Euskaltzaindia, nun eta Markinan. Egun baten esan ahal izango da Markinatik urten ebala Euskerearen Atlasa zertu eban talde bizkorrak.

Eskerrak emon gura deutsedaz lanean jardun dabeen guztiei eta batez bere atzerritik guri eskua emotera etorri jakuzan jaun jakintsuei.

Eta —esan bage doa— eskerrik beroenak Markinako Alkate jaun, udaletxe eta herriari egin deuskuzuen abegi ezin hobeagaitik.

MARKINAKO LORE JOKOAK

Markina, 1983-XI-25

J. M.ª Velez de Mendizabal
Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailburuordea

Bene benetan oso zaila zait hemen entzundakoari baliozko hitzik eranstea. Ez bait nuke aurrekoen mailara iritsi ahal izango.

Eta nereak ez direla konpromezuzko berbak ba dakizue. Behintzat ezagutzen nauzuenek nola pentsatzen dudan garbi duzue eta.

Gaur Eusko Jaurlaritzaren izenean zuengana azaltzea suertatu zait. Euskaltzain urgazle izatearen eskubideak zuen artean egoteko aukera ematen dit, baina ez da era honetan agertzen naizela, gaurregun euskaldunok dugun lehen erakundearen izenean, baizik. Eta, zer esanik ez, honek ohore ematen dit. Ohore eta erresponsabilitatea.

"Markina'ko Lore Jokoak" ekintzak ehun urteurrena betetzen du, hurrengo urteetan, oker ez banago, Durango eta Gernikakoek beteko duten bezalaxe.

Jean Louis Davant'ek ondo azaldu du Joko hauen arrazoi eta zergaitia. Eta, ausartuko nintzateke esatera, gaurregun ere beharrezkoak ditugu honelako jaiak, euskal kontzientzia zutik iraunterazteko laguntzen baitute. Eta edozertan lan egin behar badugu horretantxe da, hain zuzen ere, euskal kontzienzia —NAZIO KONTZIENTZIA— sortu eta indartzen.

Hainbat bider idatzi dut nik HIZKUNTZA ETA NAZIO konzeptuen arteko erlazioaz. Abertzale sentitzen den gobernu batek ontzat eman behar du binomio horren garrantzia eta funtsa.

Eta Kultura Sailari dagokionez, behintzat, hori aspaldidanik dagoela *arau* eginda aitortu behar dut. Eta gure hauetan irauten dugun bitartean —ziur zaudete!!— ez zaituztegu bertan behera utziko. Zuei laguntzean ABERRIARI laguntzen ari baitgatzaizkio.

Euskaldunok gure euskeraren alde daukagun burruka historikoa ez ezik baita eredugarria ere dela esan behar da. Orain arte inolako ofizialtasunik gabeko erakundeak izan badira ere borroka horren eragileak, gaurregun ba dugu Gobernu bat *betiko borrokalari* horien asmoak burutu behar dituena. Euskadi euskalduntzea prozesu luzea eta nekea izango bada ere fede osoa dut

ipinita enpresa honetan. Eta nik bezala pentsatuko duzuelakoan nago. Baina aurreko hitzek ez dute esan nahi behetik goruntza joan daitekeen indarra alperrikakoa denik. Ezta are gutxiagorik ere. Sekula baino garrantzitsuagoak ditugu Euskaltzaindia eta gainerakoak.

Eta sekula baino premiazkoagoak ditugu Udalek antola ditzaketeen Joko hauen moduko ekintzak, herriak eta herritik sortutako kezka, emaitza, ondorio, fruitu... bideratzeko aukera egokiak baitira.

Beraz, nire partetik eskerrik beroenak Udalari eta Euskaltzaindiari. Ekin eta jarrai.

JEAN ELISSALDE "ZERBITZARI" IDAZLEAREN MENDEURRENA

Azkaine, 1983-X-29

ZERBITZARI-REN OMENALDIA

Azkainen, Urriaren 30-ean - 1983

André Luberriaga
Azkaineko Auzapeza

Adixkide maiteak: deneri agur eta ongi etorri Azkaingo herrian. Egun ditugu beraz apailatzen edo muntatzen, Larrun mendia lekuko, 2 besta eder = Eskualtzaleen biltzarraren urteko elgarretaratzea eta Zerbitzari zenaren omenaldia, lehen mende buru-kari.

Bai, segurki Azkaine ohoratua eta lausengatua da zuek guzieri esker. Egun goxo bat pasa dezagun elgarrekin.

Milesker berezi bat mugaz bertzaldetik etorri diren guzieri, etorri diren gure anaieri, zeren odol ber-bera baitugu gure zainetan eta itxaropen ber-bera gure gogo bihotzetan.

AZKAINE, herri gisa ezagutua da bazterretan. Herri pollita omen da... Bainan Eskual kulturari buruz zer da Azkaine? bertuteko herria ote da?

Herri huntan, jendea bethi mintzatu da eskuaraz eta, jainkoari esker, oraino mintzo da. Bainan, denetan bezala, buruz beheitiko bat egin du 30 urthe hautan. Hainitz kanpotiar sartu delakotz, bainan ere –zertako ez kofesa gure bekatua den bezala?– Eskual hizkuntzaren amodioa epeldu delakotz gure bihotzetan.

Lehenengo denboretan, idazle edo izkiriatzaile famatuak izan dire Azkainen. Huna zonbeit izen:

– J. B. DUHALDE, Uhaldekoa, jesuita, olerkilari eta predikari aipatua.

– Aita Klement, hura ere deituraz Duhalde, Sabadin baitakoa, kaputxino predikari famatua.

– Xurio bi anaiak; Mixel, berteak bertze, *Jesus Christoren Imitacionea* eskuaraz argitaratu duena; 11 aldiz agertua izan baita. Zer arraskasta! Piarres, haren anaia, Teologiako sailean lan ederra egin duena.

– Martin Iribarren, Etxeberrikoa, Eskual hiztegi edo "dictioner" bat egin duena, bertze lan hainitzen artean.

– Exteben eta Damien Lapeyre anaiak eta bertze zonbeit famatu izendatzen ahal niuzke hemen, bainan sobera luzatuko nuke. Bego beraz hortan lehengoa...

Eta orai? gure orrhoitean, Jean Elissalde, Zerbitzari, Eskualzaindikoa (Euskal Akademia). Nere ondotik, nik egiten ahalnuken bainan hainitz hobeki mintzatuko dire hortaz aita Villasante eta Roger Idiart.

Gaurko egunian, badugu, hau ere Eskualzaindian barne dena, gure adixkide Piarres Larzabal, "Pierre Ixelenkoa". Antzerki edo teatro sailean lan berezia egin duena. Gora Piarres eta hainitz urthez jainkoaren laguntzarekin!

Bertze idazle eta predikari ezagutu bat = Roger Idiart, Euskualzaindiko bidean egiten hari baititu urrats ederrak zonbeit urthe hautan.

* * *

Eta bihar? biharkoaz kexu naiz eta kexu gare Azkaingo herri kargu dunak. Bainan, egiten ahal ditugun guziak egiten ditugu guk ere Eskual kulturaren alde. Huna zonbeit ponttu:

* orai dela 12 urthe, herriko bozak doi doietarik galdu izanikan ere, zonbeit lagunekin indar berezi bat egin ginuen eta egunetik biharrerat ikastola bat sor-arazi nere aita zenaren etxean. Egun, urtero 20 haur badira ikastola hortan.

Eskual dantza eta xistulari talde bat ere sor arazi ginuen, nere kusina Anddé lendakari. Talde hori bataiatu ginuen "Ikasleak", gure haur denborako "Tunantiak" talde ttikiaren oroitgarri. Iphar Euskadiko talde hoberenetan da egun "Ikasleak" taldea.

* Geroztik, herri kargudun gisa ez gira uzkur egon. Kontseiluko biltzetan berdin mintzo gare eskuaraz edo erdaraz, 19-ak eskualdunak garelakotz. Hori ez da ikusi gure herrian, bederen 100 urthe hautan. Bethi baziran erdaldunak eta heien gatik denak erdaraz mintzo baitziren. Urrats hori urrats zaila izan da, kanpotiarrez hainitz nahasia den herri batean, eta urgullu dugu hori eginik = 19-ak eskualdunak!

Bertzalde, ganden primaderan edc uda berrian, bozkatu dugu 19-ek, herri diru konduetako (edo budgeteko) eguneko bat baztertuko gizuela Eskual kulturaren alde. AZKAINE DA Iphar Euskadiko herri guzietan urrats hori lehenik egin duena.

Ikusten duzue, oxtixon aipatu ditutan Eskualdun kartsuek eta, bereziki, guk haurrean eta gaztean ezagutu Zerbitzari eta Piarres Larzabal-ek umeak egin dituztela!

Eguneko bat hori, haurten, Azkainen, 3 milliun eta 800 milla libera da, diru xaharrean. Diru hori nola puskatu dugu? lehenik, herriko 3 talderi, urthe guziz bezala, emanez beren diru partea: pilota, eskual dantza, ikastola. Bainan ere, herriz kanpoko bertze 13 talde edo batasuneri diru laguntza emanez. Huna zoin diren, aurtengo 13-ak: Donibane Lohizuneko Ikastola (lehen maila), Aturri-Nabarrako irratia, Gure Irratia, Eskualtzaleen Biltzarra, Ikas, Aize Garbia, Lauburu, Antzerkilarien Biltzarra, Gau Eskolak, Bertsularien

Lagunak, Institut d'Etudes Basques Ikastegia, Eusko departamenduaren aldeko batasuna eta Eskualzaindia.

Ez dut erran nahi Azkaingo herriak, urteko diru konduekin, 13 batasun horieri eman duela dirua sakelen bete; ez. Erran nahi dut egin dugula gure araberako indarra.

Bertze, eskual herriko, herri hainitzek egiten balute indar bera, hoberena litake diru horiek guziak emaitea kutxa bakar batean eta zatitzea eta idatzea, denak lekuko, bakotxaren beharraren eta mereximenduaren arabera.

Sail hortan naizelarik nahi ditut 2 dei egin Azkaingo xoko huntarik, behar bada larrun puntarat ganik denek entzuteko gisa:

Ipar Euskadiko Auzaphez edo mera maiteak = denek egiten baduzue, bakotxak bere herrian, Azkainek egiten duena, gaurtik biharrera Eskual kulturaren salbatzeko behar diren diru guziak bilduku dire! Parisek eta Pauek beren saileko eginbidea betez erran gabe doa.

Urtea bururatzean, ez zuek eta zuen herritarrak ez zaizte ohartuko ere 100-eko bat hori baztertu duzuela gure kulturaren alde!

Beraz, zertako uzkur egon? zertako ez egin guk bezala elduden urtean berean? Otoi; orrhoit nere gaurko deiaz.

Adixkide maiteak = luzaxko ari naiz eta barkatu. Orai bururatuko dut Zerbitzari zenari galde bat eginez, fagore bat galdatuz:

Mundu huntan zinelarik, apheza zinen eta otoitza maite zinuen. Eskual kultura-ren aldeko gudari bat zinen, pilotaren bidez eta izkuntzaren bidez.

Zure denboran ere baziren:

GAUDEN GU erraiten zutenak eta egiten zutenak; ez baita guti! eta

GOAZEN AINTZINA erraiten zutenak eta entseatzen zirenak; ez baita sobera!

Denek Eskual nortasuna zerbitzatu duzue, bakotxak bere gisa.

Pilotan ere, aintzinekoak behar du saka edo bote tzarra ateratu eta kintzea egin, bazterrak bilatuz, marrari tiratuz, airetik moztuz. Gibelekoak aldiz, kintzea atxiki, ez galdu.

Bi joko horiek elgarri josiz dire partidak irabazten. Bainan, aintzinekoa eta gibelekoa bakotxa bere alde jokatuz, partida galtzen da.

Zure denboran ere baziren "kixki-kaxkak" GAUDEN GU alderdikarien eta GOAZEN AINTZINA alderkikarien artean. Baziren, orduan ere, zakarkeriak eta bortizkeriak bainan hizkuntzaz eta izkirionez.

Oraiko bortizkeria, aldiz, gorputzeko bortizkeria da eta, maizegi, *ODOL IXURTZEZKO BORTIZKERIA.*

Egizu Jaun Jainkoari otoitz, Zerbitzari maitea, gure lurra maite dutenek eta zerbitzatu nahi dutenek, egin dezatela GAUDEN GU gisa edo GOAZEN AINTZINA gisa, BAINAN ODOL *IXURTZERIK GABE.*

Bihotzetik milesker otoitz hori egiteaz eta ikus arte, egun batez, zeruan ere, hemen bezala, diren Azkaine herrian eta Euskadi aberrian!

JEAN ELISSALDE "ZERBITZARI"REN MENDEURRENA 1883-1983

Azkainen, 1983, Urriak 30

Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua

Euskaltzainburuaren hitzak

Ander Luberriaga jaun auzapeza.

Mitxel Itzaina, Euskaltzaleen Biltzarreko jaun lehendakaria.

Euskaltzaindiko jaunak.

Jaun-Andereak:

Eskerrak, jaun auzapeza, gure batasuneko menbro baten ohoratzera deitu gaituzulakotz. Guri, zuri baino gehigo dagokigun gauzan, aurrea hartu duzulakotz. Mila esker!

Bai. Euskaltzaindikoa genuen Zerbitzari. Euskaltzaindiko gure bilkuretan, eta Gerezietan, non baitzen erretor, ezagutu nuen. Oroit naiz Iratzeder jaunak lagundurik joan nintzela Gerezietara Zerbitzari ikustera 1957. urteko udan. Aspaldidanik zen gure Akademiako lagun edo kide. 1920an —beraz, Euskaltzaindia sortu eta berehala—, euskaltzain urgazlea izendatu zuten, eta 1931n euskaltzain osoa.

ZITZAIZKIAN	2: 6-2/m/
ZITZAIZKIDAKEEN	4': 6-1
ZINTZAIZKIDAN	2: 6-1
ZITZAIZKIEKEEN	4': 6-6
ZITZAIZKIEN	2: 6-6
ZITZAIZKIGUKEEN	4': 6-4
ZITZAIZKIGUN	2: 6-4
ZITZAIZKINAKEEN	4': 6-2/f/
ZITZAIZKINAN	2: 6-2/f/
ZITZAIZKIOKEEN	4': 6-3
ZINTZAIZKION	2: 6-3
ZITZAIZKIZUEKEEN	4': 6-5'
ZITZAIZKIZUEN	2: 6-5'
ZITZAIZKIZUKEEN	4': 6-5
ZINTZAIZKIZUN	2: 6-5
ZINTZAIZUEKEEN	4': 3-5'
ZINTZAIZUEN	2: 3-5'
ZITZAIZUKEEN	4': 3-5
ZITZAIZUN	2: 3-5
ZITZAKEEN	6': NORK-NOR 3-6
ZITZAKETEN	6-6
ZITZAN	8: 3-6
ZITZATEN	6-6
ZIZUEKEEN	4': NORK-NOR-NORI 3-5-5'
ZIZUEKETEN	6-3-5'
ZIZUEN	2: 3-3-5'
ZIZUETEN	6-3-5'
ZIZUKEEN	4': 3-3-5
ZIZUKETEN	6-3-5
ZIZUN	3-3-5
ZIZUTEN	6-3-5

ZUEN	2: NORK-NOR 3-3
ZUKEEN	4': 3-3
ZUKETEN	6-3
ZUTEN	2: 6-3

ZUBEROAKO EUSKALKIAREN, BASABURUKO MOTAZ, OHAR BATZU

Txomin Peillen

Ihizeaz ikerlan bat egiten ari naizelarik eta bildutako zinten entzutean, gaurko zuberoeraren bilakaera zertan den erakutsi nahi nuke. Badakit nolako mugak ditudan, beharbada ihizlari batek edo bestek, bere euskal jakitate guzia ematen saiatu da eta lagunekin hitzegitean ez du hañ "ongi" hitzegiten. Dena den, beren pasioa aipatzean eta berotzean, erderakada, birau ta guzti bildu ditut, benetako hizketa arruntera irixteraino. Neri ere zinta horiek asko erakatsi didate, adiskide eta batzuk ahaide ditudan horien entzuteak.

1. Diptongoak. Pettarreko (Zuberoa beherako) euskaldunak diptongoen etsaiak dira, eta kutsu hori noraino Basabürüra (Zuberoako mendietara) sartu den ikusiz, hiru kasu arkitu ditut, lehenik auzotegi batean galtzen dena, bigarrenik prisaka hitzegitean galtzen dena; hirugarrenik gal zorian daudenak.

Lehen kasua Santa Graziko Xenta auzotegian entzuten da eta Salaber familiako ihizlariei bildu diet, alegia "ia", "i" bihurtzea, *khanbitü*, khanbiatü orokorraren ordez, "ie", "i" bihurtzea, *Berritx* (etxe izena), Berrietx-en ordez azken hau orain arte Salaberri etxaldean baizik ezdut entzun.

Bigarrena, denen artean entzun dut, beharbada gehiago Ligiko kharrikan eta Ligiko basa bazterretan bizi diren bi lehengusuen ahoan, Santa Grazikoen artean gutienik; halaxe "ia" "i" bihurtzen da, *ordin, bestin, khantin* prisaka hitzegitean; baina lasaiki egitean, *ordian, bestian, khantian.* Halaz ere adiektibu eta adberbio erabilienetan ikusten da aldaketa hori, bestelan kasi beti *oihanian, bortian, kanpoan* entzuten da. Halaz ere aditzetan ere beitzianen ordez *beitzin* entzuten da. Beraz "ia" hobeki kontserbatzen da hitzen erditan azkenean baino, indar txipienaren legea betez; berdin hastapenean, bokal arteko "r" galtzearekin sortu diptongoak eta triptongoak zaintzen dira: erauntsi, *eauntsi* irakatsi, *iakatsi* ahoskatzen dira, beste aldaketarik gabe.

Prisaka hitzegitean ere, gehienetan, salbu gorago ikusi kasuetan, "ie" ez da galtzen ez erditan ez, azkenetan, beti *badie, balie* bildu dut.

Laster mintzatzean ere hastapeneko eta azkeneko "ua" ez da aldatzen: *uata, uano* (orano), *bahua, otsua, ollua,* baina erditan "ua" "u" laburtzen da,

hirugarren kasuan gaude, alegia beti eta mintzazale guztien artean; *baduk* (baduak), *badutzü* (baduatzü), *jun* (juan). Azken adibide horretan oraino Santa Grazin batzük *juan* diote, baina ez Ligin eta Larrañan gure izeba zahar bat —duela hogei bat urte hila— *juan* esale azkena izan da. Hirugarren kasu horien artean batzuk beren diakronia daukate hots giza bizitzaren diakronika neurria; gaztaroan euskara ikasten nebilenean, zaharrek *erranen deiot, erranen deiozü* zioten, orain nere adinekoek, *erranen diot, erranen diozü* erabiltzen ditugu eta gazteen artean, baita aspaldixkan laster hitzegitean, *erranen dot, erranen dozü,* eta *erranen do* ere erabiltzen zirenak, arruntak bilakatu dira. Beraz oraindik Ziberoan hiru fonetika etapak ediren litezke "eio", "io", "o", adin bakoitzak, belaunaldi bakoitzak bere legea jarraikiz.

Beraz oraindik diptongoen mailan, Pettarreko kutsua ez da osoki Basabürüko fonetikaren galtzera heldu, salbü eta "ua" erditan dagoenarentzat eta "ia" azkeneangoa bokal bihurtuz.

2. Santa Graziko euskara zaharragoa.

Nahiz orain Santa Graziko gazteek zuberoera orokorra erabili forma zahar batzu kontserbatu dira, zintetan entzuten direnak: *hixtoria, hüskara* (beste herritan, ixtoria, üskara), berdin *juan* batzutan, *ibili* beti (ebili, beste herritan). Salaberriko etxekandere zaharrak *ere* dio (ee, beste herritan); Santa Grazin ihizlariek eta besteek ere *erhi* (ehi, beste herritan), herri horretan ere "ia" diptongoa hobeki gorde dute, bai eta beste herritan zaharragoek.

3. Frantses erdararen kutsua?

Mintzazale guziek frantsesa badakite eta nahikoa ongi, halaz ere ez dira beti erdal kutsuaz konturatzen; batzutan esandako erdal hitz edo esaera euskarara itzultzen dute, baina askotan eskolan ikasitako erdal gramatikaren ereduz, hitzegiten dute eta ni galderen egilea kutsatzen; huna erdal ereduko esaldiak.

Egiten zitieia ere lehen trapak...
Ils faisaient aussi autrefois des trappes
Ezarten ginia sofre
Nous mettions du soufre.
Laket nüzü ihizekan (iritzi aditza ote?)
Je me plais à la chasse.

Hiztegi arruntean ere erdal hitzak aldatu gabe azaltzen dira eta ez ditzakegu mailegu bezala onar; batzutan erdal hitz hori askotan atseginekin edo errepikatzen da eta mintzazale baten ahoan frantsesa ondo dakiala erakusteko esan dezakegu, gure sendikoa izanki ongi ezagutzen baitugu, eta nahiago baitzukean frantsesez erantzun. Huna batzu, noizean euskal ordain arruntik gabe:

"garde chasse"a batek; *garda,* besteek, "invité" "adjudicataire".

"nuisible" batek, *ogenegile, gaixkigile* besteek; "borne".

"braconnier", "chevrotine" "ouverture générale" (baita *zabaltzia* ere) "fermeture générale" (baita *zerratzia* ere).

"plan de chasse"a, "solitaire"-ak (baita *orots zaharrak* ere).

"degat eta dégât" (baita *gaixki, desgarraje* ere), "rembourse-atzen".

"protégé" "perfectionné" "jumelle" "gibier" (behin, bestelan *ihize*) "duvet" "squelette" "région" "secteur", "limité", "filet".

Hemen ikusten dugu gure diglosiaren iturri nagusia administralgoako hizkuntza dela eta garden mintzaira frantsesa dela. Baina erdi lege-hizkera horrez kanpo, gaztenen artean frantses esaldi asko entzuten da:

"d'ailleurs" "en principe", "souvenir" "attention!" "revue' "exclusivité" "lampe-électrique" "coupe" "à peu prés".

Bearnesetikako mailegu zaharrak ere, askotan erabiltzen direnak badira "prefosta" (noski), "süstut" (oroz gañ) "tutafet" (osoki) piju (etxe-uso). Gaztelaniazko "lleba" "bixta" eta birauak.

4. Zenbakien erabilera.

Euskaraz esaten dira kiloak, "lautanhogei" "berrogei" "ehün eta sei", kantitateak ere "hoitamar basahüntz" "hirutangogei ürzo", baina kartuxen kalibro arentzat zaharrenak, anaie gehienak dio, "hamaseia" "hogeia" eta gazteenak "douze" ia; urthegün gehienak frantsesez "soixante sept" a, "soixante dix sept"a, baina "diala hogei urthe". Berdin abiadureen adierazteko frantsesa "soixante-dix à l'heure".

5. Elebitasuna.

Bi hizkuntzak aski ondo menderatzen duenak, bi mintzairatan emaiten ditu izenak.

sathurdina edo mulot; *ezkür-sagü* edo campagnol multiplié par vingt edo *hogeietakoa*

6. Hierarakia

Jenteen gogoan zerbaiten baloratzeko joskerek aditza dute tresna, zuberoerazko egitura berezirik eztago; iparraldean entzuten direnak baditugu; alegia aditz laguntzailea alderantziz jartzea:

ordian dük jiten, gaiaz tük kurritzen ihize horiek,

gisa berean, *behar* eta *nahi* -rekin, alde batetik alderantziz jartzea ... *behar dik egin, behar dik ezari, ezari, behar zia goizik jeikhi* baita "aholku hizketan" agintekera bezala erabiltzen da perpaus haseran: *ezarten dük lürra, egiten die bai zum(b)ait lekhütan.*

Behar dik segür izan, behar dizü errespetatü. Behar dizü jakin. Behar diagü bildü hartz hori. Behar ziozü ützi.

Naski "elemento inquirido"ren balorapen egitura badugu zuberoeraz: *hura dük lehena, mezperatik juaiten güntia ihizera* baina gehienetan, gorago ikusi dugun aditz-laguntzailearen alderanzketa, erabiltzenago dugu.

7. Deskribapen motak

Aldiaren, garaiaren deskribaketa (aditza haseran ipiñita)

:Diala hogei urte. Badik aspaldi.

Aldearen, espazioaren deskribaketa, gertaerena

:Badie orok basa ürrin bat

:Bazütia larrü bilzaliak

:Batük espreseko arrathu phozuak

Bazütia espreseko zephoak.

Egitura horretan, ba/izan edo ukan, nahiz ez/izan edo ukan, guti/izan edo ukan esaldia haseran ipintzen da. Ez ote da erdararen aspaldiko eragina?

Iritzizko aditzak

Perpaus haseran:

Uste dit ere hartza.... Erran neizün, bürian...
Nahiago dit arma baten sariarekin...
Nahiago'tie hebenkoak begiratü

* * *

8. Hiztegietan arkitzen ez diren hitzak:

Akaballosa: ihize handiaren zerratzea.
Aidekagia: airera usoa tiratzeko lekua.
Apeumahañ: apeuaren azpian dagoen mahaia.
Apistu: frantsesetik bearnesaren bitartez, "arme à piston".
Arkhara: basahuntzaren eme beroaldia (ardiarena ere).
Armusa: jotzearekin txinpartak botatzen dituen gauza "amorce".
Arrathu-maillü: garratoina hiltzeko mailua.

Balesta: sator zepo.
Banda: iskaleren, zubien maila "barreau d'échelle".
Bixarro: larrü ihize txipiena, baliatzen eztena "loir".
Bixta: usategiko bixta, aurrean dauden zuhaitz buruak moztuz egin ditekena, usoak heltzen ikusteko.
Bortü-haxeri: mendi goienetako haxeri arre, "renard argenté".

Bortha: ihize txipien zulo sarrera "entrée de terrier".

Ezkür-sagü: gehienetan oihanetan ta belardietan bizi den sagua "campagnol".

Farranga: ihize baten biloan ikusten diren kolore marra, txingola luzeak, kolore desberdinekoak.

Gahixka: haxeriaren oñaze ta min marraka.
Gaio: egur borobil.

Harrarte: harri puxkatuz estalitako lekua, "pierrier".
Harreskaler: bide batean berez egindako harri eskalera.
Harripe: harrazpi, izkutaleku.
Hartzhabia: hartzak egindako kabia.
Hartz pata: ez da esaten aztaparra beste ihizeendako bezala, baina *pata* zakurrentzat egiten den gisa.
Harzingla: harkaitz piñaren horma kurritzen den bide txigor hestua.
Haxeri gorri (ikus Naba haxeri): zelaietako hazeria "renard roux".
Haxeri hütsa: azeria harrapatzeko kutxa "piège à renard" vivant" haxeria bizirik hatzemaitekoa.
Haxeri herresta: animale hil bat narrasta-azeriaren *xendan* (bidean)— pasarazten da eta gero dilindan ipintzen; "traînée de renard".
Hotero: zakurzañ, ihizorzañ. *Hüllankagia:* hurbiltzez ihizean aritzeko lekuak. *Hur-arrathu:* sudurluzedun ur garratoina "desman".
Hur maillü: zarrrata egiteko ur mailua.
Hür: zakurraren zaunka txipi luzea.

Ihize zabaltze: Ihizearen irekitzeko lehen eguna.
Ihize zerratze: Ihizearen azken eguna.

Jenetia: "genette".

Kabanakagia: uso kabanak egiten diren lekuak kabanakagiak dira.
Karga estalgi: zaldi, mando ta besteen bizkar ezarritako zama guziak, euriaren azolbean jartzeko erabiltzen zen larrua.
Kharrikünе: etxe multso batek, kale txipiena konpontzen duten lekua.

Lleba: phallota, uso-pala eusteko atxikitzeko sardea.
Lühin: lur gorria, bilusia.

Marradüra: lur azpiko "ziloen" zuloen marra.
Martina: "martre".

Mendi-gathü: ez da basagatua, baina etxe-gatu basaki bizi dena ta heren humeak "chat haret".

Nabastürik: leku batetara etortzera ohitua.

Ogara, ogaraka: larrü ihize txipien eme beroaldia (zakurrena ere).
Ogenegile: kaltegile, kaltegarri.
Oheaitzineko: ohe-aurrean lurrean ipintzen den larru edo oihala.
Orroko: orroa handia, arrama.
Otsozañ: otsoen gandik abereak zaintzea, eta abere zaina.

Poslari: posta batean dagoen gizona.
Posta: ihizlariaren gordeleku, izkutaleku, baita ihizea igaro arte utzi behar ez duen lekua.

Sarekagia: uso sareak ipintzeko tokia.

Thirabide: tirabide.
Trapa: larrü ihize txipiak harri baten pisuaz zapalduz hiltzeko zepoa.
Tzakürdün: zakur jabe, ihizor jabe.

Urzokagia: usoa ihizkatzeko edozein toki, ürzokagia.

Xenda: ihizearen bidea "coulée".

Zañpe: zuhaitz zañazpi.
Zañarte: zuhaitz herro, zañak lur azalean daudenean, tartean dauden zuloak, oiñez ibiltzeko oztopo direlarik.

Ikusten denez ehun ta berrogei orrialdeetako lan xume batean ihizeari buruzko bilduma abioan, berrogeita hamasei hitz ezezagun edo euskalzaleek guti ezagutzen dituztenak bildu ditugu. Ikerketa hunekin konturatu gara, duela berrogei urte Pettarretik sartutako diptongoen fonetika aldaketa ez dela urrunago joan, Basabürüko euskarari bere nortasun guziak galerazteraino, nahiz hiztegian behintzat herri-xokokeriak galtzen ari diren, zuberoearen batasuna sendoago eginaz. Ez ditugu hemen aipatu nahi izan, gure euskalkiaren transkribapenerako oztopoak. Zergatik ez gindezke Egiategi-k duela berrehun urte erabilitako sistemara itzul, hots, sudurotsdun bokaleak tildearekin idatziz. Bestalde lan hunetan, hegoaldean bezalaxka, ahosapaikariak erabiltzen baititugu, halaxe erabili ditut: *artzañ, zañ, ollo, pollo, tximino,* baina gogora dezagun, *txori, txakür, txedera, txasko* baldin baditugu *xorrotx, xerri, xahar* baditugula ere.

DE LA VIEJA FORTALEZA DE "OLITE" AL CERRO DE "OROQUIETA" (1)

P. Ignacio Omaechevarria

Ahora se me pregunta acerca del significado del nombre de "Olite", como si la cosa fuera tan sencilla; y además, se me advierte que se espera una respuesta científica. Por lo visto, hay quien cree que también en la prensa diaria se puede tratar temas de alta lingüística, convenientemente combinados con la historia y la arqueología...

Expondré mis puntos de vista con las reservas del caso. Son datos y opiniones que deberán ser valorados —y aceptados, corregidos o rechazados— según la fuerza probatoria de las razones. Pero no es fácil, ni muy periodístico, razonar con la amplitud necesaria en un breve reportaje de obligados límites estrechos.

Con todo, es preciso tener en cuenta algunos postulados previos para una vulgarización de carácter serio. Tanto en paleografía, como en arqueología, como en etimología, los aficionados, dejando a un lado la técnica establecida para descifrar los datos, aplican la imaginación libre en proporciones alarmantes. Si no se puede leer un documento del siglo XIV, se "deduce" del contexto lo que debe decir y se suple con la fantasía lo que falta en el pergamino. En etimología se ha llegado a deducir que "Bermeo" procede del latín "Ver meum" (que significa "Primavera mía"), y para justificar la deducción se ha supuesto que Pilatos tenía allí su casa de verano y que seguramente salía ya de Roma o de Jerusalén antes de los grandes calores estivales; y a esta llamaba él "su primavera". (Advierto entre paréntesis que en Bermeo —como en Sevilla y en otras partes— hay una llamada "Casa de Pilatos", que no es sino la primera estación del antiguo Vía-Crucis al aire libre).

---

(1) El P. Ignacio Omaechevarría, miembro correspondiente de Euskaltzaindia y antiguo colaborador de **Euskera**, nos envía desde Valladolid, donde actualmente reside, el presente artículo. Al haber en él una referencia a la prensa periodística, le preguntamos si había aparecido anteriormente en algún periódico o revista. Nos contestó que lo había escrito con idea de publicarlo en *El Pensamiento Navarro,* pero que no llegó a publicarse. Esto explica, sin duda, algunos rasgos redaccionales, que, por otra parte, no afectan al valor del trabajo (Nota de la Dirección).

Lo que importa, ante todo, no es deducir o suponer, sino observar y leer cuanto existe en un documento o en un monumento. La "interpretación", en sana metodología científica, no precede sino sigue a la previa lectura o reconstitución técnica del texto. Y esto se debe tener en cuenta también para la etimología de "Olite". Nos preguntamos, pues, ante todo qué nombre es éste de "Olite", y cuáles son sus transcripciones antiguas mejor garantizadas, y qué relación tiene con "Erriberri", que es el otro nombre con que aparece en el "nomenclator" de los nombres oficiales de pueblos.

Ahora bien, entre "Olite" y "Erriberri", el nombre más antiguo es "Olite". "Erriberri" o "Eriberri", según lo transcribe Garibay, aparte de que es una denominación que no se registra documentalmente hasta Garibay (siglo XVI), significa "Villanueva" o "Pueblo Nuevo". Supone, por lo tanto, una anterior "Villa Vieja". En Sangüesa sabemos que la población primitiva estuvo en la actual villa de Rocaforte. Y cuando se le fue agregando el "ensanche" situado a la otra parte del río Aragón (la ciudad actual de Sangüesa), se distinguió el "borgo novo" o "Sangüesa la Nueva", del "borgo vieyllo" o "Sangüesa la Vieja", hasta que por fin se quedó el "borgo novo" con el nombre de "Sangüesa", y al "borgo vieyllo" se le aplicó el nombre de "Rocaforte". En Olite la parte comprendida entre la parroquia de San Pedro y el Castillo se llama todavía "Villavieja". Se ve, pues, que el nombre de "Villanueva" o "Erriberri" debió de designar el "ensanche" medieval, que se agrupó en torno al Castillo y a la nueva parroquia de Santa María. "Villavieja" sería equivalente a "Olite la Vieja", y "Erriberri", a "Olite la Nueva". Los de "Erriberri" eran, sin duda, repobladores de habla vasca procedentes del Norte.

El nombre antiguo de la ciudad es, por lo tanto, "Olite". Pero, ¿qué es "Olite"? Hay quienes le derivan del toponímico "Oletum" u "Olivetum". Pero ya se sabe que el latín "Oletum", en romance normal, hubiera dado "Oledo" (como "Roboretum" da "Robledo"), y no "Olite". Por otra parte, hay transcripciones antiguas en que el topónimo aparece en latín en forma de "Ologitum". Y es principio inconcuso de crítica interna que entre dos lecturas posibles, o entre dos variantes, hay que preferir la más difícil. Y aquí, la variante más difícil o extraña no es "Oletum" u "Olivetum", sino "Ologitum". Se comprendería que un "Ologitum" originario, al no significar nada fácilmente inteligible, se convierta en "Olivetum", vocablo de sentido tan obvio y tan apropiado para designar la comarca de Olite, de abundantes olivares; pero no se comprende que "Oletum", tan diáfano y tan propio, se transforme en el enigmático "Ologitum". La forma primitiva del topónimo "Olite" es, pues "Ologitum" y no "Oletum".

Pero "Ologitum" es una latinización al estilo de las de "Matritum" para "Madrid", o "Cascantum" para "Cascante". Y aquí no nos interesan las terminaciones exigidas por la morfología latina, sino la propia terminación indígena del topónimo que en latín adoptó la forma de "Ologitum". Y lo natural es aceptar que el nombre actual de "Olite" conserva, al igual que "Cascante", la terminación primitiva, mientras no se demuestre lo contrario. Y de hecho

nos encontramos con que la terminación *-ite* es bien conocida en la zona navarro-aragonesa-riojana como sufijo prerromano de nombre de lugar, particularmente de villas o ciudades como Belch-ite o Alber-ite, y aun de apellidos de procedencia toponímica como Chiv-ite; y tiene, según parece, una variante *-ete,* que figura en Navarr-ete, Burgu-ete, Murill-ete, etc. La forma primitiva del nombre de "Olite" sería, en consecuencia, "Ologite" (pronunciado "Ologuite"), y quitado el sufijo -ite, quedaría como radical "Olog", o mejor, "Ologi".

Pero, ¿qué, es "Ologi"? ¿Puede compararse este vocablo, indudablemente prerromano, con algún término vasco conocido? Desde luego, "Ologi", con diversa acentuación primitiva y con refuerzo consiguiente de *-l-* entre vocales, puede estar representado por "Olloqui", topónimo que, como se sabe, señala una buena posición defensiva cerca de Pamplona. Conviene observar, sin embargo, que si existe en el vascuence actual algún descendiente directo del viejo "Ologi", deberá presentar normalmente la forma "Orogi" —o algo parecido—, puesto que la antigua *-l-* simple intervocálica se ha convertido en *-r-*, según lo demuestran préstamos tomados del latín, como "aingeru" de "angelum", "goru" de "colum", etc. La actual *-l-* vasca de "Zabala", "Udala" o "Galarreta" supone una *-l-* doble o fuerte antigua, como se ve en "kale", del latín "callem". Por eso, en territorio tempranamente romanizado, a *-l-* simple vasca corresponde una -ll- castellana. En Santander hay "Udalla" frente al "Udala" de Guipúzcoa; y en las Encartaciones de Vizcaya corresponden "Gallarta" y "Zaballa" a "Galarreta" y "Zabala", como el castellano "calle" corresponde al vasco "kale". En conclusión, el representante actual de "Ologi" sería "Orogi".

Pero yo no encuentro ningún "Orogi" ni "Orogite" en territorio vasconavarro; sí, en cambio, "Oroquieta", que no parece lo mismo. Con todo, vamos a analizar este vocablo. Hemos observado que existe en nuestra tierra un sufijo prerromano *-ite* o *-ete.* Hay, además, otro sufijo de origen latino *-eta,* que se ha extendido mucho en territorio vascongado: "Ariceta" (Aritz-eta-Robledo), "Querejeta" (Kereix-eta-Cerezeda), etc. Se comprende que en zonas de habla vasca, donde abunda el sufijo *—eta* también el arcaico *-ite/-ete,* que no tenía sentido abundancial sino sólo locativo, se confundiera con *-eta* por analogía; y que un antiguo "Zubiete" (lugar del puente) se convirtiera en "Zubieta", que significaría "Puentes", en plural (aunque en las Encartaciones de Vizcaya, en Gordejuela, se ha conservado el viejo "Zubiete", con significado de "La Puente"). Ha podido ocurrir, por lo tanto, que también el actual "Oroquieta" procediera de un antiguo "Oroquiete" u "Oroquite". Y tampoco habría dificultad en que "Oroquite" y "Ologite" sean variantes del mismo vocablo, como lo son "Idiki" y "Edegi" (abrir), "Eseki" y "Esegi" (colgar); y tal vez los viejos antropónimos "Ecus" y "Egus", etc. De este modo "Olite" y "Oroquieta" podrían ser representantes actuales del mismo topónimo arcaico "Ologite": el uno en zona romanizada, y el otro en zona vascongada.

Con todo eso, no hemos dicho aun qué significa "Ologi" u "Ologite". Y es que, si bien podemos aislar, según parece, ese vocablo prerromano y presentarlo en su propia fisonomía originaria, no hallamos en el habla corriente palabras con las que pueda ser comparado. Tendremos que contentarnos con describir las características del terreno a que se aplica el nombre. Para ello, en Olite, prescindimos del burgo nuevo o "Erriberri" medieval, y nos fijamos en la parte llamada "Villavieja". Y comprobamos que esta parte primitiva de la población ocupa una situación estratégica y se apoya en un terreno algo escarpado, en una especie de cerro. Se trata seguramente de una antigua fortaleza. Lo de Suintila no me convence; pero no hay duda que "Olite la Vieja" fue una vieja fortaleza navarra, mientras el Castillo, construido más tarde, se concibió más bien como palacio que como posición estratégica para tiempos de guerra. Algo parecido había ocurrido también en Sangüesa. La vieja fortaleza se situaba en la posición estratégica de Rocaforte; mientras que el palacio real y la iglesia de Santa María la Real se edificaron en el llano, después que se hubo superado el peligro de las sorpresas musulmanas; y en torno a Santa María la Real se fue extendiendo el "burgo nuevo" o "Sangüesa la Nueva". Santa María la Real de Sangüesa y Santa María la Real de Olite son ambas, por afortunada coincidencia, parroquias del "burgo nuevo", que en la Edad Media navarra se yuxtapuso a la vieja fortaleza defensiva.

¿Y Oroquieta? También el cerro de Oroquieta jugó un papel importante, como posición estratégica, en la última guerra carlista. Pero yo no me atrevo a afirmar, aunque bien pudiera ser así, que "ologi" y "Olloqui" y "Ologite" y "Oroquieta" signifiquen "cerro" o "fortaleza".

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

MAILEGUZKO HITZEI BURUZKO ADIERAZPENA

Euskaltzaindiak maileguzko hitzei buruz bigarren Jardunaldiak egin ditu Uztaritzen. Helburua ez da hitz zerrenda —lexikoa, alegia— onartzea, maileguzko hitz horiek zein grafiatan hartu behar genituzkeen eztabaidatzea baizik. Euskarak, nahi eta ez, kanpotikakoak hartu behar ditu eta ari da hartzen, baina hartu, neurriz hartu behar, hizkuntzak bere muina galduko ez badu.

1959-an Euskaltzaindiak euskal hitzak zein diren mugatzeko eman erabakian, maileguzko hitz zaharrei buruz lehen-lehen urratsa eman zuen. Euskararen lege fonetiko historikoak gorde behar dira, baina maileguzko hitzek erdaretan duten itxurari leialtasuna zor zaio, begiz ere sartzen bait dira hitzak. Hortik sortzen zaio Euskaltzaindiari bat-batean eta erabat konpontzeko zaila ikusten duen auzi korapilatsua, eta premia.

Bi lege horiei ahalik eta zehatzen erantzutea da Euskaltzaindiaren eginbidea. Zenbait aldiz, hitz mailegatuek inguru hizkuntzetan duten itxura aldatu behar dute gureganatzean, eta euskararen zenbait lege zaharrek amore eman beharko dute, beste askotan.

Bi Jardunaldi horietara ekarri diren txosten baliotsuak oinarri harturik, aski landuak eta umotuak dauden puntuekiko erabakiak, ahalik eta lasterren, banan-banan agertuko ditu Euskaltzaindiak.

Uztaritzen, 1983.eko Urriaren 29-an.

UZTARITZEKO ADIERAZPENEAN AGINTZEN DENA BETETZEAZ

Donostia, 1983, Azaroak 25

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainkideak:

Guztiok dakigunez, Euskaltzaindiak bi Jardunaldi eginberri ditu. Zertarako? Euskaraz mailebuzko kultur hitz berriak zein itxuratan hartu eta erabili behar diren aztertzeko. Idazkera izan da batez ere han aztertu dena, baina ez idazkera bakarrik; horregatik *hitzen itxura* esan dut.

Aurtengo Urtarrilean egin ziren lehenbizikoak, eta Urrian bigarrenak. Biak Uztaritzen, Landagoien deritzon etxean. Aldez aurretik jarritako programa baten arabera, aldez aurretik txostenak aginduz, eta txostenak entzun ondoan elkar hizketa eginez. Uste dut Jardunaldi hauetan gaia orokorrean eta puntatik puntara aztertu dela, puntuak xeheki galbahatuz, alde batekoen eta bestekoen ikuspuntuak kontutan hartuz. Jardunaldiak bukatu zirenean, euskaltzain osoak berariazko batzarrea egin eta Adierazpen bat prestatu zuten. Bertan esaten da aski landuak eta umotuak diren puntuekiko erabakiak agertuko dituela Euskaltzaindiak. Jaunak: agintza honek zerbaitetara konprometatzen gaitu.

Jardunaldien aurre-historia

Baina egin dezadan Jardunaldion historia edo aurre-historia koskor bat. 1981.eko Abenduan, eta Hondarribian, hiztegigintzaz, eta bereziki Hiztegi hiritartuaz, beste Adierazpen bat agertu zuen Euskaltzaindiak, eta han ere, erabaki gabe dauden puntuak lehenbaitlehen argitzen ahaleginduko dela, esaten du. Ikus **Euskera** (1982), 271. Aurki jakin arazi zigun Mitxelena jaunak hiztegi hiritartuan ez dagoela deusik egiterik mailebuzko hitzak nola idatzi behar diren erabakitzen ez den bitartean.

Zuzendaritzaren bilera bat egiten da Gasteizen 1982.ko Ekainaren 25ean. Elhuiar taldeak bidalitako lan bat irakurtzen da bertan. Eta orduan pizten da gai honetzaz Kongresu moduko zerbait egin behar delako lehen asmua. Jaurlaritzaren eskea ere heldu zen. Izan ere, euskarari eman zaion ofizialtasunaz gai honek presa du. Administrazioa, Irakaskuntza etab. daude tartean.

Jardunaldiok prestatzeko batzordeño bat izendatu zen. Mikel Zalbide jaunari agindu zitzaion programa edo plan bat egin zezan aztertu behar ziren puntuekin, eta programa hori Mitxelenari bialdu zitzaion onart zezan, eta honek hala egin zuen.

Joan den urteko Azaroaren 22an batzordeñoaren bilera egiten da Gasteizen, txostenak aginduz.

Gai guztia galbahatzeko bi Jardunaldi behar izan dira. Bi-biak Uztaritzen eginak. Lehenbizikoak aurtengo Urtarrilaren 7 eta 8an. Bigarrenak Urriko 28 eta 29an.

Uste dut batzarre seriosak izan direla, emankorrak, partaideak osoki hartara jarriak zeudela. Lekua ere hartarakoa, bakartadean, bestetara barreiatzeko aitzakiarik ez duena.

Hau da, hitz gutitan, arazo honen historia.

Euskaltzaindiari artez eta zuzenki dagokion gauza

Baldin bada zerbait guri dagokiguna, hauxe da, hots, hizkuntzari buruz normak ematea, Alfontso Irigoien jaunak Jardunaldietan ongi gogoratu zuen bezala. Euskaltzaindiak berea —eta ez nolanahi berea, exklusiboki berea— duen eginbide hori zapuztuko balu, ez luke esistitzeko arrazoirik.

Zer mailatako bilerak izan diren

Zer mailatako bilerak izan dira Jardunaldiok? Batzorde xoil baten bilkura sinple bat baino goragokoak, bistan da. Euskaltzaindiaren Jardunaldiak izan dira. Ez, noski, jende aurreko Kongresu bat; baina euskaltzain oso guztiei egin zaie deia, eta urgazleetarik arazo hauetaz arduratzen direnei. Euskaltzaindiko ez diren zenbait ere egon dira. Euskaltzaindiaren, eta ez batzorde edo batzordeño baten bilerak izan dira, bada. Euskaltzain osoetarik 11 egon dira; Iparraldetik 5, Hegoaldetik 6.

"Status quaestionis"

Ene iritzitan, lan onak azaldu dira, elkar hizketa zabala izan da, alde bateko eta besteko joerak entzun dira. Eta orain zer egin behar dugu? Gauzari beti luzapena emateaz zer irabaziko genuke?? Deus ez, ene ustez. Ez dezagula pentsa denbora iragaitera uzteaz arrazoi berriak azalduko direnik. Daudenak han azaldu eta pisatu dira. Gainera, arriskua dugu guk egiten ez dugunа, bestek egin dezan, gurea den arloa guri ebatsiz. Uste dut, baita ere, auzi hauetan erabateko arrazoi borobil baten esperoan ez dugula egon behar,

zeren ez baitago holakorik. Alde eta besteko joerak, bai, egoten dira, eta joera horien aldekoek beren arrazoiak ateratzen dituzte, errespetagarriak, noski, bainan ez auzia garbitzeko bezain beste indar dutenak.

Bi joera nagusi

Gure Jardunaldiotan honako bi joera hauek agertu dira nagusi:

1. Euskararen lege fonetikoei lehentasuna eman dakion nahi duena, eta, beraz, kanpotiko hitzok ahalez lege horien arabera idaztea nahi duena.

2. Begiari edo optikari kasu eginez, hitz horiek sartaldeko hizkuntza landuetan duten idazmoldetik gehiago edo gutiago hurbil egotea nahi duena. Hala ere, esan behar da hitz horien grafia etimologista erradikala baztertua izan zela.

Beraz, bi joera nagusi hauen artean halako oreka bat bilatu beharko da. Esan nahi dut, gure erabakietan neurri batean bi joera hauei sarrera eman beharko zaiela.

Mugaketa beharrezkoak

Mugaketa batzuk gogoratzea ez da alferrik izango. Lehenbizikoa Adierazpenean ere esana dago, hots, Euskaltzaindiak ez duela erabakitzen, oraingoz behintzat, zein hitz hartu behar diren mailebuz. Hartzen direnak, hartzekotan, zein itxuratan hartu behar diren: hori dela, soilki, erabaki nahi dena. Bigarrena, eta hau ere esaten da Adierazpenean, kanpotikakoen hartze hori neurriz egin behar dela, hizkuntzaren muina arriskutan ez jartzeko. Hirugarrena: hiztegi premiak erremediatzeko, badela, mailebuez gainera, beste biderik ere, hots, deribazio eta konposaketaren bidez hitzak sortzea. Laugarrena: euskarak badituela mailebuzko hitz zaharrik asko, eta horietaz ez dugula deus erabaki beharrik. Hor daude, euskal hitzak dira, eta dauden-daudenean uzten dira. Mailebu berrietaz da oraingo auzia. Boskarrena: mailebuez ari garenez gero, mailebuen forma ere nondik hartu behar dugun ikusi beharko da. Bestela esan, non dugu abiapuntua edo "terminus a quo"? Gaztelanian? Frantsesean? Latinean? Grekoan? Nik uste dut gehienetan latinezko forma hartu beharko dela oinarritzat. Adarrei lotu beharrean, iturrira joatea da onena. Grekoak ez digu balio, beste alfabeto bat duelako. Baina, jakina, latinezko forma ere ezingo dugu ipi-apa guztiekin onartu, grafia etimologista erradikala onartzen ez denaz gero.

Erabaki-proposamenak prestatzeko era

Jaunak: Euskaltzaindiak Jardunaldiotan egin duen esportzua alfer-lan gerta ez dadin, orain behar dugu bidea bilatu, uzta jori hau zenbait erabakitan mamitzeko. Ez dut esaten han ukitu ziren puntu guztiak baitezpada erabaki

behar direnik. Puntuok beharko dira hautatu eta mugatu, eta erabaki-proposamena Euskaltzaindiari aurkezteko batzordeñoak jarri.

Beharbada onena izango da oraingoz Lehen Jardunaldietan tratatu ziren puntuekin hastea, horiei buruz bai M. Zalbideren Azalpena eta bai Akordio Akta egina dugunez gero, zeren eta bi gutun hauetan hainbeste xehetasun lagungarri aurkitzen baita. Bigarren Jardunaldien Azalpena M. Zalbidek prrestatzen duenean, horien plangintza ere egingo dugu.

Lehen Jardunaldietako puntuak honako hauek dira:

1. Hitz-hasierak.
2. Hitz-bukaerak.
3. "G" eta "J"ren erabilera.
4. "J", "Y" grekoa, "I" latinoa, "Hi" eta "J" kasuetan zer egin?
5. "X" duten hitzetan zer egin?
6. Noiz "J", noiz "I"?

Uste dut 3,4 eta 6. puntuok batean sar daitezkeela, eta orduan lau soilki dira oraingoz ikusi behar ditugunak.

Beraz, erabaki-proposamenak Euskaltzaindiari aurkezteko, batzordeñoak izendatu behar ditugula uste dut. Nik izenak ere aipatuko ditut, baina, jakina, izena aipatzeak ez du esan nahi alda ez daitekeenik. Denon artean egin behar den gauza da hau.

Lehen gaia: Hitz-hasierak. Haritschelhar jauna izan zen txostengilea. Bera, arduradun gisa, eta P. Goenaga jauna batzordekide gisa, jarriko nituzke. Eta aski dela uste dut.

Bigarrena: Hitz-bukaerak. Arduradun nagusi bezala A. Irigoien jauna, bukaera batzuen auziaz lehen ere arduratu delako, eta batzordekide bezala X. Kintana eta L. M. Mujika, txostengile izan baitziren.

Hirugarrena: "G" eta "J"ren erabilera; Noiz "J", noiz "I"; "J", "Y" grekoa, "I" latinoa, "Hi" eta "J" kasuetan zer egin? — Hemen hiru txosten batetan bildu ditut. Arduradun nagusi gisa, A. Irigoien bera proposatzen dut, lehen ere auzia aztertu duelako, eta batzordekide gisa, Kintana, txostengile baitzen.

Laugarrena: "X" duten hitzetan zer egin? Hemen bi joera daude, elkartu ezinekoak. Batak "X" letra mantendu nahi luke, nahiz eta orduan letra honek beste ahoskatze modu bat hartu beharko lukeen (lehendik duenaz gainera); besteak, hori gerta ez dadin, "X"en idazkera aldatu nahi du. Batzordeñoak ikusiko du zer aurkezten duen. Batzordeño hori osatzeko jaun hauek proposatzen ditut: Ondarra, Altuna eta Kintana.

Garbi egon bedi gauza bat, eta da: Batzordeñoen zeregina ez da erabakitzea, erabaki-proposamena prestatzea baizik. Erabaki-proposamen horrek, ahal dela, laburra, argia eta zehatza izan behar du, ene ustez.

Zalbidek egindako Azalpena eta Akordio Akta denon artean zabaldu ziren. Hala ere, norbaitek falta baditu, Euskaltzaindira eska ditzake. Xehetasun lagungarri asko dago bi idazkiotan eta gaiok prestatzeko mesede egin dezake.

Erabakitzea euskaltzain osoen batzarreari dagokio eta botoka egin beharko da. Gauzak ondo egiteko, hobe izango da batzarre bakoitzera puntu bakar bat baizik ez ekartzea. Eta batzarrearen aurretik erabaki-proposamena, batzordeñoaren arduradunak izenpetua, euskaltzain oso guztiei bidaliko zaie, aitzinetik azter dezaten. Horretarako batzordeñoak garaiz egin beharko du bere lana, eta bere proposamena Arbietora Rikardo Badiolari bidaliko dio, honek euskaltzainei zabal diezaien.

Gehiegi eskatzea ote da Abenduko batzarrerako lehen puntua, hots, Hitz-hasierena, aurkeztea?

Jaunak: Euskaltzaindiari zuzenki dagokion eta euskararentzat ondoriotsu den arazoan sartzen gara. Ea guztion artean buru ematen diogun, eta ez nolanahi, konplituki baizik. Halabiz.

MAILEGUZKO HITZAK
I. HITZ HASIERAK

Erdaraz hasieran *r* edo *s* + kontsonante duten hitzei, euskarak bereganatu dituenean protesi-bokala jarri die orain arte. Adibidez: *a-*, arratoi, arropa, arrosa; *e-*, erramu, errege, erregela, erremedio, Erroma, Errusia, estatu, ezpata; *e/i-*, ezpiritu/izpiritu. Eta joera horrek gaurdaino duen indarra ikusiz, gisa bereko hitzak mailegatzean, aurrean *e* bat eranstea gomendatzen da: erromantiko, erradiografia, erlatibitate, espeleologia, eski...

Hitz horiek, ordea, ez dute zertan a/e/i-rik hartu, aurretik elkarketa dela eta jadanik beste bokalen bat daramatenean: Erreforma/Kontrarreforma. Salbuespentzat uzten dira azken orduko mailegu irentsi gabeak. Siglak: RENFE. Izen propioak: Rembrandt, Röntgen, Roquefort, Sri Lanka, Stalin. Eta berrikitan hartuak bereziki: radar, rally, ranking, record, robot, rock-and-roll, royalty, standard, stop...

Aintzinan euskarak /p/, /t/, /k/, fonemak hasieran zituzten erdal hitzak —pace, tempora, castellu—, beraiek mailegatzean /b/, /d/, /g/, bilakarazten zituen eskuarki —bake, denbora, gaztelu—; baina joera hori aspaldian galdua delarik, Euskaltzaindiaren aburuz, gisa bereko hitz berriak erdaratik jasotzean ez litzateke aldaketarik egin behar. Esaterako: politika, penizilina, telegrama, topografia, kontrola, kimika...

Era berean, hitz oinarria aintzinan mailegatua delako aldatua izan arren, haiengandiko erdal eratorri berriak ez dute euskaraz aldaketa beharrik. Adibide gisa: gorputz baina korporazio, denbora baina tenperatura, lore baina flora (faunaren osagarria).

(1983.eko Abenduaren 30eko batzarrean onartua)

ARGITALPEN BATZORDEAREN ERREGELA BEREZIAK (*)

1. Artikulua.—Euskaltzaindiaren Arautegiko 27, 40, 41 eta Barne-Erregeletako 16, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26, 36 eta gehigarrizko artikuluan eskatzen denaz zer-ikusi dute Erregela Berezi hauek. Horien osagarri eta hazkunde dira, beraz.

2. Artikulua.—Argitalpenen arloko zeregina antolatzeko burutuak direnez gero, eta arlo horren ardura Argitalpen Batzordeari dagokiolarik, Batzorde honen ibilpide-legeak ezarri, finkatu eta mugatu nahi dituzte Erregela Bereziok.

3. Artikulua.—Argitalpen Batzorde honen batzordekideak hauek izango dira:

1. Euskaltzainburua.
2. Euskaltzainburu-ordea.
3. Idazkaria.
4. Argitalpen Eragilea.
5. Ekonomi Batzordekideren bat.
6. Azkue Bibliotekako Batzordekideren bat.
7. IKER saileko batzordekideren bat.
8. JAGON saileko batzordekideren bat.
9. Beste bi euskaltzain.

4. Artikulua.—Batzorde honen bilerak Euskaltzaindiaren egoitzan izango dira, edo Euskaltzaindiaren batzar-egun eta tokian, baina ordu desberdinetan.

(*) *OHARRA:* Orain arte zegoen batzordea suntsitzen da.

(1984.eko Urtarrilaren 27ko eta Otsailaren 24ko hileko batzarretan onartua).

5. *Artikulua.*—Bilera arruntak urtean gutxienez bi izango dira. Deiak Batzordeburuak egingo ditu.

6. *Artikulua.*—Euskaltzaindiaren izenaz plazaratzen diren liburu eta liburusken argitaratze eta banatzearen ardura Argitalpen Batzordearen gain dago; beronek argitalpen bakoitzaren martxa jarrai eta kontrolatu beharko du hasi eta buka.

7. *Artikulua.*—Gaur egun Euskaltzaindiak argitaratzen dituen sortak honako hauek dira, hots:

1. *Euskera* agerkaria.
2. Euskararen Lekukoak.
3. IKER sailekoak.
4. JAGON sailekoak.
5. Izendegiak.
6. Beste zenbait argitalpen solte.

Beste bildumen bat sortu behar balitz, Argitalpen Batzordeari dagokio erabakitzea eta Euskaltzaindiari berrestea.

8. *Artikulua.*

8.1. Argitalpen prestakuntzari dagokionez, Argitalpen Batzordeak onartu beharko ditu argitaratu behar diren testu guztiak.

8.2. *Euskararen Lekukoak* bildumarako eta lanaren berezitasunak hala eskatzen duen bakoitzean, Azpibatzorde bat izendatuko du lana aztertzeko.

9. *Artikulua.*—Lana onartua izan ondoren, zein bildumatakoa den, eta hango baldintzak errespetatuko ditu Argitalpen Batzordeak; bildumez kanpora balitz, argitalpenaren xehetasun guztiak erabakitzea berari dagokio. Xehetasun hauek jakin ondoren, Eragileak bi aitzinkontu bederen eskatuko ditu, eta zein onartzen den Batzordeak erabakiko du. Azken erabakia ezin har daiteke harik eta Ekonomi Batzordeak —finantziaketa jestioak egin behar baititu— aintzinkontuari buruzko bere adostasuna eman arte.

10. *Artikulua.*—Inprimategiarekin harremanak Eragileak burutuko ditu eta ez da beste inor arazo honetan sartuko, salbu Batzordeburua. Baina beharrezko balitz, liburuaren egile, prestatzaile edo batzordekideren baten laguntza eska dezake Eragileak.

11. *Artikulua.*

11.1. Argitalpen Azpibatzorde eragileak erabakiko du trukez, zabalkundez nahiz dohainik, emango diren aleak eta salneurria.

11.2. Aipatu Azpibatzorde eragilekoak hurrengo hauek izango dira:

1. Batzordeburua.
2. Argitalpen-Eragilea.
3. Ekonomi Batzordekide Arduraduna.
4. Azkue Bibliotekao Batzordekide Arduraduna.
5. Salmenten arduraduna.

12. Artikulua.—Ekainaren azkena baino lehen, hurrengo urteko plangintza eta programaketa prestatuko ditu Argitalpen Batzordeak. Plangintza eta programaketa hori Irailaren azkena baino lehen Argitalpen Batzordeak erabakiko du, diruaren aldetik Ekonomi-Batzordearen oneritzia jasorik.

HERRI-IZENEI BURUZKO DIKTAMENAK

Fray LUIS VILLASANTE CORTABITARTE, Presidente de esta Real Academia de la Lengua Vasca - EUSKALTZAINDIA, emite el siguiente:

DICTAMEN:

Que según el Nomenclátor de Municipios del País Vasco preparado y aprobado por esta Corporación académica, el clasificado con el número 36 y denominado hasta ahora en la versión de la Administración: Amorebieta-Echano, es en su versión oficial académica euskérica: *ZORNOTZA*.

Que la Comisión académica de Toponimia, reitera las consideraciones del informe evacuado con fecha 22 de enero de 1979, en todos sus puntos, es decir:

"Que desde el punto de vista lingüístico, cualquier vascoparlante autóctono siempre ha denominado a esa localidad con el nombre de *ZORNOTZA*, o por metatesis *ZORRONTZA*, siendo el primero la forma correcta.

Que desde el punto de vista histórico, según investigación efectuada entre los diversos historiadores vizcaínos: Labairu, Iturriza, etc., Amorebieta es, en su origen y propiamente, el nombre del topónimo de la zona de la iglesia o monasterio de Sta. María. Más todavía, la casa torre de Amorebieta estaba situada en terrenos de la iglesia, junto con el molino que estuvo donde está ahora la sacristía, edificándose sobre sus ruinas, posteriormente, la casa palacio del conde de Cancelada. Se deduce de todo esto, que Amorebieta es únicamente el nombre del monasterio o parroquia y casa torre anexa, no habiendo pasado nunca de ser un pequeñó rincón del municipio y que incluso el casco urbano o capitalidad del municipio históricamente siempre aparece documentado como Zubiaur, o Zubiaur de Zornotza.

Que el historiador Iturriza en su obra: *Historia general de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*, llama al centro del pueblo *Plaza de Zubiaur de Zornotza* y no de Amorebieta.

Que aunque *ZORNOTZA* fuera el nombre de la merindad que abarcaba las cuatro anteiglesias denominadas: Amorebieta, Echano, Gorocica e Iba-

rruri, estas dos últimas nunca han sido consideradas popularmente como zornotzanas, en el sentido geográfico del término.

Que los documentos más antiguos que hablan del confín del reino de Navarra en la época del rey García Ramírez, siglo XII, mencionan el mojón sito en la zona llamada *Nafarroa* cerca de la Plaza Zubiaur de Zornotza, hacia la parte de *Amorebieta*. También en este caso ZORNOTZA es el nombre general, Zubiaur es el centro, y "hacia Amorebieta" indica que este lugar se circunscribe a la zona del otro lado del río, junto al núcleo de la iglesia.

Que en definitiva se podría resumir este dictamen proponiendo para el nombre del municipio el nombre único a todos los conceptos de ZORNOTZA, pudiendo pasar a denominarse Amorebieta al distrito o núcleo de la parroquia de su nombre y zona más próxima a la estación, como podrían denominarse Zubiaur de Zornotza, el centro urbano; Etxano el núcleo de la parroquia de dicho nombre; y Boroa, San Miguel de Dudea, Bernagoitia y Ergoien, a las otras cofradías o entidades de población históricas".

Que la entidad de población conocida oficialmente como *Echano*, es según la grafía académica euskérica *Etxano*. Que dicho nombre, según el *Diccionario vasco-español-francés* de Resurrección M.ª de Azkue, significa: "Casa pequeña, maisonnette" en versión común del dialecto suletino. Que Etxano además de la anteiglesia zornotzarra, es el nombre de uno de los barrios del municipio de Izurza y con artículo, o sea, Etxanoa, nombre de la casa natal del famoso escritor euskérico Evaristo de Bustinza "Kirikiño".

Que asimismo se adjunta estudio efectuado por el académico de número y vocal por Vizcaya en la Comisión de Toponimia de esta Institución académica D. Alfonso Irigoyen Echebarria, sobre el antropónimo Amorebieta. Dicho estudio forma parte de su tesis doctoral sobre antroponimia medieval presentado en la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea y donde sostiene que Amorebieta se limita únicamente como nombre de monasterio, ya que el nombre euskaldun del pueblo ha sido y es ZORNOTZA.

Y para que conste y su remisión al Ayuntamiento de dicho municipio, expido la presente en Bilbao a veinte de Julio de mil novecientos ochenta y tres.

Fr. L. Villasante

D. José Luis Lizundia Askondo, Vicesecretario de esta Real Academia de la Lengua Vasca - EUSKALTZAINDIA y Secretario de su Comisión de Toponimia, emite el siguiente

DICTAMEN

Que según el Nomenclátor de Municipios del País Vasco preparado y aprobado por esta Corporación académica, el clasificado con el número 550 y denominado hasta ahora en la versión de la Administración: San Salvador del Valle, es en su versión oficial académica euskérica: TRAPAGA.

Que con fecha de 20 de julio de 1979, se emitió un dictamen en cuyo párrafo sexto se decía lo siguiente: "Que por lo que respecta a San Salvador del Valle, en documentos del siglo XVIII figura la forma de *San Salvador del Valle de Trápaga*, por lo que es deducible, conociendo además que incluso la forma de uso actual es EL VALLE simplemente, que hubiese un traslado o cambio de núcleo central –de lo que hay numerosos ejemplos en el País Vasco– del actual barrio de *Trapaga-Kauso* a un nuevo emplazamiento de la iglesia parroquial y con ello del núcleo central del Concejo. Se estima que la propia Corporación municipal debiera de regular el uso de los nombres, y para lo que el informante propone lo siguiente: denominar al municipio TRAPAGA simplemente o TRAPAGARAN=TRAPAGAIBAR, al VALLE DE TRAPAGA y *Trapaga-Salbadore* a la capitalidad del Concejo o San Salvador del Valle y *nota:* "En Navarra, donde coincide alguna vez la denominación de un valle con su capitalidad, en euskara se distingue de la siguiente manera: Valle de Elorz=ELORTZIBAR, Elorz (capitalidad) ELORTZ; Valle de Erro=ERROIBAR, Erro (capitalidad) ERRO=LAURENTZI (seguramente San Lorenzo de Erro); Valle de Ollo=OLLARAN, Ollo (capitalidad) OLLO. Como valle en euskara tiene dos formas *ibar* o *aran*, si se quiere recoger en la denominación del municipio, el término valle habría que elegir entre las formas TRAPAGARAN o TRAPAGAIBAR (quizá por eufonía más procedente la primera)".

Que a la vista de tales antecedentes esta Comisión, tras consultas evacuadas, especialmente de su presidente Luis Michelena, profesor de lingüísti-

ca vasca en la Universidad del País Vasco y Alfonso Irigoyen, catedrático de lengua y literatura vasca y profesor de la Universidad de Deusto, estima que al adoptarse el cambio de denominación de San Salvador del Valle, por el Valle de Trápaga en castellano, la versión euskérica ha de ser, o bien, *Trapagaran*, o, de transcribirse de forma separada, *Trapaga Harana*. En el segundo supuesto ha de ir necesariamente con artículo y con la grafía normalizada del sustantivo *valle*, con *h*, es decir, *harana*. Se informa sin embargo, que es más normal y coherente en la tradición toponímica vasca, transcribir el término valle, conjuntamente con el resto del topónimo, ejemplos: Otxaran, barrio de Zalla; Muniaran, término de Pagasarri (Bilbao); Azkaran, término de Güeñes; Humaran, barrio de Galdames; Tollaran, ferrería y término de Baracaldo; Ikaran, caseríos y términos de Zalla y Berriatua; Ezkuaran, término de Güeñes; etc.

Por todo ello y existiendo como se ve, en las mismas Encartaciones y aledaños —que podríamos extenderlos a inumerables casos en el resto del País— suficientes términos analógicos para demostrar que de adoptar el Ayuntamiento de uno de los concejos de Somorrostro, el nombre euskérico que propone ha de ser TRAPAGARAN o en todo caso TRAPAGA HARANA.

Y para que conste y su remisión al Ayuntamiento de dicho municipio, expido la presente en Bilbao a veintidós de Marzo de mil novecientos ochenta y tres.

Jose Luis Lizundia

EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK

1983-VII-29

Bilbon, Bizkaiko Diputazioaren Jauregian, 1983.eko uztailaren 29an ospatu du Euskaltzaindiak arratsaldeko lauretan bere hileroko batzarrea. Patxi Zurikarai, Hezkuntz eta Kultur arduradun den Diputatuarekin batera, L. Villasante, J. Haritschelhar, J. M. Satrustegi eta J. San Martin euskaltzainak eseri dira mahai buruan. Etorri dira, P. Altuna, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, P. Lafitte, E. Larre, F. Ondarra, euskaltzainak. J. A. Arana, R. Badiola, P. Charritton, A. M.ª Echaide, X. Gereño, J. L. Goikoetxea, M. Itzaina, J. L. Lizundia, J. Oleaga, J. A. Retolaza, K. Rotaetxe, P. Uribarren, J. J. Zearreta eta P. Yrizar euskaltzain urgazleak.

X. Diharce, E. Knörr, P. Larzabal eta L. Mitxelenak ezin etorria adierazi dute.

Aurreko batzar agiria onartu da.

Goizeko batzarren berri

Hegoaldeko lau ordezkaritzetako egoitzak zer egoeran dauden une honetan, aipatu da lehenik. Bilbokoari buruz, besteak beste, Plaza Barriko etxea erosteko hitza baieztu du Diputazioak, orain arte egin ez bada, Torrontegi ikertetxearen erabakiak jaso ez direlako izan dela, aitortuz.

Canada-ko hizkuntz ofizialen Ararteko den Yalden Maxwel jaunaren eskariz, Euskaltzaindiak euskararen arazoak azaldu zizkion bazkari batean. Giro jatorreko harremanak izan ziren eta gogo onez jaso zituen jaun honek gure hizkuntzarekiko kezkak. Esker ona agertuz idatzi dio Euskaltzain buruari.

Parisen egitekoa den *Expolangues* izeneko hizkuntzen erakusketan euskara aurkeztea onartu da. Hezkuntz Kontseilaritzari dirulaguntza eskatu zaio.

Argitalpenak. Euskaltzaindiaren argitalpen guzien ardura batzorde batek eramango du. Erregela berezien beharra agertu du L. Villasante batzorde buruak bere txostenean. Arau nahiko zabalak izango direla eta azken erabakia beti batzordeak hartuko duela,esan da. Erregela hauen proposamen bat prestatzeko eskatu zaie, L. Villasante, J. L. Lizundia, R. Badiola eta J. A. Arana jaunei.

Lekukoen egoera eta aurtengo finantziaketa aipatu dira. Aintzin asmoa aurrera doa eta, noski, beteko omen da.

Pertsona Izendegia-ri azken begiratua emateko banatu ditu idazkariak hirugarren argitalpenaren zerrendak.

Udal Izendegia birrargitaratzeko gogoa agertu du Bilboko Aurrezki Kutxa Munizipalak eta batzordeak, dagoen era berean, osorik ateratzeko ez du eragozpenik ikusten.

Dialektologia. Datorren udazkenean Markinan egitekoa den batzarreaz aritu da, gehienik, batzordea. Irailaren 23 eta 24 izango dira lan-egunak. Orain arte egindakoen aurkezpena eta metodologia eritziak bateratzea izango da lehenengo gaia. Gerorako plangintza finkatuko da gero, eta bibliografia zehaztu. Broussainen denborako magnetofoi grabapenak badirela Vienan eta kopiak hartzeaz mintzatu dira batzartuak. Dialektologia lanen ondorenak ateratzeko taldetxo bat izendatu da, Ch. Bidegain, J. M. Etxeberria, J. Haritschelhar eta J. Allières barne direla.

Irailaren 25ean, Markinan bertan, egingo da Euskaltzaindiaren batzarre irekia. Egun horretarako txostengileak eta gaiak aukeratu dira.

Txostena

P. Lafitte euskaltzainak, Albert Leon zenaren oroimenez egin du txostena, eta J. Haritschelhar-ek irakurri du. Albert Leon euskaltzalea Bordelen sortu zen judu familia batean. Sei urteetan itsu gelditurik, istudio haundiak egin zituen eta filosofia irakasle izan zen. Pastoralei buruz egin zuen doktoradutzako tesia. Denbora batez, itsu-mutil izan zuen Lafitte. Etxera joaten zitzaion eskuarteko lanak irakurtzera eta hala jakin zituen haren biziko gauza asko. 1953.ean hil zen.

Euskera-ren aurkezpena

L. Villasante mintzatu da, gero, gerra aurreko *Euskera*-ren birrargitalpena aurkezteko. Hamazazpi ale argitaratu dira oraikoz eta eskerrak bihurtzen dizkie argitaletxeari eta lan horretaz arduratu diren guziei. Ale hauek ikusita, oraiko eta orduko Euskaltzaindiaren artean haserrerik ez dagoela ikusten dela, esan du. Hasierako ildo beretik doa joera nagusietan gure Erakundea.

J. San Martin arduratu da, gehien bat, argitalpena aurrera ateratzen eta zenbait zehaztasun eman ditu. Aldizkari honen gerra aurreko zabalkundea urria izan zen 250 ale bakarrik ateratzen ziren. Horrek esan nahi du oso gutxi ezagutzen direla Euskaltzaindiaren orduko lanak eta zaila zen gaur eskuratzea. Mila aleko argitalpena egin da orain eta, hauetatik 600, harpidedunentzat. 18 herrialdeetara banatzen dela *Euskera,* adierazi du. Suezian, adibidez, hiru unibersitatera doa. Euskal Herrian euskara ofizialki erakusten den instituto askotan ez dute ezagutzen.

Patxi Zurikarai jaunak Diputadu nagusiaren izenean etorri dela, esan du, eta eskerrak eman dizkio Euskaltzaindiari aurkezpen hau egiteko Bizkaiko Diputazioa aukeratu duelako. Kultur Saileko buru den aldetik, berak euskararen alde jokatuko duela beti, aitortu du. Eta azken berri bezala, IKER-3 Bizkaiko Diputazioak ordainduko duela, aditzera eman du.

Besterik gabe amaitu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua

J. M.ª Satrustegi
Idazkaria

1983-IX-25

Markinan, Udaletxeko batzar-aretoan, 1983.eko irailaren 25ean bertako Euskal Jaien mendeurrena ospatuz egin du Euskaltzaindiak bere batzar irekia. Mahai buruan L. Villasante jaunarekin eseri dira, J. M. Velez Mendizabal Kultur Kontseilari-ordea, J. M. Makua Bizkaiko Diputadu nagusia, Lauren Aretxabaleta Markinako alkatea eta Patxi Zurikaray, Bizkaiko Diputazioko kultur-arduraduna, J. M. Satrustegi idazkari dela. Euskaltzainditik etorri dira: P. Altuna, J. L. Davant, J. Haritschelhar, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte eta J. San Martin euskaltzainak. J. A. Arana, R. Badiola, J. G. Etxebarria, J. M. Etxebarria, J. M. Lekuona, J. L. Lizundia, J. A. Retolaza, P. Uribarren, I. de Urquijo eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak.

Ezin etorria adierazi dute: X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, E. Larre eta P.Larzabal jaunek. F. Ondarra aurreko egunetan egona zen.

J. Goikoetxea Maiza eta A. Zugasti euskaltzain urgazleen hil-berria eman du euskaltzainburuak. Lehenengoaren bizia eta lanak aipatu ditu P. Altunak. Beste batean egingo da bigarrenaren txostena.

Goizeko batzarraren berri

Goizeko hamaiketan bildu dira euskaltzainak eskuarteko gaiak ikusteko. Hauen artean, Markinako Udalak antolatu dituen sariketetarako epaimahikoak birretsi dira. Era berean, Txomin Agirre eta Mikel Zarate, nobela eta saiakera sarien epaileak aukeratu dira.

Bizkaia hitzaren erabilkerari buruz Diputazioak egindako eskaria ikusi da, eta dagokion batzordeak erantzuna ematea erabaki da. Urduñako eskoletan batua ala bizkaiera erakutsiko den galdetuz hango udaletxeak egindako galderari bere egunean erantzuna eman zitzaiola, jakinerazi zaie batzartuei.

Solana Kultur ministrariak deiturik, Madrilen izan dira, L. Villasante, J. San Martin eta E. Knörr, euskaltzainak. Euskal Akademiaren lan eta finantzia-bideen berri jakin nahi zuen Solana jaunak, ekintzaren baten kostua bere gain hartzeko prest zegoela esanez. Premiazkoen berri emango zaio.

L. Mitxelena Iker Sailburua, Barzelonako Unibersitate Autonomoak "Doktor Honoris Causa" izendatu duelako berria, pozez beterik jakin du Euskaltzaindiak. Zorionak bemazkio, eta Euskaltzaindiaren batzorde bat joango da ospakizunera, datorren urriaren 3an.

Dialektologi batzordearen berri

Aste buru honetan Markinan egindako Dialektologiako Barne-jardunen berri eman du J. M. Etxebarria, batzorde idazkariak. Orain arte egindako lana ikusi da eta traskribapenaren eredua zehaztu. Euskararen atlasa egiten joatea da helburu nagusia eta, horretarako azpi-egitura sortu da. Itaunlariek ordezkaria izango dute koordinatzaile, batzorde tekniko baten babesean. Batzorde aholkulariak zainduko ditu ikuspuntu nagusiak. Galdekizunen zerrenda lehen-bait-lehen egitea eskatu zaio batzorde teknikoari. Beste lanbide batzutatik aske daudekeen lankideak behar direla, esan da.

Txostenak

Lauren Aretxabaleta, herriko alkateak, eman dio hasiera batzarrari, batzartuei ongi-etorria emanez. Esker oneko hitzak izan ditu Euskaltzaindiarentzat, Markinan bildu delako. Ea denon artean euskara aurrera ateratzen dugun opatuz, amaitu du bere hitzaldi laburra.

Euskal Jaien sortzale izandako A. Abbadie euskaltzalearen berri eman du bere txostenean, J. L. Davant, Xuberoko euskaltzainak. Ospakizun hauen historia aipatu du eta herri konzientzia sortzeko izan zuten eragina. Mendeurren honetan ere horrelako zerbaiten beharrean aurkitzen dela gure hizkuntza, esan du txostengileak.

Pedro Juan Cruz de Renteria, euskal idazlea, eta bere *Cristiñauak biarreko daben doctriñea,* aztertu ditu X. Altzibar, Getxoko Institutoan euskal hizkuntza eta literaturaren irakasleak. Ez hain zaharra izanik idazle hau, euskaldunen zabarkeriaz baztertua izan dela, adierazi du. Lan luzea txostengilearena. Irakurtzean laburtu badu ere, osorik argitaratuko da bere egunean.

C. Gonzalez Echegaray jaunak ez du etortzerik izan, ebakuntzaren bat egin berri bait diote. J. A. Aranak irakurri du *Bonaparteren esku izkribuen katalogoa* izeneko txostena. Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Diputazioen artxiboetan dauden bildumak dira ezagunenak, eta ia ez da aipatzen Euskaltzaindiko bibliotekan dagoena, haietako edozein baino ugariagoa. Katalogo honen bidez iturri guzien berri izango dute ikerleek.

Markina bizkaiera literarioaren seaska izenburua duen txostena irakurri du euskaltzainburuak. Mogelek Markinan iragan zuen bizi gehiena, eta zabalkundeari begira gipuzkeraz idatzi bazuen ere bere lehen liburua, inguruko apaizek gogor eraso zioten bertako euskalkia baztertzeagatik, eta bizkaierari lotu zitzaion geroztik. Euskalkien tradizio literarioa ez da beti kontuan hartzen, eta tokikerietara itzultzen dira zenbait idazle aurrez ezer egin izan ez balitz bezala, eta denentzat kaltegarri da; baina, batez ere euskalkiarentzat. Bizkaierak badu bere tradizio literarioa.

J. M. Velez Mendizabal, urgazle eta Kultur Kontseilari-ordeak bere ohore eta erantzunkizun haundia aipatu ditu. Beharrezkoak dira euskal besta hauek euskal konzientzia esnatzeko eta karguan den bitartean ahaleginduko dela laguntzen, esan du. Gaur badugu erakundea eta itxaropentsu ikusten du etorkizuna. Sekula baino garrantzitsuago dira, bere ustez, Euskaltzaindia eta horrelako lana egiten duten elkarteak, Udalak eta abar.

J. M. Makua Bizkaiko Diputadu nagusiak hartu du gero hitza, bilbotarra dela eta euskara ikasi zuela adierazteko, aurreko aipamen bati erantzunez. Diputazioaren aldetik ahalegintzen dira euskararen alde ahal dena egiten, eta Euskaltzaindiaren ikurrean diren hitzak aipatu ditu azkenean: *Ekin eta jarrai.*

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua

J. M.ª Satrustegi
Idazkaria

1983-X-29

Uztaritzen, Landagoien etxean, egin du Euskaltzaindiak 1983.eko Urriaren 29-an, bere hileroko batzarrea. Bildu dira: L. Villasante, euskaltzainburua, J. Haritschelhar, buruordea, J. M. Satrustegi, idazkaria, P. Altuna, J. L. Davant, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, F. Ondarra eta J. San Martin, euskaltzainak. J. L. Lizundia, idazkari-ordea.

Maileguzko hitzei buruz bi egun haietan egindako lana aztertu da, eta irakurritako txostenak nahiz batzartuen eztabaidak aintzat harturik, erabaki zehatzago bat Euskaltzaindiak eman aurretik adierazpen hau zabaltzea, aho batez onartu da:

"Euskaltzaindiak maileguzko hitzei buruz bigarren Jardunaldiak egin ditu Uztaritzen. Helburua ez da hitz zerrenda –lexikoa, alegia– onartzea, maileguzko hitz horiek zein grafiatan hartu behar genituzkeen eztabaidatzea baizik. Euskarak, nahi eta ez, kanpotikakoak hartu behar ditu eta ari da hartzen, baina hartu, neurriz hartu behar, hizkuntzak bere muina galduko ez badu.

1959-an Euskaltzaindiak euskal hitzak zein diren mugatzeko eman erabakian, maileguzko hitz zaharrei buruz lehen-lehen urratsa eman zuen. Euskararen lege fonetiko historikoak gorde behar dira, baina maileguzko erdaretan duten itxurari leialtasuna zor zaie, begiz ere sartzen bait dira hitzak. Hortik sortzen zaio Euskaltzaindiari bat-batean eta erabat konpontzeko zaila ikusten duen auzi korapilatsua, eta premia.

Bi lege horiei ahalik eta zehatzen erantzutea da Euskaltzaindiaren eginbidea. Zenbait aldiz, hitz mailegatuek inguru hizkuntzetan duten itxura aldatu behar dute gureganatzean, eta euskararen zenbait lege zaharrek amore eman beharko dute, beste askotan.

Bi Jardunaldi horietara ekarri diren txosten baliotsuak oinarri harturik, aski landuak eta umotuak dauden puntuekiko erabakiak, ahalik eta lasterren, banan-banan agertuko ditu Euskaltzaindiak".

Eskuarteko gaiak

Euskaltzainburugoak Gasteizen hil honen 20-an erabilitako gaien berri eman da gero.

J. Haritschelhar jaunak, bere aldetik, Gramatika batzordeak egina duen bilkura aipatu du.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua

J. M. Satrustegi
Idazkaria

1983-X-30

Azkaineko Herriko Etxean, 1983.eko Urriaren 30ean, goizeko 11 t'erdietan, Jean Elizalde euskaltzain zenaren mendeurrena dela eta, egin du Euskaltzaindiak bere hileroko batzarra, batzar ireki erara. Bildu dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buru-ordea, P. Altuna, J. Hiriarte-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, P. Larzabal eta J. San Martin euskaltzainak; P. Andiazabal, J. A. Arana, M. Atxaga, R. Badiola, R. Camblong, P. Charritton,J. B. Dirassar, J. Etxeberri, R. Idiart, M. Itzaina, J. B. Kurutxet, D. Landart, J. L. Lizundia eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak. J. L. Lizundia Idazkari-ordeak, egiten du Idazkari lana.

J. L. Davant, X. Diharce, F. Ondarra eta J. M.ª Satrustegi jaunek ezin etorria adierazi dute.

A. Luberriaga jaun auzapeza mahaiburuan dela, hasi da batzarra.

Andre Luberriaga Azkaineko auzapezak eman dio batzarrari hasiera, bilduei ongi-etorria emanez. Herriko seme euskaltzaleak goraipatu ditu Elizalderekin batera. Herriko Kontseiluaren euskararen aldeko laguntza azpimarratzen du eta bertan diren auzapezei beste horrenbeste egiteko eskatu.

Luis Villasante euskaltzainburua, mintzatu da gero Elizalderi buruzko bere ezagutza oroituz. E. Lapeyre, Duhalde, P. Larzabal, R. Idiart eta beste zenbait azkaindarren euskararekiko atxekimendua agertu du.

Aniceto Zugasti euskaltzain urgazle hil berriaren biziaz eta lanei buruz eskainitako txosten labur bat irakurtzen du J. San Martinek.

J. Haritschelhar jaunak, joan den egun bietan, ostiralez eta larunbatez, Uztaritzen egin diren Maileguzko hitzei buruzko II. Jardunaldien berri laburra eman du.

Roger Idiart euskaltzain urgazleak bere txostena *Jean Elizalde "Zerbitzari" azkaindar eta euskaltzain* tituluduna irakurtzen du. Hitzaldi bizi, unkigarri eta atsegina egin du. "Zerbitzari"ren esaera, jokabide, lan eta gertakizun ugari kontatuz.

Mitxel Itzaina euskaltzain urgazle eta Eskualzaleen Biltzarreko lehendakariak, *Jean Elizalde "Zerbitzari" eta Eskualzaleen Biltzarra* izeneko txostenaz, Eskualzaleen Biltzarreko bilkuràren parteari hasiera ematen dio. Urteroko haurren euskara jakitearen primak antolatzen zituen Elkarteak eta horien kudeatzaile zen "Zerbitzari", baita ere, beste zenbait eginkizunena, hala nola, "Eskualduna", "Eskualdun Ona" eta "Gure Herria" aldizkarietako idazlanak, bere liburu eta poesiak, landare eta txoriez egindako iker-lanak eta nola ez, pilotazale bezala, kirol honen alde egindako ahaleginak.

Ondoren M. J. Malharin andereak, Eskualzaleen Biltzarrak urtero eman ohi dituen euskararen primak banatu ditu, aurtengo haur parte hartzaile eta irabazleak iragarriz.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua

J. M.ª Satrustegi
Idazkaria

1983-XI-25

Donostian, Diputazio Jauregiko areto nagusian, 1983.eko azaroaren 25ean arratsaldeko lauretan egin du Euskaltzandiak bere hileroko batzarre arrunta. Bildu dira: L. Villasante buru, P. Altuna, J. L. Davant, J. Haritschelhar, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, F. Ondarra, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta A. Zavala, euskaltzainak. P. Andiazabal, J. A. Arana, M. Atxaga, R. Badiola, P. Charritton, J. Etxaide, J. Fdez. Setien, M. P. Lasarte, J. A. Loidi, A. Zatarain eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

Ezin etorria adierazi dute, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty eta P. Larzabal jaunek.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Azken hiru aldietako batzar-agiriak onartu dira.

Goizeko batzarraren berri

Maileguzko hitzei buruz Uztaritzen egin berri diren Jardunaldietan adierazpen bat zabaldu zuen Euskaltzaindiak. Han esandakoari jarraipena eman nahirik, erabakiak lehen-bait-lehen hartzen joateko gogoa agertu du, gaien aurkezpenean, Euskaltzain-buruak. Orain arte alor honetan egindako lanen laburpenaren ondoren, bi joera nabarmendu direla esan du L. Villasante jaunak: tradizioan oinarritua bata, eta begizko ikuspegiari garrantzi gehiago ematen diona, bestea. Zenbait puntu, nola nahi ere, adostasun batera etorriak dira eta prozedura-urratsak ematen joan behar dugula ikusten da. Aztertutako gaiak lau multzotan bana daitezke, eta elkarrizketa baten ondoren, bakoitzaren epea mugatu da:

a) Datorren abenduko batzarrera, hitz-hasierako arazoen proposamena ekarriko da. b) Urtarrileko bileran, hitz-bukaerak sortzen dituen zailtasunak ikusiko dira. c) Otsailean, J/G eta beste zenbait letrena; eta d) Martxoan, *ixa*-rekiko hautapena. Mugaketa honek ez du esan nahi, gairen bat bere egunean helduago balego bestea baino, aldatu ezin daitekeenik. Txostenen arduradunek, azken erabakia izan daitekeen zirriborroz landurik ekarriko dituzte proposamenak.

Argitalpen batzordea. 1983-2. *Euskera* zertan den ikusi da. Eskuarteko lanen azalpena egin du R. Badiolak. *Iker* eta Lekukoen argitalpenei buruz sortzen diren neurriz kanpoko gastuen problema aipatu du J. J. Zearretak. Zenbait idazlek txostenak bi eta hiru bider gehitzen omen dituzte eta, txarrago dena, probak zuzentzera-

koan sekulako aldaketak egiten. Horrek guziak argitalpena garestitzen du eta nolabait moztu beharra dago.

Argitalpenen Erregela Bereziak sortzeko aurre-lana ekarri dute horretarako izendatu jaunek. 12 artikulu ditu eta euskaltzainen artean banatu da. Oharrak, datorren abenduko batzarra baino lehen Arbietora igortzea komeni da. Azken orduan batzarrera norbaitek oharren bat ekar baleza, idatzirik aurkeztu beharko duela, erabaki da.

R. Badiolak, azkenekoz, laster argitaratzekoa den *Pertsona Izendegiak,* orain arte bezala, Euskaltzaindiaren bilduma ofiziala dela esaten jarraitu behar duen, galdetu die batzartuei. Ez du inork eragozpenik azaldu eta erabakirik zegoen eran agertuko da.

Campion-Broussain S. A. izenarekin Ekonomi arazoen lagungarri sortzekoa den azpi-elkargoaren araudia banatu du diruzainak. Eguneko gaietan sartu gabe zegoenez eta garrantzikoa delarik, datorren ostiralean, abenduak 2, batzarre berezi bat gai horretaz egitea erabaki da.

Euskarazko eleberrien "Txomin Agirre" saria eman gabe uztea erabaki dute epai mahaikoek. Bi lan aurkeztu ziren Bizkaiko Aurrezki Kutxaren babesean eratutako sariketa honetara.

Juan Bautista Ibargutxi, euskaltzain ohorezkoaren jaiot-mendeurrena gogoratuz, aipamen luze bat egin du J. San Martin jaunak. Gogorra zela azpimarratu du, batez ere. Erbesteratua egon zen, eta Eibarko giro nahasian, apaiz.

Txostenak

J. M. Satrustegik Pragako bigarren itzuliaren berri eman du. N. Tauer zenaren euskal izkribuak bere koinata batek jasoak zituen. Oso harrera ona egin ziola, esan du, eta erraztasun guztiak eman zizkion. Bataz beste, 703 euskaldunen 6.000 gutun ekarri ditu. Denbora berean, 39 liburu zahar ere jaso ditu, gehienak Azkue Bibliotekan ez daudenak. Gerra aurreko eta ondorengo hutsunea betetzen du, neurri haundi batean, Pragako gutundegian dagoen informazioak.

J. M. Etxebarriak Vienan dauden euskal garabaketen berri eman du. Trebisch etnologoak 1913an hartuak dira eta euskaldun ospetsuen ahotsa gorde dute. P. Charritton-ek eman zuen bilduma honen lehen berria, eta J. M. Etxeberriak berak ikusi du iragan udan zer dagoen han. Beste herrialde askotako lekukotasunarekin batera jasoa da Euskal Herrikoa. Euskarari dagokionaren kopia osoa eskatu du beretzat Euskaltzaindiak. Aurkipen baliotsua da, batez ere, Dialektologia lanetan aurrera joan nahian gabiltzan une honetan.

Eta besterik gabe bukatu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua

J.M.ª Satrustegi
Idazkaria

1983-XII-30

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioaren Jauregian, egin du Euskaltzaindiak 1983.eko abenduaren 30 ean bere hileroko batzarrea. Arratsaldeko laurak eta hogeietan, ohi den otoitzarekin eman dio euskaltzainburuak hasiera. Egon dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, F. ondarra, J. San Martin eta J. M. Satrustegi, euskaltzainak. J. A. Arana, J. M. Aranalde, J. A. Arkotxa, M. Atxaga, R. Badiola, J. G. Etxebarria, J. Etxaide, X. Kintana, M. Pilar Lasarte, J. L. Lizundia, X. Mendiguren, B. Oihartzabal, P. Zabaleta, A. Zatarain eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

Goizeko batzarrean L. Mitxelena ere egon da eta P. Larzabalek ezin etorria adierazi du.

Azaroko batzarre bien agiriak onartu dira.

Hil berri den A. Irigaray euskaltzainaren aipamena egin du J. M. Satrustegik. Euskararen alde, bereziki Nafarroan, egindako lanak gogoratu ditu lehenik. Idazle eta ikerle mailan bi helburu nagusi azpimarratu ditu: mendez-mende euskarak Nafarroan egindako atzerakadaren agerpena, eta aintzinako izkribu nahiz idazle zaharren izenak berreskuratzea.

Zenduaren hutsunea betetzeko, araudiak dioenez, bi hilabeteko epea irekia gelditzen dela, adierazi du euskaltzainburuak. Denbora horretan, ohi den eran egin ditzakete euskaltzainek euskaltzain-gaien proposamenak.

Goizeko batzarraren berri

Eguneko gaietan sartu aurretik esku-arteko gutun batzu aipatu dira. Sortu berria den *Literaturgintzarako laguntzak* banatuko dituen batzorderako ordezkari bat izendatzea eskatzen diote antolatzaileek Euskaltzaindiari. J. San Martinen izena eman da.

Era berean, J. M. Velez Mendizabal jaunak HABE-rako beste ordezkari bat izendatzea eskatzen duen gutuna irakurri da, eta J. San Martin aukeratu dute batzartuek.

Maileguzko hitzak: I) Hitz hasierak

Eguneko gai nagusia, Uztaritzeko jardunaldietan helduxeak gelditutako maileguzkoen hitz hasierak erabakitzeko proposamena aztertzea da. Bere egunean P. Goenagak aurkeztutako txostena oinarritzat harturik eta R. Badiola ere batzordeñoan zela hartutako erabaki-gaia irakurri du J. Haritschelhar euskaltzin-buruordeak. Emandako epe barnean ez da oharrik jaso. Arau hauek, sartu behar diren hitz berrietan jarraituko direla, aditzera eman da lehenik. Adibideetan aipaturiko hitzak ontzat emanak direlako itxura hartzen dutenez, ahalik adibide gutxien sartzea komeni dela, esan da. Aurkeztu den proposamenari zenbait ohar egin zaio eta orrazketa guzien ondoren, honela gelditu da:

Erdaraz hasieran *r* edo *s* + *kontsonante duten hitzei, euskarak bereganatu dituenean protesi-bokala jarri die orain arte. Adibidez: a-*, arratoi, arropa, arrosa; *e-*, erramu, errege, erregela, erremedio, Erroma, Errusia, estatu, ezpata;*e/i-*, ezpiritu/izpiritu. Eta joera horrek gaurdaino duen indarra ikusiz, gisa bereko hitzak mailegatzean, aurrean *e* bat eranstea gomendatzen da: erromantiko, erradiografia, erlatibitate, espeleologia, eski...

Hitz horiek, ordea,ez dute zertan a/e/i-rik hartu, aurretik elkarketa dela eta jadanik beste bokalen bat daramatenean: Erreforma/Kontrarreforma. Salbuespentzat uzten dira azken orduko mailegu irentsi gabeak. Siglak: RENFE. Izen propioak. Rembrandt, Röntgen, Roquefort, Sri Lanka, Stalin. Eta berrikitan hartuak bereziki: radar, rally, ranking, record, robot, rock-and-roll, royalty, standard, stop...

Aintzinan euskarak /p/, /t/, /k/, fonemak hasieran zituzten erdal hitzak –pace, tempora, castellu–, beraiek mailegatzean /b/, /d/, /g/, bilakarazten zituen eskuarki –bake, denbora, gaztelu–; baina joera hori aspaldian galdua delarik, Euskaltzaindiaren aburuz, gisa bereko hitz berriak erdaratik jasotzean ez litzateke aldaketarik egin behar. Esaterako: politika, penizilina, telegrama, topografia, kontrola, kimika...

Era berean, hitz oinarria aintzinan mailegatua delako aldatua izan arren, haiengandiko erdal eratorri berriak ez dute euskaraz aldaketa beharrik. Adibide gisa: gorputz baina korporazio, denbora baina teperatura, lore baina flora (faunaren osagarria).

Proposamenaren zenbait puntu zehaztu eta azken orraztapenaren ondoren bozketa egin da. Hamabost euskaltzainek hartu dute parte, eta P. Lardazabal jaunak J. Haritschelharri eman dio idatziz ahala. Denera hamasei. Hauetatik, 15 BAI eta ZURI bat atera dira.

Hitz-hasierak nola mailegatu behar diren erabakirik utzi du, beraz, Euskaltzaindiak. Datorren hileko batzarrera *Hitz-bukaerak* mailegatzeko erabaki-proposamena ekartzeko eskatu die arduradunei euskaltzain buruak.

Argitalpenen Erregela Bereziak. Eguneko bigarren gaia Argitalpenen erregela bereziei buruz jasotako zuzenketa eta oharrak aztertzea dela, zioen deiak. Aldaketa guziak kontuan hartuz egindako proposamen berria banatu da, azken erabakia beste batzarre baterako utzirik.

Expolangues. Urtarrilaren 25-etik 29-ra Parisen egitekoa den Liburu Erakusketaren antolakizun lanak zertan diren agertzera eman du J. Haritschelhar jaunak. Berrehun gomita-gutun egiteko agindua du, eta eramango diren liburuen zerrenda behar da orain. Hemengo antolakizun batzordea arduratuko da garraioaz.

Txostenak

Beñat Oiharzabal jaunak, *Ba baiezko aurrezkia* gaitzat harturik, irakurri du bere txostena. Noiz ez den baiezkoa azaldu ondoren, asertzio baikorraren eremuan sartu da. Berezko joera batzu aipatuz, erlatiboetan ez da agertzen, eta aditz trinkoak erakartzen du: badatorkio eta abar. Beste ikerketa asko egiten jarrai behar dela, aitortu du, gaia behar bezala argitzeko.

J. L. Lizundiak 1984.eko batzar-egutegia aurkeztu du. Campion-en Gramatikaren mendeurrena dela eta Iruñean egitekoa den X. Biltzarra ekintza nagusitzat harturik, honako beste gertakizun hauek aipatu ditu: Jean Saint-Pierre euskaltzainaren sortze ehun-urteburua, hala nola Nazario Oleaga Euskaltzaindiko idazkari izandakoarena, eta Ignacio M.ª Etxaide euskaltzainburu ohiarena. Jose Manterola-ren heriotz mendeurrena ere aurten betetzen da. Batzar-egutegian aipu dira.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua

J. M.ª Satrustegi
Idazkaria

NORBERT TAUER LIBURUTEGI ETA ARTXIBOAREN KATALOGOA

Jose Antonio Arana Martija
1983-XII-31

Norbert Tauer jaunak (1898-1983) Euskaltzaindiari emandako liburu, aldizkari, gutun eta bestelako paperen Katalogoa duzu eskuetan. Nola eskuratu dugun Azkue Bibliotekan ondasun baliotsu hau Jose Maria Satrustegi jaunak azaltzen digu xeheki Euskera *aldizkarian argitaraturiko bi lanetan, hots,* Txekoslobakiako itzuliaren berri eta ondoreak *(1983-I) eta* Norbert Tauer euskaltzain ohorezkoaren gutunak *(1984-I). Donostian, Euskaltzaindiaren hileroko bileretan, irakurritako txostenak dira biak, bata 1982.eko Urriaren 29an eta bigarrena 1983.eko Azaroaren 25ean.*

Laburpen gisa irakurleei hemen nolako hori azaltzea dagoki. Norbert Tauer euskalzale eta euskaltzaina bizi zelarik, 1982.eko Irailaren 19tik 29ra, egin zuen Satrustegi jaunak Prahara lehen ostera eta orduan ekarri zituen Katalogoan zenbaki hauekin agertzen diren aldizkari, liburuxka eta lanak: 65-70, 105, 195, 283, 284, 293 eta 305. Geroztik Tauer jauna hil zitzaigun 1983.eko Urtarrilaren 28an eta beronen emaztea urte bereko Maiatzaren 13an. Eta aurtengo Abuztuaren 16tik 23ra egin zuen Satrustegi jaunak bigarren ostera, lehen aukeratutakoak, edo gehienak behintzat, ekartzeko asmoetan. Karel Keller jaunaren laguntzaz baliatuz lortu zuen Euskaltzaindiaren Idazkariak bigarren emaitza taiutzea eta metatzea, eta itzul bidaian berarekin ekarri zituen liburu, gutun eta bestelakoak, Katalogoan izar gabe agertzen diren beste guztiak, noski. Abenduaren 18an ekarri nituen Urdiainetik Bilbora, eta Josune Olabarriaren laguntzarekin osatu dut Katalogo hau bi osteretan ekarritakoekin.

Hamazazpi kutxa gorri handietan sartu ditugu dokumentu guztiak, liburuak aparte utziz. Baina denei banan banan jarri dizkiegu Tauer jaunaren "ex libris", behar den bezala ondasun hau bereizteko. Azkue Biblioteka aberastu da emaitza honekin, eta Euskal Herria, edonork ikerketa lanetan erabiligarria baita.

Jose Antonio Arana Martija
1984-VIII-18

Igaztik prest zegoen Katalogo hau moldiztegiko bidea hartzeko, eta hartu ere hartu zuen; moldiztegiko lehen frogak ere zuzenduta neuzkan Karel Keller jauna 1984.eko Abuztuan Euskal Herrira etorri zenean. Abuztuaren lehen egunetan beste 22 liburu ekarri zizkion Jose Maria Satrustegiri Euskaltzaindiarentzat eta beste hiru igorriko dizkigu itzulia bukatuta berriz Prahara doanean. Beraz, Karel Keller jaunaren eskutik beste 26 liburu datozkigu Norbert Tauer jaunaren Liburutegitik eta eratuta zegoen Katalogoan titulu berri hauek sartzea dagokigu behin betikoa osatzeko. Euskera agerkariak orain argitaratzen duen Katalogo honek, Azkue Bibliotekan dagoen ondare baliotsu hau azaltzen digu. Hirugarren ekarketa honetan eskuratu ditugun liburuak bereizteko izartxo bat jarri dugu dagozkien zenbakien alboan.

I

LIBURUAK

* 1. ABBADIE, Antoine-CHAHO, Joseph Agustin. Etudes grammaticales sur la langue euskarienne. Paris. A. Bertrand, 1836. VII-50-184 orr. 21 x 14 zm.

2. Andredena Mariaren imitacionea Jesus-Christoren imitacionearen gañean moldatua. Bayonaco Diocezaco Yaun Aphez batec Francessetic, Escuararat itcouliya. *Bayonan.* Piarres Fauvet 1778. XXXVI - 305 orr. - 16 x 9,5 zm.

3. APAIZ EUSKALDUN BATEK. Biotz-Imurtŝiak. "Saetillas Familiares", deitzen dan erderazko liburutŝutik euskerara itzulia. *Durango'n.* Florentino Elosu'ren Etŝe Argitaldari'an. 1916. 32 orr. - 14,5 x 9 zm.

4. ARANA, Vicente. Jaun Zuria ó el Caudillo Blanco. Leyenda histórica original del siglo IX. *(Bilbao).* Imp. de la Revista de Vizcaya. 1887. 101 orr. 18,5 x 12 zm.

* 5. ARAQUISTAIN, Juan Venancio de. Tradiciones vasco-cántabras. *Tolosa.* Imprenta de la Provincia, 1866. 380 orr. 20 x 15 zm.

6. ASKOREN ARTEAN. Speciálni Oddĕleni Státni Pedagogické Knihovny Komenského V Praze. Praha. 1966. 55 orr. 24 x 14,6 zm.

* 7. ASTARLOA, Pedro Pablo de. Apología de la Lengua Bascongada. Madrid. Gerónimo Ortega. 1803. XXIV - 452 orr. 22 x 14 zm.

* 8. ASTARLOA, Pedro José Patricio de. Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac, ceinzubetan azalduten dan Erromaco catecismua. *Durangon.* Florentino Elosu. 1903. 22 x 16 zm.

* 9. AZKUE, Resurreccion Maria de. Euskal Izkindea. Gramática Eúskara. *Bilbon.* Jose Astui. 1891. IX - 401 orr. 29 x 21 zm.

* 10. BARBIER, Jean. Ama Birgina Lurden. *Bayonne.* Lasserre, 1920. 297 orr. 14,5 zm.

* 11. BARBIER, Jean. Piarres (Lehen zathia). *Baionan.* S. Sordes, 1926. 248 orr. 20,5 zm.

12. BELAUSTEGI'tar Pantzeska. Goznarkera eŕaza. *(Zornotza).* Jaungoiko-Zale'ren Irarkolea. 1921 - 15,5 x 10,5 zm.

13. Calendario de las Provincias Vascongadas para el año 1925. *San Sebastián.* Tip. Joaquin Muñoz-Baroja. 13,3 x 10,5 zm.

14. El Calendario de las Provincias Vascongadas, el más antiguo de España para el año 1954 en su 102 aniversario. *San Sebastián.* 13,3 x 10 zm.

15. Cantica Izpiritualac, dembora gucietaco hanitz abantailosac, guehienac erreberrituac, eta oraino ecagutuac etcirenez emendatuac. *Bayonan.* Cluzeau Baithaco Imprimerian, 1844. 78-33 orr. 17,2 x 11 zm.

16. CARDABERAZ, Aita Agustin. Eusqueraren Berri Onac eta ondo escribitceco, ondo iracurteco, ta ondo itzeguiteco Erreglac. *Iruñean.* Antonio Castillaren echean, 1761. 63 orr. 14,1 x 9,5 zm.

17. CARDABERAZ, Aita Agustin. Senar emazte santuac. Necazari ezcondu, ta beste guciac, lurrean ceruco bicitza eguiteco ispillu eder biciac: S. Isidro Achurlari, ta bere Emazte Santa Mariaren Bicitza, Virtuteac, eta Milagroac. *Iruñean.* Antonio Castillaren Echean, 1766. VIII-141 orr. 14,3 x 9,7 zm.

18. CARDABERAZ, Aita Agustin. Senar emazte santuac. Necazari ezcondu, ta beste guciac, lurrean cerucobicitza eguiteco ispillu eder biciac. San Isidro Achurlari, ta bere emazte Santa Mariaren bicitza, birtuteac, eta milagroac. *Tolosan.* Eusebio Lopez-en moldizteguian, 1885. 143 orr. 13,5 x 9,5 zm.

19. CARDABERAZ, Aita Agustin. Escu Librua ceñean dauden Cristabaren Eguneroco Ejercicioac, Mandamentu santuetatic esamiña eguiteco, confesatzeco eta comulgatzeco prestaerac, guerozco oracioaquin. Meza Santua Calbarioa eta beste devocioac. *Tolosan.* Mendizabalen alargunaren echean. 1846. 237 orr. 13,5 x 7 zm. Vinson-en Bibliotekatik eskuratua.

20. CENTRO VASCO "ZAZPIRAK-BAT". Memoria y balance correspondiente al ejercicio 1954-1955. Rosario. Imp. Unión, 1955. 15 orr. 13,4 x 11 zm.

* 21. CHAHO, Joseph Agustin. Biarritz, entre les Pyrénées et l'Ocean. Itinéraire pittoresque. *Bayonne,* Lespes (1855). 2 Tomo. 18 x 12 zm.
CHAHO, Joseph Agustin. Ikus 1. zka.

22. CHOURIO, M. Jesus-Christoren Imitacionea. *Bordelen.* Guillame Boude'-Boe' Imprimatcaille, 1720. 426 orr. 14,5 x 8,5 zm. Vinson-en Bibliotekatik eskuratua.

* 23. DARANARZ, Jean Baptiste. Curiosités du Pays Basque. *Bayonne,* Laserre, 1927. 2 Tomo. 25 x 17 zm.

* 24. DARRIGOL, Jean Pierre. Dissertation critique et apologétique sur la Langue Basque. *Bayonne,* Duhart-Fauvet (1827). III - 163 orr. 22 x 14 zm.

25. DIHARASSARRY, L. Mariaren Haurren escu-liburua. *Baionan.* Lasserre Baitan Imprimatua, 1895. XV - 504 orr. 12,3 x 8,3 zm.

* 26. DUHALDE, Martin. Meditacioneac gei premiatsuenen gainean, cembait abisuekin, othoitcekin eta bicitceco erregela batekin, arima Jaincotiarren oneraco. *Bayonan,* Cluzeau, 1809. 582 orr. 18 x 10 zm.

27. (DUVOISIN) Ebanyelio Saindua San Joanesen arabera. Lapurdico escuararat itculia. *Bayonne,* 1887. 90 orr. 13,3 x 9 zm.

28. ECHAVE, Balthasar de. Discursos de la antigüedad de la lengua cántabra bascongada. Mexico. Emprenta de Henrico Martínez, 1607. 84 orr. 22 x 16 zm.

29. EGAÑA'tar M. E. Koldobika ta Jon. (Gipuzkeraz) Umientzako ipuyak. *Bilbao.* Grijelmo'ren Alargun-Semien Irarkolea, 1914. 18 orr. 11,6 x 8 zm.

* 30. ELIZONDO, Pablo Miguel de. Compendio de los cinco tomos de los Annales de Navarra (del P. Moret). *Pamplona,* Pedro Joseph Ezquerro, 1732. 9-644-50 orr. 28 x 19 zm.

31. ETXARRI-ARANAZ'tar Aurelio. Migel Goiaingeruari Bederatzi-Urrena. *Iruñako* Aita Kaputxinoen Moldiztegian, 1956. 20 orr. 14,5 x 9,8 zm.

32. Euskal-Meza. Eguneroko otoitzak. 1865-1965 Arana eta Goiri'tar Sabin irakasle aundiaren eun-urte-muga. Caracas. Imp. Edit. Excelsior, 1965. 12 orr. 15,3 x 11,5 zm.

* 33. Fuero, Privilegios, Franquezas y Libertades de los Cavalleros Hijos-dalgo de el Muy Noble y Muy Leal Señorio de Vizcaya. *Bilbao.* Antonio Egusquiza, 1762. 2-382 orr. 30 x 19 zm.

34. (HARANEDER). Gudu Izpirituala, ceintan aurkhitzen baitire passioneen bentzutzeco eta bicioen garaitzeco moyanic hoberenac eta segurenac. Nl. Lh. Dr. Donibane Lohitxuco Yaun Aphecac berriro Escararat itzulia. *Tolosan.* Joannes-Franses Robert, 1750. 355-7 orr. 14 x 8,5 zm.

35. HARANEDER, M. Yoanes de. Philotea edo debocioneraco bide eracuszaillea, San Franses Salescoac, Genebaco aphezpicu eta princeac, bisitacioneco ordenaren fundatzailleac eguinea. *Bayonan.* Andre Lamaignère alhargunaren imprimerian, 1853. XVI-524 orr. 14,3 x 9,2 zm.

* 36. HARISTOY, Pierre. Recherches Historiques sur la Pays Basque. *Bayonne.* E. Lasserre, 1883. I Tomoa. 22 x 14 zm.

* 37. HARIZMENDI, C. L'Office de la Vierge Marie en basque labourdin. Chalon-Sur-Saone. E. Bertrand, 1901. XV - 132 orr. 22 x 14 zm.

* 38. HERVAS PANDURO, Lorenzo. Catálogo de las lenguas de las naciones conocidas, y numeración, división y clases de éstas según la diversidad de sus idiomas y dialectos. Madrid. Imp. de la Administración del Real Arbitrio de Beneficencia, 1804. IV. Tomoa, VIII - 344 orr. V. Tomoa, 316 orr. 21 x 16 zm.

39. HILCKMAN, Anton. In Memoriam. Bevergern, 1975. 78 orr. 24,2 x 16,7 z.

40. IRAIZOZ, A. Gurutze bidea. *Pamplona.* 1958. 12 x 8,2 zm.

41. LARRAMENDI, P. Manuel de. El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada. Salamanca. Antonio Joseph Villargordo Alcaraz, 1729. 404 orr. 14,2 x 9,5 zm.

42. LARRAMENDI, Manuel de. Discurso Historico sobre la antigua famosa Cantabria. Question decidida si las Provincias de Bizcaya, Guipuzcoa, y Alaba, estuvieron comprehendidas en la Antigua Cantabria? Madrid. Juan de Zuñiga, 1736. 420 orr. 14,5 x 10 zm.

43. (LARRAMENDI) M. D. L. De la antigüedad y universalidad del bascuenze en España: de sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas Lenguas, demonstración previa al Arte que se dará a luz desta Lengua. Salamanca. Antonio Joseph Villargordo, u.g. 184 orr. 14,3 x 9,7 zm.

* 44. LECLUSE, Fleury de. Examen critique du Manuel de la Langue Basque. *Bayonne.* Cluzeau, 1826. 32 orr. 19 x 13 zm.

* 45. LHANDE, Pierre. L'emigration basque. Histoire, économie, psychologie. Paris. Nouvelle Librairie Nationale, 1910. XXVI - 297 orr. 18,5 x 12,5 zm.

* 46. LHANDE, Pierre. Le Pays Basque à voi d'oiseau. Paris. Gabriel Beauchesne, 1925. 182 orr. 18,5 x 12 zm.

47. LINDE, Lorenzo Roberto de la. Discursos Históricos a favor de las siempre mui nobles, y no menos leales Encartaciones del Infanzonazgo del siempre mui noble, y mui leal Señorio de Vizcaya. Tomo I - Sevilla. Impr. Revuelta, 1740. 164 orr. 13,9 × 9,5 zm.

48. (LINDE, Lorenzo Roberto de la). Discursos Históricos a favor de las Encartaciones de Vizcaya. (Tomo II). (Sevilla, 1740). 232 orr. 14,2 × 9,5 zm.

* 49. MASDEU, Juan Francisco. Historia crítica de España y de la Cultura Española. Madrid, Antonio de Sancha. I Tomoa, 1784.

50. Mendizaleen Meza. Misa de Montañeros. Colección "Apaika". *Pamplona.* Imp. Capuchinos (1962), 31 orr. 11,7 × 8,5 zm.

51. Meza Deuna erriarentzat. *Elgoibar.* Impr. Jauregui, 1959. 12 orr. - 15,4 × 10,5 zm.

* 52. O'SHEA, Henry George. La Maison Basque, notes et impressions. *Bayonne.* Troisième edition. Lamaignère, 1897. XII - 87 orr. 25 × 17 zm.

53. Perlasco Colierbat. Un collier de perles ou passages extraits du Nouveau Testament de Notre-Seigneur Jésus-Christ. Paris. J. Bonhoure et Cie. 1879. 125 orr. 15,3 × 10,3 zm.

54. PEROCHEGUI, Juan de. Origen de la Nación Bascongada y de su lengua de que han dimanado las Monarquias Española, y Francia, y la República de Venecia, que existen al presente. *Pamplona.* Imp. de los Herederos de Martinez, 1760. 105 orr. 15,3 × 9,5 zm. Vinson-en Bibliotekatik eskuratua. Orrialde batzuen faltan Vinsonek berak eskuz idatzi zituen orrialde hauek: I-III-IV-V-VI-VII-VIII-IX-X-XI-XII-XIII-XIV-Fee de erratas-5-6-13-14-47-48-49-50-93-95-96-97-98-99-100-101-102-103-104-105.

* 55. PHILLIPS HOFRATH, George. Uber das Baskische Alphabet. Wien. Hof-und-Sttadsdrukerei, 1870. 44 orr. 25 zm.

* 56. POUVREAU, Silvain. Les petites oeuvres basques. Chalon-Sur-Saone. L. Marceau, 1892. XVI - 99 orr. 23 zm.

* 57. RISCO, Manuel. La Vasconia. Tratado preliminar de las Santas Iglesias de Calahorra y de Pamplona, en que se establecen todas las antigüedades civiles concernientes a la región de los vascones desde los tiempos primeros de Navarra. (España Sagrada, XXXII. Tomoa). Madrid. Miguel Escribano, 1779. 452 orr. 22 zm.

58. ROYAUMONT, M. de. Testamen caharreco eta berrico historioa. Lehenbicico Liburua: Testamen Caharra. *Bayonan.* Fauvet Duharten Imprimerian eguina, 1775. 377 orr. 16 × 10 zm.

59. ROYAUMONT, M. de. Testamen caharreco eta berrico historioa. Bi-garren Liburua: Testamen Berria. *Bayonan.* Fauvet-Duharten Imprimerian eguina, 1777. 454 orr. 15 × 9,8 zm.

* 60. Saint Jean de Luz. Guide. (d.g.).

61. SALABERRY, M. (D'Ibarrolle). Vocabulaire de mots basques Bas-Navarrais, traduits en langue francaise. *Bayonne.* Imp. de Veuve Lamaignère, 1856. XVIII-252 orr. 16,5 × 10,5 zm.

62. TAUER, Norbert. Bere idazkiak. Buenos Aires. Edit. Vasca Ekin-Sebastián de Amorrortu e Hijos S. A.'ren irarkolan, 1962. 84 orr. 13,2 x 9,2 zm.

63. TAUER, Norbert. Baskičtina a jeji dnešni situace. Philologica Pragensia. Rocnik VIII - 1965 - Cislo 1. Zvláštni otisk. 81/87 orr. - 115/116 orr. 23,8 x 16,5 zm.

64. UBILLOS, Fray Juan Antonio. Christau Doctriñ berri-ecarlea Christauari dagozcan Eguia sinis-beharrean-berria dacarrena. Jaun Claudio Fleuri Abadeac arguitara atera zuanetic. *Tolosan.* Libruguille Francisco de la Lama-ren Echean, 1785. 224 orr. 14,2 x 10 zm.

II

ALDIZKARIAK

65. ESKUAL HERRIA. Bulletin non periodique des Basques d'Alger. 1958 - (Janvier). 1958 - (Avril).

66. EUZKO DEYA. Organo de la Resistencia Vasca. n.º 26 - Edición Alkartasuna. n.º 37 - Edición Aurrera 5 ale. n.º 38 - Edición Gorbea. n.º 43 - Edición Zumarraga.

67. NEWSLETTER - Reno - Nevada. n.º 2-25 - 1969/1982.

68. OPE - Praha. (Txekoz). 1 - 17. 11. 1947. (2). 3 - 9. 12. 1947. 4 - 17. 12. 1947. 5 - 22. 12. 1947. 6 - 30. 12. 1947 - 2 ale. 7 - 5. 1. 1948. 1 - 12. 1. 1948. 2 - 19. 1. 1948. 3 - 28. 1. 1948. 4 - 5. 2. 1948. 6 - 19. 2. 1948. 8 - 9. 3. 1948 (orri bat). 9 - 15. 3. 1948. 10 - 23. 3. 1948. 11 - 25. 3. 1948. 12 - 31. 3. 1948 - 2 ale.

69. OPE - EUZKO DEYA - Paris. n.º 2.465 - 7-6-1957. n.º 3.028 - 6-11-1959.

70. PREHLED. 1935 - Cislo 13.

III

BESTE ARGITALPEN ETA PRENTSA MOZKINAK

71. Adikaitza dana. Euzko Deya. Paris.

72. Adizquide zintzo baten lau iracazte on. *Durango*-n. F. Elosu-ren echean.

73. AGIRREZABAL'tar Andoni. Euskaltzale sutsu bat Pragan'n. Pensamiento Alavés - 18-1-1958.

74. AGUIRRE, José Antonio de. Heriotz oroigarria. Paris.

75. ALDAVE, Joaquin. Negu beltza.

76. ALZOLA ETA GEREDIAGA'tar Nikol. (Berriochoa'tar Balendin Anaia). Heriotz oroigarria. 1954.

77. ANAITASUNA. Harpidedun txartela.

78. ANDONEGI'tar Ziriako. Txekoslobakia'tik Motrikura. Zeruko Argia - 28/1956.

79. ANDONEGI'tar Ziriako. Jesus'egaz Beti!

80. APAT-ETXEBARNE, A. Euskal Gutun-Literatura. Diario de Navarra. 26-8-1971.

81. ARESTIAR. Nork dio gezurra? Anaitasuna. 1971-9-15.

82. ARESTI SEGUROLA, Gabriel. Heriotz oroigarria. 1975.

83. ARTECHE, José de. Alabanza a unos muchachos entusiastas. Una visita a "Villa Valencia" en la tarde del Corpus Christi. La Voz de España. Donostia. 22-6-1949.

84. ARTZA'tar Andoni. Euskal Ikaskuntzarako sariak. Euzko Deya. Buenos Aires. 30-2-1958.

85. ASTIZ, Miguel Angel. Una carta en vascuence escrita en Praga. La Gaceta del Norte. 30-5-1957.

86. ASTIZ, Miguel Angel. Don José Aguerre, investigador de la obra del príncipe Bonaparte, encuentra espléndidas perspectivas para los "euskerólogos". En la Diputación de Navarra hay una parte de un mapa de Vizcaya de Luis Luciano. 14-6-1957.

87. ASTIZ, Miguel Angel. Los investigadores alemanes de hoy se interesan por el vascuence. Hermann Berget-que lo escribe muy bien– va al Pakistán donde estudiará las afinidades del vascuence con el Burusaki. La Gaceta del Norte. 11-2-1958.

88. ASTIZ, Miguel Angel. M. Norbert Tauer, el checoeslovaco que escribe en vascuence desde detrás del telón de acero. Tiene la mayor colección epistolar que se conoce en la vieja lengua y una gran biblioteca especializada. Colabora con regularidad en muchas revistas y publicaciones. La Gaceta del Norte. 28-10-1959.

89. Aumenta el número de vascófilos extranjeros. Eibar 36/1960.

90. AUÑAMENDI. Harpidedun txartela. San Sebastián.

91. Axular. (IV Centenario). Tierra Vasca. 15-9-1956.

92. AZURMENDI, U. Europa barrendik: Norbert Tauer. "Nork eskutitz geiago"an saritua. Euskal liburutegi bikain baten jabe. Zeruko Argia. 1966-4-10.

93. BASARRI. Mi atalaya montañera. 13-9-1961.

94. Baskicko a jeho svoboda.

95. Baskové bojuji sami. Katolik. 28-9-1947 - X/39.

96. BASTRES, Augustin. Heriotz oroigarria. 1955.

97. BENITO, Padre. (Necrologia del Padre Salvador Michelena). Vida. Boletín Informativo de la Misión Católica Española. N.º 3. Neuchatel febrero 1966.

98. BERGLUND, Alfred. Pomhaj Boch. Något om venderna förr och nu.

99. Bibliografía vasca y vasquista. Un vascófilo alemán estudia la personalidad de nuestro pueblo. Euzko Deya. 30-9-1965.

100. 1. BLAZQUEZ, J. Ramón. Sobre un cierto antivasquismo. 2. SCHEIFLER AMEZAGA, José Ra. Navidad en la cárcel. 3. UZTURRE. Una afortunada idea de F. X. Landaburu. El homenaje pendiente a Doroteo Ziaurritz. Deia. 1982-12-26.

101. BORDARI. Baxurko.

102. CECILIO, Hijo. Desde Praga. Norbert Tauer sigue recordando a España. La Gaceta del Norte.

103. CIRCULO CULTURAL Y ATENEO GUIPUZCOANO. Unamuno, personalidad desbordada. Conferencia por D. Nemesio Echaniz. Dei txartela. San Sebastián 11-12-1958.

104. La Comisión Directiva de "Gure Echea" de Santa Fe.

105. CONGRESO MUNDIAL VASCO. Conclusiones del —.

106. (DIA DEL EUSKERA). Buenos Aires con gran brillantez el —. Juntamente con el homenaje a nuestra lengua fué celebrada la festividad de San Francisco Jabier, que expresó su devoción a aquella en su obra misional. Homenaje al benemérito doctor Isaac López Mendizabal. Buenos Aires. Diciembre 30 de 1952.

107. (DIA DEL EUSKERA). En Buenos Aires. Se celebró el —. Euzko Deya. Buenos Aires. 30-12-1955.

108. (DIA DEL EUSKERA). El 17 de diciembre —. Euzko Deya. Buenos Aires. 1959.

109. (DIA DEL EUSKERA). Nuestro idioma. El — en Buenos Aires. Euzko Deya. Buenos Aires. 30-12-1960.

110. Durango-ko Euskal-Liburuen Feria. Herria. 9-11-1978.

111. E. D.: Norbert Tauer, txeko'tar euzkel idazlea. Euzko Deya. Paris. 15-3-1946.

112. E. G.: René Cuzacq hil zaiku. Herria. 5-5-1977.

113. ECHANDI, G. Don José María Satrústegui, académico de número de la Real Academia de la Lengua Vasca. Diario de Navarra. 22-2-1976.

114. EDICIONES RELIGIOSAS. Salgei daukoguzan idazti batzuk. Bilbao.

115. Eibarko Euskalzaleen Biltzarra eta Gipuzkoako bertsolarien azken txapelketa nagusia. Euskera. IV. 1959.

116. "Elgar" a reçu les voeux de Nöel du Dr. Norbert Tauer... Elgar. Janvier 1958.

117. EMILIANO, Aita (karmeldarra). Andre Mari Euskalerriko mendietan. (Zabalkunde-harpidetza txartela).

118. ESKUALZALEA. Eskuararen chokoa.

119. EUSKALTZAINDI. Acto artístico-cultural organizado por la Academia de la Lengua Vasca. Programa. Bilbao. 4 de enero de 1959.

120. (EUSKALTZAINDIA). Une très importante déclaration de L'Académie de Langue Basque. 1959-4-2.

121. EUSKALTZAINDIA. —ren Luzaideko Biltzarre nagusia eta Satrustegi jaunaren sarrera-itzaldia. 1963-9-15.

122. EUSKALTZAINDIA. Colección Len eta Orain. Euskal idaz-lanak. —ren ardurapean. Bilbao.

123. EUSKALZALEAK. Nork eskutitz geiago. Concurso epistolar. Buenos Aires. (1950).

124. Euskera batuaren oinarri batzuek. (Txistulari aldizkaritik hartuta). (Bilbao).

125. Euzkera řeč Basků.

126. (EUZKO DEYA). Egunen bidea. Gure aldizkariak. Euzko Deya. Paris. 1-3-1956.

127. (EUZKO DEYA). Egunen bidean. Euskaldunak Filipinas'en. Euzko Deya. Buenos Aires. 1-11-1957.

128. (EUZKO DEYA). Premios. El estudio de la lengua vasca. Euzko Deya.

129. (EUZKO DEYA). Euskal Orriya. Euzko Deya. Paris. 1-7-1950.

130. (EUZKO DEYA). Euskal Orriya. Euskal kultura. "Euskal Batzar Orokarra" ta Sorbona'n barna. Euzko Deya. Paris 1-11-1956.

131. (EUZKO DEYA). Euskal Orriya. Euzko Deya. Paris 1-11-1958.

132. (EUZKO DEYA). Euskeraren eguna. Euzko Deya. Paris. Enero 1956.

133. (EUZKO DEYA). Euzkaltzaleak. Euzko Deya. Buenos Aires. Noviembre y diciembre de 1956.

134. (EUZKO DEYA). Euzko Gogoa. Euzko Deya. Paris, 1-3-1960.

135. (EUZKO DEYA). VII'garren Euzko Ikaskuntzen Biltzarra. Euzko Deya. 1948. (Paris).

136. EUZKO DEYA. VIIème Congres des Etudes Basques. Le peuple le plus ancien d'Europe affirme vigoureusement sa vitalité. Euzko Deya. Paris. 30 septembre 1948.

137. EUZKO DEYA. Les travaux des Sections du Congrès de Biarritz. Euzko Deya. (Paris). 15-11-1948.

138. EUZKO DEYA. L'ouverture du VIIIe. Congrès d'Etudes basques. Euzko Deya. Paris. 1 Août 1954.

139. FAGOAGA ARIZTIA, Blas. Heriotz iragarkia. 23 de junio de 1966.

140. FAGOAGA, Isidoro de. Conferencia de —, en el Ateneo Guipuzcoano. La Voz de España.

141. Feuilleton. "Blydný Holand'an" mezi národy. Kdo jsou Baskové?

142. GAMIZ. Xabier Peña'ren Omenaldian. Agur (1974-4-28).

143. GOIZALDI. Program. Lucerna. 24. Června 1964 ve 20 hodin.

144. GOÑI, Joaquín de. Conferencia de Satrústegui sobre la medicina popular en el País Vasco. 16-12-1975.

145. GORBEATARRA. Omen-aldia Zeanuri'n. (Manterola'tar Gabireli). 30-12-1971.

146. Gure aldizkariak. Euzko Deya. París. 1-4-1955.

147. HILCKMAN, Anton. Das Alteste Volk Europas. Uber Sprache, Kultur und Gebräuche der Basken Von —. Rheinischer Merkur. Nr. 47/21 november 1958.

148. HILCKMAN, Anton Joseph Maria. Heriotz oroigarria.

149. HOMBRADOS OÑATIVIA, Gregorio. 1854. 5 de enero. 1954. Centenario de un hijo ilustre de Andoain: Juan Bautista de Erro. El Diario Vasco. San Sebastián 5-1-1954.

150. IBARRONDO, Pierre. Deux courtes poésies de Marie-Jeanne Minaberry. Biga. n.º 10. été 1969.

Gero Albert Léon-ek emaiten du ikertu dituen sei eskuz idatzi pastoralen berri: biga Parisekoak dira; biga Bordalekoak; batto Urdiñarbekoa; bertze bat Baionakoa. Osoena Pariseko n.132 delakoa izanez, haren bidez 76 orrialdez erakusten du nola euskaldunek kondatu duten Helona-ren ixtorioa. Bainan segidan salatuak saizku bertze idazkietan aurkitzen diren berezitasunak: orotarat 1500 berset baino gehiago aurkitzen dira beren frantses itzulpenarekin.

Azken kapitulu batean ikertua da pastoraletako euskara, bere adizkera zehar eta hitz erdaldunekin; mintzaera eta bertsolaritza ere aztertuak daude beren on-gaitzekin eta askatasun handiarekin.

Hots, nahiz liburu hau agertuz geroz eta Hérelle hilez geroz pastoralek bide berri batzu hartu dituzten, uste dut irakurtzekoak direla Albert Léon zenaren oharpenak, mende hunen hastapenean antzerki euskaldun ohidurez konturatzeko.

Hérelle jaunak Baionako lizeoan filosofia erakasten zuen. Irakaskuntza utzi zuen literaturari lotzeko eta orduan haren ordain etorri zen erakasle Albert Léon Baionarat. Memento hortan euskaltzale batzuek eraiki zuten *Cercle d'Etudes euskariennes* izeneko biltzarño bat. Hor kausitzen ziren Julio de Urquijo, Georges Lacombe, Pierre Broussain, Henri Gavel, Maritin Landerretche eta abar. Heietarat bildu zen Albert León ere. Hiriart-Urruty kazetalariarekin elaire zen eta euskaraz mintzatzeko aukera guziak bilatzen zituen.

Gogotik irakur-arazten zituen euskal aldizkariak eta hizkuntzalarien lanak. Berak ere atseginekin idazten zuen euskal gaiez: etimologiak laket

zaizkon hala nola gramatika auziak. Historiazalekin bila zabilan noiztik jarriak ziren Euskaldunak orai bizi diren lurraldean, edo nola girixtinotasuna sartu zen heien artera. Hemen gaindiko ohiturez ere zer nahi jakin-nahiz zen.

Ikus ditazke haren artikulu gehienak agerkari hauietan:

Bulletin de la S. S. L. A. de Bayonne, 1931, 2II, 344-350.
Congrès de l'Union historique, 1912, II, 35-52.
Euskalerriaren Alde, 19II, 174 sq; 207 sq.
Eusko Yakintza, 1947, I, 12I-144
1948, II, 347-357.

Gure Herria, 1921, I, 446-461.
1926, VI, 50-56.
1928, VIII, 142-157; 270-280.
1929, IX, 561-573.
1930, X, 33-49.
1932, XII, 524-536.

R. I. E. V., 1909, III, p. 468.
19II, V, 472-493.
1913, VII, 428-438.
1925, VXI, 68-73; 343-344.

Revue Philomatique de Bordeaux
1906, IX, 385-409.
1921, XXIV, 62-72.

Albert Léon hil zen 1953-an bere alaba baten etxean, bere 70. urtean.

NORBERT TAUER EUSKALTZAIN OHOREZKOAREN GUTUNAK

Donostia, 1983-XI-25

Jose M.ª Satrustegi

Beharrak bultzaturik, hamaika hilabeteren buruan bigarren aldiz egona naiz Praga hiriburuan. Bere egunean kontu eman nuenez, Norbart Tauek euskaltzain ohorezkoak, Euskaltzaindiarentzat eskaini zizkidan bere gutendegi aberats eta liburu guziak. 1982.eko irailean zen hori. Denbora gutxian gauza asko gertatu da geroztik: Tauer jaunaren heriotza, lehenik, aurtengo urtarrilaren 28an; eta bere emaztearena, gero, azken maiatzaren 13an. Nazioarteko mugen arazoaz bestalde, zailtasun berri bat sortzen zuen nagusiaren hutsuneak. Tauer-ek ez zuen seme-alabarik eta auskalo zer gerta zitekeen bere gauzekin.

Ekainaren erdi aldera jakin nituen lehen berriak. Tauer jaunaren koinata zela esanez idatzi zidan emakume batek. Itxuraz, ilobarenzat gelditu ziren puska guziak, baina euskal liburu eta gutunak guretzat zirela ba omen zekien. Epe labur batean ustu beharra zuen etxeak eta berek aldatu zuten liburutegia.

Egoera hori ezin zen gure aldetik gehiegi luzatu, eta abuztuaren 16an egin nuen Foronda-Frankfurt-Praga txangoa. Arratsaldeko laurak aldera iritsi ginen, eta nire zai zegoen aireportuan Keller adiskidea. Liburuak ofizialki ekartzeko zer urrats eman behar ziren ikastea ez zen zaila izan niretzat. Aurrez lotuak zituzten adiskide haiek puntu guziak. Atzerriko Arazoen Ministeritzara joan behar zen lehenik eta han kontu eman. Balio-neurketaren bat egingo zuketen gero agintariek, eta eskubidea zuten baimena emateko ala ez. Erantzun baikorra baldin bazen, Espainiako aduanen arazoa zuritu behar zen eta, azkenean, garraioaren gorabeherak. Nola nahi ere, oso zaila ikusten zuten bertakoek liburu guziak ekartzeko baimena lortzea.

Joan aurretik Euskaltzaindiari nik egindako proposamena ausarta zela ukatzerik ez dago. Dena ekartzerik ez bazegoen ere, geuretzat interesgarrienak jaso eta eskuz ekartzen ahalegintzea ikusten nuela biderik hoberena, esan nuen orduan. Aduanan galtzeko arriskua bazegoen, noski; bainan, saiatu gabe geldituz, aurrez galdutzat eman zitezkeen. Jabegoa agertzea da beharrezkoena, ez zezaten inoiz lapurreta bezala har. Horretarako banuen Tauer-ek izenpetutako agiri bat berak emanak zirela esaten zuena.

Aste bateko lana. Aurrez esan zitzaidan bezala, Vinhoradská kaleko Tauer-en egoitza hutsik zegoen. Dirudienez, gobernuko beste langileren bati emateko gertatzen ariko ziren agintariak. Oso berezia da etxe eta bizitegien egoera. Nola nahi ere, Tauer-ek zuena ez zen berea eta bera hiltzearekin ahaideek ez zuten inolako eskubiderik.

Vera Tauerová, koinatak, jasoak zituen euskal gaiak. Honen bizitegia, haundia, paketsua eta oihan estu baten erdian sarturik zegoen. Inguruko baratzea, zuhaitzak eta iturria bereak ditu jauregiak. Munduko txoriak eta usoak agertzen ziren leihotik emandakoak jatera. Felix, egoitzaren nagusia zena, Norbertoren anaia, arabieraren irakasle haundi zen bertako Unibersitatean. Alarguna bizi da orain bere alaba bakarrarekin eta bertan izan genuen Keller eta biok, hiru egunez, lantoki eta ostatu.

Oinetakoak kendu genituen, ohi denez, etxera sartzean eta barne guziak erakutsi zizkigun etxekoandreak. Itzalagatik berorik egiten ez zuelakoz, hanketako arin batzu atera zizkigun Norbertoren koinatak. Benetan etxekotzat hartu gintuen eta bakarrik gelditu ginen, oroigarri arraroz inguraturik, bere eginkizunetara atera zelarik etxekoandrea.

Gutunekin lan asko izan genuen lehen egunean. Karpeta arruntetan sartuak ziren egile bakoitzaren izkribuak, eta gutxi zituztenenak hogei bat zentimetroko estalki edo zorro zuritan. Karpeta guziak ekartzerik ez zegoen, ia gutunen zama bezain haundia bait zen azalena. Banan-banan hustu, grapaz josi eta sailkatzen igaro genuen egun osoa. Lan aspergarria bezain emankorra gertatu zitzaigun. 703 pertsonekin izandako harremanak nituen neure eskuetan, eta 6000 gutun osatzen zuen bildumak.

Zertarako diren galde egin dezake norbaitek. Bi eratako balioa ikusten diet nik: zenbait idazleen berri jakingarriak aztertzeko, ala nola euskaldun ospetsu askoren iturri aberats, biografiak osatzeko. Laster agertzekoak dira Aresti-ri buruz neuk egindako bi lantxo, eta Artetxerena ere bidalia dut aldizkari batera. Hemendik aurrera, tesina gaiak aukeratzekoan kontutan hartu beharko da, azken gizarteko euskaldunei buruz egin nahi diren lanetan, Tauer-en gutundegia.

Baina, bada besterik zerrenda horietan. Pertsonei buruzko ikerketaz bestalde, egoera oso berezi batean Euskal Herri osoari dagokion berri jakingarririk ere aurkitzen da. Zenbat papera eta euskal idazki ez zen erre, beldurrez, Espainiako gerra denboran! Eta gerra ostean nor ausartzen zen orduan euskaltzaletzat bere burua agertzen? Garai horretako Euskal Herriaren kondairan hutsune larria bada, lehen eskuko egiztapen aldetik. Tauer euskaltzailearen gutun bilduma, hain zuzen, egoera hartako gertakizunen lekuko zehatza da. Espetxeetan egondakoen aipamen minberatuak badaude, aldizkariak argitaratzea debekatzen zeneko salaketak, euskaltzaleek eta idazleek izan ohi zituzten eragozpenen berriak, nor-berak eskuartean eta bihotzean bizi zuen arazoaren aitortza, egunoroko bizitzako garaipen txikien poza eta lortu ezindakoaren mikaztasun garratza, agertzen dira han-hemenka horri hauetan.

Idazle bakoitzak bizi zuen eran, noski, baina zuzenean adierazia eta egunean eguneko gertakizunen lekuko estimagarria. Euskaldunok ez gara egiten dugunaren berri gehiegi ematen dugun herria eta, denborak esango du, zenbateraino Tauer euskaltzainaren lanak euskaldunon murriztasunaren zuloa bete duen ala ez.

Sei mila eskutitzen artean, bestelako betegarri-hutsa diren berritsukeriak ere badirela, esan behar da noski. Hala ere, euskaldunon lumarekiko nagitasuna kontutan harturik, zazpirehun abertzaleen izkribuak idaztera bultzeko eragina izan zuen gizona, bakarra dela esango nuke gure herriaren historian.

Liburuak. Trakas haundia ibilia zuten emakume haiek liburuak jasotzen. Paperez ingurututako bildumetan loturik aurkeztu zizkiguten euskarazko gaiak. Biltzerakoan, bestalde, liburu guzien zerrenda ezarria zioten pakete bakoitzari gainean. Asko erraztu zuen sailkapen honek gure lana, eta aspergarria gertatu arren menderagarri gertatu zitzaigun azken finean. Zenbat egun behar izango genuen horrelakorik gabe metaturik aurkitu bagenitu!

Euskal liburu zahar eta arraroenen aukera egiteko asmoa nuen bakarrik. Metodologia aldetik, era honetara jokatu nuen: guretzat interesgarrienen zerrenda aurrez eginik eraman nuen. Neuk igaz ikusitakoei, anaia Berriotxoari Tauer jaunak bidali zion aurkezpena gehitu nion, hala nola zenbait liburutan ematen ziren oharrak, Artetxe, Talon eta J. San Martin euskaltzainak emandakoak. Oso lagungarri gertatu zitzaidan aurrelan hau, horietako ale batzu ez bait ziren azken orduraino agertu. Hain zuzen ere, Tauer-en alargunak hil aurretik zorro batean niretzat bereziak omen zituen.

Prestatua nuen zerrendaz beste alde, han ikusitako beste zenbait liburu ere ez ziren hemen erraz aurkitzekoak eta, bada-ezpada, bereizten joan nintzen. Meta haundia —haundiegia— burutu nuen azkenean, eta beste banaketa mingarri bat egin beharrean ikusi nintzen. Pizua eta tokia ziren nere bidaiako muga nagusiak. Aukera egiterakoan, liburu zaharretan txikienak eta balio haundienekoak jaso nituen. Beste multzo bat Keller adiskideari utzi nion, noizbait, postaz igortzen joateko.

José A. Aranak jakinerazi didanez, ekarritako hogeita hemeretzi liburu hauetatik, zazpi besterik ez zeuden Azkue Bibliotekan. Beste hogeita hamabiak gehigarri gertatu zaizkigu, beraz.

Tauer eta Slabý-ren hilobiak. Abuztuak, 20. *Olsany* izeneko hilerrian, Rudolf J. Slabý, euskaltzain urgazle zenaren hilobia ikusten izan ginen. XVII. mendean Erroke santuaren baseliza ondoan sortutako hilerri hau, Pragako haundiena da. *Olsaný* deitzen dute, sobietarren aurka nabarmendu zen gudamutil baten oroimenez. Bertan ehortzirik zegoen eta urtero jendetza haundia biltzen baitzen bere egunean, norbaitek hustu egin zuen hilobia.

Rudolf J. Slabý (1885-1957), hispanista, bertako Unibersitatean Erretore izan zen. Hilobiaren buru aldean monolito antzeko marmol beltzean ikusten denez, Barcelona-ko Unibertsitatean ere irakatsi zuen. Akademi izendape-

nei dagokienez, honela dio: Dop. člen Akademie *Spanelské Argentinské a Baskické*. Euskaltzain urgazle, genuen, beraz (1).

Abuztuak 21. Norbert Tauer bera bizi zen etxetik gertu dagoen *Vinhorady* hilerrian datza. Izenak dioenez, ardantzeak izango ziren lurralde hauek hiria nagusitu aurretik. Tauer sendiaren hilobia marmol beltzez eginik dago eta gurutzea du buru aldeko ezaugarri bakarra. Sarreran hartzen dituzten urontzi haundiak eskuan, ikusten genituen jendeak hilobiak apaintzen. Lore sorta bat ezarri genuen guk Norbert eta Frantziska adiskideen hilobi gainean. Urgazle zela esaten du irakurgaiak: N. TAUER / CESTNY CLEN KRAL. AKADEMIE / BASKICKÉHO JAZYKA V BILBAU. Keller eta biok elkarrekin otoitz egin ondoren itzuli ginen etxera.

Abuztuaren 23an hartu nuen etxerako hegazkina. Pragako aireportuan lan asko zuten guardiek hango jende guzien maletak irekitzen, eta ez zidan inork begiratu. Berrogeita hamar kilo eman zuten baskulan nere puskek eta, besterik gabe, jaso nituen Forondan.

(1) Zutabearen saihets batean, honela dio: *Velarse debe la vida / de tal suerte, / que viva quede / en la muerte.* Calderon-en bertsoak direlakoan nago. Aldamenekoa, Santanderko Maria de la Serna bat da (1839-1914).

DON JUAN IBARGUTXI ABADE IDAZLEAREN OROITZAPENAK

Donostia, 1983-XI-25

Juan San Martin

Orixek idatzia da honako hau: "Matxinada aurreko urtietan ondo ezagu-na gendun Bizkai-Gipuzkoetan Ibargutxi'tar Ion Gurutz iauna, Iaungoiko-Zale eta Ekin irakurten gendunon artean, Bizkaia'n Eguzkitza aundia ta Ibar-gutxi idazle bikotea lakorik bai ete dogu beste iñungo Euskalerrietan? —Biri-bil esango dot ezetz". Hala agurtzen eban Nikolas Ormaetxea "Orixek" 1960. urtean *Kristinau-Ikasbide-Atzalbena* izenburutzat eroian liburua. Ibar-gutxiren obra nagusia zan, eta da, lau tomoz hornitzen dan lana. Bere eduki-ña: I-Siniskaiak, II-Aginduak, III-Ikurtonak, IV-Otoia eta Geroko bizitza, 1953tik 1958ra bitartean argitaratuak.

Nor zan Orixek horrela goresten eban gizona? Euskaltzaindia sortzeaz, 1919an izendatu ziraneko urgazleetariko bat. Horregatik eta bere idazlanen-gatik gure erakunde honen urre eztaietan ohorezko euskaltzain izendatuko zana.

Juan Kruz Ibartuxi Agirre, Bizkai parteko Ubidean jaioa zan 1883.eko Abenduaren 23an. Hamalau urterako Bitoriako Seminarioan sartua bederatzi urtez bertan abadetza estudiatzeko. Arabako Zestabe eta Gipuzkoako Esko-riatzan egon ondorean, Eibarrera etorri zan 1916. urterako, hemen jarraitze-ko gerrara arte. San Andres parrokian Katekesis eta Mutualidade arduradu-na zan eta Aldatzeko monjen kolejioan arima-zaina.

Eibarren ezagutu neban nik granuja bat nintzala. Ez pentsa gero eibarta-rrontzat "granuja" izatea gauza txarra danik. Eibarren, mutikoeri, maitasu-nik haundienez deitzen jakue "granuja". Hamar-hamaika urte nituala, Don Juan doktrina maisu izan neban. Bera hil ondorean irakurri neutsan Gabriel Manterolari: "itxura baten itzala emoten eban arren, izakera atsegin eta leu-nekoa izan zan". Baiña, Don Juan gogoratzeaz, nere burura ez dator haren leuntasunik , berba honen zentzu bihurrian izan ezik. Guretzat gogorra zan, gogorregia, integrista hutsa, erlijiñua bere alderdirik illunenetik bakarrik ikus-ten ebana. Harentzat dana zan heriotzarako preparaziñoa eta orduan ume giñanok bizitza bera genduan maite. Nahikoa dot esatea Artetxeren *Saint-Cyran* irakurtzean, jansenismoaz jabetzen nintzan neurri berean, Don Juan irudia etorrela neregana. Hala be, eibartar elizatarrak (elizkoia danari esaten

jako Eibarren "elizatarra") errespetuz eta maitasunez gogoratzen dira Don Juanegaz.

Egia esan, gure umetzaroko Eibar bera be ezagutu beharrezkoa da. Abaderik gehienentzat ezin zeikean izan gauza erraza gizarte giro haretan bizitzea. Hala be, Don Juan ber-berak aitortu eustan, gerraurreko Eibarregaz hain konforme ez baziran be, munduan zehar ibiltze ondorenak erakutsi eutsala zein errespetukoa zan Eibarko jentia.

1937an, gerragatik herbesteraturik, Ingalaterrara joan zan eta han urte bete egin ondorean Rochefort-eko Saint Louis-en bi urte, abade laguntzaile. Gero, herbesteetatik itzultzean, 1941etik 1950era bitartean Erriojako Badaran-en egon zan eta bertakoen artean gomuta onak itxi ebazan. Bere azken urteak Basaurin. 1969ko Irailaren 14an hil zan bere jaioterrian bertan.

Denbora haretako Eibar, esan dodan lez, ez zan izango abade batentzako leku egokia. Gaur edonon aurkitzen badogu gizarte nahastua, orduan Eibar bakarrik zan besteegandik apartekoa. Eta gizonaren jarrera ezagutzeko ondo deritxot hortaz zenbait ohar eta argitasun azaltzea.

Don Juan Eibarrera etorri zanerako, liberalkume laiko eta antiklerikalak aspalditik ipiniak eukezen gizarte-giroan sozialistek sustraiak ondo botatzeko aukerak. Akilino Amuategi "Chiclana" gatxizenez ezagutzen zan sozialisten lehen liderraren predikaziñoak abadienak baino indar gehiago euken bihargin (langile) eta behartsuen artean; Tomas Meaberen zuzendaritzapean Eibarren argitaratzen zan *Adelante!* asterokoak bere partea bete eban; eta Jose Medinabeitia medikuaren gidaritzaz, azpiegitura sendoak eukezen era askotako ekintzak indartzeko, behargineri paraisuzko mundua eskainiz. Zibilez enterratzeak noiz-nahi egiten ziran, hildakoen gorazarrez diskursoak egiteko be baeuken heuren "kura-laikoa", Marzelino Baskaran "Sumendixa". Jandenda "Cooperativa Obrera" deitzen zan eta ekintza guztien koordinakuntza Casa del Pueblo-tik eroaten zan, P. S. O. E. ez ezik U. G. T. sindikatoa bere etxe horretan kokaturik. Ondo begiratuta, mesianismo kutsuz betea zan sozialista haren ekintza eta aintzinako abade konserbadoreak zeregin gutxi euken. Giro haretan ondo konpontzen zan bakarra, bere herrikoitasunez, Notxe abadia zan. Baina bere "populista" arlote itxuratik ez zan libratzen eta bide haretatik bere ahalmena galdua eukan Elizak eibartarron gizartean.

Bai, Eibarrek eroian martxan Elizak jai eukan. Nere ustez, hori izan zan Eibarrera abade bereziak bialtzeko arrazoia. 1910. urteaz geroztik Bitoriako Seminariotik urtetzen eben abade aproposak: jakituriaz hornituak, ekintza gizonak, ikuspegi argikoak eta heuren artean era desberdinetakoak, industria munduko gizartearen konplexutasun guztiak beteaz ibiltzeko modukoak. Holakoak ziran Don Eugenio Urroz, Don Polikarpo Larrañaga, Don Gabriel Manterola eta Don Juan Ibargutxi bera, beste batzun artean.

E. Urroz tolosarra parroko, historia gaietan gizon jantzia; P. Larrañaga (Don Poli), langile arazoegaz kezkatua eta ELA-ren sortzailea, baina danen gainetik plaentziarra izatea eban eibartarron artean nasai ibilteko agiririk

naturalena (Aurten betetzen da Don Poli-ren mendeurrena be; baina, itxura danez, inor ez da gogoratzen E. L. A.-ren sortzaileaz); G. Manterola, filosofia eta liburu zalea, jardunlari ona baina ez jarduntsua, edonorregaz laster lagun egitekoa eta erudizioz betea, edozelako harremonetarako aukerako gizona. Horren artean gure Don Juan, arima-zain leiala, zuzena eta zorrotza, emakume eta umeen artean bere iluntasunez eta iluntasungatik edonorri kezka izugarria sartzekoa.

Hamalautik hamabost mila biztanlera zituan Eibarrek, idea desberdinak buruz buru aurkitzen ziran gizarte ekonomian eta politika ekintzetan, baina gure umetzaroko Eibar aberatsa zan norgehiagoka, bai lanean eta bai kulturan. Gorri seiloa zeroian eta horretarako motiborik bere bazan. Laiko ezkertiarrak U. G. T. sindikatoa bere esku euken eta horren bidez sozialistak gaillentzen ziran. Gainera, janari-denda kooperatibaz eratzetik zenbait industria kooperatibaz antolatzera jo eben. Armagintza zerbait baztertu eta beste gauza batzuk egitea be heuren asmoetakoa izan zan, aspaldiagoko damaskinaugintza ez-ezik.

Oposizioz, eskubitarrak, alkartuz joan ziran, batez be abertzaletasunaren indarrez, "elizatarrak" heuren aldera jo eben eta Don Polik eratu zituan sindikatoak indartuz joan ziran, E. L. A. (Eusko Langile Alkartasuna) han hasi zan U. G. T.ren oposizioz; inoiz alkar harturik ibili baziran be. Gainera, E. L. A.k, lehenago sozialistak legez, janari salketarako kooperatiba antolatu eban. P. S. O. E.-U. G. T.rena "Cooperativa Obrera" zanez, besteok kooperatiba "Bide onera" ipini eben. Lehengoak bere, heuren ustez, ez ziren bide txarretik zihartuenak. Eta, hara hor be, non agertu ziran alkarren aurrez aurre, indartsu.

Garai haretako Eibar konprenditzeko Toribio Etxebarriaren *Viaje por el país de los recuerdos* deitzen dan liburua irakurtzea dogu aukerakoena. Handik ikusi geinke Ibargutxik *Jaungoikoaren Legeko Aginduak* (1925) publikatzen eban garaian zer giro zan Eibarren. Konturatuko gara gure gizarte girotik nahikoa aparte zebilela. Eibarren, sinismendun eta sinismen gabeen artean, era guztietako ideak ebizen; senide artean ez ezik familietan be era guztietakoak aurkitzen ziran, eta neba-arreben arteko idea desberdinak ekarren alkarren errespetuzko oreka batean gizarte ha mantentzea. Gu, giro hartan hasiak ginan eta gauzarik normalena ereizten jakun hala izan beharra. Gaur egun hau hemen esatea badirudi asmakizun hutsezko ilusiñoa ete dan. Baina, ziurtatzeko abade haretako baten aitortza ipiniko dot lekuko, Don Gabriel Manterola berak kontatu euskun Eibarrek zer irakatsi eutsan. *Eibar* aldizkariko ale batean 1971. urtean idatzi ebanez; hara zer ziñuan:

"Erri bakoitzak izakera berezia euki oi dau eta ortik sortzen da oldozkera edo pentsakera, izkera, artu-emon, oitura ta yokabidean erri bakoitzak besteak ez daben "zerbait" eukitea.

"Zerbait" ori zer dan? Esan dogun guztitik sortzen dan erri bakoitzeko giroa. Eta onetan Eibar'en antzekorik... Eibar bakarrik".

Eta, ondorean, Eibarren berak zer irakatsi jaso eban adieraziko deusku; era honetara jarraituz:

"Gizonen barri asko yakin barik Eibar'era eldu nintzan. Orduan Eibar estuta larri ebillen. Beste itzik ez zan entzuten "krisisa" baño. Eta eibartarrak ondo dakie itz orrek zer esan nai daben. Egia da, Eibar'eri ainbeste on egin dautson "Escuela de Armería" idigi barri zala, baña baita, bearrizanak bultzatuta, Arrate'rako bidea eginbearra be. Eibartarren gogo ta kemena bidegintza orretan ikusi zan. Orduantxe irakatsi eusten eragozpenen aurrean atzera ez egiten...".

"Eibar'en ikasi neban beste gauza bat auxe da: Gizona, gizon dalako bakarrik, aintzat artzen... gaur egunean ainbeste aitatzen diran, gizonaren eskubideak, Yaungoikoaren aurrean guztiok bardiñak garala, gizona bere egiteak baño obea dala, bere akatsen aurrean biotz zabalekoak izan bear garela, anaitasuna ta lautasuna artu-emonetan ikasteko niretzat Eibar ikastolarik onena izan zan."

"Beste irakatsi bat, langilletasuna ta bakezale izaten. Eibar beti izan da langilleen iñurritegi bat. An alperrak ez dau biziterik. Eta guztiak lanean ikustea langorik ez dago norberak be alperkeritik iges egiteko... eibartarrak gorrotorik ez dabela ezagutzen, eta biotz onekoa dala. Auxe da Eibar'ek irakatsi eustana".

Argi dago Don Gabriel Manterolarentzat Eibarren modukorik ez zala beste herri bat eguzkiaren azpian. Plaentziarra izan balitz, Don Poli zan lez, ez ginan harrituko eibartarrogatik holako laudorioak jasotzeaz, baina Arratiako Zeanurin jaio zan eta abadia gainera. Haregaitik bai esan geinkeala herriko semeak: "Arratiako txekorra, txikerra baiña gogorra". Don Gabriel, izatez, bera zan bihotz onekoa eta pentsamen zabalekoa. Mundu guziagaz tratatzen ekiana eta sozialistegaz be lagun fama zeroian, gure aintziñako Eibarren.

Don Juan Ibargutxi ostera, izakeraz, Don Gabrielegandik zeharo desbardiña zan. Ez dot esango bihotz onekoa ez zanik, baina bai pentsamenez estua. Estiloz alkarregandik diferentiak ziran. Alperrik esan Ortega y Gassetek: gizona, bera eta bere ingurua dala, jarrera guztiak ez dira bardinak.

Baiña Don Gabrielek berak ziñoan, Don Juan, abade lanetan zintzoa zala. Haregaz doktrina maistra ibili zan Nati Aristondo, gaur egun Hondarribiako Karmelita monjen konbentuan buru egiten dabenak lehengunean esaten eustan Don Juan aintziñako klaseko abadia zala, baserri batetik urten eta mundua ezagutu barik, abade egiñaz arrazoi guztien jabe danaren ustean apostolutza egin nahirik ebilena. Baina, Eibar, Eibar zala. Hala be, aitortzen dau Don Juani asko zor deutsala, hogetalau urtegaz monja joatea erabagi ebanean emon eutsazen kontsejuegatik. Maritxu, Natiren aizpa, orduko beste doktrina maistra bat izan zan, eta honentzat kriterio estu eta konzeptu iluneko relijiño gizona zan Don Juan. Doktrinako maistreri, berari kalian agurrik

ez egiteko agindua emona ei eukan; abadiak neskeri berba edo jaramon egitea ez zalako itxurazkoa. Gainera, kanpora begira euskaltzale agertuarren, erderaz egitea asko gustutazen ei jakon.

Dana dala, Don Gabriel Eibarren sartu zan neurrian Eibar bere barruan sartu zan eta herriagandik jasotako irakatsiak gogoratuko ditu. Don Poligan ez zegoan Eibar sartu beharrik, bertan beste langile bat gehiago zanez. Baiña, Don Juanek herrianganako harremon hotzagoak euki zituan. Nik neuk, ez daukat garai haretako Don Juanen iritzi onik, bizitzaren azken aldian besterik uste baneban be. Baina, danok bardinak ez izatez aparte, orduko Eibarko giroan holako abade bat konprendidu beharra dago. Ni ez nintzan umerik bihurriena, baiña bai bihurrien arteko bat. Don Juanek aingeruak nahi eta gu "granujak" izan. Hau zan parabola.

Bestalde, 1931. Apirillaren 14ean, goizean goiz, Eibarko plazan Errepublika proklamatzeaz, orain baiño errespetu gutxiagogaz bandera (orain "nacional" dan kolore biko ber-bera) kenduz, hiru koloretako errepublikanoa ipiniz. Eta, gezurra badirudi be, sozialistak heurak izan ziran hori egin ebenak, Eibarren bertan Espainian beste inon baino lehen. Handik sartu jakun triunfalismodun Errepublika zaletasuna. Gu, orduan ume ginanok, nork baretu sozialismo irautzaile haren aldeko abiadan?

Handik laster nintzan doktrinarako adiñean, amak gura ebanez komunio nagusirako prestatzea. Baina, liberal familietako umeak ez dakit Kleroaren ala Errepublikaren biktimak ginan. Adin horretarako norabait nahian eta noraezean, une bereko gizarte-giroaren korrentak geroiazen eta "granujen" okerkeriak, inoiz adinekoen tormentupean jartzekoak.

Libertade kriterioa bere zentzu ziurraren neurriz gainera ipini zan Errepublikaregaz. Horren irudi polita dogu politikaren aldakuntzaz hainbeste sinisten eban eibartar harena. Errebalian bizi zan bera, eta Errepublikak triunfatu ebala enteratu zanean txori-kaiolan eukan kardantxiluari lehiotik emain emon eutsan, esanaz: "Errepublika etorri dok eta hiretzat be libertadia". Baina amain emoteaz bat hegaz Errebaleko mojen konbenturantz zoiala ikusteaz larritu zan gure gizon hori eta uluka batean hasi zan: "Horra ez! horra ez! Hor ez daukak libertaderik eta".

Egia izango da orduko antiklerikalismoa ahotik haruntza ez zoiala, inoiz Toribio Etxeberriak esan dabenez. Baina umien bihurrikerieri askok jaramonik ez eginarren, Don Juanen zuzentasun toleskaitzean ez zan kabitzen okerrik eta besoak beti baltzituta erabiltzen genduzen bere atxumurkadaz. Izan be, ordurako modan jarria zan Himno de Riego, gure buruak inoiz freskatu ez zituana, eta bere doinuz emoten eutsaguzen ordainak Don Juani: "Si supieran los curas y frailes, la paliza que van a llevar..." kantatuz. Inoiz doktrina orduetan be himno horren doinua txistuz joaz abadieri amorraraziz. Horregatik, talde edertxoa egiten genduan Don Juanek begitan hartutakoen artean; azkenerako ordainak nork nori ez genkigula.

Harek ziran garaiak. Ume bihurrientzat zigorrak zenbat eta gogorrakoak legezkoak zirudien; nolabait ontzat hartu beharrezkoak.

Baina, Don Juanengandik, nere iritziz zigorra bera baino txarragoa zen erlijio ilunaren kriterioa, beti heriotza eta inpernua gogoratuz sartzen euskun izuagatik. Askok, bildurrez, gehiago elizara joaterik be ez genduan nahi. Gainera, gizarte-giroa genduan halakoa. Zorionerako, talde bihurria sakabanatu eban doktrina maistren artean eta bere loiba Dunixigaz tokatu jatan. On hutsa zan "Duni" eta haregana bialdu ginuzenok, aurrerantzean ez genduan ezagutu tormenturik. Gainera beste abade gazte barri bat etorri jakun, Don Felix Markiegi, ona benetan, doktrina garaian solfeo irakasle, gaztetxo guztiok guztiz maitatzera heldu ginena.

Seguru asko, politikoek, gaur lez orduan be: emon, ez dakit inork ezer emoten eban; baina, eskaini bai, eskaini, dana. Politikoen norgehiagokak ez eukon eta ez dauko akaburik.

Hala ta guztiz be, sozialistak buru hobeak eukezen, idealetan zintzo jokatuz eta zerbitzuetan ondradu. Horregaz irabazten eutsen gainekoeri. Eibarren sozialista izatea ez zan Txomin Agirrek *Garoa-n* azaltzen eban bezin xinplea, abadiaren aurrean txapelik ez kentzea eta abar. Utopiazko iritziegaz ibiliko ziren behar bada; baina gizarteko justiziaz egi guztien jabe ziran ustean. Eta, *Garoa*-koa anekdota huts bat da idea batzuen jokabidea erakusteko; era berean baina guztiz beste alderdikakoa da gerra ondoko lehen urtean Untzagako plazan bi sozialistek alkarren arteko berbeta. Bata Labarixa, maliziarik bageko gizona, eta bestea Maskuelo, mundu pikaro honen barri zerbait gehiago ekiana. Labaritxak itaundu eutsanean: "Honek, frankotarrok zer pentsatzen juek? Guk, zikeran gizonontzako mundu hobe bat egiteko programak eukaguzen; baina honek zer?" Maskueloren erantzuna: "Guk amesak ugari; baina honek be bajaukez heurori komeni kakuezen programak. Guretzako biharra eta mezak, eta beste guztia heurontzat".

Anekdota esajeratu horrek zerbait erakusten dau. Baina Errepublikako denbora aurrera zoian neurrian, Don Poliren ekintzak geroago eta indartsuago etozen, sozialistak ez ebelako erakutsi ez abertzaletasunik eta ez euskaltzaletasunik.

Orduko eibartarren kezka guztiak gizarte arazoetara soil soilik aurkeztuak ziran munduan besterik ezer ez balitz legetxe. Zeharo bestelakoa zan Ibargutxiren erlijiozko gogoeta, honek hau eban bere mundua eta fin ziharduan bere bidetik. Orain konturatzen naiz hobeto bere problemakaz. Eta beste leihorik ez eban irikitzen zerurakoa izan ezik. Baina, heriotzaren trantze larria jartzen eban beti bide. *Jaungoikoa'ren Legeko Aginduak* (1925). Umiendako dotrinen prestakizunak, *Jaungoiko-zale*-rako kolaboraziñoak eta eguneroko eginkizunetan buru-belarri murgildurik bizi zan Don Juan. Langilea zala, ez dago dudarik.

Bere erlijiozko lanok aztertzeko bada ni baino gizon prestuagorik eta beren lumetatik urten diran iritzi eta esaldietan oinarritu nahi neuke. Esate

baterako, hara zer ziñoan Kerexetak: "Ibargutxi'tar Jon Gurutz jauna ezagu-na da euskal-irakurleen artean, uzkurtz-gaietan diarduenen artean batez bere. Lenengo maillan agertzen da beti". Hala be, gramatikaren aldetikoan ez dator guztiz bat. Ibiñagabeitiak ordea, ez deutsa holako akatsik bilatzen eta laudorioz beterik goresten ditu bere azken lanak. N. Tauer be lanaren sakon-tasunez eta gaia euskeraz hain egoki agertzeaz txunditurik gelditu zan eta aipamen ederra eskaini eutsan beste biak lez *Euzko-gogoa* aldizkarian.

Baina, idazle legez euskera zaila baiña estilo bizia erabili ebala ondo agertu euskun Mikel Zaratek: "Ibargutxik darabiltzan gaiak zail samarrak dira, bai. Baiña euskera aldetik bere (berak alan uste izan ez arren) zail sama-rrak dira. Euskera ondo ta sakon daki —jarraituko dau—; baina (bere aldiko semea dogu au bere-ta) beti berba garbiak erabilli gureak kalte andia egiten deutse bere idazlanen argitasun eta gozotasunari. Beste euskalkietatik artzen dauz itz asko. Aranatarrak asmaturikoak bere ainbat artzen ditu. Gaiñera, euskera zaar zale da. Eta, jakiña, orrek astunagotu egiten ditu bere gai astu-nak. Dana dala, ondasuntegi bat dira Ibargutxiren liburuak".

Iritzi horrek, bere lanik sakonena dan *Kristiñau-Ikasbide-Atzalbena* delakoaren lau tomoeri dira. Horretan, gaiaren aldetik batez be, Orixe izan da jakituna, inor jakitunik izan bada, eta txosten hau nik gura dodan baiño luzeago badoia be, bere ataltxo bat irakurri nahi neuke. Hara hemen: "Bost liburu auen iturriak —esango deusku gure Orixe zanak—. Lelengo ta beiñen: Jangoikoaren Beraren itza, Biblia'tik, eta batez bere, Ebangeliotik artua; urre-na, Eleizako Gurasoena; Eleiz-batzarretako erabagiak; teologia; gizonak beure argitasunez irixten dauna, edo Pilosopi zindoa. Ikusten dozunez, ira-kurle, ur garbiagorik eta osasungarriagorik eziñ eskeiñi. Eta oparo, eskeiñi be. Libururik onenetako soroak ondo arakatu ditu, eta areitako lorea ta guna ta mamiña biltzen, erle langilea lez saiatu da".

"Eritxia. Lan oneiri argitasuna ta berotasuna darie. Jakiña, Jainkoaren itzari dariezan doai orreik alde batera itzirik, Ibargutxi iaunak berak beure iruzkiñean argitasuna du beti aurretik; gero sua, bero biguna, edo gitxienez, su-geia arkituko dozu emen. Euskera gozua, garbia. Oraingo euskaltzaleak bere ondo ulertu dagikee. Zenbait aldiz itz barriak edo aspaldiko ez diranak erabiltzen ba dauz, ondoan ipinten dau beste bat argitasunerako. Liburu oneik, lelengoz, Abade iaunei laguntza andia izango iakez, erriari kristiñau ikasi gura daunari. Liburu auek ederto emango dabe katoliku baten etxeko liburutegian, noizean bein eta askotan bere irakurteko".

Euskal kulturari dagokion alderdian nahikoa ondo erakutsi euskun bere jakituria 1957an Azkue zanaren omenaldiko hitzaldian, "Azkue euskeralo-go" aztertzean (ikus **Euskera**, II, 1957). Azkueren lanak goraipatuz, lanik nagusienetan erabili zituen iturri eta kriterioak begiratuz. Lan nagusienen artean *Cancionero popular vasco* aipatzea ahaztu jakon. Baiña, behar bada, Olaizola abadeak "Azkue músico" hitzaldian aipatuko ebalakoan itxi eban.

Kristiñau-Ikasbide-Atzalbena osatzen dabien lau liburuegaz bere bizi-tzako lanik nagusiena emaitutzat emon eban. Lan horretako idazkera, Zara-

tek ondo agertu ebanez, argiago izan behar eban, garbi-guran garbikeriara erori ez balitz. Hala ta guzti be, nere ustez, bere estilo eta bizkortasunari esker, ezta hain ulerkaitza. Ikurton, sakramentu ordez erabiltzeak eta ez deutsa mesederik egiten, baina bere bizkaiera bere garaikoen artean ederrenetakoa da.

Azken urteetan artikulu ariñagoak idazteari emon eutsan eta hor nabari da bere idazkeraren bizkortasuna. *Karmel*-en gizonari eta arimari buruz idatzi zituan 1960 eta 1961 urteetan. Iritzi zaharretatik ez eban aldatzen, gizonaren izakeraz zihardiala, Heidegger-en berririk barik ihardutzea ez zan harritzekoa, Kant beraren teoriak be apenas ezagutzen zituanez. Eta, eboluziñoaz beste hainbeste. Ni Teilhard de Chardin-en *Le groupe zoologique humain* eta *Le milieu divin* irakurtzen niharduan garai berean, Don Juan, lehenagoko eboluzio teorien kondenazioak barritzen. Azkenean be, gure bideak kurutzatuta genduzen. Bere kezka bakarra geroko bizitzaz zan, eternidadeko bizitzaz eta gizonaren eginkizun guztia harako gertakizunezkoa zeritxon.

Behar bada arrazoi guztien gainetik ebilen, Nork daki?

Dana dala, garaiko gizarte-giroaren biktima gu. Egun batean bidean kruzatu ginen alkar ulertu barik, baina bere zahartzaroan adiskide maite bihurtu ere bai, eta aspaldi granuja zan honek inoiz ez eban pentsatu Josafateko zelaira baino lehen doktrina maisuaren kontuak emoterik. Jaunak anpara gaitzala.

BIBLIOGRAFIA

IBARGUTXI, JUAN KURUTZ:
- *Loyola'tar Iñaki deunaren bederatziurruna.* Bilbo, 1915.
- *Jaungoikoa'ren ta Eliza'ren Aginduak.* Zornotza, 1925.
- *Eliz Ama Deunaren ikurtonak edo Sakramentuak.* Zornotza, 1932.
- *Jaungoikoa'ren ta Elizaren Aginduak* (Bigarren argitalpena). Bilbo, 1952. (I - Geroko bizitza; II - Jaungoikoa'ren ta Eliza'ren Aginduak; III - Eliz Ama Deunaren ikurtonak; IV - Otoia).
- *Rituala ere barriztua. Untziño Santua.* Donostia, 1964.
- **Euskera** agerkaria, II t. (1957).
- *Karmel* aldizkaria, X. urtea (1960) eta X. urtea (1961).

* * *

CORTÁZAR, N. de: *Cien autores vascos.* Donostia, 1966.

ETXENAGUSIA, K.; KORTAZAR, J.; ETXEBARRIA, A.: *Euskal Idazleak Bizkaieraz.* Bilbo, 1980.

ESTORNÉS LASA, B.: *Literatura,* vol III. Enciclopedia General del País Vasco (cuerpo B). Donostia, 1973.

ETXEBARRIA, T.: *Viaje al país de los recuerdos.* México, 1968.

ETXEBARRI, T.: *Ibiltarixanak.* Zarautz, 1967.

IBINAGABEITIA, A.: *Euzko-gogoa* aldizkaria, V, 1954.

KEREXETA, J.: *Euzko-gogoa* aldizkaria, VII, 1957.

LARRAÑAGA, P.: *Contribución a la historia obrera de Euskalerria,* 2 tomo. Donostia, 1976-77.

LASPIUR, I.: *Kooperatibak. Jakin sorta,* 7 zenb., Aranzazu, 1973.

ONAINDIA, S.: *Euskal Literatura,* t. IV eta V. Bilbo, 1975-1977.

ORMAETXEA, N. "Orixe": *Karmel,* X. zenb., 1960.

Revista *Eibar,* números 34 (1960), 42 (1960), 134 (1971), 163 (1971) y 164 (1974).

SAN MARTÍN, J.: *Escritores euskéricos.* Bilbao, 1968.

SAN MARTÍN, J.: *Eibar.* (Diccionario Enciclopédico Vasco. Auñamendi, t. X, capítulo monográfico). Donostia, 1979.

TAUER, N.: *Euzko-gogoa* aldizkaria, X. zenb., 1959.

Villasante, Fr. L.: *Historia de la Literatura Vasca* (2.ª edición). Aránzazu, 1979.

ZARATE, M.: *Bizkaiko Euskal Idazleak.* Bilbo, 1970.

GRAMATIKA SAILA

BA- BAIEZKOA AURREZKIA

Donostia, 1983-XII-30

Beñat Oihartzabal

Badugu euskaraz esaera ezagun bat, euskal herri guztian molde desberdinetan bildua izan dena, eta gure aitatxi zenak honela erran ohi omen zuena:

Banaki banikek, banu banakikek

Ez du eiki honek azalpenen beharrik, eta egia erran lantto honen atarian ezartzeko atxeki nahi ukan badut, ez da lehenagoko herri zuhurtzia galtzeko perilean ikusten dudalako, bai ordean egungo gaiaren mugatzeko oinarri ezin hobea ematen duelako. Alabaina biziki argiki erakusten digu *ba-* aurrizkia perpausetan zer gisatan agertzen ahal zaigun:

– Baldintzetako protasietan lehenik *aditz laguntzaile edo adizkera* trinko bati lotua, *orduan forma alokutiboen* erabilera eragozten duelarik ardura (hala nola gertatzen baita gure adibidean *banu* eta *banaki* adizkerekin) (1);

– baiezko esaldietan bestalde, beti aditz bati lotua (guztiz gehienetan adizkera trinko *bati,* baina forma alokutiboak ezertan trabatu gabe gure exenpluan ongi ikus daitekeenaz: *banikek, banakikek.*

Azken *ba-* honetaz soilik ariko gara txosten honetan, eta haren azterketa bi partetan eginen dugu: lehenbizikoan aurrizkiaren erabilera manatzen duten ingurumenak aipatuko ditugu; bigarrenean berriz, *ba-* horren balio semantikoaren doi bat argitzera entseiatuko gara.

1. BA- BAIEZKOAREN ERABILERA MANATZEN DUTEN INGURUMENAK

Lehen parte honi dagokion ikerketa adizkera trinkoa duten esaldietara mugatu dugu, *ba-* baiezkoa, jadanik erran bezala, holakoetan agertzen baita maizenik; aditz laguntzaileeri *ere* lot dakiekeela egia denarren, hondarrean mintzatuko gara bereziki egoera horretaz.

(1) Hala zen bederen lehenago, eta hala da oraino toki askotan, ez orotan ordean. Zuberoan lege zaharrak bere osoan segitzen badu, Lapurdin eta hartarik harago ez da beti hola gertatzen, baldintza errealeko formekin behinik behin.

Ba-ren erabilera bi moldetan baldinzkaturik egon daiteke: edo perpausean ezin egonez, edo hartan baitezpadatuki agertu beharrez. Bi posibilitateak bata bestearen ondotik ikus ditzagun, bidenabar aurrizkiaren eginkizun sintaktikoa edo-eta enontziatiboa zedarriztatuz.

1.1. BA- ezin ager daitekeen ingurumenak

Gauza jakina da zenbait ingurumenetan *ba-* baiezko aurrizkia ez dela agertuko. Hain zuzen ere P. Lafitte-k bere gramatikan zenbait egoera gisa horretakoak aipatzen baititu, uste dut guk ere hemen zerrenda hura geure dezakegula eta beharbada luza ere dirogula.

1.1.1. *Ba-* baiezkoa ez daiteke ager, adizkera jokatuak beste aurrizki bat duelarik: *ba-* baldintzazkoa, edo *bait-*.

a) *Ba-* protasietakoarentzat ez da batere dudarik. *Baldin* partikula agertarazten bada perpausean, nahi-ta-ez adizkerako *ba-* aurrizkia baldintzazkoa izanen da, eta *ba-* baiezkorik ezin agertuko da.

Baldin badakizu errazu
Baldin ba(i) badakizu errazu

b) *Bait-* aurrizkiaz denaz bezainbatean, aitzitik, dudan nago beti hala den euskalki guztietan. Ipar aldekoetan segurik bai, baina mugaz beste partean? Zenbait idazkitan biak *(ba-* eta *bait-)* perpaus berean aurki daitezke, orduan *ba- bai* forman agertzen delarik, *bait-* aurrizkiaren ezkerrean (2); adibidez Arejitak bere *Euskal joskera*-n exenplu hau eskaintzen digu:

Bai baitzekin karlisten etsai aundia zala (Otxolua, **Euskera**, 1927).

Ez naiz segur holako itzuliak egiazki erabiltzen diren ele egitean, eta aitor dut eni bederen bitxi baino bitxiago iruditzen zaidala *ba- bait*-ekin batean erabiltzea:

Erraten ahal dautzut, badakit hala dela
Erraten ahal dautzut, baitakit hala dela
??Erraten ahal dautzut, ba baitakit hala dela

(2) *Bai ba*-ren aldaera gisa agertzen da zenbait euskalkitan, zerbaitek adizkera jokatuari zuzenean lotzera uzten ez diolarik bereziki: *badaki,* baina *bai ote daki* (Baztanen adibidez, eta bestetan ere bai).

Merezi ote du bestalde *bait-* eta *ba-* baldintzazkoa ere ezin uztartuzkoak direla gaineratzea? Hona adibide bat, zeinetan *ba*-baldintzazkoak *bait-* perpausetik egotzi bezala baitu:

Interrogaturen çaituztet nic ere çuec gauça batez, cein badarradaçue nic ere erranen drautçuet, cer authoritatez gauça hauc eguiten ditudan. Leizarraga, Mateo, XXI, 24.

cein badarradaçue horretan diogunaren froga garbia kausitzen dugu. Alabaina, *zein* hemen izenorde erlatibo gisa erabilia denaz gero, adizkerak *bait-* behar zuen, *ba-* baldintzazkoa poxuluan zer ordean.

Horiek hola, ez dakit elkartezintasun horretarik deus *ba*-ren azterketarentzat balio handirik duenik atera dezakegun. Alabaina, hiru morfemak, *ba*-baiezkoa, *ba*- baldintzazkoa eta *bait-, bai* partikulari zuzenki lotuak izanik, delako ezintasunak morfologian erro hartzen duela irudi baitu.

1.1.2. *Ba*- ez da agertzen aginterazko perpausetan, ez eta galdera partzialetan (galderazko izenorde batekin egiten direnetan).

a) Aginteran gauzak aski garbi dira, adibide hauetan ikus dezakegunaz:

Zaude isilik! baina *° Bazaude isilik!*
Zoaz hemendik! baina *° Bazoaz hemendik!*
Zatoz hona! baina *° Bazatoz hona!*

Hala ere gogora dezagun zenbaiten ustez, Bonaparterenez adibidez, aginteran aurki daitekeen *b(e)-, ba*-tik heldu dela: *beza* < *° badeza,* hala nola bizkaitarrez *bozak* < *badozak.* Bai Azkuek, bai Lafonek ordean beren kritikak egin dizkiote hipotesi horri; hainbestenarekin ez dut uste egiazki aginterako *b(e)*- (sekula ere ez *ba*-) hemen diogunari kontra jar dakiokeen.

b) Galdera partzialekin benturaz ez dugu horren debeku zorrotzik, Ipar aldean bederen. Halarik ere ezin ukatua da oztopo handiak badirela izenorde galderazko bat duten perpausetan *ba*- erabiltzeko (3).

??Non bazabiltza? baina *Non zabiltza??*
??Nork badaki? baina *Nork daki?*
??Zenbat urte baduzu? baina *Zenbat urte duzu?*

Erran gabe doa galdera osoetan, berriz, *ba*- batere problemarik gabe erabiltzen ahalko dugula:

Badakizuia?
Ba ote dator?
Ba al dago jenderik?

Hemen aurkeztu ditugun bi inkonpatibilitateen ondotik, *ba*- asertzioetan baizik ez zaigula agertzen erran dezakegu (haien sailean sartarazten ditugula dagozkien galdera osoak).

1.1.3. *Ba*- baiezkorik ez daiteke ezezko asertzioetan aurki.

Asertzioetan agertzen bada *ba*- aurrizkia,ez da hala ere edozeinetan eginen, *ba*- baiezkoa, baldintzazkoa ez bezala, ezin baitarabilkegu ezezko asertzioetan:

° Ez, ez badakigu baina *Ez, ez dakigu*

(3) Gazteen artean bereziki nabari da joera berria Ipar aldean.

1.1.4. *Ba-* ez da erabiltzen perpaus erlatiboetan.

R. de Rijk-i zor baitiogu ohar hori, demadan hark bere tesian eskaini adibidea:

Datorren ijitoa ez datorrenaren anaia da
°Badatorren ijitoa ez datorrenaren anaia da.

Egia da haatik, pundu hau ez dela, gaur bederen, beti denetan berdin errespetatua. Alde batetik zenbait lumaren pean, ez edozeinenan, bestelako adibideak atzeman ditzakegu batzutan:

Hitzak esportatu egiten dira, herritik herrira mailegatu; eta bazeuden hizkuntzatik ez zeuden batetara hedatzen. (Txillardegi, *Hizkuntzalaritza hiztegia*, 1. 293. or)

Bestalde, baxenafar-lapurteraz bederen, erlatibo libroak aposizioan direnean partikulazki, aipatu ezintasuna arintzen bezala da. Hona Lafitte-k bere gramatikan ematen digun exenplu bat:

deus badagonik ez da. (4)

Textu idatzietan gisa bereko esaldiak aski errazki bil daitezke hala nola J. Etxepareren *Buruxkak* deitu liburuan:

bertze bat, piltzarrez lepo belarriak kukutuak ipar haizeak azpitik goiti daldaratuz, ukurturik badoana... (83. or.)

Halaber Lapeyre-ren *Kredo*-an, hauxe kausi daiteke aposiziorik izan gabe (duen aire traketoa, *mixterioak* eskuinean egotetik heldu zaio):

> *Gure Erlijio sainduan badiren bezala mixterioak (...), badire ere mirakuiluak* (69. or.) (5).

Salbuespenetan sobera sartu gabe, onar dezagun bizkitartean de Rijk-en oharra orokorki zuzena dela, baxenafar-lapurterarentzat ere bai. *Sosa badut* erran ohi dugu, baina ez *?badudan sosa, ba-* aurrizkia soberakin baitugu orduan. Halaber *ba-*ren erabilera beharrezkoa duen *izan* aditza hartzen badugu (*ez laguntzaile eta ez* kopula ez denean, hots), erlatiboetan beti *ba-* gabe darabilgula ikusten ahal dugu. *Etxe hortan haurrak badira* erraten dugularik,

(4) Esaldiaren erran nahia atxeki nahi bada ("il n'y a rien qui soit stable"), *ba-* ez da ken erraza. Derradan oraino, kasu honetan aposizioa ez dela horren segura, "eskuineko" erlatiboa izan baitaiteke hemen.

(5) Luze lihoakiguke pundu honen ongi ikertzea, gauzak, iduriz, ez baitira hain argi. Ez da dudarik, erlatiko libroetan (aposiziorik gabe ere), *ba-*aski errazkoi sartzen dutela gaurko Iparaldeko idazleek. Adibidez, L. Léon-en ebanjelioaren itzulpenean, aurki daitezke honelakoak:

beharririk kaduenak adi beza (Mark IV, 29, 23)
Baduenari emanen diote, ez duenari aldiz, duen hura ere Khenduko (Mark IV, 25).

Ohart azken honetan: *baduenari* (erlatibo libroan), *duen hura* bestean.

etxe haren aipatzeko ez diogu: *??haurrak badiren etxea,* bai ordean, haurrak *diren etxea.*

Ba- erlatiboetarik kanpo atxekia dela esplikatzeko, bi argumentu ematen ditu de Rijk-ek:

a) *ba-* nolabait galdegai markatzaile izanki, eta perpaus erlatiboetan izen sintagma burukoa (erdarazko antezedentea) izanez galdegaia, *ba-*k (*egin* fokus-enfasi emaileak bezala) ez omen du haietan tokirik (6).

Derradan lehen esplikabide hau aski ahula iruditzen zaidala. Lehenik, ikusiko dugun bezala, *ba-* ez delakotz beti galdegai markatzailea. Bigarrenik, ez baitut uste erlatibogintzak focus-jokuak, de Rijk-ek dioen moldean, eragozten dituen.

b) Erlatiboak beti aitzin egietsiak izanik, *ba-* afirmatzeko aurrizkiak ez du haietan zer eginik, erredontziazkoa bailitzateke orduan.

Argumentu hau, bestea baino indar handiagokoa zait, eta gure azteketarentzat ondorio hau aterako dugu: asertzioak jada egintzat ematen direnean, edo, terminologia egokiago bat erabiliz beharbada, aitzin-eraikiak direnean (hau da, hiztunak berriz bere gain hartu behar ez dituelarik), *ba-* ez da erabiltzen (7). Horrek negatiboki hauxe erakusten digu: *ba-* asertzio positiboen gauzatzaile edo aktualizatzaile gisa agertzen zaigula (gauzatu edo aktualizatu behar ez denean ez baita haren beharrik).

1.2. BA- ekartzen duten ingurumenak

*Ba-*ren erabilera debekatzen duten ingurumenak ikusi ondoan, orain ekartzen dutenak aurkeztuko ditugu. Derragun aitzinetik elementu formalak oroz lehen ditugula hemen kontuan hartuko, semantikazkoak berriz, edo itxuraz hala direnak, geroko utzirik.

1.2.1. *Adizkera trinkoan jokatua (ATJa) elementu errematiko bakarra denean* (8).

Hori da enetzat, *ba-*ren erabilera osoki baitezpadakoa egiten duen ingurumen bakarra; har dezagun gure hastapeneko adibidea:

** Banu nakikek, * banaki nikek.*

Ba- baiezkoak kendurik, perpausak ezin onartuzkoak dira.

(6) Hona zuzen-zuzen zer dioen de Rijk-ek: "We never find this emphatic *egin* in relative clauses, just as we do not find the affirmative particle *ba* in relative clauses. (...) The procedent, then, is what is important in the consituent sentence, and, hence, there can be no focus different from this procedent" (Tesia, 97. or.).

(7) Hemen ere dematzagun de Rijk-en hitzak: "Relative clausse are always presupposed to be true; thus. *ba,* an affirmative particle, has nothing to ad to the content of the embedded proposition". Tesia, 38. or.). Hemengo hiztegiaren argitzeko *aitzin egietsia,* "présupposé vrai"; *aitzin eraikia*", "pré-construit".

(8) *Adizkera trinkoan jokatua* (ATJa), erran nahi baita "forme verbale conjuguée au synthétique".

Halaber, *??Dakit, ??Nator, ??Goaz*,ez dira errantza edo enontzio osoak. Zerbait falta zaie, hala nola ondoko hauek ere zerbait eskas baitute:

??Aita, etxean dago, ama, berriz, dator.
??Zuk, behintzat, dakizu.

Adibide horietan guztietan bada zerbait johan ez denik. Alabaina, euskaraz, predikatua ATJ huts batek baizik osatzen ez duenean, ez daiteke asertziorik egin (9). Horregatik, holako egoeretan, asertzio positiboetan, *ba-* beharrezkoa gertatuko da. Aditz konposatuetan, berriz, besterik jazoten da, aditz nagusiak elementu errematikoa osa baitezake. Gogoan eduki, hala eta guztiz ere, zenbait euskalkitan, aditz perifrastikoekin ere gauza bertsua gerta daitekeela. Hona adibidez Ikaztegietako informatzaile batek nola erantzun dien galdera hauei: (10)

Zer egin du Anttonek?

a) *kanpora atera da.*

b) *atera in da.*

Zer egin duzu?

a) *lagunekin ibilli naiz.*

b) *bazkaldu in det.*

c) *kotxea gelditu det.*

d) *gelditu in naiz.*

Zer egin behar duzu?

a) *Miarritzera jun nai det.*

b) *atera in nai det.*

Ohart gaitezke, aditza elementu errematiko bakarra denean, *egin* agertzen dela erantzunetan; aldiz, beste osagai batek laguntzen duenean, ez dela erabiltzen (nahiz osagai hura ez den ezertan ere enfatikoa).

Bada, ditz trinkoekin zorrotzago eta hedatuago da aipatu bortxaketa. Hainbestenarekin, ATJ huts bat aditz paradigma batetarik jalgitako erakusgarria izan daiteke, baina ez dezake enontziorik osa, lehen eman exenpluetan

(9) Aginduak aldiz bai: *Zaugi! Zoaz! Hago!* Altubek pundu hau ongi azaltzen du (*Erderismos*).

(10) Eskerrak ematen dizkiot Aize Apaletegi-ri, G. Rebuschirekin batean egin galdaketaren denboran, erakutsi zuen pazientziagatik. Berriro diodan, informatzaile honekin oso *erregularki* atera forma horiek ez bide direla Gipuzkoan berean ere, orotan arras berdin erabiltzen. Hemen gure arrazoibidea piska bat ilustratzeaz beste helbururik ez dugu.

ikus daitekeenaz. *Ba-* adizkerari eransten bazaio, aitzitik, errantza betatzen bezala da: predikatua (kasu horretan aditza bera) aktualizatu egiten dela erranen dugu.

??Dakit	*Badakit*
??Nator	*Banator*
??Gabiltza	*Bagabiltza*
??Ama, berriz, dator	*Ama, berriz, badator*
??Zuk, behintzat dakizu	*Zuk, behintzat, badakizu*

Garbi gera bedi, *ba-* eranstearekin, informazioaren aldetik deus berri ez dugula ekartzen, eta enontzioa positiboa izanik ez dela bereziki baietz errateko moldatua (11). Horrela, *ba*-ren zer-egina sintaktikoa da lehen-lehenik holakoetan; *predikatuari gorputz ematen dio*; lehen, *ba-*, asertzio positiboetan, gauzatzaile gisa agertzen zela erran baitugu, orai hobeki muga dezakegu haren eginkizuna, aipatu ingurumean *predikatu aktualizatzaile* ere dela baieztatuz. Ingurumen horretarik kanpo ordean, *ba-* ez da gehiago molde berean beharrezkoa (hau da, ATJa elementu errematiko bakarra ez denean).

		– ama, berriz, oinez dator
??Ama berriz, dator	baina	*– ama, berriz, etortzen da* (12)
		– ama, berriz, etorri dator

Altube-ren laneri esker, franko ongi ezaguna da zenbait bizkaitarrek erabiltzen duten itzulia, hemen azken adibidean aurkitzen duguna (ATJaren ondoan partizipioa). Aipu dugun egoeran, haren baliatzeak *ba*-ren erabilera aldaraziko du gisa den bezala. Hona literaturatik atera bi exenplu, lehenbizikoa Mogeli zor dioguna, eta bigarrena Erkiagari.

Irasten dabezan artean, ordiak eresten diardula entzun dantzu (Peru Abarka).

Emendik urrun zenbiltzala-ta nengoan, Kerman, baina ikusi zakustazeta, badakit zeure bazterrera zarena (Arranegi).

Gure bi aipuetan, *entzun dantzu,* eta *ikusi zakustaz,* beren perpauseko elementu errematiko bakarrak dira (13). Errepikapenaren jokua hartu ez balute idazleek, *ba-* sartu behar zuketen adizkeraren aurrean. Batzutan beste-

(11) Hizkuntzetan asertzio negatiboa da bereziki markatu ohi dena. Positiboa ordean, ez, non ez den enfasiaz edo kontrastez haren azpimarratzeko. Gure adibideetan interpretapen hau ere egin daiteke, baina ez da beharrezkoa (ikus infra.).

(12) Benturaz zenbait euskaldunek *egin* sartzeko joera dute holako kasu batetan (ikus gorago Ikaztegietako informatzailearen erantzunak). Gehienentzat ordean, eta Ipar aldean ororentzat, aditz nagusia aski da asertzio baten moldatzeko. Egia da, forma "irregular" batzu sortu direla horrela: *heldu naiz (banator); johan zira (bazoaz) ibilki dire (badabiltza),* etab.

(13) Ez da dudarik bigarrenean; lehenbizikoan ere hala da, kontxtua ikusirik egiazta daitekeenaz.

rik erraten bada ere, uste dut, holako kasuetan, bi itzulien arteko diferentzia estilistikoa dela soil-soilik.

Erran gabe doa, errepikapena aditzaren topikalizatzeko erabiltzen bada, orduan *ba-* aurrizkia berriz agertuko dela:

jakin daki baina — ° *jakin, daki*
— ° *jakin ere, daki*
— *jakin (ere), badaki*

Lehenbiziko adibidean *jakin* partizipioak du predikatua gorpuzten; besteetan, ordean, pausa bat baita haren ondotik, edo *ere,* tema gisa agertzen da; horretaz, *ba-* ez bazaio eransten adizkerari, maingu gelditzen da esaldia.

1.2.2. *BA- aurrizkia, ATJa perpauseko lehenbiziko* ATJa esaldiaren hastapenean izateak *ba-*ren erabilera ohi dakarrela ezin ukatua da. Kasik obligatuzki asko euskalkitan. Hala diote, adibidez, Lafitte-k (baxenafarlapurterarentzat), N'Diaye-k (Baztanerarentzat) eta Rebuschi-k (Gipuzkerarentzat).

Egia da anitz euskaldunek gaitzets litzaketela hauek bezalako esaldiak:

??Da zozoa
??Nabil oinez
??Nago etxean
??Dakit hori
??Dauzkagu hiru

Bizkitartean, ez dezakegu ahantz textu idatzietan, aspaldiskoetan bereziki, anitz molde horretako esaldi atzematen dela. Halaber, iruditze zait gaurko euskaldun askori, Hego aldekoeri bereziki, entzun dakizkiekeela. Ipar aldean guti agertzen dira egun orozko elaketa arruntetan; gehiago kausitzen ahal dira, aldiz, textu idatzietan, edo aditzen, berdin, hitzaldietan, hizkuntza "jaundu" nahi balitz bezala horrela (*-io-* aditzarekin edo kopularekin bereziki).

Bistan dena oso tratamendu berezia merezi dute beste zenbait itzulik, zeintan aditzaren osagai bat elipsiz ezabatua izan baita:

Nago egia ote den
Daukat hura dela hoberena

Lehen adibidean, *galdez nago* edo horrelako zerbait endelegatzen dugu, bestean, berriz, *segurtzat daukat* edo molde bertsuko lokuzio bat. Arras bestelakoa baita azken egoera hau, utz dezagun besterik gabe, eta ikus ditzagun, *Peru Abarka*-tik ateraiak, zenbait adibide, guk aipatu joerari bizkar ematen diotenak (14):

(14) Hemen aurkeztu adibideak oro, Mogel-ek bere liburu famatuan kondatu "alegi" labur batetan atzematen dira. Benturaz nahitara erabilia zuen Mogel-ek, usaiaz kanpoko hizkera hau karia horretara. Gisa guztiez, maiztasun tikiago batetan bada ere, franko aise biltzen dira holako egiturak nobelako beste orrietan ere. (Ikus delako alegia 62-63. orr. etan).

— *Dirautsa ak oni*
— *Daroa, bada, etxera*
— *Darraiko etxekoa*
— *Noa neure etxera*
— *Dakit katuen berri*
— *Iatorko laguna*

Ez da dudarik hizkera arruntarentzat, enfasi joku bereziak kontutan hartzen ez badira, "jatorrago" irudituko zaizkigula euskaldun gehieneri esaldi horiek, elementu errematikoa aditzaren ezkerrean ematen bazaie, edo-eta, hola utzirik, *ba-* aurrizkia lotzen bazaio adizkerari.

Azken erabilera hau, hain zuzen, ipuinetan askotan erabiltzen dena da. Kondakizunaren harian, gertakariak elkarren segidan ematen direnean, usu, horrela moldatzen dira esaldiak, *ba-* erantsiz aditz trinko, aitzinean direneri. Gauza horretaz ongi konturatu zen Altube bera ere:

"Hay una clase, muy usual, de períodos de carácter narrativo en los que aparece cierto número de oraciones de afirmación inquirida relacionadas unas con otras, como formando una serie que termina generalmente con una oración precedida de la conjunción copulativa. Estas oraciones, en euskera, caracterizan a su verbo, si es sintético, por medio del adverbial *ba,* y si perifrástico, por el acento equivalente. *(Erderismos,* § 75).

Altube ohartzen zen beraz, batzutan, berak "oraciones de afirmación inquirida" deitzen zituen horiek ez zirela egiazki baieztasunaren bereziki markatzeko erabiltzen. Bizkitartean, nahiz ematen dituen adibideetan pundu hori garbi azaltzen den, ez du gaineratzen, holakoetan predikazioaren lehen elementuak aditzak direla beti. Altabada horregatik dute adizkera sintetikoek *ba-* hartu behar orduan.

Besterik da zergatik hori gertatzen den esplikatzea; hau da, ATJ batek predikatua zergatik ez duen berak bakarrik osatzen ahal adieraztea. *Zergatik ?datoz* ez den enontzio osoa eta bai *badatoz* edo *hordatoz* (heldu direla errateko besterik gabe); zergatik, halaber, *??goaz (etxera),* bitxi ohi zaigun gehieneri, eta ez: *bagoaz (etxera),* edo *etxera goaz.*

Nik ez dut galdera haueri erantzuteko biderik ikusten. Are gehiago dena, gaurko linguistikak ihardesteko posibilitate oso guti damaigula iruditzen zait. Beharbada, G. Guillaume-ren teorietara itzuli behar genuke argitasun bila, "subduction" deitu kontzeptura agian (15).

(15) G. Guillaumek, aditzari buruz egin zituen lanetan, euskararen kasua kontutan hartu zuen. Lacombe-rekin ukan zuen korrespondantzian (publikatzekoa) bizpahiru gutun badira, euskal aditzaz Guillaume-k zituen ideiak azaltzen dituztenak. Guk hemen aipatzen dugun arazoa ez da agertzen, baina euskal aditza nola moldatua den adieraztean, bazterretik bederen hunkitzen du. Hona, 1941.eko Maiatzaren 17ko gutunean zer dioen Guillaume-k, adizkera trinkoen moldaketaz:

1.2.3. *BA- aurrizkia, ATJak ERE ezkerrean duenean.* ATJaren ezkerreko lehen elementua *ere* denean, *ba-* eransteko joera nabaria kausitzen dugu mendebaldeko euskalkietan. G. Rebuschi-k pundu hau ongi azpimarkatzen du *Structure de l'énoncé en basque* deitu bere lanean, eta ez da dudarik mendebaldeko euskalkiak bereziki aski hurbiletik darraizkiola joera horri. Hona adibide bat bizkaieraz *Kresala* obratik ateraia:

Bakarrik gelditu giñanian a, berandu be bazala ta, otz be begoala ta, arrai piska bat be bageukala ta... asi giñan etxeruntz.

Ikus dezakegu nola ATJak (*izan, egon,* eta *euki* aditzekin) *be* (bizk. *bere,* hots; kom. *ere*) hartzen duen ezkerretik, ondorioz, *ba-* agertzen delarik adizkeraren gainean. Ongi egiazta daiteke hemen, *ba-* aurrizkiak ez duela baieztasuna markatzen; *bere*-ren ondotik, ordean, haren sartzen beharrezkoa bezala sendi zukeen idazleak. Beste batzutan bistan dena baiezpena hobeki agertzen da, T. Agirreri mailegatu exenplu honetan ikus daitekeenaz:

– Zelan, bada, egoten zara Antonigaz?

– Asko askotan eznaz egon. Zeugaz be banago. (Kresala).

Ere-rekin gertatzen denaren ulertzeko, lehen aipatu esplikabidera itzuli behar dugu. Alabaina, mendebaldeko euskalkietan, *ere,* usu, koordinaziotik lekora, topikalizatzaile gisa erabilia baita, ardura perpausaren egitura finkatzen du:

"En regard de *eginen luke, legike* nous montre abstraction faite du regroupement originel des éléments subduits, les effets d'une subduction à ce point excessive qu'elle ôte à *luke* la possibilité de subsister, même au titre d'auxiliaire, en tant que mot séparable.

L'hypothèse générale que j'avance ici est séduisante par plus d'un côté. Elle date psychologiquement le basque. Le basque, jusque dans sa structure actuelle, évoque le lointain écroulement (subductif) du mot primitif, avec les regroupements obligés qui ont suivi. Plus étroitement, pette hypothèse postule pour *legike* (homogène au niveau de la langue) et *eginen luke* (homegène seulement au niveau du langage) les mêmes éléments de départ et elle fait voir dans les deux constructions le double résultat d'un même traitement, la *subduction,* inégalement développé. *Legike* est le résultat de la subduction extrême (celle qu'on a dans *j'aimerai*) et *eginen luke,* le résultat de la subduction non extrême (celle qu'on a dans *j'ai aimé* ou l'uxiliaire, pas trop subduit, garde son existence de mot).

On échappe par cette hypothèse aux difficultés d'un "historicisme" qui parait bien être une erreur dans la matière et qui consiste à vouloir, à toute force, établir une consécution entre les constructions typiquement différentes que la llangue offre. Ce par quoi on est amené à faire de *legike* l'antécédent de *eginen luke* (ou inversement) alors qu'on se trouve en présence de deux formations typiques parallèles dans le temps, et qui ne doivent leur différence qu'au degré inégal du traitement commun qui les engendre à partir des mêmes éléments de base. La fait historique se réduit, en l'occurrence, à la préférence finalement accordée par le basque (sous des influences qu'on apercoit) à la subduction la moins poussée: celle qui laisse subsister l'auxiliaire. Je croie d'ailleurs que le basque laisse à lui-même n'aurait pas pris cette voie voie et aurait, au contraire, en portant de subduction à ses plus extrêmes conséquences, conduit la langue à un polysynthétisme capable de continuer le mot si longtemps et si loin qu'il pourrait enfermer en soi une quasi-phase".

X *ere* / Y
Tema / Errema.

Adibidez:

a) *Nik ere / ondo dakit.*

b) *Nik ere / ba-dakit.*

d) *Nik ere? / dakit.*

Enfasi jokuetan aditza topikalizatu beharrez errepikatzen delarik, gauza bera gertatzen da, gorago jada ikusi dugunaz:

Iḅili dabil baina *Ibili (ere), badabil.*

Azken egitura honetan ere, *ere*-ren indar berezia ager daiteke, hala nola partizipio errepikatua ATJaren eskuinetik doalarik:

keia an barruan bere baebillen ibilli (Erkiaga, *Arranegi*).

Ohargarri da nola aditz perifrastikoetan ber-joera nabariko den, *ere*-k aditz nagusia estaltzen badu. Hona Ubillos-en *Christau doctriñ berri ecarlea* deitu liburutik bi aipu, aski adierazgarriak:

Israelgo, ta Judaco Erregueac (...) asco naigabe neque ta pena emancizten Profetai; ta illeraci ere bacituen Profetatic batzuec.

Esan ere bazuen, egingo zuela (...) aliantza obeago bat.

Nahiz gipuzkeraz eta bizkaieraz joera hau aski indartsua dirudien, ez da holakorik gertatzen euskalki guztietan. Lapurtera-baxenafarreraz edo zuberoeraz adibidez, *ere* ez ohi da erabili mendebaldean bezala, topikalizatzaile gisa. Euskalki horietan *ere*-k predikatua bera batere eragozpenik gabe marka dezake, izan dadin adizkera trinkoaren aurreko elementua, edo berdin atributoa kopularen aitzinean, edo oraino aditz nagusia adizkera perifrastikoetan:

Berriz ere diot...
(Gezurti eta) gaixto ere da.
(Hola pentsatzen dut eta) erraten ere dut.

Zer nahi gisaz hemen dioguna ez da hertsikiegi ulertu behar, joera ezeztatzen duten kontradibideak aski errazki aurki baitaitezke, aditz perifrastikoekin bereziki, mendebaldeko euskalkietan; hona baño *Peru Abarka*tik: *Zuk bata badakizu, iakingo ere dozu bestea.* Bestalde *ere*-ren erabilera ez da beti oso erregularra, ez eta, adibidez kopularena: *Baina mirakuilua ez da xoilki egia bat (...). Da ere, gauza bat, egintza bat...* (Lapeyre, *Kredo*).

2. BA- BAIEZKOAREN AZTERKETA SEMANTIKOA

Lehen parteko azterketak *ba-* aurrizkiak ukan dezakeen eginkizun sintaktikoa argitan ezarria duela uste dut. Ikusi dugu zer moldetan aditz trinko

batekin osaturiko asertzio positiboetan, berez modalitate markatzaile den aurrizki hau, predikatu gauzatzaile edo aktualizatzaile ere izan daitekeen. Bizkitartean, gramatiketan haren eginkizun semantikoari beregainki kasu ematen zaio. Gu ere, bigarren parte honetan, azterketa horri lotuko gatzaizkio.

Lehenik gogora dezagun horri buruz zer erran ohi den euskal gramatiketan. Bi azterbide proposatzen dira maizenik, lehena Altubek finkatu zuena, bigarrena Lafitte-ri zor zaiona.

Altubek baiezko modalitatearen fokalizatzaile bat zekusan aurrizkian: "En todas las oraciones cuyo elemento inquirido es la cualidad afirmativa del verbo, la flexión verbal va provista, si es sintética del prefijo *ba-*". (*Erderismos*, 73). Bide beretik doaz, bai Villasante, bai Arejita:

"Aditzaren BAITASUNA adierazteko da BA izkia. Derriorrez ipini beharrekoa da galdegaia aditzaren baietza dogunean." *(Euskal joskera).*

"Cuando el inquirido es la afirmación y el verbo es sintético, exige la presencia del prefijo *ba-* en el dicho verbo." Halarik ere gaineratzen du Euskaltzainburuak: "Si es práctica universal de la lengua, pero tampoco preceptiva o excluyente de otra". *(Sintaxis de la oración simple).*

Azterketa honen arabera, beraz, *ba-* galdegai marka gisa aurkezten da (baiezko modalitatearen fokalizatzailea).

Lafitte-k berriz beste zerbait, piska bat desberdin dena, diosku: "Quant à la nuance précise qu'ajoute ce *ba-* au sens du verbe, il n'est pas facile de le définir: disons qu'il lui donne un sens absolu, un sens plein, souvent subjectif et continu (...). En tête d'une phrase, le *ba-* est courant chez les vieux auteurs; cette place indique quel'on tient à mettre le verbe en relief." (*Grammaire basque*, § 787).

Ikus daitekeenaz, Lafitte-rentzat *ba-k* aditzaren beraren erran-nahia jotzen du, edo azkartuz ("sens absolu, sens plein"), edo aspektuan hunkiz ("-sens subjectif et continu"); fokalizazioa ere aipatzen du, baina ez baitasunarentzat ("verbe mis en relief").

R. Lafon-ek (Schuchardt-en erranak bere eginez) hemen aipatu bi ikusmoldeak biltzen zituen. Haren arabera *ba-*ren eginkizuna hau zen: "faire ressortir en quelque manière la signification du verbe, ainsi que la signification substantielle des verbes auxiliaires", edo "la signification positive par rapport à la négative" (*Formes simples du verbe basque*, 438. or.).

N'Diaye-k, berriz, oso dudazkoa ematen du *ba-*ren betakizuna edukinaren aldetik: "La forme préfixée et la forme non-préfixée ne s'opposent pas dans le contenu, ce sont des variantes positionnelles: la forme en *ba-* apparaît toujours lorsque le verbe est placé en tête de l'énoncé ou de la proposition subordonnée (...). Dans les autres positions on trouve indifféremment la forme simple ou la forme préfixée". Hala eta guztiz ere, N'Diaye-k ongi azpimarka-

tzen du, aurkaritasun ezin hautsizkoa badela ("opposition constante") *izan*-ekin kopula denean eta existentzia-predikatua denean (*Structure du dialecte basque de Maya*, 225. or.).

So aldi honen ondotik *ba-* aurrizkiak ekar ditzakeen semantikazko gorabeherak ikertuko ditugu. Lehenik *izan* eta *edun*-en kasuak aipatuko ditugu, eta bai eta *jakin*-ena ere. Ondotik *ba-k* har ditzakeen balio desberdinak ikertuko ditugu; azkenik, *ba-* kopularekin eta adizkera perifrastikoetan nola agertzen den ikusiko dugu. Azterketaren harian Ipar eta Hego aldeko erabileraren arteko diferentziak hobeki agertuko zaizkigu.

2.1. IZAN aditza eta BA- aurrizkia

Ba- predikatu aktualizatzaile izanik, haren eginkizun sintaktikoak ondorio handiak ukanen ditu *izan* bezalako aditz batentzat, zein, dakigunaz, hiru moldetan agertzen ahal baitzaigu: aditz laguntzaile gisa (mementuan egoera hau bazterrean utzia dugu ikus 2.4.), kopula gisa, eta aditz oso gisa (orduan existentzia predikatua dela erran genezakeelarik).

Bada, erregela hau eman daiteke: *izan* existentzia predikatua denean, *ba*-rekin agertzen da obligatuzki. Ongi uler bedi: ez diogu, *ba-* harekin erabiltzen delarik *izan* beti aditza denik, geroago ikusiko dugunaz, laguntzaile denean edo kopula ere gerta baitakioke hori (nahiz bakanago); hots, ez diogu *ba*-k beti existentzia predikatua urkilatzen duenik, soilik *aditz gisa* gorpuztekotan *izan*-ek beharrezkoa duela (konpara: *izan da da, izaten da, izanen da,* baina *bada*).

Honen ondorio garbia ondoko esaldien konparaketan azalduko da:

Hemen euskaldunak dira / Hemen euskaldunak badira (Ici ce sont des basques / Ily a des basques).

Ogia da / Ogia bada ("C'est du pain / Il y a du pain").

Gizonak dira / Gizonak badira ("Ce sont des hommes / Il y a des hommes").

Ezkerreko esaldietan *izan ba-* gabe delarik kopula da, eta ezkerretik dauzkan elementuek dute predikatua osatzen.

Eskuineko esaldietan berriz, *izan ba-k* lagundua delarik, aditz gisa interpretatzen dugu (beste interpretapena ez da debekatua, baina kontextu berezia eskatzen du); ezkerretik heldu diren elementuak tematizaturik daude, eta predikazioa haien izateari (existentziari) dagokio (nahiz formalki mugatzailea baduten, ez ditugu ondorioz mugatuan interpretatzen (16).

(16) Garbikiago derradan: existentzia ez daiteke nekez baizik determinazioa aserik edo saturaturik daukan elementu batez predika. Alabaina determinazio aseak existentzia aurresuposatzen du. Hal ere *Jainkoa bada* erran daiteke "Dieu existe" errateko, edo *infernua bada*.

Erran gabe doa, funtsean, ez duela *ba-k* egiazki aldarazten perpaus horien esan nahia (edukin aldaketak deus ez du ikustekorik baitasunarekin). Hala ere aurrizkia enontzioen egitura sintaktikoaren markatzera heldu baita, ezin uka hark ere horretan parte hartzen duela.

2.2. °EDUN aditza eta BA- aurrizkia

Izan-ekin *ba-k* ukan dezakeen eragin berezia (*izan*-ek dituen eginkizun gramatikal eta logikoen ondorioa dena) °*edun*-ekin ere agertzen ahalko da batzutan. Bestalde, beste zenbait kasutan, Ipar eta Hego aldeko erabilerak berezi behar dira, ez baitatoz bat.

2.2.1. °*Edun* forma biltzaileetan.

Gauza ezaguna da euskaraz maiz, guziz ele egitean, perpauseko elementuen erlazioak modu desberdinez adieraz ditzakegula. Adibide hauetan, eman dezagun, hola gertatzen da:

Haren senargaia da / Senargaia du ("C'est son fiancé").
Zure etxean dira / Etxean dituzu ("Ils sont chez vous").
Ene lagunak dira / Lagunak ditut ("Ce sont mes amis").

Lafitte-k "formes enveloppantes" deitzen ditu bigarren itzuli horiek (17), eta guk euskaraz hemen "biltzaile" hitza erabiliko dugu haien izendatzeko. Ikus daitekeenaz ezkerreko perpausean *izan*-ekin adierazia, eskuinean °*edun*-ekin agertzen da, beti esaldi egitura bera atxekia delarik:

X (tema hemen ezabatua) / Predikatua + kopula.

Horretaz, deus miresgarririk ez da lehen *izan*-entzat adierazi duguna berriro aurkitzen badugu: kopula (*ba-* gabe gehienetan) alde batetik, eta bestetik aditza (*ba*-rekin). Gure adibideak berriz har ditzagun:

Senargaia du / Senargaia badu ("C'est son fiancé / Elle a un fiancé").
Etxean dituzu / Etxean badituzu ("Ils sont chez vous / Vous en avez chez vous").
Lagunak ditut / Lagunak baditut ("Ce sont des amis / J'ai des amis").

Gauza bera gertatuko da beste lehenagoko adibideak hartzen baditugu, eta forma inplikatibo batetan erabiltzeko, kopula °*edun*-en bidez adierazten badugu:

Hemen izate linguistikoa segura delarik, erreferentziazkoa dudazkotzat ematen da gisa batez-Holako enontzioek halako aire polemikoa dute, beste existentzia-predikazioetan atzeman ohi ez dena.

(17) Ez nahas forma biltzaileak (eta inplikatiboak) eta alokutiboak, nahiz batzutan itxura bera duten, "bilketa" 2. pertsonarekin egiten delarik (*etxean dituzu*, adibidez, alokutiboa izan daiteke, eta inplikatiba ere).

Ogia da (hau) / Ogia dugu (hau) // Ogia badugu ("C'est du pain // Nous avons du pain").

Ohart bizkitartean, Hego aldeko euskaldunentzat bereziki, *izan*-ez erranak ez duela hedadura bera. *°Edun* aditz osoa izan daiteke *ba-* gabe.

2.2.2. *Ba*-ren erabilera *°edun*-ekin Ipar eta Hego aldean.

Dematzagun bi euskaldun, bata baxenafartarra bestea mugaz beste partekoa, norbaitek *Zer duzu sakelan?* galdatuz gero hona nola ihardets lezaketen zeinek bere aldetik:

– *Dirua dut.*

– *Sosa badut.*

Horiek dira usaian egiten diren erantzunak holako kasuetan (horrek ez baitu erran nahi ez dela besterik egiten ahal). Nabari da bi jokabide desberdin direla hor *ba*-ri buruz, Hego aldean *ba*-dun forma izanen baita markatua, eta Ipar aldean berriz, *ba-* gabekoa.

Hego aldean hurbiletik jarraikitzen zaio eskema orokorrari, aipatu galdea honela ulertzen delarik: zerbait baduzu sakelan, zerbait hori zer den jakin nahi nuke. Ipar aldean aitzitik, bi pundu horiek ez dira berezten, eta eskema nagusia hautsirik, berez erantzunaren muina (predikazioarena) dena, tema edo mintzagai gisa agertzen da (itxuraz, ez egiaz).

Uste dut azken jokabide hau berria dela, edo bederen bestea baino berriago. Adibidez haur prodigoaren parabolan, "homo quidam habuit dos filios" latinezko esaldia, *ba-* sartuz itzultzen dute Duvoisin-ek, L. Leon-ek eta Lafittek, Leizarraga eta Haranederrek berriz *ba-* gabe: *Gizon batek zituen bi seme* (ikus Villasante, *Sintaxis de la oracion simple*, 25. or.).

Galda daiteke *ba*-ren agertze hori edozein egiturarekin gertatzen den edo bakarrik objektua + aditza dugularik erremaren bizkar hezurra (laster ikusiko dugun bezala, horrelako zerbait gertatzen baita *jakin* aditzarekin). Ez dut uste. Ipar aldean *nork du hori?* galdeari, *nik badut* ihardetsiko zaio askotan. Beste itzulia *(nik dut)*, mugaz horraindian atxekia izan dena, ez da deusetan ere agramatikala, bai, ordean, markatua, eta beraz indar handiagokoa. Kontrasta jokuetan aurkitzen dugu konparazione:

Ez dut nik, anaiak du.

ISerg.ak hertsiki fokalizaturik egonik, *ba-* holakoetan ez ohi diogu eransten *°edun-i.* Galderetan ere, *ba-* gabeko forma erabiltzen da: *Nork du? Zer dugu?*

Ohargarri da aipatu joera hau beste aditz batekin kausitzen dela, *jakin*-ekin hain zuzen ere. Hego aldean ere haatik berezitasunak baditu azken honek, nahiz Ipar aldeko erabileratik aski urrun dagoen:

Ipar aldean: *jakin*-en erabileran (°*edun*-enean bezalaxe) *ba*-rekilakoa da forma ez markatua, aditzaren ezkerrean den elementua edozein kasutan egonik ere.

Zer daki? Anitz gauza badaki.
Nork daki? Nik badakit.

Hala ere forma markatuetan, bereziki enfasiazkoetan edo kontrastetan, ATJa *ba-* gabe erabiltzen da:

Jainkoak daki!
Nik dakita?
Bakotxak bere berri daki, nik neure (J. Hiriart-Urruti).

Hego aldean: *ba*-k forma markatua erakusten du, salbu kasu batetan: objektua + ATJa taldea dugunean, objektuak kualifikazio kuantifikazio eragiketarik ez badu jasaten, *ba*-eransten ohi zaio aditzari (18):

Nor den dakit? baina *Nor den badakit.*
Etorriko naizela dakizu baina *Etorriko naizela badakizu.*
Euskara dakit? baina *Euskara badakit.*
Ipuinak dakizkite baina *Ipuinak badakizkite.*

Objektuaren gainean determinazio eragiketa zerbait eginez gero ordean *ba-* ez da erabiliko:

Euskara ondo dakizu.
Ipuin asko dakizkite.

Nik ipuin zaharrak dakizkit, ez berriak
Etxeko euskara dakit (besterik ez).

Ipar aldeko joerara itzulirik salbuespen bat aipa dezagun, *ba*-ren sartzeari kontra doakiona; *guti* eta *bakarrik ba*-rekin elkargaitz baitira; konpara:

Anitz liburu baditu	baina	*Liburu guti du.*
Gauza anitz badakizu	baina	*Gauza guti dakizu.*
Bi atorra baditut	baina	*Bi atorra bakarrik ditut.*
Bi hizkuntza badazkit	baina	*Bi hizkuntza bakarrik dakizkit.*

Ezkerreko adibideetan, kuantifikazio eragiketagatik, *ba-* lotzen zaie °*edun* eta *jakin* aditzeri (holakoa denaz gero joera nagusia Ipar aldean); ezkerrekoetan, aitzitik, kuantifikazioa *guti*-ren bidez egiten baita, edo *bakarrik*-ek lagundurik, *ba-* ez da agertzen (19). Bi bidez esplika daiteke salbuespen hau:

(18) Joera batez mintzo garela ez ahantz: kontradibideak eman daitezke, hala nola Etxepareren bertsu hau: *Gaixteria egitia laido dela dakizu* (XII, 15).

(19) *Bakarrik*-en erabilera hau gazteen artean nabari da bereziki, zaharragokoek *baizik* + ezeztapena enplegatzen dute.

I) *guti* eta *bakarrik* berez beti fokalizazio hertsi baten markatzaileak direla baieztatuz; II) *guti* eta *bakarrik* semantikoki negatiboak (eta beraz *ba*-rekin elkargaitzak) direla erranez.

2.3. **Ba-ren balioak**

Aurreko lerroetan *izan* eta °*edun*-en kasua aztertzean, *ba*- aditzari gorputz ematera heldu dela ikusi dugu. Adibidez, *ba*- agertu behar da *izan*-ekin, "exister, y avoir" balioaren emateko (Lafitte, § 540), eta °*edun*-ekin "posséder" frantsesez erraten denaren adierazteko (Lafitte, § 584). Joku hori, hala ere, zuzen-zuzenki aitzinetik aipatu *ba*-ren eginkizun sintaktikoati datxeko. Orain, berriz, aurrizkiak bestalde har ditzakeen balioez ariko gara.

Izan eta °*edun*-ek *ba*-rekin edo *ba*-gabe bi itxura hartzen ahal badituzte (*ura da / ura bada; semea du / semea badu*), beste aditzekin ez da holakorik gertatzen, eta *ba*-ren balioa baitasunaren inguruan eraikiko da (ezen ez den dudarik gure aurrizkia baitasunari dagokiola). Bizkitartean nola esplika Altubek eta Lafitte-k horren adierazpen desberdinak ematen baitituzte *ba*-ren ekarpen semantikoaz? Entseia gaitezen ihardestera.

Asertzioak, gauzak larriki aurkeztuz, bi modutan egiten direla erran daiteke: positiboan edo baiezkoan (hiztunak esaldia positiboki bere gain hartzen duelarik), ala ezezkoan (negatiboki egiten duelarik). Bi modalitate horiek, ordean, ez dira orekan, baiezkoa oinarrian dugulakotz beti. Gauza ezaguna da alabaina ezetzak aurretik positibotasuna eskatzen duela nahi-ta-ez. Desoreka honen ondorioa da asertzio positiboek, berez, ez dutela marka berezirik behar (ezezkorik eza aski zaie).

Gure auzia hor hasiko da: *ba*- aurrizkiak zerbait *gehiago* ekartzen duelarik, zeren marka da zuzen? Baitasunarena, noski. Bai, baina zer gisaz? Nolabait positibotasun markatu hau kontrastiboa dela erranen dugu; hots, kontrasta batetan dauka oinarria; gisa batez baiezpen azkar hori *modalitate negatiboaren ukadurari* dagokiola kontsidera daiteke. Ideia hori eskema honetan bil daiteke:

asertzioa	positiboa	negatiboa
ez markatua	∅ —ukoa→ *ez*	
markatua	*ba*- ←ukoa—	*ez* (20)

(20) Ezezkoan asertzio markatuek ez dute morfema berezirik baliatzen.

Ukadura gisa azterkatzen dugun baitasun hori gerta daiteke solaskideen arteko harremanetan, baina beste batzutan mintzairaren barneko elementuetan ere erroztatzen da. Lehen kasuan, *ba-* polemikazkoa edo eztabaidakakoa aurkitzen dugu. Uste dut hori dela gogoan atxekitzen, Hego aldeko tradizio gramatikalean Altuberen lanez geroztik. Hiztunak, haren solaskideak positibotasuna dudatan ematen duela edo egin dezakeela suposatzen du, eta baiezkoari indar ematen dio. Adibidez:

Bizimodu airosa darama, baina hala ere elizan badabila.

Bizkitartean beste oinarririk ukan dezake baitasunaren markatzeko beharrak. Izan ere, zenbaitetan, bai-ala-ez-kako joku hau solaskideen arteko harreman enontziatiboetan baino gehiago aditzaren beraren egitura semantikoan oinarritzen da, aspektualitatearen aldetik bereziki. *Ba*-k orduan positibotasuna markatuz, ez du hainbat baieztapena (afirmazioa) adierazten, baina beste zerbait aditzaren semantismoari doakiona (Lafitte-k aipatzen duen azterbidea berriro atzematen dugu horrela). Ikus dezagun hori *joan* bezalako aditz batekin.

Modalitate asertiboak *joan* aditzari aplikatuz, *+joan / –joan* bikotearekin adieraz daiteke. Orain bikote hori, enontzio batetan, erlazio ordenatu baten barnean moldatua dela demagun; bi posibilitate ditugu, konparazione, ordena kronologiko baten barnean:

1. *+joan...-joan.*
2. *–joan...+joan.*

1. Kasuan, *ba-* modalitate negatiboaren ukapena denaz gero, "*–joan*" egoerara ez dela pasatzen azpimarratzen da. *Joan*-ek adierazi ekintza bururapenik gabe kontsideratua da, beti bere jarraikian espresatua da, bururapenik eza markatua delarik. Exenplu baten emateko: *denbora badoa.*

2. Kasuan, aldiz, "*–joan*" egoeratik ateratzen dela azpimarratzen da. Aditzaren ekintza bere hastean kontsideratua da, haste horrek "*–joan*" egoeraren amaieran oinarri duelarik. Adibidez, *hemendik banoa* erraten denean, *partitzen naiz* edo *lekuak husten ditut* errateko, hau da, *ez naiz gehiago "joan-gabe" egoten.*

Ez dakit hemen doi bat trakeski azaldua ongi ulertzen den. Bil dezadan laburki arrazoinamendua:

– *Ba*-k asertzioen modalitate positiboa marka dezakeela (ez baita ahantzi behar haren eginkizuna urrunago ere joaten dela batzutan lehenago ikusi bezala);

– *Ba*-k positibitasun markatua kontraste batetan finkatzen duela, modalitate negatiboaren ukadurari baitagokio;

– modalitate asertiboek, solaskideen harreman enontziatiboak ez ezik, aditz predikatuaren semantikazko itxura ere molda dezaketenaz gero, *ba-* aurrizkiak aditzaren erran-nahiz edo-ta aspektualitatea hunki dezakeela.

Ikusten dugu ez dugula hemen erregelarik, ez deus gisa horretakorik. *Joan* aditzarekin proposatu azterketak *ba-*ren balioak eraikiak direla erakutsi digu, eraikitze horretan bai aditzaren beraren semantismoa, bai kontextua kontutan hartzeko direlarik.

Ez da harritzeko beraz, aurrizkiak kasik balio tenporala hartzen badu batzutan, hala nola ikus baitaiteke *Gerrateko ibillerak,* Alkain eta Zabalaren liburutik atera pasaia honetan:

...Oju au egin genduan indar aundiz:

– Alto!

Bat an ari zan, makurtuta, aldare inguruko alfonbra bati su eman ezinik. Beste alfonbra batzuk bazeuden emanak; baina artean sua indarrik gabe.

Hemen ere *ba-* –/+ erlazio kronologikoki ordenatu batetan finkatua da (*su eman eziñik / bazeuden emanak*), modalitate jokoa manera horretan, denboran ere funtsatzen baita. Horko esaldia erdarara itzulirik, *déjà, entonces* edo holako zerbait enplega daiteke, nahiz egiazki haien parekorik ez den agertzen euskarazko textuan.

Beste batzutan aurrizkiak egoera baten iraupena markatzen ahalko du bereziki, ekintza bat pasiboki aurkeztua delarik oroz gainetik:

Baina igandeak dituk hemen hitsak! Hirixka baten aldean girelaik, han ez izaki elizarik (...). Harma harturik, bagoazik denak ihizirat. Hiltzen diuk zer nahi xori mota (...). Akitu girelarik, irakurtzen, izkiriatzen bagaudek, ez girenean joaten ihirirat.
(J. Etxepare, *Buruxkak,* 115. or.).

Hobeki ulertzen da orain menturaz zergatik *ba-*agertzen den pasibo edo anti-pasiboetan, gure adibidean bezala; alabaina haiek ere modu bertsuko topologia baitute:

Egun osoak banagok eramanik (J. Etxepare, *Buruxkak,* 119. or.).
Orai baditiat erosiak estalgi batzu (idem., 114. or.).

Baitasunari lotua izanik *ba-*ren balioak itxura bat baino gehiago har dezake, solaskideek kontextuen arabera moldatzen dituztenak. Hala ere maiz, biziki arina da aurrizkiak ekartzen duena, zeren ororen buru aski hurbil baitira forma markatua eta ez markatua aditz gehienekin:

Isilik dago (ez markatua).
Isilik badago (markatua, nolabait negazioa ere hor azpian da; adibidez, haur beti mintzatzen den batentzat, zenbait minutuz aditzen ez denean, *To, isilik badagok!* erran daiteke, isilik egote hori bitxi edo dela gisa batez azpimarratuz).

2.4. Ba- aurrizkia aditz-jokabide perifrastikoa

Orain artino *ba*-ren eginkizuna aditz-jokabide trinkoaren barnean ikertu dugu, hori baita erabilera gehien agertzen dena. Bizkitartean gure aurrizkia jokabide perifrastikoan ere kausitzen dugu zenbaitetan.

Bai Altubek, bai Arejitak aipatu dute kasu berezi hori; azken honek adibide hau ematen digu.

– Ez dozu ikusi, ba!
– Badot ikusi.

Ipar aldean, gaur egun bederen, itzuli pasiboetarik lekora (ikus gorago aipatu adibideak, Etxeparerenak bereziki), biziki bakan gertatzen dira holako itzuliak. Menturaz lehenago errazkiago erabil zitezkeen literaturaren lekukotasunak erakustera ematen duenaz:

Mundu honetan badirogu batak bertzia engana (B. Etxepare, I, 139).

Ohart aditz perifrastikoetako erabileran, aditz laguntzailea aditz nagusia baino lehenago emateko joera bizia badela, usaiako ordenaz infrentzuz, hots. Hala ere, ez da beti horrela gertatzen:

Ene copà edanen baduçue, eta ni batheyaturen naiçen baptismoaz batheyaturen baçarete (Leizarraga, Mateo XX 23) (21).

Funtsean jokabide perifrastikoetako erabilerak eta kopularekilakoak egite handia dute. Azken hau –uste dudanaz– biziago da Hego aldean egun, Ipar aldean anitz jendek, testetan proposatzen zaielarik, beltzuri egiten baitiote. Bizkitartean ez bide da beti horrela gertatu:

Nahi bada ez nizan diñe / egünko pheredikari baniz (Phantzart, 11).

Halaber, zenbait aditz lokuziotan, hala nola *maite ukan*-ekin:
Nihaurk ere gerthuz maite bazitut (B. Etxepare, X 11).

Ba-ren balio holako kasuetan arrunt afirmazioaren mailakoa da. Ez dugu aurkituko beraz ATJekin agertu ñabardunak, aspektualitatearen aldetik adibidez.

Altubek perifrastikoetako erabilera aharretan kausitzen dela dio; Arejitak ere holako zerbait diosku: "eztabaidaka ezetz eta baietz lagun bik diarduenean". Ez dut uste afirmazioa egoera horretara muga daitekeen, nahiz orduan den benturaz, hobekienik eta indar handienarekin nabaritzen. Batzutan galderetan agertuko da (alegiazko galdeak egia erran, hau da baietza aurre-suposatzen dutenak), edo berdin asertzio hutsetan:

---

(21) Ikusi ditudan sei itzulpenetarik bakarra da, pasaia horretan, itzuli honen erabiltzeko. Hurbilenak, *bai* nolabait sartzen dutenak, L. Léon eta Liturgi euskaratzaile taldearenak dira:

Ene kalitza edanen duzue, bai,... (L. Léon).
Nire kaliza edan, bai, edango duzue;... (L. E. T.).

Diferençia horeq / Badeiquia malleurig ecarten (Charlemagne, 93, b.).
Oh Elcho chipia / Bahiça ausartçen / Enne desafiatçera (idem, 513. b.).
Oh ferragus urguluxia / Baçaiq ounxa doluturen (idem, 278. b.).

2.5. **Ba-ren bi aurpegiak: enonziazio edo predikatu mailakoak**

Azterketa honen ondotik *ba*-ren erabileran bi itxura aurkitu ditugula erraten ahal dugu:

– Lehenean aurrizkian enontziazioa bera du jomuga, orduan baitasuna bera markatzen duelarik, dela polemika baten ildoan, dela, bestela ere, baiezko asertzio bati indar gehiago emanez.

Ba- hori dugu beti kopularekin edo aditz laguntzaileekin, baina forma trinkoetan ere ager daiteke.

– Bigarrenak berriz predikatua du jomuga. Zenbaitetan predikatuek beharrezkoa dute, hala nola existentzia-predikatuak, edo bestek ere, adibidez ATJa predikazioaren hastapenean denean. Beste batzutan, beharrezko izan gabe, aditzaren erran nahia nolabait hunkitzen du, aspektualitatzean bereziki.

Bi aurpegi horiek, enontziazio mailakoa alde batetik eta predikatu-mailakoa bestetik, jadanik ezagunak genituen. Altuberen ondotik (nahiz hura *ba*-ren eginkizun sintaktikoari ere ohartu zitzaion), lehena da bereziki aipatzen Hego aldeko gramatiketan; Ipar aldekoetan, aldiz, Lafitte-ren bidetik, bigarrena. Hala ere gogoan eduki berezkuntza honek, hein batetan azterketa lagunt badezake, engaina ere bagaitzakeela. Alabaina gehienetan *ba-* aurrizkiak molde ezin berezizko batez nahastekatzen baititu bere eginkizun eta balio desberdinak.

BERRIAK

YALDEN MAXWEL JAUNAREKIN ELKARRIZKETA

1983-VII-6

Jose M.ª Satrustegi

Uztailaren 6an, Canadako hizkuntz ofizialen Ararteko den Yalden Maxwel jaunarekin elkartu zen Euskaltzaindia. Bere eskariz, Galdakaoko Andra Mari jatetxean bildu ginen. Atienza Bizkaiko Kultur ordezkaria eta Canadako kontsula zituen lagun. Euskaltzaindiaren izenean, L. Villasante, J. Haritschelhar, J. M. Satrustegi, P. Altuna, San Martin, A. Irigoyen eta J. L. Lizundia egon ziren. Euskararen berri jakin nahi zuen. Ofizialki izan dituen eragozpenak agertu ondoren, Eusko Jaurlaritzaren aldetik sortutako ekintzen azalpena egin zitzaion. Nafarroako egoera azpimarratu zen batez ere.

Arretaz jaso zuen esandakoen berri eta noizbait Canadan elkar ikusteko gogoa agertuz amaitu zuen bilera.

EUSKAL ATLASA DELA ETA

Bilbo, 1983-VII-29

José M.ª Etxebarria (*)

1. Markiñako bilera euskalkiei buruz:

Zati bitan banatu ahal da eginbeharra:

1.1. Herriari eta kanpokoei begira.

Onartzen badira, arlo honetarako egokiak izango lirateke gai hauek:

a) Gonzalez Etxegarai jaunaren txostena:

Euskalkien bilketan eta azterketan egin diren lanen berri laburra eman:

– L. L. Bonaparteren bilketa

– Vienan dago beste bilketa bat

– Erizkizundi irukoitza

– Gaurko saio eta asmoak.

– Gaurko saio hauetan nola parte har dezaketen herrietan lekukoak bilatzen eta erraztasunak emanez.

b) Zati hau txosten baten bidez edo mahai inguru baten bidez adierazi daiteke:

1.2. Atlaserako pauso batzuk emateko nola eratu gauzak, nori laguntza eskatu, nolako bideak urratu.

Nere esperientzi kaxkarretik eta beste atzerriko toki batzuetan egin dituzten gauzak gogoan izanik ohar txiki batzuk jarriko nituzkee nik.

1.2.1. Euskalherria txikia da eta denpora garrantzitsuagoa da, dirua baino. Ez da diru asko behar lan honetarako, baina bai denpora asko. Eta lan honetarako aukeratzen direnei denpora esan behar zaie, hau da, honetan bakarrik lan egin dezatela.

2. Pertsona egokiak, izenari baino izanari gehiago begiratuz.

(*) Txostentxo hau, egilearen etorri ezinarengatik, Juan San Martin, *Jagon* Sailburuak irakurri du.

3. Unibertsitatean daudenak handik ateratzea lan honetan jarduteko oso zaila da, unibertsitateak duen egoera ikusiz eta ezagutuz. Orduan beste sistema bat asuatuko balitz onena hori izango litzateke.

4. Herriak, grabaketak egiteko, aukeratuta daude, baten batzuk izan ezik. Itaunketa edo galdeketa prestatu behar da. Horretarako batzuk beste danak utzita ekin behar diote.

5. Nolako baldintzak jarri lan honetan parte hartu nahi dutenentzat ez zait tokatzen niri. Dana dala gure aurretik egin dute zerbait, adibidez Finlandian, Suedian etabar, eta haiek erabili zituzten metodo batzuk guretzat ere mesedegarriak diralakoan nago.

6. Nork hartu kolaboratzaileak, nork ordaindu, nola tabar hori erakunde baten edo besteren eskuetan gelditzen da.

7. Honelako lan bat ezin daiteke egin asteburuetan edo astegoienetan. Herri bakoitzean itaunketa osoa betetzeko aste bete gutxienez behar da, eta hori saiatua izan da. Orduan dato hau ere kontuan hartu beharrezkoa da.

* * *

Gai hauek, denak eta beste batzu Dialektologi batzordeko eta beste euskaltzaindiko batzuren artean garbitzekoak lirateke. Eta Euskaltzaindiak baldin badu asmorik erakunde berak eraikitzeko lan honetarako hori egokia izango litzateke, burukraziak beste tokietan jartzen dituen, trabak baztertuko genituzkelako.

Nik besterik ez daukat. Agur eta Irailera arte.

"OSSIAN SARIA" KOLDO MITXELENARI EMAN ZITZAIONEKOA

Gasteizen, 1983, Martxoak 10

Fr. L. Villasante

Lagun zaharra:

Hamburgoko F. V. S. Fundazioak saria ematen omen du —Ossian Saria— eremu urriko hizkuntzen alde lan egiten dutenei. Oraingoan euskara begiz jo dute, eta euskaran zu. Ez dira bat ere oker egon. Ez horixe. Edozeinek aitortu behar du une honetan euskararen auzia, euskararen bizi nahia eta hizkuntza honen arazoa asmoz eta jakitez gidatzearen gakoa, neurri handi batean behintzat, zuregan dagoela kokatua.

Kultur eta Unibertsitate munduko gizona, ez zara zu izan mundu estuegian egon zalea, orokorrera idikia baizik, har-emanak izatea maite dituzuna, ikerketen eta jakintzen azken aurrerapenei beti erne, eta, nunahi direlarik, jakintzaren munduan aurrelari direnekin elkartasun bila zale. Izan ere, jakintzak mugen berririk ez daki.

Baina, beste aldetik ez zara izan —askotan gertatzen dena—, errorik ez duten jakintsu horietakoa, zeure herrian erro sakonak dituzuna baizik, eta erro horiei gogotik atxikia izan zara beti. Beste hitzez esanik, ez zara intelektuak huts-soila izan, ikerketen eta ideien munduan bakarrik bizi dena. Aitzitik, zangoak lur gainean dituzu, eta begi-belarriak erne, gerta daitezkeen lur ikarei adi, eta, Barandiaranen omenaldian esan zenuen bezala, norbaitek zure herria amiltegira eraman nahiko balu, hari zeure indar guztiez gogor egiteko prest zaude.

* * *

Euskaltzainburu naizen aldetik, ordea, eta beronen izenean, Erakunde honek zor dizunaz zerbait esatera behartua nagoela uste dut. Eta pozik egiten dut, horrekin zorra kitatzen ez badut ere.

Guztiok dakiten bezala, Euskaltzaindia 1918-1919etan sortzen da, eta gerra arterainoko urteetan bere lehen aroa ezagutzen du. Lehen aro horretan gizon argi eta ospetsuz osatua egon zen eta bere fruitu umoak ekarri zituen, hizkuntzaren ortografia finkatuz eta gramatikaren atal batzuk aztertuz.

Gero, berriz, gerra lehertzen da, eta gerra bera baino okerragoa, haren ondorioak. Euskaltzaindia luzaz hilik edo erdi hilik egongo da. Halere, 1950. urte inguruan bere errautsetatik berpiztu nahiean hasten da. Baina bidera azaltzen ziren oztopoak ezin gainditzuzkoak ziruditen. Hainbeste eta hain handiak ziren gerraren ondorioz pilatutako hondamendiak!

Lanera deituak izan ginenok zerbait egiten asmatuko ote genuen? Beldur izateko zen. Orduan elkar ezagutu eta adiskidetu ginen, hain toki desberdinetatik lagin-

tza honetara etorriak. Euskaltzaindiaren lehen arotik bigarrenera tarte luze samarra igaro zen, eta katea etenik gabe osorik ateratzea ez zen gauza erraza. Behar-beharrezko genuen norbaiten itzala, larderia eta adorea; bere jakintzaren pisuagatik, kemen eta argitasunagatik egoera gaitz hartan gidari izan zitekeen norbait.

Eta norbait hori, zorionean, zu izan zinen. Etxeak behar eta bideak ekarri, uste dut esan ohi dela. Zerorri esker, Euskaltzaindia aro berrian berriz ere bideari lotu zen, geldiro eta baratx, beharbada, laguntzen eskasiagatik eta eragozpenengatik, baina hasi behintzat. Bistan da, hau esatean ez dut beste askoren lana gutietsi edo ukatu nahi.

Euskaltzaindia euskararentzat da, ordea; honentzat bizi den ber, dugu guk eskubide hemen Euskaltzaindiaz mintzatzeko. Euskarak burua jasotzeko dituen eragozpenak eta eskastasunak era askotakoak dira eta alderdi askotatik datoz. Horietatik asko eta askori erremedio jartzea ez dago gure eskuan: aitor dezagun hori lainoki.

Orduan Euskaltzaindiari iruditu zitzaion tresna bera —euskara, alegia— behar zuela ahalez barnetik sendotu eta gaitu, batasuna eta tinkotasuna hari emanez eta "tabu" itogarri batzuez hura askatuz. Badakigu euskarak dituen aje guztientzat ez dela hori sendabide erabatekoa eta osoa, baina hori behintzat egitea, noraezeko eta premia premiazkoa zela iruditu zitzaion Euskaltzaindiari; eta lan honi lotu zen Mitxelenaren gidaritzapean.

Bilbon 1958an egindako Biltzarraren ondorioz Ageri bat eman zen, hots, "Zein den euskal hitza", neurriz kanpoko purismo batek pilatutako oker-adituen artean erizpide zuzena eskainiz. Hamar urte geroago Arantzazun egiten da beste Biltzar bat, euskara standard edo batu bat moldatzen hasteko. Guztiok dakigu zu, Mitxelena, izan zinela Biltzar sonatu haren ardatz eta arima (eta bai Bilbokoarena ere). Zu izan zinen gidari eta giltzarri aditz batasuna egiteko jarri zen batzordean, eta, era berean, Hatxe letraren erabilpen arauak emateko jarri zen batzordean ere.

Zure eskariz jarri zen Dialektologi batzordea, tokian tokiko hizkeren bilketak egiteko, Euskararen Atlasa gertatzen hasteko, etab. Zure eskariz jarri ziren, baita ere, Gramatika batzordea eta Hiztegi batzordea. Eta euskalkiez ari naizela, ez da gaizki egongo Haritschelhar jaunak Bordelen esan zuena hemen aipatzea: "Contrairement à ce que pensent certains esprits chagrins, la formation et le développement d'un basque standard nécessaire pour la littérature, l'enseignement et les moyens de communication de masse n'ont pas pour but de faire mourir les divers dialectes de la langue basque. L'Académie attache au contraire une importance très grande à la recherche en dialectologie et Luis Michelena est le maître d'oeuvre de cet immense chantier".

Ikerketa munduan, literatur munduan etab. dituzun merezimenduak ere hor daude, baina dena esaterik ez dago.

* * *

Egun honetan (edo, hobe, gau honetan) har ezazu, jauna, Euskaltzaindiaren zoriona, Eta Euskaltzaindiarenakin batean enea. Euskaltzaindiaren zoriona eta eskerron aitortza.

Eta bukatzeko, eskaritxo bat, borondaterik onenaz egina: hiztegi hori, euskarak hain beharrezko duen hori, eman diezaguzula.

KOLDO MITXELENA, BARCELONAKO UNIBERTSITATE AUTONOMOTIK DOCTOR HONORIS CAUSA

E. Knörr

Urriak 3, 1983, Barcelonako Unibertsitate Autonomoaren paraninfoan, Koldo Mitxelena jauna Doctor honoris causa izan zen jantzia. Janzketa hori ikastaro-irekiera ospakizunean egin zen.

Mahaian honako jaun hauek eseri ziren: Jordi Pujol, Generalitate Lehendakaria; Joan Guitart, Hezkuntz Kontseilaria; Pedro M. Etxenike, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza eta Kultur Kontseilaria; Antoni Serra Ramoneda, Barcelonako Unibertsitate Autonomoaren Erretorea; Antoni M.ª Badia i Margarit, Barcelonako Unibertsitatearen Erretorea; Gregorio Monreal, Euskal Herriko Unibertsitatearen Erretorea; Gabriel Ferraté, Barcelonako Unibertsitate Politeknikoaren Erretorea; Miquel Martí, Generalitateko Unibertsitate-ikasketen Zuzendaria, eta Antoni Dalmau, Barcelonako Diputazio Lehendakaria.

Entzuleen artean, Unibertsitate bereko eta beste zenbaitetako irakasle eta ikasleak, Mitxelena jaunaren senideak eta adiskideak, euskaltzainak eta urgazleak.

1982-83 ikastaroaren Memoria Unibertsitate Idazkariak irakurri ondoren, irekiera-hitzaldia eman zuen Josep Egozcue i Cuixart jaunak, "De Quincey, von Neumann i el valor (Fantasia Teòrica)" gaia harturik. Jarraian, ohi den bezala, Mitxelena jauna deitua izan zen eta bi irakaslek lagundurik aretoan sartu zen, txalo luze beroaren artean.

Bere hitzaldian, Mitxelena jaunak hizkuntzalaritzari buruzko bere usteak eta gogoetak aipatu zituen, konparatismoa eta histori hizkuntzalaritzaren, alde batetik, eta estrukturalismoaren on-gaitzak, bestetik, labur baina zorrotz agertuz.

Ondoren, José Manuel Blecua, Hispani Filologia irakasleak Mitxelenaren bizitzaz eta lanaz mintzaldi ederra eman zuen.



Eskumatik ezkerretara: Lluís Barbé i Durán, Jose Manuel Blecua Perdices eta Koldo Mitxelena

Euskal Herriko Unibertsitatearen Erretoreak ere hitz egin zuen, Mitxelena euskaldunen demokrazi tradizioaren, hots, gure herriaren ondarerik hoberenaren erakusgarri zela.

Honoris causa Dotore berria goratu zuten, orobat, Serra Ramoneda Erretoreak eta Jordi Pujol Lehendakariak, zorion agiankatuz.

Bukaeran, *El cant de la senyera* eta *Gaudeamus igitur* kantez gain, Unibertsitatearen koro-orkestrek *Agur Jaunak* kanta eskaini zuten.

GERRA AURREKO *EUSKERA* BIR-ARGITARATUAK AURKEZTATZEAN

Bilbon, 1983, Uztailak 29

Fr. L. Villasante
Euskaltzainburua

Euskaltzainburuaren hitzak

Bizkaiko Diputazioko Kultur sailaren arduradun Patxi Zurikarai jauna.

Jaun-Andreak:

Euskaltzaindiak gaur bere hileroko batzarrea hemen Bilbon du. Ez da hileroko batzarre huts-soila, gainera. Ospaketa moduko bat erantsi nahi izan zaio gaurko batzarreari. Gaur eta hemen ospatu nahi izan dugu, alegia, lehen aroko **Euskera** agerkariaren bir-argitalpena, Euskaltzaindiak "Sendoa" argitaldariarekin batean burutu duena. Hor dituzue erreskadan jarriak kalera irten diren tomo guztiak. Oker ez banago, 17 dira.

Dakizuten bezala, Euskaltzaindia 1918 eta 19 an sortzen da. Eta martxan hasi zen puntutik, erabaki zuen agerkari bat behar zuela, **Euskera** izenekoa, eta Akademia jaioberriaren aldizkari ofiziala izango zena. Bertan argitaratu behar ziren Euskaltzaindiaren lan eta agiriak.

1920an irten ziren lehen zenbakiak, eta, hain zuzen, Frantziako Tolosa hirian, Edouard Privat-en etxean inprimatu ere. Aita Lhande jesuita izan zen **Euskera** agerkari honen lehen arduraduna, eta Aita honek Tolosan eskolak ematen zituelako, han bertan inprimarazten zituen zenbakiak. Gero Bilbora, eta, azkenik, Bermeoko Gaubeka etxera ekarri ziren; arduradunarentzat erosoago zen tokira, nunbait.

Esan beharrik ez dago gerra aurreko lehen aro hartan Euskaltzaindiak eman zituen erabakiak eta egin edo eragin zituen oinarrizko lanak daudela hemen. Adibidez: euskeraren ortografi arauak, euskeraren batasunari buruz Euskaltzaindiak antolatu zituen biltzarretako lanak eta egin arazi zuen txostena; Azkueren Morfologia, Gipuzkera Osotua eta Erronkariko euskalkiari buruzko azterketa; Altuberen "Erderismos", "El Acento Vasco" eta "La Vida del euskera"; Eguzkitzaren, Gerhard Bähr-en, Aita Intzaren, Landerretxe eta beste askoren lanak. Baita Euskaltzaindiak saritutako zenbait elaberri eta itzulpen ere. Horretaz gainera, batzarreetako agiriak, eta abar.

Gerra lehertu ondoren ere zenbaki solte eta urri bat agertzen da 1937an, baina guti zabaldu zen. Gerra ondoren, berriz, makina bat urtez **Euskera** irten gabe dago, eta 1953an zenbaki urri eta solte bat agertzen da gibel beldurti antzo, lehen aroko aldizkarien aurkibideak dakartzana. Oraingo bir-argitalpenean tomo berezi bat osatu

dugu bi zenbaki horiekin eta sekula orain arte argitaragabe zeuden batzarreetako agiriekin. Honela osatu dugu lehen aroko **Euskera**ren bir-argitalpena.

Esan behar da aspaldi agortuak zeudela gerra aurreko **Euskera** agerkariaren aleak. Eskabideak etortzen ziren, gero eta gehiago, eta ezin beroiei erantzun. Azkenean, Donostiako "Sendoa" etxearekin tratuan jarri zen Euskaltzaindia eta horrela burutu eta lortu da bir-argitalpen txukun eta apain hau. Eskerrak berari.

* * *

Señoras, Señores:

Euskaltzaindia, Real Academia de la Lengua Vasca, tiene hoy la satisfacción de poder presentar al público en este acto la reedición en facsímil de los tomos de su órgano oficial **Euskera**, correspondientes a la primera época, es decir, a la época anterior a la guerra. Con ello cree prestar un servicio no pequeño a cuantos se interesan por la cultura vasca. Por otra parte, es una contribución que le ha supuesto un esfuerzo importante. La vieja ilusión de reeditar estos tomos se ha visto por fin convertida en realidad gracias a la colaboración de la Editorial donostiarra Sendoa.

Tal vez opinaban algunos que la actual Euskaltzaindia, a la que ellos consideran en flagrante ruptura y desviación con respecto a la anterior a la guerra, no tenía ningún interés en sacar a luz las credenciales primigenias y auténticas de la primera época de la Institución, porque en ellas se hallaría sin duda el cuerpo del delito para acusarla de desviación. Se queda uno de piedra al leer en la prensa ciertos infundios que, por lo visto, aun tienen acogida en algunos espíritus, infundios sobre las negras intenciones de los trabajos que realiza la Academia, sobre su desviación, politización, ideologización, etc. Por enésima vez diremos que no hay tales intenciones ni tales desviaciones, sino una trayectoria fiel y leal a los designios fundacionales de la Institución. La Academia actual es la mismísima que las cuatro Diputaciones del País fundaron en 1918-1919, y se siente heredera de los mismos altos ideales que en sus pechos generosos nutrieron aquellos próceres académicos de la primera hora: Azkue, Altube, Eguzkitza, Lhande, Campión, Inza (que aun vive), Lacombe, Broussain, Landerretxe, Eleizalde, Olabide, etc. Pero esto no quiere decir, naturalmente, que no pueda y deba haber desarrollo ni evolución alguna. Pretenderlo sería antihumano y anticientífico y desconocer absolutamente la condición humana.

La prueba más clara de que la Academia de hoy no tiene nada que temer de la publicación de sus actas primigenias es esta reedición del órgano oficial de su primera época. Pero dejemos a un lado estas consideraciones, ya que extenderse en ellas sería hacer agravio a los presentes.

Sólo diré que basta hojear la tesis doctoral últimamente defendida por el Sr. Pierre Charritton en la Universidad de Burdeos acerca de la personalidad y trabajos de P. Broussain y de la relación de éste con Azkue (de la que hay constancia en un extenso epistolario) para ver hasta qué punto la actual Academia ha sido fiel y mantiene una continuidad que hasta resulta impresionante y conmovedora, continuidad, quiero decir, con las preocupaciones de sus fundadores y con las tareas que ellos consideraban ineludibles para sacar al euskera de su marasmo, etc. Yo diría que en ese epistolario está, al modo como está el roble en la bellota, o sea, en germen o embrión, todo el desarrollo posterior que la Academia viene conociendo a lo largo de sus sesenta y más años de vida.

Más de una vez hemos oído decir a investigadores como Michelena, que la colección de la revista **Euskera** de la primera época no debió de alcanzar la difusión que se merecía y que le correspondía por su calidad, ya que en muchos centros culturales y bibliotecas está ausente (si ya no es que por azares de la guerra desapareció, al menos de algunos de estos centros). De todas formas, la cosa no nos debe sorprender demasiado. Los comienzos de las Instituciones siempre suelen ser difíciles. Sólo poco a poco se van abriendo paso, a medida que la calidad de la obra que realizan va siendo reconocida y este reconocimiento les confiere el espaldarazo o consagración que en este caso resulta imprescindible. Pero para esto normalmente se requiere el transcurso de algunos años. Tampoco la situación socio económica y cultural del País en aquellas fechas era la más propicia para una difusión notable de una publicación de este tipo.

Es ahora, en nuestros días, cuando recibimos peticiones insistentes por parte de quienes quieren tener completa la colección de **Euskera**, órgano de la Academia. Y al no haber existencias de los números anteriores a la guerra ha habido que hacer esta reedición por el procedimiento de facsímil.

Aquí tenéis, colocados en ringlera, todos los tomos de **Euskera** desde que se fundó la Academia hasta 1936. Digo mal: también hay un tomo, el último, que reviste un carácter especial. En 1937, o sea, en plena guerra, salió un número aislado y de reducida paginación, que apenas tuvo difusión. Después **Euskera** enmudecerá durante un largo especio de años. En 1953 volvió a salir otro número esporádico y también exiguo. Pues bien, con el número de 1937 y el de 1953, más la publicación de las actas de sesiones inéditas que se han podido hallar en los archivos de Euskaltzaindia, se ha completado el último tomo y coronado así esta reedición de los tomos de **Euskera** de la primera época.

No hace falta extenderse en prolijas consideraciones sobre la transcendencia de esta reedición ya que, como decimos, se trata de unos tomos que eran práctica inasequibles o inalcanzables para la mayoría. Tomos, por otra parte, indispensables para el que quiere seguir la trayectoria de la Academia y de sus decisiones y deliberaciones en torno a la lengua vasca.

Euskera es el órgano oficial de Euskaltzaindia. Esto quiere decir que aquí están los documentos auténticos emanados de ella. Euskaltzaindia se funda en 1918-1919. Desde el primer instante comprende que es esencial a la Institución poseer su órgano propio en el que publicar sus actas, deliberaciones, decisiones, trabajos de investigación, etc. Todo ello se halla, efectivamente, editado en la colección de **Euskera**. Los acuerdos sobre la ortografía vasca, los dictámenes sobre la unificación del euskera (tema que algunos se creen que se lo han sacado de la manga los académicos de la postguerra, pero que está presente desde los inicios de la Academia y aun desde bastante antes), los grandes trabajos de Azkue, de Altube, de Eguzkitza, Landarretxe, Bähr, Echegaray (Carmelo y Bonifacio), Inza, etc., así como los trabajos literarios premiados en concursos organizados por la propia Academia: todo ello lo encontrará el lector en los tomos de la presente colección. En el último tomo se encuentran, además, los Indices de esta primera época de **Euskera,** que pueden prestar una ayuda preciosa para localizar fácil y prontamente el trabajo que se busca.

Sólo me resta dar las gracias a cuantos han contribuido a hacer que sea realidad este viejo sueño de reeditar la colección de **Euskera** de la primera época. Gracias muy particulares al académico Sr. Juan San Martín y a la Editorial Sendoa. Que el impor-

tante esfuerzo realizado se vea correspondido por la favorable acogida del público, de manera que la colección de **Euskera** desde hoy pueda figurar en todos los centros culturales y bibliotecas del País.

Huelga decir que en estos tomos de **Euskera** se recogen trabajos de la mayor importancia. Citemos algunos. Del Sr. Altube: "La lingüística y la vida del euskera", "Erderismos", "El Acento Vasco", "Observaciones al tratado de Morfología Vasca de Azkue", "La vida del euskera. Divulgación de los principios de la lingüística general aplicables a su defensa". De Azkue: "Morfología Vasca", Estudio del subdialecto aezkoano, "Particularidades del dialecto roncalés", "Gipuzkera Osotua" o ensayo de unificación del euskera, resúmenes del "Erizkizundi Irukoitza" o especie de Atlas lingüístico que la Academia realizó en los primeros años de su existencia, etc.

A título de anécdota diremos, para concluir, que los primeros números de **Euskera** se imprimieron en Toulouse (Francia), en casa de Edouard Privat. La razón de ello es que el jesuita, académico por Zuberoa, Pierre Lhande, fue el primer responsable de la publicación, y como él era catedrático de aquella Universidad, sin duda para poder controlar de cerca los trabajos de impresión, encargó ésta a dicha casa. Posteriormente **Euskera** se imprimió aquí en Bilbao y, por fin, en Bermeo en la casa Gaubeka. Me refiero a la época de la preguerra. En 1978 falleció el Sr. Gaubeka y la revista **Euskera** de 1979 no omitió el dedicarle un merecido recuerdo.

EUSKERA AGERKARIA BIRRARGITARATZEAZ

Bilbo, 1983-VII-29

Juan San Martin

Edozein erakundek, bere agiazko nortasunez instituzio sena izango badu, behar beharrezkoa du belaunik belaun erakundeari dagozkion ekintza propioak landuz ordezkatzen duen herriarentzat kultur ondasunak lortzea. Puntu honetan, uste dut, Euskaltzaindiak, urte larriak igaro baldin baditu ere, aski ongi bete dituela bere helburuak. Horren lekukorik aipagarriena dugu **Euskera** agerkaria.

Gure hizkuntzaren aldeko lanetan **Euskera** agerkaria harrobi handia dela esan beharrik ez dago. Euskarari eta euskal literaturari buruzko zernahi lan aurkitzen da bertan: euskararen kezka eta arrangura sentitu duten gizonei buruz, euskal idazle zaharrei buruz, euskalkien bilketa eta azterketak, testu zaharren edizioak, gramatika eta hiztegi lanak, euskara eta euskararen etorkiaz iker lanak, Euskaltzaindiaren eta euskararen kondairari dagozkion albisteak, biografi eta bibliografi lanak, eta, noski, Euskaltzaindia beraren erabaki eta agiriak, batzarreetako txostenak, etab.

Gerra aurreko 17 tomo eta gerra ondoko 9 tomoak ahituak daude, aspaldian. Eta premiazkoa zitzaion Euskaltzaindiari, batez ere Unibertsitatea, kultur erakunde berriak sortzeaz eta euskal katedradun Institutoak gehitzeaz **Euskera**-ko materialak eskuartean behar eta bilatzeko hain erraza ez zenez gero.

Hala ere, erakundearen ondareak aipatu ditudanez, egun, toki honetan, gogorazi beharra dut Bilbon Erriberako egoitza zaharrean bildu dugun ondasuna, agiritegi aberatsez, hizkuntzeri buruzko aldizkari espezializatuez, eta Azkuek utzitako liburutegia bera lau aldiz gehitua, 25.000 liburutik gora dituena eta zalantzarik gabe Euskal Herrian linguistikaz eta euskal literaturazko ondarerik aberatsena noski, eta ikasle eta ikertzaile guzien zerbitzurako jarria.

Baina, Euskaltzaindiak bere baitarik lortu dituen bilketa eta ikerketa lanak publikazioen bidez eskaintzen ditu eta horien artean lehena eta garrantzitsuena, erakundearen lan eta agiriak biltzen dituenez, arestian esan bezala, **Euskera** agerkaria du.

Agerkari hau 1920an sortua da, 1919ko agiriak publikatzez hasten baldin bada ere. Euskalariek ongi dakitenez, gure mende honetan euskarari buruz idatzi diren lanik gehienak eta garrantzitsuenak biltzen ditu. Hala ere, bere zabalkundea urria izan da, batez ere gerra aurreko garaian. 1930 eta 1933an Editorial Vasca, S. A. inprimategiari eginikako ordainketa agiriak erakusten digutenez, 250 ale baizik ez ziren argitaratzen. Horregatik zetozten edonondik birrargitaratze eskariak.

Gerra aurrean 250 ale argitaratzen baziren eta orain 1.000, kopuru horren araberaz ere, ukatu ezinezkoa zen birrargitaratze honen premia. Gaur egun, **Euskera** agerkariak 668 harpidedun ditu. Beretatik 586 abonaduak eta 82 aldizkarien trukean banatzen dira. Gainerako aleak soltean saltzen dira.

Euskal Herritik aparte 18 naziotan banatzen da **Euskera.** Unibertsitate, Hizkuntz Akademia, Kultur erakundeetan. Hogetahamarretik gora dira gure aldizkari hau jasotzen dutenak. Suedia da gorengo agertzen dena, aspaldidanik Goteborg, Upsala eta Lunds, hiru Unibertsitateak harpidedun direnez.

Lehen aro hartan izan zuen zabalkunde urria gainditzeko Sendoa, S. A. argitaldariari eman genion igaz birrargitaratze honen eskubidea. Bertatik, 30 ale jasotzen ditu Euskaltzaindiak, euskaltzain, biblioteka eta bere ordezkaritza bulegoetarako. Beste 200 ale saltzeko, argitaratzeileak Euskaltzaindiari, zabaltzaileei ohi den beherapenez emanez. Horietatik, oraingoz, 102 alerentzako harpidetza besterik ez dugu lortu, baina guziak saltzea espero dugu. Gainerakoan, beste 300 aleak Sendoa, S. A. argitaldariak bere kontutik salduko ditu. Eskubideak ematean egin genuen tratuaren arabera, gutienez bostehun aleko argitaratzea izango bait da.

Salmentan gauza bitxiak nabari dira. Institutoetako Euskal Katedrak hain beharrezkoa duten agerkari honen eskaririk ez dute egin, baina bai ordea katedratikoek partikularki. Edonork esan dezake Instituto horietako liburutegiak hornitzeko arduradunek ez dutela gure hizkuntzaren alde ez begiramenik, ez axolarik eta ezta ere kontzientziarik. Norbaitek zuzendu beharko ditu gauza horiek euskarak bere normalizapen bideak idekiko ba ditu.

Baina, batez ere barrura begira egin da birrargitaratze hau, eta esan beharrezkoa deritzat Mitxelena berak hontaz esan zidana, azken aldi honetan Euskaltzaindia gauzak ondo egiten ari dela eta ekintza onenetariko bat izan dela **Euskera** birrargitaratze hau, berari ere horko materialak eskuratzea asko kostatzen zitzaizkiolako.

Hizkuntza da gure herri honi nortasunik gehien ematen diona eta **Euskera** agerkariak Euskal Herrian kulturarako duen balioaz ondo jabetzeko aukera ederra eskaintzen digu. Hala ere zein guti ezagutzen zen. Baina, gaur egun oraindik aski ezaguna ote? Nik nere zalantzak ditut. Dena dela, herri bakoitzak, kulturaz, den bezalako neurria agertzen du eta arazo hau ere hortik neurtu beharko dugu.

Azkenik, adibide bat besterik ez. **Euskera**-ren aurkibide oso bat ere badela aditzera emateko (1). Gaur, aurkibide hoieri esker, iker lana errazago eraman ahal dezakete kontsulta egitean, autoreak edo gaiak bilatzean agerkari honekin jabetzen denak.

Bukatzeko, esan dezadan, ongi ziola euskaltzainburu jaunak birrargitaratze honi egin zion agurrezko hitzetan: "Lehen aro hartako tomoak bir-argitaratzeaz justiziazko egin bide edo zor bat bete besterik ez du egiten Euskaltzaindiak. Eta bien bitartean, euskal kulturaz arduratzen direnei zerbitzu bat eskaini".

(1) Lehena Fr. Luis Villasantek 1953ko zenbakian argitaratua. Beraz, aurkezten dugun sail honen hamazazpigarren tomoan bertan datorrena, eta geroago osatuago bat neronek prestatua: "Aurkibidea, Indice, Index. 1920-1979". **Euskera** XXV, 1980.

Resumen

La reediciôn de la revista **Euskera,** órgano de la Real Academia de la Lengua Vasa-Euskaltzaindia, fundada en 1920 para la publicación de trabajos y actas de esta entidad, entidad que un año antes comenzó su andadura al ser fundada por las cuatro Diputaciones, en nuestros días viene a ser muy solicitada por cuantos de alguna manera se interesan por los estudios de la lengua y literatura vasca por el cúmulo de materiales reunidos en ella. Hoy, junto con la Biblioteka Azkue, que cuenta ya con más de 25.000 volúmenes, además de una valiosa documentación, viene a suponer el patrimonio más importante de esta institución académica y su reedición venian reclamando todos los estudiosos interesados por nuestra lengua.

No es necesario subrayar que la revista **Euskera** es un buen medio para laborar en pro de nuestra lengua, pudiéndose hallar en ella todo tipo de trabajos: de personas que han sentido inquietud por el euskara, sobre temas de antiguos autores vascos, recopilaciones y análisis de los dialectos, ediciones de textos arcaicos, trabajos sobre gramática y vocabularios, estudios de investigación de la lengua y su origen, información histórica sobre la Academia de la Lengua, etc. En lo que a la vida interna de la Academia se refiere, resoluciones y actas de las sesiones, ponencias leídas en las mismas o en jornadas o simposios; trabajos bibliográficos, reseñas biográficas y bibliográficas de académicos y otros de la actividad propia de la Institución.

Diecisiete tomos de la época anterior la guerra del 36 así como nueve de la reanudación en época de postguerra están agotados, cuando por otra parte estos últimos años el interés por los estudios de la lengua se ha incrementado. Estas razones y la escasa difusión de la revista en su primera época y la demanda de consultas que se venian haciendo a la Academia han sido las razones que justifican esta reedición.

Nos consta que en aquella primera época se hacian unas tiradas muy restringidas, por ejemplo, de 250 ejemplares por los años treinta. Actualmente se viene publicando en tiradas de 1.000 ejemplares. Su distribución se hace de la siguiente manera: entre los 586 abonados fijos, 82 en intercambio con otras publicaciones culturales del pais y del extranjero, en su mayoria especializadas en estudios de lingüistica. Y el resto se va vendiendo por números sueltos. **Euskera,** fuera del pais se recibe en 18 naciones, y entre las mismas figuran una treintena de instituciones culturales. Una de las mejores acogidas se la dispensa en Suecia, donde están suscritas las Universidades de Goteborg, Upsala y Lunds.

De ahí esa necesidad imperiosa de la reedición de **Euskera.** Pues como bien manifestó el presidente de Euskaltzaindia en su saludo de presentación, que a modo de prólogo precede a la reedición: "La Academia, al reeditar los volúmenes de la primera época de **Euskera,** cree cumplir con un deber de justicia para sus mayores, al mismo tiempo que presta un servicio a cuantos se interesan por la cultura vasca".

Finalmente hay que decir que esta reedición se ha llevado a cabo gracias a la ayuda de la casa editora Sendoa, S. A., la que ha hecho posible que la venta se realice por ambas entidades. Y, tocante a este punto de las ventas, hemos de señalar que los Institutos del pais con cátedra de euskara aún no han adquirido para sus fondos de biblioteca, pero si los propios catedráticos a titulo personal. En ello hay algo que no funciona como deberia de funcionar en un pais donde se precia de una lengua que constituye uno de sus patrimonios más importantes.

El contenido general de **Euskera,** con índices de autores y materias, al objeto de facilitar el trabajo de consulta, se puede contemplar en un número publicado para los efectos en 1980. Pero el tomo 17, de la colección reeditada que ahora presentamos, ofrece los índices de la primera época (1).

(1) "Aurkibideak, Indices, Tables", **Euskera,** cuaderno 1, 1953, pp. 3-25. "Aurkibidea, Indice, Index. 1920-1979", **Euskera** XXV, 1980. 1-304.

MAILEGUZKO HITZEI BURUZKO II. JARDUNALDIEN KRONIKATXOA

Donostia, 1983, Azaroak 25

Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua

Jaun-Andreak:

Dakizutenez, aurtengo Urtarrilean, eta Uztaritzen, egin ziren gai honetaz Lehen Jardunaldiak. Oraingo hauek haien segida eta bukaera izan dira. Hartako batzordeñoak aldez aurretik jarri zuen programa, denbora faltaz, orduan ez zen dena osorik inguratu. Horregatik, aztertu gabe zegoen zatia ikusteko, eta denari gain-begiratu orokor bat emateko, jarri dira II. Jardunaldiok lehengo toki berean. Hogei eta bosten bat lagun bildu dira. Euskaltzain osoak 11: Hegoaldetik 6, Iparraldetik 5.

Urriak 28

Euskaltzainburuak hiru txosten labur irakurtzen ditu bana-banaka eta bakoitzaren ondoan eztabaida egiten da. Lehenbizikoa "V" letrari buruz: ea kultur mailegu berrietan "V" letra mantendu behar ote den. Txostengilea mantentzearen alde agertzen da. Elkar hizketa bizia sortzen da. Gehienen aburua ezezkoaren alde dago. Euskaldunen artean dogma bezalako bat sartu da: euskaraz "V"rik ez dela behar, eta horren kontra ez dago ezer egiterik. Beraz, atzerriko izen propio batzuetan izan ezik, badirudi hobe izango dela "V"rik ez erabiltzea. Bigarren txostena: ea ortografi etimologista erradikala euskarak gorde behar ote duen, frantsesak, alemanak eta ingelesak egiten duten bezala. Gai hau Urtarrileko Jardunaldietan ere tratatu zen pixka bat zeharka, eta orain berariaz. Gehienek, edo hobeki esan, denek, aho batez, ezezkoaren alde daude. Hirugarren txostena: kultur mailegu berrietan "H" onartu behar ote den. Txostengileak proposatzen zuen hitz-hasieratakoak eta bokalen artekoak gordetzea eta gainerako guztiak kentzea. Baina gehienen eritzia izan da "anhidrido", "deshidratazio" eta holakoetan ere gorde behar dela.

Gero *Patxi Goenagak* irakurri zuen bere txostena: "B" eta "P"ren aitzinean "M" ala "N" idatzi behar ote den (kultur mailegu berrietan, noski). "N"ren aldeko aburua agertu zen nagusi.

Ondoren *Xabier Kintanak* eta *Jose Luis Lizundiak* txosten bana azaldu zuten irentsi gabeko Exonimoei buruz. Kintana jaunak dio Sainduen izenak, Historiako pertsonaienak, Estatu eta Nazioenak, itsasoenak etab. euskaraz nola diren erabaki beharra dagoela. Batzarreak uste du beharrezkoen izenekin zerrenda bat egin behar dela, eta Kintanari agintzen zaio lana.

Azkenik, *L. M. Mujikak* azaltzen du bere txostena hitz barneko kontsonante multzoei buruz. Sail osoaren azalpena egiten du, kasu bakoitzean bere ustez hartu beharko litzatekeen bidea proposatuz: "KT", "KZ", "TS", "SZ", "BJ", "BS", "PT", "E" edo "N"ren ondoan "D" ala "T" jarri behar den, eta abar. Eztabaida bizia eta luzea sortzen da.

Eta honekin bukatu zen lehenbiziko eguna.

Urriak 29

Mujika jaunak alde egin behar izan duelako, Mikel Zalbidek hartzen du atzoko txostenaren eztabaidaren segida eta gidaritza. Multzoak mantentzearen alde dago gehienen eritzia. Baina aspaldiko maileguak direnean, beude beren aspaldiko itxuran: *dotrina, erretore, azio. -Tate* bukaera ere onartzen da: *Unibertsitate,* etab.

Ondoren *X. Kintanak* irakurtzen du txostena: "Beste zenbait hots lege zalantzazko". Ahoskatze problema batzuk ukitzen ditu. Gaur askok "Z" gaztelaniaz bezala ahoskatzen dutela eta hori salatu behar dela dio. Eskatzen du, baita ere, *yeismoz* kutsaturik daudenek bustidura egin gabe ahoska ditzatela hitzak: *mutila,* etab. "S" ala "Z"ren arazoa ere ukitzen du (politizatu, zozialisma); "F" eta "P"ren arazoa, hitzen bukaerako "DORE"/"TORE", "DADE"/"TATE" etab.

Txostenen eztabaidatzea bukatu ondoan, aurreko Jardunaldien Akordio akta eta Azalpena irakurtzen dira, oharrak egiteko eta Jardunaldi hauen ondorio gisa Euskaltzaindiari zer eskatu behar zaion ikusteko. Irigoien jaunak dio Euskaltzaindiak bere esistentzia justifikatzeko duen bide bakarra normak ematea dela, eta hau lehen mailan ipini behar duela. Ibon Sarasolak dio lan egin behar dela, baina ongi eta behar den denbora hartuz. Lizundiak gaineratzen du gaur presa dagoela, eta nahi ez nahi, zerbait egin behar duela Euskaltzaindiak, zeren eta euskarak ofizialtasun maila baitu, eta bai Administrazio, bai Irakaskuntzatik etab. egunoro eskabide premiatsuak datozkio.

Mikel Zalbideri eskatzen zaio II. Jardunaldi hauen azalpen bat idazkiz egin dezan, lehenbizikoena egin duen bezala.

Iluntze aldean euskaltzain osoak bildu ziren eta zabalkunderako Adierazpen bat egin eta onartu zuten.

VIENAKO EUSKAL GRABAKETAK

Donostia, 1983-XI-25

Jose M.ª Etxebarria

1. Nola agertu ziran

P. Xarriton jaunak bilatu zuen Broussain jaunaren grabaketa bat Vienako fonoteka batean: Fonogrammarchiv izena du.

Nik fonoteka horretan egoteko era izan nuen eta grabaketa horien berri eskatu nuenean, lehenengo grabaketen katalogoa utzi zidaten. Ikusi nuenean han agertu ziren ia euskalki guztietan egindako grabaketak. Uste nuen baino gauza gehiago azaldu ziren. Gero 'protokolo' izeneko orriak ekarri zizkidaten traskribaketez.

Denetara, 68 gramofono disko dira: 2 ordu eta 20 minutu, 1913ko udan, hemen jasoak.

2. Nork egin zituen

Austriatar batek egin zituen. Beraren izena Rudolf Trebisch. Ikasketaz fisikoa zen baina folklore eta etnografia zalea ere bai. Eta Fonogrammarchiv delako horren zuzendaria zen, grabaketa hauek egin zituenean. Fonoteka hori, munduan dagoenik zaharrena da eta beste alde, bazegon orduan, eta badago orain, bai hizkuntzei buruz eta bai dialektoei buruz zabaltasun joera bat. Horregatik Austrian bertan erabiltzen diren dialekto guztien grabaketak dituzte, eta kanpoko mintzaira eta dialektoenak ere bai.

Jaun horrek ba, Europako herri txiki batzuetako mintzairak grabatu zituen eta hona ere etorri zen.

Ez dakit beraren tresnez batetik bestera ibili zen, ala herri baten jarri eta hara deitzen zituen beraren lekukoak. Uste dut bigarren joera hau erabili zuela. Dena dela, haren disko eta tresnak hartu eta Vienara itzuli zen eta han beraien fonoteka horretan gorde zituen. Eta gaur arte han egon dira, guar hori hitzez hartuta, 1983.an izan dugulako grabaketa horien berri.

3. Non egin zituen grabaketak

Herriak dauden ordenan jarriko ditut eta ez euskalkiz euskalki.

Saren, 2 lekukori
Hazparnen 3 lekukori

Amorotzen, lekuko 1i.
Behauzen, lekuko 1i.
Bardozen, lekuko 1i.
Donibane Garazi, 2 lekukori.
Baigorri Garazi, 2 lekukori.
Maule, lekuko 1i.

Bergara 2.
Azpeitia 2.
Lizartza 1.
Ataun 1.
Tolosa 3.
Garindañe 1.
Bildoze 1.
Santa Grazi 2.
Barkoxe 2.
Atharratze musika.
Ainhoa 2.
Lekeitio 2. Bat R. M.ª de Azkue bera.
Markiña 2.
Mungia 2.
Orbaizta 2 Aurizperrin jaioak.
Ustarroze 1.
2243garrena, Iruñekoa da, baina jota bat.
Elizondo 2. 1 Maian jaioa.

Beraren asmoa ez zen linguistika lan bat egitea, etnografiazko lan bat baizik. Beraren bizibidea 'etnograph' jartzen du.

4. Traskribatzaileak

Bost dira: Julio de Urquijo, G. Lacombe, Gabriel Roby, R. M. de Azkue eta Gregorio de Mujika.

Ez dira zehatzegiak, eta berrikusi beharra dago, baina laguntza ematen dute traskribaketa zorrotzagoak egiteko.

5. Nolako testuak dauden

Testo libreak dira. Batek ipuin bat kontatzen du, beste batek abesti bat kantatu, besta batek bere bizitzako zerbait. Abestien artean 'Agota' erromantzea osorik agertzen da eta Santa Agedaren eskari kanta bat ere bai.

6. Grabaketen eskabidea

Grabaketa hauen kopien eskabidea eginda dago aurtengo Urrian. Eta erantzuna baiezkoaz jasota ere. Dena dela, horrenbeste diskoren kopiak egitea ez da gauza erreza eta urtea bukatu baino lehenago esku artean izango ditugulako hitza hartuta daukagu.

7. Beste grabaketa batzuk

Berlingo fonoteka batean ere bazeuden beste grabaketa batzuk H. Urtel-ek jasoak. Jaun honek 1. munduko guduan preso harrapatutako Ipar aldeko gudari euskaldunei grabaketak egin zizkien diskoetan. Grabaketa horiek Berlinen zeuden, baina ez dakigu zer gertatu zen fonoteka horretaz 2. munduko guduan. Hauen berri jakiteko, Aleminiako beste orain daukaten fonoteka nagusi batetara idatzi dugu, grabaketa horien berriren bat jakiteko.

8. Eta hemen zer?

Ematen du euskalkien fonoteka bat egiteko tokirik egokiena Euskal Herria izango litzatekela. Baina hori ez dago nire eskuetan. Eta fonoteka aipatzen dudanean, ez ditut aipatzen kasetetan egindako grabaketak, oso borondate onez eta lan askoz eginak, baina fonoteka batetarako nahiko ez direnak. Aipatu nahi ditut tresna tekniko egokiez egindako lanak, bai magnetofoi aldetik, bai zinda aldetik, eta bai mikrofono aldetik. Aipatu nahi ditut, egoitza, leku edo arasa egokiak surengandik, urarengandik, hautsarengandik, beroarengandik eta beste indar kaltegarri batzuengandik, horrelako grabaketak estaltzeko hainakoak.

Eta besterik ez. Orain Broussainen grabaketa entzungo dugu.

DIALEKTOLOGIA BARNE JARDUNALDIAK

Markina, 1983-IX-25

Jose M.ª Etxebarria

Akta honen bidez Euskaltzaindiari eta zuei, Dialektologia Jardunaldien berri emongo deutsuegu. Batzordeko aktan agertuko dira zehatzago partaideak eta egin diran lanak.

Jardunaldi honein egitaraua hau izan zan:

1. Traskribaketak zelan egin.

2. Itaunketa zeri buruz.

3. Organigrama atlasa martxan jartzeko.

1. Horretarako erabiliko dogun alfabeto fonetikoa erabaki dogu puntu nagusietan eta itaunketaren zati nagusienak aukeratzeko erizpide batzuk jaso ditugu. Lan honetan Dialektologia batzordekorik gehienak egon dira eta J. Allières Toulous-eko unibertsitateko irakaslea eta Georges Rebuschi Nancy-ko unibertsitatekoak heuren laguntza emon deuskue.

Plangintza hau betetzeko organigrama barri bat aurkeztu deuskue Euskaltzaindiko batzar iraunkorrekoak eta hori be eztabaidatu dogu. Iritzi desbardinak kontuan izanik onartu dogu organigrama hau. Dialektologia batzordearen barruan azpibatzorde honeik egongo dira:

– Kontseilarien batzordea: J. Allières, A. Irigoien, K. Mitxelena, B. Oyharzabal, G. Rebuschi eta K. Rotaetxe.

– Batzorde teknikoa: J. Haritschelhar, G. Aurrekoetxea, Ana M.ª Etxaide, Ch. Videgain eta idazkari bezala, J. M.ª Etxebarria.

– Lankideak: orainarte Dielaktologia batzordeko izan diran guztiak gura badabe.

Kontseilari batzordearen zeregina, sortzen diran zalantzak eta eztabaidak argitzea izango da eta eskatuko jakezan itauneri erantzutea.

Batzordde teknikoaren zeregina, itaunketa prestatu, eta plangintza egin hori betetzeko. Lan guztiaren arduradun nagusiak izango dira.

Idazkariak batzorde teknikoaren erabakiak bete eta betearazoko ditu, bai itaunketari buruz, bai grabaketei buruz eta bai plangintzari buruz. Batzorde teknikoak iritziak emongo ditu baina botorik ez dau izango.

Lankideak: itaunketa prestatzerakoan, eta grabaketak egiterakoan parte hartu eta gero grabaketak eta traskribaketak egiterakoan erabakiko diran baldintzak bete.

Kontseilarien eta lankideen batzordea ez dira itxiak oraingoz.

Gero Vienan dagozan grabaketa batzuen barri jakin gendun J. M. Etxebarriaren bitartez eta Ana Etxaidek saio legez egin diran grabaketak aztertu zituen.

AKITANIAKO LIBURUGINTZAZ BILERAK PABEN

Juan San Martin

Centre Régional des Lettres d'Aquitaine erakundeak antolaturik egile eta liburugintzaren harremanezko bilerak egin ziren Paben 1983.eko Abenduaren 2, 3 eta 4ean.

Bigarren eguneko goiz guzia Euskal Herriari eskainitako mahaiaurrekoa izan zen. Euskal liburuari bereziki. André Labarrere jauna, Akitaniako Le Conseil Municipal, Le Centre Régional des Lettres erakundearen eta Frantziako Parlamentoaren harremanetarako ministroaren ordezkari dena mahaiburu zela, honako hauek mintzatu ziren:

Jean Haritschelhar jauna, Baionako Euskal Museoko zuzendari eta Bordeleko Unibertsitatean irakasle dena, Euskal Herriko liburu inprimaketen historiaz mintzatu zen, XV. mendetik XIX.era bitartean.

Juan San Martin jauna, Euskaltzaindiko Jagon Sailburua azken urte hauetako euskarazko liburugintzaz.

Anjel Lertxundi jauna, Euskal Idazleen Elkartearen Buruak euskal autoreak eta sorketazko lanari buruz.

Jose Mari Velez de Mendizabal jauna, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Kontseilari Ordeak euskarazko liburugintzan daramaten politikaz.

Hitzaldi laburrok informaketazkoak izan ziren eta entzuleen artean elkarrizketak jarraitu zuten gai interesgarri honi buruz.

Egun berean, arratsaldez, liburu azoka ideki zen Euskal Herriko ordezkarien partaidetzaz eta euskarazko liburuei toki berezi bat eskainiz.

1984. URTERAKO EUSKALTZAINDIAREN BATZAR EGUTEGIA

Donostia, 1983-XII-30

Jose Luis Lizundia

Heldu den urteko batzar egutegiaz prestatu dut txosten hau, Jon Bilbaoren bibliografiari begirada bat eman ondoren; Villasante eta Onaindiaren *Euskal literaturaren* liburuak aztertu ditut, proposamen hau prestatzeko.

Hasteko, gauza bat azpimarratu nahi nuke eta da Campionen Gramatikaren mendeurrenari, eta beraz Euskaltzaindiaren X. Biltzarrari, eman behar diogula datorren urtean primantza. Horretan murgiltzea dagokio Euskaltzaindiari batez ere, beste ezerk itzalik ez diezaion egin. Horregatik, hortik landa, Jardunaldi bakar batera mugatuko genuke, hileroko batzarretatik kanpoko ekintza bezala eta nire ustez, Dialektologiakoa hain zuzen, gero aipatuko ditudan arrazoiengatik.

Mendeurrenei dagokienez, hauek nabarmentzen ditut Euskaltzainburuari kontsultatu ondoren: 1. Arturo Campionen *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara,* 2. Jean Saint-Pierre euskaltzainaren sortzearen ehun-urteburua, 3. Jose Manterolaren heriotzaren mendeurrena, 4. Nazario Oleaga Euskaltzaindiko Idazkari izan zenaren jaiotzako ehun-urteburua eta 5. Ignacio M.ª Etxaide Euskaltzainburu izan zenaren sortze mendeurrena.

Manterola eta Etxaide donostiarrak zirenez eta Oleaga bilbotarra, hiriburu hauetan eta hileroko batzarretan bertan, ospatzea derizkiot bidezkoena, zeren eta horretara, ez baititugu goizeko euskaltzain osoen eta batzordeen bilkurak galtzen, arratsaldekoan haiei buruzko lanak eskainiz, mendeurrena antolatuz.

* * *

Arturo Campionen eta beronen *Gramática Bascongada* delakoa gogoratuz, antolatuko genuke beraz 1984.eko ospakizunik nagusiena, X. Biltzarra. Egunak, Ekaineko hileroko batzarrean tratatu bezala, *Irailaren 25,26, 27, 28 eta 29a* izango lirateke eta erabat hauetan finkatu. Ez bakarrik hau, gehiago oraindik, Euskal Herriko Instituzio, Elkarte eta Taldeei, Kulturako eta ofizialei batez ere, berri hau adierazi, ahal delarik, interferentziarik edo ez dezagun izan. Agian, aurreko larunbat-igandean, 22-23an, eta Biltzarra prezeski inaguratu baino lehen, inoiz aipatu dugun Akademi arteko bilkura egin genezake. Oroitu bestela, nola 1968an, eta Iruñean bertan, gomitatu genituen Real Academia Española, Real Academia Gallega, Institut d'Estudis Catalans, Lo Rat Penat eta Obra Cultural Balearrekoak, Euskaltzaindiaren Urre Ezteiei hasiera emanez. Era honetan gainera, bereiztuko genituzke protokolozko ekintzak (Diputazio eta beste) eta Biltzarra bera bere Kongresu akademiko zentzu

hertsian. Dena dela, guztiau goroago zehaz daiteke. Urtarrilean bertan bildu beharko gara Gramatika Batzordearen azpibatzorde eragilea eta Biltzarreko Antolakizun Batzordea, elkarrekin antolakizuneko zenbait gai minimo zihurtatzeko.

* * *

Jean Saint-Pierre Lapurdiko Milafrangan sortu zen 1884.eko Martxoaren 28an, euskaltzain oso izendatu zen 1949.eko Irailaren 30ean, F. Krutwigek proposaturik. Euskal idazle hau Cartagoko apezpiku laguntzaile izan zen eta beraren euskaldungoaren berri zehatzak *Gure Herria* aldizkarian agertu dira, bai 1951.eko "Hazaro-Abendo"koan, baita "Hommage de seis amis a Monseigneur Jean Saint-Pierre - Jean Saint-Pierre jaun Aphezpikuari adichkidek omenez" liburu berezian eta, gero, baita hurrengokoan, alegia, Urtarril-Otsailekoan. Bertan, Xalbador bertsolaria, Telesforo Monzon, Constantin, Etxahun, Oxobi, Iratzeder eta Lafitte izan ziren lankide besteak beste. Azken biok, gurekin ditugunez gero, gehi dezakete guk baino hobeto Saint-Pierren berri, batez ere, Lafittek, beronena izan bai zen "Le linguiste et l'écrivain basque" izeneko lana. Ene ustez, Saint-Pierrek merezi du Euskaltzaindiak, beraren omenez, mendeurrena ospatzea. Horregatik, ez Martxoan, hurbilegi baitago, eta hil horretan beste gertakizun batzuk egon daitezke, baina bai Maiatzaren 31an, Asentzio egunean, Iparraldean jai eguna baita, egin daiteke haren omenezko batzarra. Bide batez, urtero egiten ditugun Dialektologi Jardunaldiak, IV.ak hain zuzen, egin ditzakegu, Beran ereindako haziak urtero eman baitu fruitu bat Deban, Donaixti-Ibarren eta Markinan aurten. Era horretara, Lapurdin oraingoan, egin daitezke eta gai nagusia Atlas Linguistikoaren inkesta burutzea eta aurkeztea izanik. Jardunaldi hauek Ekainaren 1 eta 2an, beraz ostiral-larunbatean, Landagoienen egin daitezke. Ez Saint-Pierren omenaldiaren aurrean, ostean baizik, Iparraldean izango den "zubia"z baliaturik. Bestalde, Milafrangatik Uztaritzera 6 bat kilometro bakarrik daude eta lehendabiziko herrian egin daitezke mendeurren ospakizunak eta Jardunaldiak bigarrenean.

* * *

Jose Manterola Beldarrain Donostian jaio zen eta hiri berean hil zen 1884.eko Otsailaren 29an, Aita Onaindiak xehetasuna ongi badakar. *Euskalerria* aldizkaria sortu eta zuzentzeagatik bakarrik merezi du euskaltzaleon oroimena. Horrez gainera, *El cancionero vasco* aipatzen badugu, Donostiako "Lore Jokoen" antolakizuna eta beste zenbait lan, argi asko gelditzen da Manterolaren nortasuna euskaldungoaren munduan. Horregatik proposatzen dut Euskaltzaindiak hasi behar duela, bere hileroko batzarrean, azken ostiralekoan hain zuzen, Manterolaren aldeko ospakizuna. Gero beste erakunderen batek, Udalak edo beste norbaitek, zerbait egitea nahi badu, mendeurren edo beste egunen baten, askoz hobe. Gure partetik eta hileroko batzarra, goizean, normal eginik, arratsaldekoa berari eskainiko genioke, beraren bizitza, aldizkariko lan eta kantutegia, adibidez, aztertuz. Horretaz nor arduratuko litzatekeen ez da nire egitekoa, baina eguna hain urrun ez dagoenez gero, gaur bertan pentsatu beharko litzateke.

* * *

Nazario Oleaga Muguruza Bilbon jaio zen 1884.eko Uztailaren 8an, beraren semeak betetako fitxak dioskunez, Zazpi Kaleetako Rondan eta hain zuzen, Unamuno jaio zen etxe berean. Aita Onaindiaren eritziz Uztailaren 28an sortu zen, ordea. Hasiera-

tik euskaltzain urgazle, urte askotan Euskaltzaindiko Idazkari, aurretik, 1922an, **Euskera** agerkarimen zuzendari. Legegizona izan zen. Zeanuriko Udal Idazkari eta foralista. *Zurtasun gogoa* liburuaren egile. Bertsolari Txapelketetan ere partaide izan zen eta oroitzen naiz, orain urte asko, gerra ostean Bizkaian egin zen lehendabiziko bertso saio publikoan, noia ikusi nuen Urkiolan beraren kapela eta guzti. Euskaltzaindiak, bere arautze eta egituratzean, dudarik gabe, asko zor dio Nazario Oleagari. Beraz, ene ustez, Uztaileko batzarra Bilbon egin daiteke, arratsaldekoa haren omenez eratuz. Ahal balitz, bide batez, Plaza Barriko Egoitza berrian egitea, askoz hobe. Dena dela, Egoitza berriaren inaguraketa geroagokoa izango litzatekela ere pentsatu behar dugu, Azarorako agian. Beste alternatiba bat izan daiteke baita ere, eta Iruñean egiterik ez balego, inaguraketa honen inguruan antolatu, Akademiekin egiteko dugun harreman bilkura ere.

* * *

Azkenik, Inazio M.ª Etxaide Lizasoainen mendeurrena dugu heldu den urtean. 1884.eko Abenduaren 1ean jaio omen zen. Etengabeko langilea izan zen euskal arloan eta liburu hauen egile behintzat: *Subfijación, Prefijación y Composición en el idioma eúskaro; Tratado de Sintaxis en el idioma eúskaro; El Verbo Vascongado; Sobre el origen y parentesco del pueblo eúskaro y su idioma; Desarrollo de las Cunjugaciones eúskaras Perifrásticas y Sintéticas; respetuosas y familiares; Telefonoaren sortze eta aurrerapena. Euskal Esnalea,* **Euskera** eta *B. R. S. B. A. P.*en idatzi zuen, baina oroz gain, Euskaltzainburua Akademiaren urterik txarrenetan. Bestalde, beraren seme-alaba bi ere euskaltzain urgazle ditugu. Nire proposamena hau da, datorren urteko Abenduko batzarra, hemen Donostian, haren omenez eratzea.

* * *

Guzti hau kontutan izanda eta Barne Erregelen 13. artikulua aurrean dugularik, Donostian egingo ditugu batzar arruntak, bat edo batzuk Egoitzak eta bat edo bat beste herrialdeetan. Horregatik, Gasteizko Ordezkaritzan, ez dakigu oraingoan, edo berrian, jartzen dugu batzarretariko bat. Azken urteotan, normalean, ez dugu Abuztuan batzarrik egiten, baina agian, datorren urtean, Iraileko Biltzarra prestatzeko egin beharra egon daiteke eta bada ez bada, kalendarioan jartzera goaz. Beraz, egutegi hau erabakitzea proposatzen dut 1984. urterako:

Urtarrilaren 27an,	hileroko goiz eta arratsaldeko batzar arruntak, Donostian.
Otsailaren 24ean,	hileroko goizeko batzar arrunta, Donostian eta arratsaldekoa bertan, Jose Manterolaren omenez.
Martxoaren 30ean,	hileroko goiz eta arratsaldeko batzar arruntak, Gasteizen.
Apirilaren 27an,	hileroko goiz eta arratsaldeko batzar arruntak, Donostian.
Maiatzaren 31an,	hileroko batzarra Milafrangan, Saint-Pierren omenez eta Ekainaren 1 eta 2an, IV. Dialektologi Jardunaldiak (Atlas Linguistikoaz), Uztaritzen.
Ekainaren 29an,	hileroko goiz eta arratsaldeko batzar arruntak, Donostian.
Uztailaren 26an,	hileroko goizeko batzar arrunta, Euskaltzaindiaren Egoitzan eta arratsaldekoa, Bilbon bertan, Nazario Oleagaren omenez.

Abuztuaren 31an?	agian, goiz eta arratsaldeko batzar arruntak, Donostian.
Irailaren 25-29,	Euskaltzaindiaren X. Biltzarra, Iruñean.
Urriaren 26an,	hileroko goiz eta arratsaldeko batzar arruntak, Donostian.
Azaroaren 30ean,	hileroko goiz eta arratsaldeko batzar arruntak, Bilbon.
Abenduaren 28an,	hileroko goizeko batzar arrunta, Donostian eta arratsaldekoa bertan, Inazio M.ª Etxaideren omenez. Nahi izanik, batzar hauek aurrera daitezke aste bete, 21era, Santo Tomas egunera.

MARKINAKO EUSKAL LORA JOKOAK

1983-IX-25

Jose Antonio Arana Martija

1983an Markinan egin ziren Euskal Jaien mendeurrena ospatzeko, 1983. eko Irailean antolatu zituen bertako Udalak Euskal Lora Jokoak lau sailetan, hots, Saiakera, Olerkia, Antzerkia eta Narrazio laburra, eta sail bakoitzaren irabazleari 250.000, 200.000, 150.000 eta 100.0000 pezetako saria emateko, epai-mahaikoak izendatzea Euskaltzaindiaren eskuetan utzi zuen Udalak.

Saiakera eta Antzerki sarien irabazlea aukeratzeko, Jose Antonio Arana Martija, Juan Angel Etxebarria Martin eta Xabier Gereño Arrarte Euskaltzain Urgazleak izendatu zituen Euskaltzaindiak eta beste sarien epai-mahaikotzat Juan San Martin Ortiz de Zarate Euskaltzaina eta berarekin batera Juan Maria Lekuona Berasategi eta Karlos Otegi Lakuntza Euskaltzain Urgazleak Olerkiaren sariarentzat eta Juan Maria Lekuona Berasategi eta Arantza Urretavizcaya Bejarano, Euskaltzain Urgazlea hau ere, Narratiba laburra sariarentzat.

Irailaren 30an bildu ziren Bilbon Saiakera eta Antzerki sailetako epai-mahaikoak eta egun berean, Donostian, Olerki eta Narratiba laburra sailekoak, sailka erabaki hau hartuz:

1. Saiakera. "Xemeingo Ezpatadantza" aurkeztutako lan bakarrari saria ematea. Erroteta izenordearekin azaldu ziren egileak hauek ziren: Felipe Amutxategi Duralde, Iñaki Irigoien Etxeberria eta Franzisko Xabier Garitaonandia Sardui.

2. Olerkia. Aurkeztutako bi lanetatik, "bertso helduak, bihotz barnean bilduak" delakoaren lanari saria ematea. Luis Baraiazarra Txertudi izan zen irabazlea.

3. Antzerkia. Aurkeztutako bi lanetatik, "Mendi ta itxaso" delakoaren lanari saria ematea. Itxasmendi izenordearekin azaldu zen egilea Augustin Zubikarai izan zen.

4. Narratiba laburra. Aurkeztutako 16 lanetatik, "Arroxali" delakoaren lanari saria ematea. Juan Maria Atutxa izan zen egile saritua.

Urriaren 2an, Salvador Madrazo, Gernikako Notariaren aurrean, zabaldu ziren jendaurrean lehiaketako plikak eta aipatutako egileak agertu ziren irabazle.

EUSKALTZAINDIA KULTUR MINISTROAK DEITUA

Euskaltzaindiak Kulturako Ministro den Javier Solana jaun txit agurgarriaren deia hartu zuen 1983ko Uztailaren bukaeran eta baiezkoa eman ondorean Irailaren 22.a hautatu zuen bisitarako. Egun horretan Fr. Luis Villasante, Enrike Knörr eta Juan San Martin errezibitu zituen, Euskaltzainburua, Diruzaina eta Jagon sailburua hain zuzen.

Ministro jaunaren gogoko zen Euskaltzaindiaren egoera, ekintzak eta premiak ezagutzea. Horregatik, Oiñatin 1918. urtean egin zen batzarraren berri eman zitzaion, handik nola sortu zen erakunde hau eta geroztik Araba, Bizkaia, Gipuzkoa ta Nafarroako Diputazioen babespean nola jarraitu duen. Erakunde ofizial bezala, Euskaltzaindiaren arautegia eta egitura zer diren, Iker eta Jagon sailen izateaz, lanerako batzordeen organigramaz eta abar. Gudak sortutako etena eta gudaondoreko urte neketsuena, laguntzarik urri eta beharra ugari. 1976. urtean Erret Dekretuz onartzea nola etorri zen eta geroztik hartzen dituen laguntzek eman dioten bizkortasuna, baina hizkuntzaren premia handiak erakutsiz.

Erakunde ofizialekin ditugun harremanen artean bereziki azpimarratu zitzaion Hezkuntza Ministeritzarekin izan ditugun harremanak. Beste Akademiekin eta Euskal Katedradun Unibertsitateekin ditugun harremanak eta abar.

Aurrera begira ditugun projektu nagusiak zer diren: Bizkaiko Foru Diputazioak agindua duen etxeberrian behinbetiko egoitza jartzea bulego, agiritegi eta biblioteka egoki jartzeaz gainera, mikrofitxadorea, bere irakurgailuz eta fotokopiadoraz jartzea. Agiritegi eta ikerketetarako hain beharrezko ikusten dugun ordenadorea jartzea, hasteko zorian garan Atlas Linguistikoa aurrera eroatea Eusko Jaurlaritzak horretarako eskaintzen digun diru laguntzaz, Dialektologia ikerketak bultzatzea, soziolinguistika estudioak gaurkotzeaz. Hiztegi orokorra egiteaz, Gramatika normatiboa bideratzeaz, Euskararen Lekukoak liburu sailaren jarraipenez, sorketazko literatura indartzeaz eta abar.

Premia horien arabera, dirulaguntza fijoa hobetzeko Hezkuntzako Ministroari ber-berak egingo zion eskariaz gainera, berak subentzioz laguntzeko gogoa agertu zuen eta Euskaltzaindiak, etxeberrian bere egoitza, agiritegia eta biblioteka atontzeko beharrezko zuenaz aparte ordenadore bat erostearen eskaria egin zion.

AKADEMIEN ARTEKO HARREMANAK

1983aren hasieran pentsatu zuen Euskaltzaindiko zuzendaritzak Akademien arteko harremanetan sartzea, batez ere Galizia eta Kataluñakoekin hiru autonomiadun komunitateetan hizkuntzak zuten harrera ikusiz elkarri laguntzeko asmoz.

Apirilaren 11.ean, Jagon sailburua eta ekonomi eragilea Barcelona-ra joan ziren, Hifi Audio, S. A. etxean Dialektologiarako erabiltzen diren UHER magnetofoiak han berrikusteaz aparte, Institut d'Estudis Catalans-eko idazkari nagusi den Ramon Aramon i Serra jaunarekin mintzatzeko. Harreman iraunkor batzuetarako jardunaldi bat antolatzeari lehen pausoa eman zitzaion. Institut d'Estudis Catalansen egoitza berria erakutsi ziguten eta Enciclopedia Catalana egiten ari diren bulego eta agiritegia.

Apirilaren 18an, arestian aipaturiko euskaltzainkide biak eta idazkari ordea joan ziren Galiziara. Santiagon izan zuten lehen elkarrizketa Real Academia Gallegako Marino Dónega idazkariarekin eta Ramón Piñeiro eta Carlos Casares akademikoekin. Asmoa onartzen zuten, baina Real Academia Española ere tartean sartzea kontutan hartzekoa ikusten zuten. Gure aldetik ere horretarako eragozpenik ez genuen ikusten. Elkarrekiko egoera desberdinak begiratu ondorean Real Academia Españolak bere aldetik onartu lezakean ala ez, beraiekin kontsultatu behar zen. Biharamunean Coruñan Real Academia Gallegaren egoitza bisitatu genuen.

Zuzendaritzari kontu eman ondoren eta Institut d'Estudis Catalans-goekin konsultatuz gero, Madrid-era ere bidaia bat egitea erabaki zen.

Bidaia biotatik anitz liburu eta informazioa ekarri zen Euskaltzaindirako, bertako erakundeak erregalatuak.

Maiatzaren 29an Real Academia Españolan egingo zen literatura sari banatzerako komidatuak ziren Euskaltzaindiko Diruzaina eta Jagon sailburua eta gai honetaz mintzatzeko aprobetxatzea pentsatu zuten. Egun berean, sari banatzearen ondorean batzartu ziren Pedro Lain Entralgo buruarekin eta Antonio Tovar akademikoarekin. Hau lehendik telefonoz informatua zen eta laster sartu ziren gaian. Gogoz hartu zuten gure asmoa, berek ere inoiz erabili omen dute holako asmorik eta oso premiazkoa ikusten dute lau hizkuntzen erakunde nagusiak elkarrekin jardunaldiak egitea.

Geroztik izan dira beste zenbait harreman, Uztailaren 25ean Institut d'Estudis Catalans-eko Jordi Carbonell jaunaren bisita eta berakin elkarturik eman zitzaion lehen projektuari orraztapena.

Akademien arteko jardunaldia edo jardunaldiak honetan oinarrituko lirakete:

Partaideak: Real Academia Española, Real Academia Gallega, Institut d'Estudis Catalans eta Euskaltzaindia.

Informazio gisa elkarren artean agiriak eskaintzea: a) Erakunde bakoitzaren historia laburra; b) Erakunde bakoitzaren antolakizun eta egitura; c) Arautegia eta helburuak; d) Ekintza eta bizibiderako hartzen dituen laguntza nagusiak.

Jardunaldietarako gaiak, txosten bidez irakurtzeko: a) Hizkuntza bakoitzaren egungo egoera (Erakunde bakoitzaren ordezkariak irakurtzeko); b) Egungo politiko estatusetan hizkuntza bakoitzari ematen zaion tratamenduaren adierazpena (1-Estatuaren mailan, 2-Autonomiaren mailan, 3-Diputazioen mailan); c) Espainiako hizkuntza naturaletan proposamen elkartuak estudiatu erakundeen aldetik; d) Erakundeok elkarren arteko harreman iraunkorrak nola eramanaren proposamenak.

Dena dela, asmoetako programa hau Jardunaldiak hasi baino lehen lau erakundeetako ordezkariak elkarturik aztertuko dute, aintzin asmoak zehaztuz projektu bateratua lortzeko.

P. LAFITTE eta J. HARITSCHELHAR EUSKAL HERRIKO ADISKIDEEN ERRET ELKARTEAN OHOREZKO BAZKIDE IZENDATUAK

1983ko Ekainaren 25ean Euskal Herriko Adiskideen Erret Elkartekoek urteroko batzar nagusia izan zuten Azkoitiko Insausti jauregian eta han bertan Piarres Lafitte eta Jean Haritschelhar euskaltzain jaunak ohorezko bazkide izendatu zituzten.

Egun hortan elkartekide hilen arimen alderako meza batez hasi ziren ospakuntzak, eta eguerdiko hamabietan hasi zen akademi batzarra. Lehenik Juan Inazio Uria Gipuzkoako zuzendariaren hitzez ideki zen, "Real Sociedad Bascongada eta euskara" gaiaz. Ondorean Juan San Martin bazkidea bere euskaltzainkide Jean Haritschelhar aurkeztuaz eta honek era berean Piarres Lafitte. Bukaeran Adrian Zelaia zuzendaria mintzatu zen bazkide berriei ongietorria emanez, eta azkenik, Pedro Migel Etxenike, Hezkuntza Kontseilaria.

Ondotik egin ziren batzar nagusia, urteko Memoriaren irakurketa, kargudun berriak hautatzea, eta bazkaria. Arratsaldez "Edeta" musikari seikoteak Wagner, Dale Miller, Schubert, Iruarrizaga eta Zapirainen obrak jo zituzten, Xabier Bello Portu jauna aurkezle zela.

Jean Haritschelhar, J. San Martinek aurkeztua

Adiskide: Euskaltzain sarrerako hitzaldian nere aitaponteko egin zinuen. Nork esango zuen urteak igaroaz zure aitaponteko egingo nuenik? Baina hara hemen, Joanes batetik beste Joanesera, mila urte igaro gabe, ura bere bidetik.

Nik, Axularren esanari jaramonik egin gabe nere betebeharrok gerorako utzi baldin banituen, oraingoan besteak izan dira zure izendapena gerorako utziz, aspaldi irabazia zenuen ohorezko lagun izatearena. Baina, orain, egun, geroko gerorako utzi gabe hartzen zaitugu bazkidetzan eta ohore guziekin hartu ere Azkoitiko "zalduntxoen" buruzagia bera sortu zen Insausti jauregi honetan. Zer ohore handiagorik Euskal Herriko Adiskideen Erret Elkarteak hemen lagunkide hartzea baino? Gainera, bestalde, pozgarri zaigu herri baten izate naturalaren kontra noizbait eraiki zen muga gure anaitasunaren alde austera datorrenez, zeren gogoentzat ez baita mugarik.

Gaur egun ordea, denbora bizkor dabil eta aurkezpen honetan labur aritu beharra dut. Laburregi, zuk bezalako kultur lana burutu duen batentzat, baina egun denborak hala dira.

Ez nauzu laudorio zale, zuk hori ondo dakizu, hemengo entzuleok dakiten bezala. Laburki bederen, bizpahiru hitz baizik ez ditut eskainiko zure emankortasunez.

Ez dakit gizonengan merituak lanen zabalkundez, sakontasunez, ekintza ugariz ala bereziz hobeto neurtzen diren, baina zuk gure kulturaren alde eman duzuna begien bistan dago. Herri baten ezagupenerako oinarrizko izan behar duten lanetan aritu zera eta, ah!, zelako lanak burutu ahal izan dituzunak. Une gogoangarri honetan zure ekintzetarik berezienak bakarrik aipatu nahi nituzke. Baina ez esan gabe zure lanik tipienetan ere ez dela erdizkakorik, tinko eta sakon pentsatuak baizik.

Kultur ekintzetan trebatu den gizon batentzat oso nekeza da politika ekintzetan aritzea. Kultur gizonek etorkizunera ere begiratzen dute eta politikoek egunean egungoari soil soilik. Baina, zu horretan ere behar den oreka gordetzen jakin zuen gizona izan zara, bestalde plaza-gizon agertu zinen eta zure sorterriko auzapezgoa (alkatetza) anitz urtez bete zenuen eta zu izan zinen Frantziako Euskal Herrian Auzapezen Biltzarra sortzea bultzatu zuenetariko bat. Eta, kargua utzi zenuenean, segur naiz herriak ez zekiela zer galtzen zuen. Guk ordea ondo dakigu zure gizontasunez. Horretan ziur gaude, beti gizonki jokatu duzunez. Ez zaitugu alperrik aspaldiko urte hauetan Euskaltzaindiko buruordezko eta bereziki batzarretako moderatzaile, eta erakundearen barnean gabiltzanok bakarrik dakigu zure kontseiluak zein baliagarriak izan ditugun egiturazko euskarrietan.

Baionako Euskal Museoaren zuzendaritza daramazu, ondasun gordetzaile eta kultur ekintzetara idekirik zintzo, eta bestetik Bordeleko Unibertsitatean erakasle.

Guziok eskuetan hain beharrezko genuen Philippe Veyrin-en *Les Basques* liburuak 1947tik zenbait argitalpen ezagutu zituen, baina zuk eman zenion osagarrizko hobekuntza eta egunera jartzeko beharrezko zuena, 1975. urtean berriz argitaratzean. Baina, liburu horrek Frantziako Euskal Herria soilik hartzen zuen eta, zure iduriz, lan sakonago baten premia genuen Euskal Herriaren historia eta kultura liburu batean behar bezalako jaso ahal izateko. Horregatik, hamalau lagun bildu zenituen zurekin, hamalau pertsona bakoitza gai bati espezializatua eta behar zen egiturari plangintza markatu ondorean jaso dugu zure buruzagitza horren frutu umeldua. Hil honen 15an aurkeztua izan zen lan hori: *Etre basque* liburu gotorra euskaldunen nortasunez munduan jakin dezaten zer garen eta gure ondoko belaunaldiak arbasoengandiko kultura hobeto ezagutu dezaten.

Ez da guti zuk, zein euskaraz zein erdaraz, euskal kulturaz idatzia, baina asko idazteaz baino gehiago arduratu zera interesgarrienak burutzen; premiazko hutsuneak betetzea hartu bai zenuen helburu. Horretarakotz, doktor gradua lortu zenuen auskal poeta hunkigarri baten bizitza eta lanak ikertuz. Hori dugu zure frutu emankorretan obrarik nagusienetakoa: *Le poéte souletin Pierre Topet-Etchahun* (1969) eta *L'œuvre poètique de Pierre Topet-Etchahun* (1969-1970). Orduan hartu zenituen goi mailak, ondorenez zure maisutzapean suspertu zenuen Bordeleko euskal katedra, Euskal Herriko seme askorentzat beren hizkuntza eta kulturaren jakintzaz bide berriak urratuz. Bai, eta horri esker, zuhaitzetik ondo berriak sortu dira eta beren fruituetarik zerbait ikusi dugu Piarres Lafitte jaunaren omenezko *Iker - 2* liburuan eta horregatik zion maisu zaharrak: "Gora gazteak!". Horregatik, oso gaitza da zuregandiko emaitza neurtzea. Baina bai esan genezake, lasai esan ere, Euskal Herriak Ilustrazioko azkoitiar "zalduntxo" haiek hartu zuten iker mailaren gradua berriz lortzeko hori dugula biderik ziurrena eta egokiena. Beraz, ohore zuri eta zu egun laguntzat hartzen zaituen Elkarteari.

Piarres Lafitte, J. Haritschelharrek aurkeztua

Haritschelharrek eskerrak emanez agurtu zituen han elkarturik agertzen ziren agintari eta bazkideak. Goraipatu zuen Elkartearen sortzaile ziren Peñaflorida kondea eta bere laguntzaile haien lana, eta bat bateko hitzaldiz agertu zuen Lafitte jaunaren pertsonalitatea, jakituria eta langiletasuna.

Lehenago Lafitte kalonje jaunaren omenez erabili zituen hitzak errepikatu zituen, **Euskera** agerkarian argitaratu zirenak. Ikus XXIII. zenbakiko 189-193 orrialdeak (1978) eta XXVIII. zenbakiko 375-379 (1983).

Ohorearen merezimenduz galdetzen zuen berriz ere: "izan dea sekulan, gure Euskal Herri maitean, zuk bezenbat egin duenik euskararen alde?... egin dituzun lanen tituluek hiruzpalau orrialde betetzen dituzte Jon Bilbaok agertarazi duen bibliografian."

Oroitarazi zituen Lhanderen hiztegia burutzeko egin zuen lan handia, zeren nork daki hiztegi horretan frango guti ari izan zela aita Lhande eta anitz egin zutela Aranart eta Lafittek. Ondorean frantses euskara deitu hiztegi bat A. Tournier-en laguntzaz. Ezin ahantzi *Grammaire basque*, non jorratzen dituen lapurtar baxenabar euskalkien gramatikak, ikasle, erakasle eta idazleentzat hain beharrezko dena.

Hiztegi eta gramatika egilez aparte literatura ere landu du, autore zaharrak berriz biziaraziz gainera. Hala eman ditu Adema eta Barbier, Lacombe eta Landerretxe, Aita Blaise Babaki, Julien Heguy apeza, Gasteluzar, Ohienart bere "Art poetique" delakoarekin, Manex Etxamendi, Etxepare, Hiriart-Urruty, Dibarrart, Saint Pierre, Oxobi, Salvat Monho, Lassalle, Arotzarena eta abarren berriak. Bestalde, gure ondasunezko kanta zaharren hedakunde lana *Kantuz, Errepikan* edo *Kantu, Kanta Kantore* liburuekin Euskal Herriko etxe guzietan sartuz, *Herria* asterokoaren sortzaile eta anitz urtez zuzendari izana.

Duela denbora guti P. Lafitte jaunari egin zaion omenaldiak erakutsi duela Euskal Herriko eta atzerriko euskalari jakitunen oihartzuna, *Iker - 2* osatzen duen liburuaren bidez: "Euskaltzaindiaren deiari erantzun diotenak 59 dira. Eta beharbada gehiago izanen ziren ez baginu epe labur bat ezarri. Orotarat 60 artikulu eta 923 orrialdeko liburu gotor bat. Bazena zuretzat eskaintza hoberik? Ez dut uste. Eta berriz oixtian aipatuari noa. Makila bat edo beste eskaintza bat egiten zaiolarik norbaiti, eskaintzen zaio ofiziale batek eginikako lana –amodiozko lana dudarik gabe– bainan dirutan erosia".

"Liburu hunekin aldiz, idazle bakotxak (eta errepikatzen dut 59 direla) eskaintzen dautzu bere buruzko lana, egiten dituen ikerketen fruitua, oren luzeak eta asko buru hauste pasatu dituela artikulu mamitsu baten lantzeko."

Oroitarazten berriz ere eskaini zitzaion *Iker - 2* omenezko liburua, honela adieraziz: "Erran dudan bezala zure omenaldirako liburuak 923 orrialde dauzka, erakusten baitauzku zertan diren ez bakarrik Euskal Herrian bainan mundu guzian euskal ikerketak."

Oroitaraziko du baita ere Piarres Lafitte jauna ezagutu zuen eguneko gertakari hura, **Euskera**-ren bigarren aldiko XXIII. tomoaren (1978) 193. orrialdean kontatu zuena, Erret Elkarte honek ikus zezan zer nolako gizonari egiten zion ohorea. Bukaeran honako hau aitortuz: "Zor dautzut, jauna, dudan euskararen amodioa, hitz batez zor dautzut ene euskaltasuna. Hortakotz bihotzaren zolatik: Milesker jauna!"

HILBERRIAK

AINGERU IRIGARAY (1898-1983)

Euskal Herriak langile sutsu eta euskaltzale ezagunenetako bat galdu berri du. Aingeru Irigaray itzali zaigu 1983.eko azaroaren 28an. Galera Nafarroarentzat da, batez ere, nabarmen. Jaiotzaz eta izatez ezik, sentipenez eta maiteminez naparra bait zen Aingeruren bihotza. Bere kezka eta lan guziek Naparrora zuten beti ixurkia, Euskal Herri osora irekiak baziren ere bere belarriak.

Euskaltzaindiaren batzar honetan bere aipamena agiterakoan ez naiz zenduaren lan guzien zerrenda egiten hasiko. Idaz-lumaren zilborretik euskararen egoera aztertzen eta bere osasunaren gora-beherak salatzen bizi osoa erre zuen gizonaren lanak, merezi du bilduma on bat. Nere txostena laburra da eta Irigaray-ren nortasunaren beste zenbait agerpen egin nahi nuke.

Beran jaio zen Aingeru, 1898.eko martxoaren lehenean. Egurretik zetorkion ezpalari euskaltzaletasunaren indarra. Hain zuzen ere, oso aipatua izan zen mende honen lehen erdi aldian, Pablo Fermin Irigaray Goizueta (1869-1949), sendagilea, Iruñeko eritegietan. Ez zen apalagoa, bestalde, honen euskararenganako amodioa eta "Larreko" izenordearekin idatzi ohi zuen euskaraz. Aita honengandik jaso zuen Aingeruk euskaltzaletasunaren zuzia eta pizturik iraunarazi dio azken ordura arte. Aingeruk bilduko zituen gero haren lanak eta argitaratu (1).

Sendagintzari ekin zion semeak ere. Barzelona, Paris eta Alemanian egin zituen honek medikuntza ikasketak. Aleman eta frantsesa jakiteak bultzatu zuen zenbait itzulpen egitera (2).

Baina idazlan guzien gainetik genuen euskaltzale. Seme alabei euskara erakutsi zien une oso larrietan, eta zintzotasun honek eraso eta oztopo larriak sortu zizkion. Iruñean zuelarik bere ogibide eta bizitoki atsegin, jauntxo zitalen bekaizkeriak azpijorra eginik, Donostiara joan behar izan zuen, eta hiri bion arteko sokamuturraren dantzan iragan zuen, geroztik, bere bizia.

---

(1) *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca.* XX.mendeko Nafarroako euskal idazlariak. Institución Príncipe de Viana (Pamplona, 1958) Manezaundi zenaren lanekin batera argitaratua.

(2) Frantsesetik itzuliak: F. Michel. *Poesías Populares de los vascos.* (Auñamendi, 1962) Alemanetik: Schuchardt. *Primitiae Linguae Vasconum.* (1927)

Euskararen zabalkundea

Euskaltzaindiak 1929an izendatu zuen urgazle, eta 1941ean euskaltzain oso. Urte txarrak ziren gerra ondoko haiek euskaltzaleentzat. Nafarroan bazen talde bat asko mugitzen hasi zena, eta buru-belarri sartu zen Aingeru. Lehen aldiz ikusi nuen egunean EGAN aldizkariaren zenbaki bat eman zidan eskura. Handik denbora batera, elkarrekin gertatu ginen haur euskaldunen sari banaketako lanetan. Herriz-herri joaten ginen Diputazioaren izenean opari txiki batzu banatzen. Bere kezka nagusia herri bakoitzeko euskararen egoera aztertzea zela, esango nuke. Zenbait herritako agintari eta maisuen ergelkeriek haserre bizian jartzen zuten, eta esaldi bizi batzurekin gaitzesten zituen berak. Behin baino gehiagotan guardia zibilak gure zai aurkitzen genituen herri sarreran. Lan ona izan zen hura euskarari buruz sarturik zegoen belduRra kentzen joateko. Haurren bidez lasaitu ziren guraso asko. 1956.etik aurrera, hamar bat urtez burutu genuen ekintza hau.

Euskal aldizkari baten beharra bazela ikusi zen gero, eta *Principe de Viana* euskalduna bidaltzen genuen Nafarroako zazpi mila sukaldetara. Han genuen bilera guzitan Aingeru eta gutxitan huts egiten zuen Apat-Echebarneren izkribuak. Oso giro ona zegoen lankide guzion artean. Gogo biziz itxaroten genuen hilabetero geure ametsen umetxo apala.

Aingeru Irigaray (1898-1983)

Diario de Navarra-k argitaratzen zuen euskal orria izan da Aingeruren bihotzeko beste kutuna. Garai batez, multzo batek bultzatzen genuen, baina azken urteetan ia bakarrik ari zen nolabaiteko jarraipena ematen. Eta Apat-Echebarne adiskidearekin joan da hilobira egunkari horren euskal orria.

Euskal festa eta bestsolarien txapelketa guzitan agertzen zen aholkulari, bultzale, ohoragarri eta epaile. Oso ezaguna zen eta ez zen herririk, "Larreko" zenaren aipamen batzu gabe itzuliko ginenik. Asko egin zuen orduan, ordu eta egun asko galdu zuen Nafarroako bideetan; zor haundia dio inun jaso ez den ekintza horretan, gure herriak.

Euskaltzaindiaren Jagon Sailari dagokion eginkizuna aipatu nahi nuen Aingeruren ikerlanen aurretik, ez bait zaio inoiz behar den garrantzirik eman. Guk sartzerik ez genuen ateak jotzen zituen berak, adinaz eta nortasunez itzala bait zuen agintarien aurrean. Eta asmoan zuena esan egiten zien. Nik uste beldur ziotela, batzutan, agintariek.

Idazlea

Oso ugaria da azken berrogeita hamar urte hauetan egunkari eta aldizkarietan Apat-Echebarne izena daramaten idazlanen kopurua. Gaiak, orotarikoak. *Irular* ere erabili izan zuen izen-orde. Hainbeste izkriburen aurrean sailkapen xume bat egitea deritzat egokiena. Horrela oihan estuan galdurik ibiltzeko plazan, bere helburuen ildo nagusiak azpimarra ditzakegu.

1. *Euskararen mugak.* Historian zehar Nafarroan euskarak egin duen atzerakada jakiteko, Aingeruren lanak behar beharrezkoak dira. Izkribu zahar eta agureen esamesek argibiderik eman zioten bere ibilaldietan. Sozio-linguistika lanetan, 1933.eko bere lehenengo berriak eta hiru urte geroago RIEV-en argitaratuak hartzen dira oinarritzat (3). Denen bilduma liburu batean egin zuen, gero (4).

2. *Eskuizkribu eta idazle zaharren berriak.* Zenbat ohar jakingarri ez zuen eman bere zirriborro eta idazlanetan. Iragan denboretako gau beltzaren sabeletik atera ohi zituen euskal gaiak. Ehiztari argiaren senarekin, bazekien erbia jaso ondoren ixilian urratsen jarraitzen. Lehen berria emateak bere merezimendua hor duelarik, bazekien gero zabalkundea egiten ere. Horrela ikerleek erraz baliatzen dituzte aurkipen horiek. Denen bilduma beste liburu batean utzi zigun (5).

3. *Paper zaharretan,* bestalde, laikoen aurkipenetan ezarriak zituen begiak. Eliza gaiak ugari ditugunez, karrikako gauzek betetzen zioten bihotza. Eta bazuen gauza politik eskuartean: 1773.eko udal-agiria Ezkabarten jasoa, edo Erronkariko Eguberri kantak, nahiz erlijio kutsukoak izan azken hauek.

Euskal Herriko aldizkari gehienetan sakabanatuak ditu Aingeru Irigaray zenak bere idazlanak. Erdaraz eta euskaraz eman ohi zituen, batzutan, bere egunkarietako

(3) Ikus: *Euskararen adiskideak* izeneko elkargoaren 1933.eko memoria.
(4) A. Irigaray. *Geografía lingüística de Navarra.* RIEV, 1935, pág. 601-623.
(5) A. Apat-Echebarne. *Noticias y viejos textos de la "Lingua Navarrorum".* Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. (San Sebastián, 1971)

lanak. Erdara hutsean ere egin izan zituen. Euskara ez zakitenei gure gauzenganako zaletasuna piztuarazi nahi zien bide batez.

Ez da inorentzat segeretu, azken urte hauetan gure artean diferentziak izan ditugula esatea. Aingeru ere ukitu dute aldaketa sakon baten zipriztinek, eta gero eta bakartiago ikusten genuen. Eritasunaren zapaldia zuen, alde batetik, eta euskararen bide berriek sortzen zioten kezka bestetik. Garbi esateko, ez zuen ongi ikusten euskara batuaren jokabidea. Gehiago esango nuke; oso kaltegarria zeritzon gure hizkuntzaren etorkizunerako. Erdiko bide baten bila zebilen bera, euskara herritarrago baten atzetik. Borondate onez, noski, eta euskarari zion amodioagatik nahigabetzen zen eta utzi zuen alde batera Euskaltzaindiko lotura.

Puntu hau aztertzerakoan, adina kontuan eduki behar da. Ez da bere kezka bakarrik izan. Gerra aurreko euskaltzalea zen eta oso giro berezian egin izan zuen bere lana. Hizkuntza bera nekazaritza aroko hizkuntza genuen eta giro berriari buru emateko egin beharra ikusten zen aldaketa mingarria eta arrisku haundikoa ikusten zen. Euskara batuaren aldeko agertzen zen Aingeru Irigaray, baina herriaren eskutik, inolako etendurarik gabe. Ikastolen eskariak, Irrati eta Euskal Telebistaren hizkuntza batuaren behar gorria, bigarren bidetik ere aurrera atera zitezkeela, zioen berak.

Aburuak aburu, elkarren arteko gora behera hauek bere neurrian hartu behar dira. Euskaltzaindiak euskara batuari buruz hartu duen jokabidea ona izen den ala ez, denborak esango du. Eztabaidetan denborarik galdu gabe urratsa emateak mesede ezin ukatua izan du, irrati eta telebista ekintzetarako hizkuntza ofizial bat sortu bait du. Hutsak, bestalde, zuzentzen ahal diren gauzak dira. Bitartean, ekintza honek sortutako tirabira eta mikaztasun guziak euskararenganako amodioak sortu dituela, ulertu behar genuke.

Euskaltzaindiaren izenean, bere bizi guzia euskararen alde lanean eta borrokan igaro duen Aingeru Irigaray jaunari, esker oneko agurra.

Jose M. Satrustegi

ANICETO ZUGASTI IRIONDO (1904-1983)

Iragan Irailaren 4ean hil zen Donostian Aniceto Zugasti ohorezko kalonjea eta Euskaltzaindiko urgazlea. Sortzez Gipuzkoako Altzan jaioa zen 1904. urteko Apirilaren 17an.

Andoain eta Gasteizen egin zituen apezetarako ikasketak, hogeitahiru urte bete orduko burutuak. Apaiz egin orduko bere gogoa euskarari emana zen eta *Euskal Esnalea* zeritzan aldizkarian argitaratu zuen "Bareak" (1926) zeritzan ipuina. Garai hartan hasi zen olerkari mugimendu berria loratzen eta ekintza haren eraginez kezkaturik idatzi zuen "Mendi-mendian" (1932) izenburuz ezagutzen den olerkia, arestian aipatutako aldizkari berean. Horrez gainera, gerra aurreko aldi hartan, *Argia*-ren zuzendari ordea izan zen.



Aniceto Zugasti Iriondo (1904-1983)

Bere apaiztzako lehen aldian Arabako Lanziegon egondua zen koajutore eta organo-jole. Handik Gipuzkoara itzuli zen, Pasaiako San Pedrora lehenik eta Plaentzi-Soraluzera gero Agustinetara. Bietan kaperau edo omonier. Azken urteok ordea Donostian igaro ditu. 1952an katedraleko benefiziario eta 1980tik ohorezko kalonje.

Euskal Esnaleaz aparte *Argia, Aránzazu, Egan, Zeruko Argia* eta beste zenbait aldizkaritan argitaratu zituen euskarazko lanak. Baina bere lanetarik berezienak honako liburu hauek zituen: *Maiatze'ko Loreak* (Zarautz, 1950); *Jesus'en Biotzaren illa* (Zarautz, 1951); *Argi-bidea* (Zarautz, 1951); *Argi-bide txikia* (Zarautz, 1957); *Bederatziurrenak* (Pasaia, 1951); *Esotzi'ko Andre Mariari* (Zarautz, 1952); *Amabirjiña Miraritsuari* (Donostia, 1962); *Salmudia,* J. Kerexetarekin elkarlanean (Donostia, 1968); *Itun berria,* N. Ormaetxea "Orixe" eta J. Kerexetarekin elkarlanean (Donostia, 1967). Horietako zenbaitzuk birargitalpenak ere ezagutu dituzte.

Gipuzkoako Apezpikutegian Liturgia itzultzaile batzordekoa zen eta erlijio alorrean beste lan anitz eginak zituen.

Bere idazkeraz oso giputza zen eta inoiz ez zion amore eman euskara batuari. Batez ere H letrak izutzen zuen gizona, eta euskara idatziaren batasuna aipatzeaz sutzen zen. Baina, horregatik ez uste izan errenegatik esan ohi den jenio txar horietakoa zenik. Haserretik laster baretzen zen lanari oratzeko. Gainera, hizkirimiriak eta lagunarteko solasa maite zituen, eta bazkalondoetan mahain inguruan umorea franko zabaltzen zuen. Horretarako, abots oneko kantu-zalea bai zen eta bazekien bazterrak alaitzen. Kantak ere ez zituen hautatzen nolanahikoak. Adibidez, gogoko zuen Bilintxen Potajiarena: "Egunaren izena / ez dakit nola zan / ..." hasten zuenean, irriz eta indartsu agertuko zituen apez jatun hura aipatzen diren pasarteak, ingurukoei adarra joaz.

Anizeto Zugasti zenagandik oroigarri zaigu apez zintzo eta euskaltzale kartsua, otordu alaiak eskaitzen zekiana bera baino anitz gehiago hain isilik hainbeste lan burutu zituen euskal idazle zena. G. B.

J. S. M.

Juan GOIKOETXEAren hilberria (1913-1983)

Abuztuaren 5eko goizeko zortzietan Aita Juan Goikoetxea hil zitzaigunean, euskal idazle txairo eta garden soila baino gehiago galdu genuen euskalzaleok: hots, 20garren mendeko euskal literaturaren Urrezko Aroa ohi deritzagun hura sorrerazi eta osatu zuten zenbait lagunen –batez ere gaztetan urte gehixeago edo gutxixeago jesuita izanen– lekuko ezohizkoa eta are ezagule askojakina. Bertatik bertara ezagutu zituen, izan ere, etxe berean elkarrekin biziz, batetik Aita Estefania eta Zaitegi; beste batzuekin inoiz batera bizi ez bazen ere, asko zekien, bestetik, Orixez, Lauaxetaz eta Ibinagabeitiaz, bera baino zaharrago ziren hauen kidekoekin, Orixerenekin batez ere, batera bizi eta beroiekin maiz mintzatua bait zen. Idazle horien berri azken urteotan jakin nahi izan duen askotxok –neronek aurrena– jo du aspaldi honetan

Juan Goikoetxea Maiza (1913-1983)

Aita Goikoetxearengana albiste eske eta argibide bila. Galdetu bestela Velez de Mendizabal, Intxausti, Barandiaran eta gehiagori. Artxibo biziaren antzeko zen, izan ere, oroimen harrigarriz hornitua, eta mila pasadizu eta gertari eta lekukotasun zituen gogoan: halakok esana, halakori gertatua, halakogandik entzuna.

Loiolan 1930eko abuztuaren azken egunean jesuita sartu zenean, bere bizitzaren ordu arteko hamazazpi urteen berri hitz hauen bidez eman zuen orrialde batean: "Joantxo Goicoechea Maiza. Nací el 8 de Mayo de 1913 en Cerain, Guipúzcoa. Mis padres: José Ignacio y María, superstitibus. Estudios: In Xaberiana apostolica schola latinae linguae per 4 annos studui necnon aliquibus materiis baccalaureati operam dedi". Latina piska bat dakiena aise ohartzen da, horko *superstitibus* delako hori gorabehera, buruz ongi jantzia zetorrela gure Zeraingo mutil gaztea Xabierko ikastetxetik Loiolara, nobiziaduari ekitera. Ez zioten ordea Madrilgo agintariek nobiziadu bi urteak Loiolan burutzen utzi, bada 1932ko Urtarrilaren azkenaldean hemengo jesuita guztiak herbestera jaurti zituzten; hauek Belgikara bildu eta hango Tournai deritzan herrixkan amaitu zuen nobiziadua, ondoren Humanitate-Erretorikak bi urtez eta Zientziak beste batez ikasten zituelarik.

Humanitate-Erretorikak ikasten hastean izan zuen euskal letrekin lehen ukitua, eta hori lehen aipatu dudan Aita Estefania, Joantxoren Literatur irakaslearen, bidez. Orixeren urte berean, 1907an, Loiolan nobizio sartua zen Aita Estefania bilbotarra, Orixe jesuita izan zen hamasei urteetan honen adiskide min-mina eta Orixe Lagunditik atereaz gero honen euskal lanetan gidari, bultzagile eta kritikalaria izana. Hamabi urtetan zehar Erretoriko gazte euskaldunen Literatur irakasle izanik haiengan izan zuen eragin bortitza eta txertatu zien euskal letren zaletasuna aztertzeke dago oraino. Gogora dezagun soil-soilik Lauaxeta, Zaitegi, Ibinagabeitia, ezagunenak baizik ez aipatzearren, haren ikasle izan zirela, haren eskutik izkutuan hartu zituztela inoiz irakurri zituzten lehen euskal liburuak eta are harengandik edoski zutela gehienek euskaltzaletasuna eta ... zerbait gehiago. Zerbait gehiago hori garbiro nabarmentzen omen bait zitzaion Aita Estefaniari, haren kidekoek aitortu digutenez, nahiz eta ikasle gazteen aurrean beste sentimendu hori ezinbestean izkutatzen saiatu behar izan. Ikaskuntzen garai horretako irakasle-ikasleen arteko harremanen ezaugarri nabaria dugu Aita Goikoetxeak idatzirik utzi dizkigun honako hitz hauek: "1933an hasi nintzen (euskaraz) idazten. Estefania irakasleak Bilboko hizparringi-mozkin bat eman zidan itzultzeko: "El hundimiento del barco Peñacastillo". Analfabetoa bait nintzen euskaraz, oso itzulpen eskasa egin nuen eta Donostiako "Gure Mutillak"-en ez zuten ontzat eman".

Horra, beraz, Aita Goikoetxearen euskal letretango hastapenak eta lehen urratsak Aita Estefaniaren eskutik eginak. Lan gaitzetsi hura eskarmentu eta akuilu izan zuen eta hezur-muinetan betiko kokatua gelditu zitzaion arra. Honela diosku berak ondoren: "Orduan euskara ikasten hasi nintzen, euskal gramatika alegia, eta aldi berean euskal literatura irakurri eta ipuin eta artikuluak idazten. Orduan idatzitako lanak urratu egin nituen geroago". Garai beltzak ziren haiek, ordea, eta Espainako gertarien zipriztinak Belgikaraino iritxi ziren, batez ere jesuiten etxeetako barne giro-ra, Euskalerriko politikaren porrotak jesuita euskaldunei, zahar eta gazteei, ondorio latz-goibelak senti eta pairarazitzen zizkielarik. Aita Estefania, beste apaiz jesuita euskaldun asko bezalaxe, ene osaba bat haien artean, Ameriketara igorri zuten eta erretoriko gazteei azken hamabost urteetan etengabe eduki zuten Euskal Akademia itxi eta kendu. Bat baino gehiago izan ziren, halere, izkutuan eta bere kabuz euskara ikasten jarraituak. Honela kontatzen digu Joantxok pasadizu hori: "Gutxi iraun zuen

ikasketa-lan honek; gudua piztu eta berehala debekatu egin bait ziguten euskara. Gotzon Goenaga eta biok ez genuen etsi, hala ere, eta eskola batean biltzen ginen izkutuan, geure irakurraldiak egin eta idaz saioak elkarri irakurtzeko. Ez genuen ezer argitaratu; ezin zen ere eta, aldizkari-errebistak itzaliak izan bait ziren".

Tournai-tik Marneffe-ra aldatu zen 1935ean Filosofia hiru urtez ikastera eta handik 1938an El Salvador-ko Santa Tekla zeritzan Apeztegi Txikira, beste hiru urtez "Maisualdia" deitzen zitzaion lehen irakas-probak egitera. Bidean harrapatu zuen gaitz larriak bizitza osorako utzi zuen erkin eta mintxo. El-Salvador-ko egonaldi honetan lagun izan zituen, nahiz etxe desberdinetan, Aita Estefania eta Zaitegi; azken hau urte batez bai eta etxe berean bizikide ere. Garai hartako Zaitegiz Goikoetxeak zekizkienak idatziak daude gaur baino lehen eta ez ditut hemen errepikatuko. Hona zer kontatzen digun Joantxok berak hiru urte haiezaz; "Neure Amerikaldian (1938-1941) neure txolarte eskasetan jo eta ke jardun nuen irakurri eta idatzi. Aita Jose Antonio Laskibarren urrezko ezteietan idazlan bat irakurri nion bazkalarteko akademian. Amerikaldi beronetan umetandik gogoan nituen ipuin eta esaerak bildu nituen, ingurrazti-kuaderno bat beterik. Euskadiratzean, aduanalarien beldurrez ezabatu-deuseztu egin nuen bilduma hori zoritxarrez. Estefaniak, liburu asko baitzuen, irakurtzeko ematen zizkidan". Joantxok maiz aipatu ohi zuen Aita Estefaniaren garai hartako esana da honako hau: "Nere liburutegiko zenbait paper eta txosten gabe ezingo da XXgarren mendeko Euskal Literaturaren historia idatzi". Hura hil eta gero sutara bota zituen etxekide zital batek haren paper guztiak. Hiru urte haiek latina eta gaztelera apezgai gaztetxoei irakasten eman zituen Joantxok batez ere.

Espainaratu gero eta Burgosko Oñan egin zituen lau urte Teologia ikasten, 1941etik 1945arte, azkenaurreko urtean apaizturik. Urte haietan euskal aldizkaririk ez omen zela eta ez zuela deus ere argitaratu diosku, baina "geroari begira prestatu egin ginen lanerako, euskereaz ahalik ongien jabetuaz". Beste urtebete, azkenik, Valenciako Gandian "hirugarren probantza" deritzana egiten eman eta burutuak zituen horrenbestez jesuiten hazibide-aldiko ikasketak eta probantzak; agintariek bizitza ageriko zein langintza eta zein lekutara bidaliko, aiduru eta erne zegoen. Loiola izan zuen lehen igorlekua 1946an eta hantxe ezagutu nuen nik Joantxo nobizio nintzelarik. Hamar urte segidan bizitu zen Loiolan; gero bi Veruelan; beste hamar gero Loiolan, bi Xabierren; beste lau Loiolan eta azken bederatziak nerekin batera eman ditu Donostian.

1946an Loiolara irixtean hasi zen Joantxo euskal lanetan ezaguna izaten: Azpeitiko gazteei euskal eskolak eman, *Luberri* zeritzan nekazal-errebista bertako albaitero jaunarekin elkar lanean sortu, Loiolako herri irrati berrirako beregisako lanak idatzi, besterenak euskaratu, guztienak orraztu eta jorratu, baina batez ere entzuterik handiena eman zion beste lan hau egin; hots, urtebete luzean larunbata gabeko programan ebanjelioaren azalpena hitz gozoz eta sarkorrez irakurri; *Jakin, Egan, Zeruko Argia*, Jesusen Bihotzaren *Deya* eta Euskaltzaindiaren **Euskera**-n artikuluak idatzi, etxe-barneko beste eginkizun ezin-utziek eta betiko minaldiek libre uzten zizkioten txolarteetan. Berak aitortzen digu: "Nere idazlan guztiak eta euskararekiko nere irrika tarte-lanak izan dira beti, txolarte-betegarriak, osasunak beretzat nahi zituen atsedenaldien betegarriak".

Itzulpen lanetan zen batez ere trebe eta iaioa, euskara bizi eta herrikoi eta gozoaren jabe eta maisua. Zenbait itzulpen inoiz argitara gabe gelditu dira; hala nola Daniel Restrepo kolonbiarraren "Memorias de una leprosa" eta Xabier de Maistreren "La jeune siberienne"; baita ikastoletako arduradunek eskaturik itzuli zuen "Gér-

menes", berak "Ernamuinak" izendatu zuena ere; baita mutiko-neskatoentzat euskaratua zuen Biblia koxkorra ere; baita urte askotako lanari esker bilduak zituen pertsonen milaka izengoiti eta ardien izenak ere. Beste asko argitaratuak ikusi zituen, hala nola Margo Ederdun Enziklopediaren 10. tomoa "Gizadi osoaren historia" deritzana, erabat agortua; "Seksu-ezibidea"; Heraklitoren idazlan guztiak, griegotik zuzenean euskaratuak, "Heraklito, izadiari buruz" deritzan sorta; Jesusen Lagundiko Santuen Meza-liburua; Loiola probintziako zenbait urtetako berri eta albisteak, eta abar. Eta azkenik bere biziko lan guztien artean maiteena zuen eta hil baino hilabete pare bat lehenago argitaratua ikusi zuen *Juan Bautista Gamiz Ruiz de Oteo, XVIII-garren mendeko arabar euskal-erdal olerkaria* liburua, Arabako Aldundiak eta Euskaltzaindiak argitara berria.

Gizon umil, maitagarri, gozo eta amultsua zen Joantxo, bizian ezagutu dudan gutxi bezalakoa. Gorputzez eta izpirituz, jazkeraz eta izaeraz fina eta apaina. Bare eta baketsua bera, eta inguruan ere bakea ereiten zuena. Arimaren gidari izan zutenek aho batez aitortu digutenez, begi zoli eta ernekoa, inoren barneko mugimendu eta izpirituen jaidurak ezagutu eta ikertzeko. Haren esaera batzuk dira honako hauek: "Inoiz ez dut nahi nuena egin ahal izan", edo "Zuloak betetzen iragan dut bizi osoa", edo "Biziki mingarri zait inori ezetz esatea", edo "Inor ohartzeke nahi dut mundutik joan".

Halaxe joan ere zen, zaratarik eta abarrotsik atera gabe, Euskaltzaindiaren laguntzaile eta euskal idazle txukun eta txairo zen gure Joantxo. Goian bego.

Patxi Altuna S. I.

AURKIBIDEA

EUSKAL LORA JOKOEN LEHEN MENDEURRENA

Xabier Altzibar: PEDRO JUAN CRUZ DE RENTERIAREN "CRISTINAUAC BIARRECO DABEN DOCTRINEA"Z 7
Carlos González Echegaray: CATALOGO DE LOS MANUSCRITOS DE BONAPARTE 23
Fr. Luis Villasante: MARKINA, BIZKAIERA LITERARIOAREN SEHASKEA 185
J. M.ª Vélez de Mendizábal: MARKINAKO LORE JOKOAK 193

JEAN ELISSALDE "ZERBITZARI" IDAZLEAREN MENDEURRENA

André Luberriaga: "ZERBITZARI"-REN OMENALDIA 197
Fr. Luis Villasante: JEAN ELISSALDE "ZERBITZARI"REN MENDEURRENA 201
Roger Idiart: "ZERBITZARI" JEAN ELISSALDEREN MENDEURRENA 203

GAI LABURRAK

Károly Morvay: DICCIONARIO DE LAS FORMAS DE VERBO AUXILIAR VASCO 211
Txomin Peillen: ZUBEROAKO EUSKALKIAREN, BASABURUKO MOTAZ, OHAR BATZU 249
P. Ignacio Omaechevarria: DE LA VIEJA FORTALEZA DE "OLITE" AL CERRO DE "OROQUIETA" 255

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

MAILEGUZKO HITZEI BURUZKO ADIERAZPENA 261
Fr. Luis Villasante: UZTARITZEKO ADIERAZPENEAN AGINTZEN DENA BETETZEAZ 263

MAILEGUZKO HITZAK I. HITZ HASIERAK 269
ARGITALPEN BATZORDEAREN ERREGELA BEREZIAK 271
HERRI-IZENEI BURUZKO DIKTAMENAK 275
EUSKALTZAINDIAREN BATZAR-AGIRIAK 279
José Antonio Arana Martija: NORBERT TAUER LIBURUTEGI ETA ARTXIBOAREN KATALOGOA 295

BATZAR TXOSTENAK

Literatura Saila

P. Lafitte: ALBERT LEON 231
Jose M.ª Satrustegi: NORBERT TAUER EUSKALTZAIN OHOREZKOAREN GUTUNAK 235
Juan San Martin: DON JUAN IBARGUTXI ABADE IDAZLEAREN OROITZAPENAK 339

Gramatika Saila

Beñat Oiharzabal: BA- BAIEZKOA AURREZKIA 351

BERRIAK

Jose M.ª Satrustegi: YALDEN MAXWEL JAUNAREKIN ELKARRIZKETA 375
Jose M.ª Etxebarria: EUSKAL ATLASA DELA ETA 377
Fr. L. Villasante: "OSSIAN SARIA" KOLDO MITXELENARI EMAN ZITZAIONEKOA 379
E. Knörr: KOLDO MITXELENA, BARCELONAKO UNIBERTSITATE AUTONOMOTIK DOCTOR HONORIS CAUSA 381
Fr. Luis Villasante: GERRA AURREKO **EUSKERA** BIR-ARGITARATUAK AURKEZTATZEAN 385
Juan San Martin: **EUSKERA** AGERKARIA BIRRARGITARATZEAZ ... 389
Fr. Luis Villasante: MAILEGUZKO HITZEI BURUZKO II. JARDUNALDIEN KRONIKATXOA 393
Jose M.ª Etxebarria: VIENAKO EUSKAL GRABAKETAK 395
Jose M.ª Etxebarria: DIALEKTOLOGIA BARNE JARDUNALDIAK 399
Juan San Martin: AKITANIAKO LIBURUGINTZAZ BILERAK PABEN. 401
Jose Luis Lizundia: 1984. URTERAKO EUSKALTZAINDIAREN BATZAR EGUTEGIA 403
Jose Antonio Arana Martija: MARKINAKO EUSKAL LORA JOKOAK ... 407

Juan San Martin: EUSKALTZAINDIA KULTUR MINISTROAK DEITUA 409
Juan San Martin: AKADEMIEN ARTEKO HARREMANAK 411
Juan San Martin: P. LAFITTE ETA J. HARITSCHELHAR EUSKAL HERRIKO ADISKIDEEN ERRET ELKARTEAN OHOREZKO BAZKIDE IZENDATUAK 413

HILBERRIAK

Jose M.ª Satrustegi: AINGERU IRIGARAY 419
Juan San Martin: ANICETO ZUGASTI IRIONDO..... 423
Patxi Altuna: JUAN GOIKOETXEA 425